

Aldaba joka

Hernani: ahozko historia txikia

(1931-1981)



Urko Apaolaza Avila

Aldaba joka

Hernani: ahozko historia txikia
(1931-1981)



URKO APAOLAZA AVILA

© Dobera Euskara Elkartea
Egilea: Urko Apaolaza Avila
Argazkiak: Dobera Euskara Elkartea
ISBN: 84 -607-9105-X
Lege gordailua: SS -1262/03
Fotokonposaketa eta inprimaketa: antza, s.a.l. • Lasarte-Oria

ATARIKOA

honako lan hau egiteko hamaika izerdi bota eta gero, azkenean Hernaniko historia aztertzen duen liburu xume hau izan da neke eta ahalegin horren fruitua. Herri baten historia txikia da hemen azaltzen dena, gerra aurreko errepublika urteetatik hasi eta trantsizio politikora arte.

Baina lan honek badauka berezitasunik, ahozko iturriak hartu baitira oinarritzat. Ahozko historiaren ekarpenak handiak dira, inoiz jaso ez den informazio baliotsu bat, altxor bat, herritar guztien memorian aurkitzen baita. Informazio hau are baliotsuagoa da historia txikiaz ari garenean, lekuan lekuko historia txikiaz, alegia. Baita eguneroko bizitzaren nondik norakoak azertu nahi direnean ere, edo euskaraz jasotako informazioa denean, euskararen erabilpena ez baita administrazio, agiritegi edo historiazko ikerlanetan, orain hamarkada gutxi arte zabaldu.

Ahokotasunak bere mugak ditu ordea, ezin baita inoiz historiaren atal-tzat hartu, baizik eta teknikatzat, beste jakingai askok erabili dezaketen teknika berezizat. Gainera, berriemailearen mugak ere kontutan hartu behar dira, urteen poderioz, garai batzuetan bizitakoa ez baita berdin ikusten gaur egun. Beraz, Hernaniri buruzko ikerlan hau ahozko iturrien ekarriarekin oinarritu badut ere, bibliografian, agiritegietan eta hemerotekan aurkitutako informazioaz osatu dut.

Historia lan baten aurrean egoteak ez du esan nahi kontzeptu zailez beteriko hizkera tekniko bat erabiliko dudanik, irakurlego zabal bati zuzenduriko lana baita, eta zentzu honetan, azalpenak ahalik eta errazenen ulertzeko hizkeran egin dira. Gainera, lana arinagoa izan dadin, berriemaileen ahoetatik jasotako pasarteak tartekatzen dira eta pasarte hauetan Her-

naniko hizkera erabiltzen da. Hala ere, batzuetan ezinezkoa egiten da datak, kontzeptuak edo testuinguru historikoa alboratzea.

Besterik gabe, lan hau egiten lagundu didaten pertsona guztiei eskerrak ematea soilik geratzen zait. Batetik, solasaldi luzeetan, pazientziaz, jakin nahi izan dudana azaltzen saiatu diren herritar guztiei, batez ere nire amona Mañoli Zigarani, nire jakin mina asetzeko egin dituen ahaleginengatik. Bestetik, lana zuzentasunez idazten lagundu didaten Doberako kide eta kolaboratzaile guztiei, baita Hernaniko Udal Artxiboko langileei ere. Eta azkenik, Hernaniko herria maitatzen eta gozatzen erakutsi zidan nire aita Joseba Apaolazari. Eskerrik asko, bihotz bihotzez.

S A R R E R A

“Zer pasatzen da Hernanin?” galdetu zuen Maria Kristinak, “Baztanga ekarri nahi dute!”, esan omen zioten Hernaniko udaletxetik “erregina zaharrari”. Lasarteko hipodromoan baztangarekin gaizkitu ziren gaixo batzuk Hernaniko Erruki Etxera ekarri nahi zituzten, baina hernaniarrek Erruki Etxea petrolioarekin busti zuten, su emateko prest; 1918garren_urtea zen eta herriko emakumeak guardia zibilen aurrean jarri ziren oldarkor, azkenean ez zen baztangadunik sartu. Honako gertakizun hau aski ezaguna da hernaniarren artean, baina beste gertakizun asko erdibidean gelditu dira, inork jaso ez dituelako. Hain zuzen, hori da lan honen helburuetako bat, noizbait gazteak izan ziren adineko horiek bizitaketik puska batzuk jasotzea, ahanzturan gera ez daitezen.

Hernanik 1900. urtean 3.672 biztanle zituen; herri txiki bat besterik ez zen, baina inguruko herrien aldamenean hazten zihoan herri txikia zen. Mende laurden bat lehenago II. Gerra Karlista bortizki pairatu zuen eta, jasandako bonbardaketen ondorioz, etxe gutxi batzuk besterik ez ziren zutik geratu. Euskal Herri osoan bezala, liberalen eta karlisten arteko eztabaidak eguneroko ogia ziren, baina eztabaidagai garrantzitsuenetako bat “lege zaharrak” ziren, foruak alegia. Foruen ezeztapenaren ondorio bat soldaduska egin beharra zen; 1898ko Kubako gerrara hamaika euskaldun deitu zituzten, baina makina batek alde ere egin zuen gerra zital hartan ez parte hartzeko. Jorge Villar-ek 103 urte ditu, bera jaio zenean Kubako Gerra jadanik bukatuta zegoen, baina hamar anai-arrebetatik gazteena zenez, gogoan du bere bi anaiak 1898an Kubara ez joateko nola emigratu behar izan zuten, “prófugo” gisa hartzen zituzten orduan horrelakoak: ...*Kubako*


*gerra zegoen ta gerrara ez joateagaitik alde egin zuten, anai bat Argentinara eta bestia Frantzira. Bi anai nituen ezagutzen ez nituenak, Enrique eta Pedro, Pedrok Frantzira alde egin zuen Kubako gerran ta bestiak Argentinara...*¹

Garai haietan, batez ere Bizkaia aldean, baina baita Euskal Herriko beste leku askotan ere, industrializazioak aurrerakada izugarria egin zuen; kanpotik etorritako jende andana handi batek Nerbioi ibaiko ezker aldeko herrietan bilatu zuen bere bizilekua, askotan gaizki eraikitako pabiloi zikin batzuetan bizi ziren, baldintza oso kaxkarretan. Egoera horrek, sozialismoaren sarrera ahalbidetu zuen eta langileen artean ideologia politiko hau nagusitu zen. 1894ko hauteskundeetan - gizonezkoentzako sufragio unibertsalez egiten ziren lehenak - Bilboko udaletxean lau zinegotzi sozialista aukeratu zituzten, euskal sozialismoaren lehen ordezkariak izango zirenak. Tiburtzio Agirreren iritziz, Hernanin “ezkerra” deitzen zitzaiona oso indartsu jarri zen, baina batez ere kanpoko jendea etorri zenean: *...Hernanin liberal asko zegoen, baserritarrak ere bai eh! Makina bat baserritar, eta kaletarrak ere asko; gero kanpoko jendia etorri zan eta UGT formatu zuten, “ezkerra” esaten geniona oso indartsu jarri zan...*² Kanpoko jendea erruz etorri zen mende hasieran Hernanira, fabrikak erruz sortu zirelako, paper industriak indar handia hartu zuen, batez ere Eziagon Sesé y Cía-ren “Solidaridad” fabrika edo “Biyak-Bat” paper pasta egiteko fabrika ipini zirenean; gainera, ordurako Remy-ren almidoi fabrika martxan zegoen, Royalta gailetagileak ere bertan zuen lantegia... Gipuzkoan, industria gehien zuen herrietako bat zen Hernani, baina lehenagotik ere industria tradizio sendo baten jabe zen, Urumea ibaian zehar, Erdi Arotik zetozen burdinola mordo batek hala erakusten digu. Horregatik, ez da harritzekoa, sozialismoa bizkor sartu izana herri honetan. Hala ere, baieztapen hau ez da zehatz-mehatz hartu behar, Gipuzkoan, sozialismoaren hedapena nahiko mantsoa izan baitzen, Bizkaiarekin konparatuz gero behintzat: 1897an Eibarren eta Donostian talde sozialista txiki batzuk zeuden; Hernanin berriz, paper fabriketako langileak izan ziren UGT-ra afiliatuko ziren lehenak, 1921ean³.

¹ 2002-JVE-01 elkarrizketa, erdialdean.

² 2002-TAZ-01(01) elkarrizketa, hasiera-erdialdean

³ BARRUSO, Pedro; *El Movimiento obrero en Guipúzcoa durante la II República*, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 1996, 135 or.



Udaletxea II. Karlistadan. Liberalek txikitu zuten Udaletxea Santiomenditik bonba botata.

Mende hasiera horretan, gipuzkoarren gehiengoak XIX. mendeko ideologiarekin jarraitzen zuen, batzuk liberalak ziren eta beste batzuk berriz karlismoarekin egiten zuten bat. Ideologia berriek ez zuten leku handirik, batez ere herri txikietan, baina esan bezala, herri handietan egoera beste modu batera bilakatu zen. Lekuko polita dugu Pedro Mari Otañok Hernaniri buruz idatzitako bertso hau:

*Euskaldunen oiturak
ta gure izkuntza
jakin nai ditubena
joan bedi aruntza;
nola Euskara dagon
iya umezurtza,
au sapai txarrekuak
nai diyote bultza...
Ernani, zu zerade
ezti onen eultza⁴*

⁴ *Bertsolariya* aldizkarian agertua, 1932an.

Otañok Hernaniko herria goraiatzten du hemen, denetan euskaldunena dela esanez; jakina da hori ez dela erabat egia, Hernanin egongo zen erdal-dunik ere, batez ere, Tiburtzio Agirrek dioen bezala *...ferrokarrila egin zanian jende kastellanua etorri zalako...* edo lehenago aipatu ditugun lan-tegietan lan egitera ere, kanpoko jende asko etorri zelako. Baina bertso honek ideologia berri baten sorrera adierazten digu, hain zuzen, euskara eta euskal ohituren defentsan, karlismo eta foruzaletasunaren magaletik jaiotako euskal nazionalismoaren lehen pausoak adierazten dizkigu Otañoren bertsoak, Sabino Aranak mende bukaeran sortu zuen ideologia berria.

Sozialismoaren antzera, nazionalismoa, lehenik Bizkaian sortu zen eta gero, XX. mende hasieran, Gipuzkoara hedatu zen; Josebe Goiak esatera, bere aita izan zen herrian nazionalismoa sartu zuenetako bat:

...harek beti esaten zuen liberala zala eta joan ziranian Artxandako funikularra egitera, bango 'guardavinuak', Mauricio Garaigordobil, harek esaten omen ziyon: "Hi ze haiz?" "Ni? Liberala", "Hazur baltza!" [mutur beltza] esaten ziyon [Mauriciok] eta harek ordun "ni ez nauk kastillanua!", Hazur beltza! Bueno, pazientziyakin adituko al dizkidak?" [Mauriciok Goiari], "Bueno bai" [Goiak], esplikatu zizkian gauza guz-tiak, española ez zala ta...; klaro, denak orduan españolak ziran eta etorri zan [Hernanira] eta: "Ez gera españolak!" andriari, "zer gera ba?", "euskaldunak!" (...) Hogeierako [1920] neri izen euskalduna jarri zidaten! Eta oraindikan Bor-bondarrak zauden agintzen!...⁵

1909ko irailaren 19a ez zen egun arrunta bat izan Hernanin, herriko plaza, jendez gainezka, meza nagusia, bertso txapelketa, ganadu feria eta beste makina bat gauza antolatu ziren egun horretarako, ez zen gutxiago-rako, urte horretan, Hernanin egin baitziren Antoine d'Abaddiek behin 1853an Urruñan hasi zituen Euskal Jaiak: *...Aurreneko premiyua atera zuen Hernaniko ayuntamentuak Euskal Festetako (...) arkuak ekarri zuten errezibitzeko, Diputaziyoko eta Gobiernuko jendia etorri zan eta (arkutik pasatzen ziran). Musikarekin eta danboliñarekin eta... festa polittak izan*

⁵ 2002-JGZ-01 elkarrizketa, erdialde-bukaeran

*ziran!*⁶ Bitartean, Hernanitik Donostiarako ibilbidea egiten zuen tranbiak bere lehen urratsak emanak zituen, Ezkiaga pasealekuan dagoen pilotalekuko ezker paretara erreboterako “kontrafuertia” omen zen eta umeak ...*gereixiyen bezurra*kin, *zulua egin eta (bertara bezurra) botatzera*... jolasten ziren.



*Euskal Jaiak
Hernanin,
1909ko
irailaren 19an.*

“Zer pasatzen da Hernanin?” galdetu omen zuen erreginak... Gauza asko pasa ziren Hernanin ordudanik aurrera: Errepublika etorri zen, dantzaldiak eta jaiak egin ziren, zineak ireki, autoak ugaltu; iraultzarik ez zen faltatu, gerra eta hilketak ere jasan ziren, gosea pasa zuenik egon zen, modernizazioa etorri zen, industriak jarri eta horrekin batera lantegiek Urumea kutsatu zuten; ideia berriak edo berrituak suspertu eta demokrazia lortzeko borroka hasi zen... Eta bien bitartean, noizbait gazte izandakoak zahartuz joan dira. Zahar horiek kontatutakoa, ahalik eta txukunen azaltzea da lan honen helburua, Hernanin gertatutako hainbat gauza belaunaldi berriei helarazteko.

⁶ 2002-JVE-01 elkarrizketa, erdialdean.



I

G E R R A A U R R E A

(1931-1936)

1.1.- II. Errepublika, giro politikoa eta gizarte gatazka

...Adarragan etxian obran ari ziran, eta ni joan nintzan merienda ematera nere anaiari [Patxiri], ban ari baitzan lanian; eta joan nintzanean musika banda zebilen kalia gora: “Zer da? Zer dira banda horiek?”, “Republika etorri den neska, republika!. Orduan Patxik esan zidan: “Republika? Goazen plazara” eta plazara joan giñan. Republika etorri zala eta, jarri zuten bandera republikanua eta ikurriña ere jarri zuten [Hernanin]...¹

1931ko apirilaren 14a, beste leku askotan bezala, egun berezia izan zen Hernanin, Errepublika iritsi zeneko eguna. Ez zen inolako iraultzarik izan, ez zen istilu aipagarririk egon; udaletxean antolatu ziren zenbait ospakizun izan ziren nobedade nagusi, esate baterako aurreko pasartean Josebe Goiak aipatzen digun ikurriña eta “bandera republikanoa” jartzearena. Hernani izan zen errepublikaren bandera jartzen lehenengotakoa, *...Madrilen jarri baiño lebenuo eb! Lebenbizi Eibarren eta gero Hernanin, biyak kidekuak ziran...*, dio Tiburtzio Agirrek. Egun horretan bertan, ezohiko bilera baten bitartez, Udalak Errepublikari bere atxikimena eta

¹ 2002-JGZ-01 elkarrizketa, hasieran.

babesa ematea onartu zuen, eta nazionalistek mozio bat onartzeko eskatu zuten. Mozio horretan, Euskal Errepublika aldarrikatzea erreklamatzeko zen gainerako Errepublika Iberikoekin konfederaturik:

“Hernaniko gutxiengo abertzaleak, herri gisara egokitzen zaizkion esku-bide natural eta historikoak baieztatu eta gero, Euskal Herriaren lehenengo autodeterminazio ekintza bezala, Euskal Errepublikaren aldarrikapena eskatzen du, beste Iberiar Errepublikekin konfederaturik.”²

Egun batzuk geroago, Plaza Nagusia eta Alfontso XIII.a kalea, Errepublika Plaza eta Kale Nagusia izango zirela erabaki zen: Hernani herri errepublikarra bihurtu zen egun gutxi batzutan. Aldaketa hauen aurrean herritarren jarrera nahiko ona izan zela diote garai haiek bizi izan zituzten zenbaitek; Luis Gorrotxategiren ustez: *...Noski, artian ez genuen botatzeko eskubiderik (...) eta hori segituan jakin genuen, Eibarren [errepublikal] jarri zutela (...) Gebienek ondo hartu zuten, zergaitikan diktadura zegoen orduan hemen! Primo Riveraren gora-beherarekin eta... nik uste det jendiak ondo hartu zuela hori, nik hala uste det behiñipin....*³ Ez da harritzekoa jarrera hau eduki izana, Primo de Riverak 1923an eman zuen golpea eta zazpi urtez diktadura gogor bat ipini zuen, Alfonso XIII.a erregearen baimenarekin. Hasiera batean, sektore sozial eta militar askoren babesa izan zuen golpe militar honek, Espainian krisi politikoa nabarmena zelako eta 1921ean “Marokoko hondamendia” suertatu zelako - 9.000 soldadu hil ziren bertan -; baina Primo de Riverak bere jarrera autoritarioa zela eta ezin izan zion sistema horri urte askoan eutsi, krisi ekonomiko gogor bat sortu zen eta sektore politikoak erabat atsekabeturik zeuden egoera harekin, azkenean, 1930eko urtarrilean, dimisioa aurkeztu zuen. Monarkia, momentu horretatik aurrera hil zorian zegoen, erregeak Damaso Berenguer jarri zuen gobernuburu, baina gizon hau erabat ezdeusa zen egoera berriari aurre egiteko; Ortega y Gasset-ek “El error Berenguer” artikulua famatuan hari buruz zer idatzi zuen irakurtzea besterik ez dago: “Ez da esaten okerra Berenguer-ena dela - alderantziz baizik -, Berenguer okerrarena dela, Berenguer oker bat dela”.

² ODRIOZOLA, Jon; *Hernaniko aiene eta ajeak Gerra Zibilaren altzoan*, 5. or., argiaratu gabea. (Hernaniko Udal Agiritegian ikusgai)

³ 2002-LGM-01 elkarrizketa, hasieran

Pertsonaia honen anaia, Fernando Berenguer jenerala, urte batzuk beranduago hil zuten Hernanin, Antziola auzoko “Villa Albernian”, 1934ko ekainean, hiltzailea Emiliano Huertas anarkista izan zen beste bi kidek lagundurik:

...Berenguer hiltzera joan ziran, ez dakit zein izango ziran baina (...), Damaso Berenguer zana hiltzera joan ziran, Primo de Riveraren ordezkidura jarri zuena. Ta bura hiltzera joan ziran baina anaia hil zuten. Hala izan zan, Villa Albernian...⁴

Berenguer jaunak, gobernuburu zela - 1930ean, Errepublika iritsi baino lehenago -, ez zuen diktadurarik jarri, baina bai antzeko zerbaitek, batzuk “dictablanda” bat jarri zuela esan zuten. Izan ere, urte bete egon zen hauteskunderik antolatu gabe eta Primo de Riveraren erregimenaren jarraipena gehiago zirudien hark, sistema demokratikoren bat baino. Horregatik ez da harritzekoa, irakurri berri dugun pasartean, Tiburtzio Agirrek. Damaso Berenguer-en sistema diktaduratzat jotzea. Errepublikanismoak indar handia hartu zuen momentu horretan eta 1931ko apirilaren 12an udal hauteskundeak antolatu zirenean, errepublikarrek hiri handi gehienetan irabazi zuten, Alfontso XIII.ak erbestera alde egin behar izan zuen apirilaren 14ko arratsalde horretan bertan... *Republika etorri zan ustegabian, erregi-ña-erregiak joan ziran eta...*

Eltzekondo: “elekziyutan guardian”

...Batian, ez dakit ze urte izango zan, ostera, elekziyuak ziran eta denak propagandan, emakumiak eta guzti. Guardian, Eltzekondo, “borroka grekoerromatarra” (egiten zuen). Hura guardian egoten zan, zergaitik joan eta urnak hautsi egiten zituzten, baiña barrek ez zaukan eskuak ibiltzerik eh! Harrek debekatua zaukan jotzia (...) orduan aulkiya hartu eta baten bat etortzen bazan, berak ez zuen eskuekin jotzen, aulkiyakin (baizik)!...⁵

⁴ 2002-TAZ-01(01) elkarrizketa, erdialdean

⁵ 2002-JGZ-01 elkarrizketa, hasiera-erdialdean

Isidoro Ollokiegi “Eltzekondo”, pertsona erabat indartsua zen eta askoren ustez umore zakarrekoa. Irina egiteko lantegi batean lan egiten zuen eta “borroka greko-erromatarra” praktikatzeagatik egin zen famatu, ez Hernanin bakarrik, baita Euskal Herrian eta Amerikan ere, Jorge Villarrek dakienez: *...Otxoarekin batera [Javier Otxoa], altsasuarra zan Otxoa, “borroka grekoerromatarra” egiten zuten, Ameriketara barrena ibili ziran!...* Esan bezala, umore zakarrekoa zen Eltzekondo jauna, ume guztiak beldurtuta edukitzen omen zituen, paretik apartatu behar izaten baitzuten bera pasatzean; Sabina Villarri hala pasatzen zitzaion behintzat Ezkiagara sartzeko pasalekuan zegoela: *...Gu pasadizuan egoten giñan eta askotan: “Badator Eltzekondo, alde egin biharko degu hemendikan”, bestela ailegatzen zan ta “danba!!”, bota egiten zuen jendia, espaloietikan!...*⁶ Eltzekondok guardiak egiten zituen bozketetan, errepublika jadanik ezarria zegoenean, izan ere, jendeak makina bat trikimailu erabiltzen zituen bi aldiz bozkatzeko edo aurreko botoa hausteko. Garai haietako bozketak ez ziren inondik ere garbiak, hauteskunde garaietan herriko giro politikoa asko berotzen baitzen.

Hauteskundeak gerra aurreko Hernanin

Errepublikako lehen urte horietan zenbait hauteskunde eta erreferendum egin ziren, lehena 1931ko ekainean izan zen, bertan ezker muturrekoak irabazi zuten, baina bi urteren buruan, 1933ko hauteskundeetan, ezker-tiarrek sekulako porrota jaso zuten, EAJk irabazi baitzuen, inork pentsatzen ez zuen emaitza izan zen hau: *...Sozialistak, aurreneko botaziyuan irabazi egin zuten, gero bigarreguan galdu...* Ekaineko lehenengo hauteskunde horietan ez dirudi ezer apartekorik pasatu zenik; baina 1933ko apirilaren 23ko hauteskundeetan abertzaleak izan ziren botorik gehiena lortu zutenak, horrela kontatzen du Josebe Goiak, alegia garai haietan abertzaleen alde lan asko egin zuen emakumeak: *...gero elekziyuak etorri ziran eta abertzaliak irabazi zuten! Haiiek [sozialistak] asko zirala uste, baiño ez izan, gu gebiago giñan! Baserrikuak eta denak guregana...(Batian) gure Patxi joan zan amon baten bila [kotxean], eta hor basi zan sozialista bat tiroka (...) eta guriak erantzun!...*⁷ 1933ko hauteskundeak oso gogoan dituzte askok, egun horretan eztabaida eta istilu ugari egon ziren alde bateko eta bestekoen artean:

⁶ 2002-JVE-01 elkarrizketa, erdialdean (Sabina Villarrek hitz egiten duen unean)

⁷ 2002-JGZ-01 elkarrizketa, hasieran.

...Orduan Asalto Guardiak etortzen ziran (...) baiiek korrikaldiak Tilosetan barrena jendian atzetikan (...) Gregoriren etxeko andriari, botuakin zijuala, - kolan negoen ni eh! - joan eta kendu egin ziyoten eskutik. Klaro, orduan republikano edo nazionalista edo ezerrez! Beti gerran orduan ere bai, ezin eramnik. Kendu egin ziyoten bai...⁸

Iñaxi Otamendik, bere ahizpa Gregoriren etxekoandreari gertatutakoaz kontatutako pasarte honetan, "Asalto Guardia" delakoa eta guzti agertu zen ordena ipintzera, baina garai haietan ordena gutxi zegoen, botoak nolnahi aldatzen edo kentzen baitziren, bestela Felix Aldasorori pasatakoa ikustea besterik ez dago:

...Hemen igartzen zan ideala botaziyuetan, baino nabarmen! Klaro, modua zuten nazionalisten aldetik Donostin kotxe asko ziran eta ekartzen zituzten kotxe batzuk honera, zerbitzua egitera, eta joaten ziran baserrietan barrena, eta baserrietako jendia ekartzen zuten botuak erosita.(...) Ni gogoritzen naiz, izebak esan zidan: "Felix lagunduko al didan botua botatzera, Portalezkanpora?"...



1933ko
hauteskundeetan,
hernaniarrak ilaran,
Biterin botoa
emateko.

⁸ 2002-GIOA-01 elkarrizketa, erdialdean



1933an Lizarrako Estatuaren erreferendumaren aldeko propaganda handia egin zen Euskal Herri osoan. Hernanin aldekoek irabazi zuten.

Felixa bere izebarekin *Portalezkanpoko* eskolara joan zen - bertara joan behar izaten ziren Kale Nagusia eta *Andrekaleko* bizilagunak botatzera - eta han ikusi zuten Dolores, “kixkurrera” deitzen zioten emakumea - kizkurrak bildu eta saltzen zituelako -. Felixaren izebak Doloxi aurreko egunean eman zion botoa nazionalistek aldatu egin omen zioten, ez baitzekien irakurtzen; horretaz ohartzean berriro ere sozialisten aldeko botoa eman zion izebak “kixkurrerari”, baina...

...beste batek ikusi egin zigun eta arku txikiyan itxaroin zigun; gero bueltan, ez zitzayon hasi nere izebari joka! “Hik zertarako kendu diyon botua! - eta oso laguna zuen eh! - Zertarako kenduyon botua Dolosi!”; “Komeni ez zaiolako eta hori ideia hortakua ez dalako, zuek izorrratu dezute hori, edo izorrratu nayian ibili zerate!”. Eta izebari kolpia eman zionian, nik zer eman niyon? Kokotzekua berari! Izeba defenditzeagaitik!...⁹

1933ko hauteskundeek Errepublikaren etorkizuna erabat aldatu zuten, momentu horretatik aurrera, istiluak eta tentsioa oso handiak izan baitziren. Espainian CEDA atera zen garaile, partidu katoliko eta eskuineko bat, Gil-Robles buru zuelarik; garai honetako gobernuak, aurretik onartu ziren lege progresista ugari atzera bota zituen, eta honek ezkertiar eta progresisten erreakzio gogorra ekarri zuen. Grebak ugaritu eta Elizaren kontrako erasoak burutu ziren estatu osoan. Orduan, Hernanin Miguel Toledo Alberdi zegoen alkate: *...Egin zan elkartasuna eta Miguel Toledo jarri zuten alkate! (...) Eskubikuak, danak elkartuta jarri zuten ordun alkate Miguel Toledo...*¹⁰ Miguel Toledo EAJ-koa zen, baina honek eskuineko beste sektoreekin elkartuta agindu zuen, esate baterako José María Puig Villarrekin, gero alkate izango zenarekin.

⁹ 2002-FAA-01 elkarrizketa, bukaeran.

¹⁰ 2002-TAZ-01(01) elkarrizketa, hasiera-erdialdean

Urte bereko abenduan, Lizarrako Estatutuaren aldeko erreferenduma egin zen, eta Hernanin aldekoak garaile izan ziren, %84-ak baietz esan baitzion - Gipuzkoan baiezkoak %89,52 atera zuen - , honek ez zuen askorako balio izan, eskuineko espainolistekin eta sozialistekin desadostasun handiak baitzeuden eta Gerra Zibilera arte ez baitzen estatuturik martxan jarri.

Ezkertiarren erantzuna: Maiatzaren lehena

1933an eskuinak boterea hartu eta berehala ezkerreko alderdiek erreakzio bortitza izan zuten, horren erakusgarri dugu Hernanin urte berean egin zen manifestazioa sekulakoa izan zela. Maiatzaren lehena zen eta tranbia lepo zetorren, jendez beteta: *...Hemen egiten zan irteera maiatzaren lehenian, Hernanin famosua izaten zan, tren eta tranbia guztiya beteta eta sekulako manifestaziya, bandera republikanua...* Horrela gogoratzen du Tiburtzio Agirrek behintzat. Badirudi, egun horretan CNT, PSOE-ko eta PCE-ko jende ugari etorri zela, ez omen ziren oso ongi portatu Josebe Goiaren ustez, ezkertiarrek:

*...Anarkista eta komunista asko zegoen hemen. (...) Hoiek gogorak ziran eh! Hoiek egiten zituzten diranak eta ez diranak, (...) maiatzaren lehen batian, Eibartik eta Gipuzkoa guztitikan etorri ziran Adarrara martxa egitera, galtza urdinak eta alkandora gorriya jantzita, egundainoko jendia (...) Gure anaiak, atia berdez pintatua zaukan eta goian ikurriña pintatu zuen, gogoratzen naiz hartu eta loa edo harrapatzen zutenarekin hura zikintzen ibili zirala, eta gero gure anaia mangerakin garbitzen (...) Eta horrelaxe ibili gera, gerra etorri arte bost urtian gerran bizi!...*¹¹

CNT sindikatu anarkistak ez zuen indar handirik Euskal Herrian, hala ere, kopuru eskasa izanagatik, ez ziren itzalean gelditzen, beraien jarrera erradikalak oso ezagun egin zituen sindikatu honetako militanteak eta urte batzuk beranduago, 1936ko uztaileko altxaldian, Donostia defendatzen lehenak izan ziren...*Hoiek gogorak ziran eh!...*

¹¹ 2002-JGZ-01 elkarrizketa, hasiera-erdialdean

**1931ko ekainaren 28ko hauteskundeetan
izan ziren emaitzak Hernanin**

<i>Hautagaiak</i>	<i>Alderdia</i>	<i>Bozkak</i>
Gárate	Acción Nacionalista	733
Usabiaga	Eskubi Errepubl.	733
De Francisco	Sozialista	732
Amilibia	Unión Republicana	729
Leizaola	Nazionalista	518
Pildain	Integrista	518
Picavea	Independientea	517
Urquijo	Tradizionalista	516

Iturria: Auñamendi (Bernardo Estornes Lasa Fondoa)

**1933ko otsailaren 16ko hauteskundeetan
izan ziren emaitzak Hernanin**

<i>Hautagaiak</i>	<i>Alderdia</i>	<i>Bozkak</i>
Usabiaga	Zentroa	10
Anso	Izquierda Republ.	1199
Apraiz	Izquierda Republ.	1199
Amilibia	Sozialista	1199
Larrañaga	Komunista	1183
Lojendio	C.E.D.A	308
Múgica	Renovación Española	293
Pagoaga	Tradizionalista	262
Oreja	Tradizionalista	271
Irazusta	Nazionalista	867
Monzon	Nazionalista	920
Picavea	Nazionalista	1148
Irujo	Nazionalista	926
Lasarte	Solidario Vasco	898

Iturria: Hernaniko Udal Artxiboa (A/5/IV/2/4)

Joxe Mariñeko “Centro Republikanoa” eta ekainaren 2a

Errepublikari iristearekin batera, Errepublikaren aldeko zenbait elkarte eta sozietate sortu ziren, bertan Errepublikaren aldekoak eta abar elkartzen ziren. Hernanin, Kale Nagusiko Joxe Mari tabernaren ondoan, goiko pisuan, “Centro Republicano” deitzen ziotena zegoen; lokal honetan elkartzen ziren errepublikazale guztiak eta bertan egiten ziren mitinak eta festak ere: *...bor egiten ziran festa guztiyak! Hor zegoen “Centro Republikanua”!... dio Tiburtzio Agirrek. Baina Joxe Mari-ko alaba den Mañoli Zigaranen hitzetan, “Centro Republicano” delakoa ...Joxe Mariren ondoko etxian lehenbiziko bizitzan... zegoen, baina eraikina sute baten ondorioz berritu eta handitu egin behar izan zuten, ondoko bi eraikinekin batera: ...(etxe) berriya egin zanian, jarri zuten tabernan onduan, beheko pisuan... eta horregatik jatetxe eta lokal nahiko handiak egin zituzten: ...lokal haundiya zegoen...¹²*

Urtero bezala, ekainaren 2an zenbait ospakizun egiten ziren, Bigarren Gerrate Karlistan, Hernanik, karlisten eskutik jasan zuen setioa gogorazteko - udaletxea lehertu zuten hura -, bertan herriko lehenagoko liberal askok hartzen zuten parte, orduan errepublikar bihurtu zirenak, noski: *...Bazkariya egiten zan: Ehun, berrehun edo hirurehun mahai, guztiyak betiak! Orduan joaten ziran Errekondotarrak eta... bueno republikano asko ziran, republikano esaten geniyon orduan eta asko!...¹³ Errekondotarrak ez ziren bakarrak, Olanotarren familiakoak ere bazkari horretara joaten ziren, horrela gogoratzen du Manoli Olanok: *...gure etxian ziran liberalak, liberal republikanuak, eta ekainaren 2ko egunian liberalen festa izaten zan hemen (...)* egiten zuten bazkariya, gure gurasoak eta gu joaten giñan ere...*

Ekainaren 2an, Bigarren Gerrate Karlista gogoratzeko festa horretan, gauza bat nabarmen ageri zen: garai bateko, XIX. mendeko, ideologiaren arrasto bat besterik ez zela; gizartea edo politika jadanik ez zen liberal eta karlisten artean banatzen, baizik eta errepublikarren eta monarkiaren aldekoen artean edo eskuin, eta ezkerrekoen nahiz abertzaleen artean. Beraz, pertsona zaharrenak hiltzen joan ziren heinean, “ni liberala” edo “ni karlista”

¹² 2002-MZA-02 elkarrizketa.

¹³ 2002-TAZ-01(01) elkarrizketa, hasiera-erdialdean.

bezalako adjektiboak, albo batera geratu ziren kasu gehienetan eta ekainaren 2ko festa famatua galdu egin zen: ...*Orduko jendia joan zan eta gaztiak ez zuten segitu...* esaten du Tiburtzio Agirrek. Ekainaren 2ko bazkari horietan, liberal errepublikazaleen kanta bat abesten zen, Anttoni Egañak behin baino gehiagotan izango zuen entzuna, oraindik buruan baitauka:


*“Somos hijos de los liberales,
que a los carcas hicieron callar!
Ahora somos los republicanos,
de esta república tan liberal!”*

Ezkertiarrak eta abertzaleak “ezin eramanik”

Liberalismoa eta karlismoa, zaharturiko ideologiak zirenez, ideia berriek indar handia hartu zuten, horien artean lehen aipaturiko korrante errepublikarrak - ekainaren 2ko festa egiten zutenak -, ideia ezkertiarrak - sozialismoa, komunismoa, anarkismoa - eta abertzaletasuna zeuden; dudarik gabe, bi tendentzia hauek ziren herrian gehien sumatzen zirenak, ekintza ugari burutzen zituzten eta kaleko bizitzan eragin gehiena zutenak ziren. Ezkertiarren artean, anarkistek indar eskasa zuten, komunistak ere gutxi zeuden, baina langileen artean, UGT sindikatu sozialistak indar handia hartu zuela jakina da; zaharrenean arabera, sozialistak Plaza Berri eta *Andre-kaleko* kantoian dagoen etxean elkartzen omen ziren, bertan taberna bat zegoen eta egoitza tabernaren gainean ezarri zen, sarrera *Andrekaletik* zuelarik. Nazionalisten aldetik berriz, EAJ zen indar gehien zuena, baina bazeuden ANV-koak zirenak - Acción Nacionalista Vasca -, gainera ELA sindikatu abertzaleak, 1932rako 275 afiliatu zituen Hernaniko hainbat lantegitan. Abertzaleek, beraien egoitza edo *batzokia* 1933an ezarri zuten, Joxe Antonio Agirre bera etorri zen inauguraziora: ...*Meza nagusiaren ostean, eta ‘Alkate soinuaren’ doinupean batzokira joan ginen. Balkoitik, Agirrek mitina eman zuen Plaza Berrirantz. Seguruenik, Julene Urzelai, bizlari iaioa eta Altzeta zumarragarra ere bertan izango ziren...*¹⁴ Emakume Abertzale Batzak ere eraikin berean zuen bere egoitza - Plaza Berriko Irizar

¹⁴ ODRIOZOLA, Jon: *Hernaniko aiene eta ajeak...*, 4. or, argitaratu gabea. Joxe Laburu Illarramendik esandakoak.

tabernaren gainean -, Eusko Gaztedikoen egoitza berriz, "Atsegindegi Etxea"n zegoen; urte batzuk beranduago, gerra garaian, kartzela bihurtu zuten: ... *Atsegindegin kartzela probisional jarri zuten, etxe haundi bat bazan eta han beheran zan Eusko Gaztedin tokiya, han sartu zituzten barrapatu zituzten guztiak...*¹⁵



Atsegindegiko etxea. Eusko Gaztedik lokala izan zuen bertan. Gerra Zibilean kartzela ere izan zen.

¹⁵ 2002-JGZ-01 elkarrizketa, erdialdean

Bi alderdi nagusi hauen artean - ezkertiarrak eta nazionalistak -, alde handia zegoen; alde hau, batez ere erlijioaren inguruan nabaritzen zen. Abertzaleak oso katolikoak ziren, elizaren aldekoak, gainera ideia kontserbadoreak zituzten, "lege zaharren" aldekoak - ANVkoak izan ezik; abertzale ezkertiarrak ziren, baina herrian indar gutxikoak -; ezkertiar alderdiak berriz laikoak ziren, nahiz eta hauen militanteetatik gehienak katolikoak izan. Ezkertiarrei oso erradikalak zirela leporatzen zieten, elizaren kontra-ko erasoak ez zitzaizkien batere gustatzen abertzaleei:

... Gure denboran ibiltzen ziran elizak erretzen, elizara sartzen... eta guriak guardian, Agustinetan egoten ziran, barrenian sartuta, guardian. Sartu, txikitu eta erre egiten zituzten denak, parrokiya ere erre nayian...¹⁶

... Elizak? Herri txiki horietan ez baiño... haundiyetan elizak ere erre egiten zituzten...¹⁷

Jakina da, Errepublika garaian, Espainiako zenbait lekutan elizak erre zirela, gerra garaian are gehiago, baina Hernanin ez zen horrelakorik gertatu, saiatu ziren arren. Bernardo Martin, Medina del Campotik etorri zen hamabi urterekin eta hamalaurekin Royalta gailera lantegian hasi zen lanean; orduan, esaten duenez, langile guztiek afiliatu beharra zuten eta bera UGTn sartu zen; baina berak, ezkertiarra izanik ere, erlijio katolikoa praktikatzen zuen eta elizara joaten zen:

...Hortan ez ziren sartu, sozialistak ez ziren Elizarekin sartu. CNT-koak eta muturreko beste alderdi batzuk beharbada bai. Ni afiliaturik nengoen eta sozialista nintzen, baina nere amak beti erakutsi zidan elizara joaten eta errespetatzen. Beste batzuk ordea elizaren kontrako ideiak zituzten; nik ezagutzen ditut garai batean elizara joaten zirenei kritikatzeko ibiltzen zirenak eta gaur egun, beraiek elizara joaten ikusi izan ditudanak!(...) Hemen Euskal Herrian ez zen elizarik erre, ezta gerran ere! Baina Francok bonbardaturiko elizak bai izan zirela eta asko txikiturik geratu ziren...¹⁸

¹⁶ Ibid,

¹⁷ 2002-MZA-01 elkarrizketa, bukaeran

¹⁸ 2002-BMS-01 elkarrizketa, hasieran.

Manoli Olano, errepublikar ezkertiarra zen, tradizio liberalekoa eta apaizei ez zieten kasu handirik egiten: *...Ab apaizak! Ez geniyon kasurik egiten guk apaizari! Ezta pentsatu ere! Ez, guk gehienak gure martxa segitzen genuen. Apaizak? Ez...* Hala ere elizatik ezkondu ziren eta *...katolikoak, apostolikoak eta erromatarrak...* direla argitzen du Manolik. Hau ez zen eragozpen, ezkertiarrek terrorista gisa hartzeko: *...Terroristak! Denbora horietan? Orain terroristak izango dira, baiña gu ere bala izandu gera!...* Abertzale eta errepublikar ezkertiarren arteko ezinikusia nabarmen geratzen zen Manoliren ustez: Kardaberaz kaleko “Don Manuelen karkaban” - Plazaberritik gertu - sagardotegi bat zegoen eta han EAJko kideak egoten ziren, errepublikarren bat bertatik pasatzen zenean begiratu txarrak egoten omen ziren: *...errepublikarren bat pasatzen bazan...oohh!...*¹⁹

1934ko urria: “Revolución, revolución!”

...Orduan neska koxkorrak giñan baiño... nola esaten zuten? Kale bueltan pasatzen ziran gabian eta...”revolución, revolución, revolución, revolución!”, gau guztiya! Hori bildurra! Gu bi abizpak oyian eta: “Oi ama! Zer pasako ote da?”. Gero etorri ziran, jendia detenitu zuten eta orrelaxe pasa zan; Guadalupera eramán zituzten, mutil mordoxka bat...²⁰

1934ko urriko gau hartan beldur galanta pasa zuten zenbaitek beren etxeetan; ez zen gutxiagorako, Errepublika garaiko iraultza saio handienetako bat suertatu baitzen orduan. “Ai ama! Zer pasako ote da?” Galdetzen zuten batzuek; herriko gazte asko atera ziren gau hartan iraultza egitera, baina mugimenduak porrot egin zuen. Elkano kaleko “Telefónica”ren egoitzan lehergailu batek eztanda egin zuen: *...Istiluak egon ziran, zergaitikan baien aldekuak [ezkertiarren aldekoak] ziran eta telefonika erre zuten; su eman ziyoten!...*²¹ Luis Blas Zuleta hernaniar historialariak idatzi zuenez, tren geltokian ere jarri zuten lehergailu bat eta Guardia Zibila ez zen iraultzaileen kontra irten “Guardia de asalto” delakoak Donostiatik etorri arte.²²

¹⁹ 2002-MOG-01 elkarrizketa, erdialde-bukaeran. (Manoli Olanoren aurreko pasarteak horren inguruan daude)

²⁰ 2002-AEA-01 elkarrizketa, erdialdean.

²¹ 2002-TAZ-01(01) elkarrizketa, erdialdean.

²² BLAS ZULETA, Luis: *Hernani entre dos guerras (1872-1936) Medio Siglo de la vida de Hernani*, Hernaniko Udala, 1985, 63. or.

Tiro hotsak entzun zituenik ere egon zen: *...Nik ez dakit pistolak edo zer zituzten! Hemen bonbilak egoten ziran alde batetik bestera, eta tiroka! Urriaren 5a zan... Hura bildurra! Pistolakin edo eskopetakin ez dakit, tiruak tiratzen zituzten eta...*²³

Iraultzak porrot egin zuenean, atxilotu ugari egon ziren - 420 Gipuzkoa osoan -, atxilotu gehienak Hondarribiko Guadalupeko gotorlekura eramán zituzten eta beste batzuk Ondarretako presondegira.²⁴ Errepresioa ez zen nolana hikoia izan, horrela kontatzen digu Iñaxi Otamendik urriko gau horretan bizitakoa:

*...Gau bartan, Hernaniko mutil guztiak Ondarretara eramán zituzten (...) Ondarretan zan orduan kartzela, eta hara eramán zituzten. Zergaitikan hemen atera ziran gabian eta hurrengo egunian sarekada egon zan! (...) Orduan ere kantatzen zuten: "revolución, revolución!" Iñork ez zuen espero eta gabian kale honetatik gora [Kale Nagusitik], baien pausuekin [pauso hotsekin], jesus! Mundu guztiya bildurtuta...*²⁵

Hurrengo egunean, Oriamendi inguruetan tiroketak egon ziren, matxinaturiko askok ihes egin behar izan baitzuten eta batzuk ez ziren 1936 arte itzuli. 1934ko Iraultzak porrot egin zuen, baina batzuen ustez gerora, Gerra Zibilean gertatuko zenaren erakusgarri bat besterik ez zen izan. Asturiasen, meatzariak herrialde hori erabat geldiarazi zuten eta leku horretan iraultzak gerra kutsua hartu zuen, guztira 1.500 hildako egon ziren Espainia guztian. PSOE-k bultzaturiko iraultza bat izan zen, PCE-k lagundurik, baina CNT-k ez zuen parte hartu, Asturiasen izan ezik²⁶. Euskal Herriari dagokionez, Eibar eta Arrasaten izan ziren istilu larrienak, Bilbon, Donostian, Hernanin eta beste leku batzuetan iraultzak eragin gutxiago izan zuen, baina iraultzaileen propagandak bestelakorik esaten zuen; hona hemen, Donostian PCE-ri atzemandako panfletoan zer ipintzen zuen:

²³ 2002-MOG-01 elkarrizketa, erdialdean.

²⁴ *La voz de Guipúzcoa*, 1934ko urriaren 21-a.

²⁵ 2002-GIOA-01 elkarrizketa, erdialdean.

²⁶ FUSI, Juan Pablo, PALAFOX, Jordi: *España 1808-1996, el desafío hacia la modernidad*, Espasa, 1997, 265 or.

“...Irun, Hernani, Pasaia, Oria, Orío, Eibar, Tolosa, Zumarraga, Arrasate, Bergara... dena dago geldituta! Eta gutxi borrokatu gure probintzia hau zutik baldin badago, asmatu ezazue nola egongo den Espainia guztia alderik alde!...”²⁷



*Preso asturiarrak
meatzetatik jaisten
1934ko urriko
iraultzan.*

Eibarko gertakizunak aski ezagunak dira, herri osoa iraultzaileen esku geratu zen ordu askotan; Arrasaten ere, istiluen ostean atxilotu ugari egon ziren, jende askok laguntza behar izan zuen eta umeak beste leku batzuetara bidaltzen zituzten, baita Hernanira ere, Felix Aldasororen etxera, esate baterako:

²⁷ Interneten agertutako testua dugu hau, gainera oso testu gogorra denez - hiztegi eta esanahi aldetik - eta iraultzaileei "atzemandakoa", bere sinesgarritasuna zalantzan jarri beharko litzateke, agian testu hau garai haietako autoritateek manipulaturik baitago, kontrapropaganda modura erabiltzeko.

...Mondragon aldian haurrak ekartzen zituzten handik honera [Arrasatetik Hernanira], arrisku bortatikan ateratzeko, bemen, haurrak familitan jarri genituen. Eta beti gogoratzen naiz: haurrak txarrak eta onak, denetatik izaten giñan eta baziran inbidiya zutenak, ondo bizitzen jarri genituelako haur batzuk etxian hartuta, eta: "Mondragón, en cada casa un ladrón!" esaten zieten, eta mutil koxkorrei nik erakutsi niyen: "...Hori esatian zuek esan: 'Y en la tuya todos son!'" eta beraiek hori erantzuten ikasi zuten eta ya pakia egin zan...²⁸

Gertaldiak gertaldi, zein izan ziren Urriko Iraultza sortu zuten arrazoiak? 1933ko hauteskundeetan eskuinak irabazi ondoren - Gipuzkoan PNV izan zen irabazle nagusi -, garai latzak iritsi ziren, langileei zenbait eskubide ukatu eta gainera krisi ekonomikoa hasi zen, eta langabetu kopuruak gora egin zuen; ondorioz, lan arloko gatazkak gogortu egin ziren eta grebak ugaritu. Honi, 1934ko "Udalen mugimendua" izenekoa gehitu behar zaio - ardoaren zergak kentzearen kontrakoa - eta gora-behera handiak ekarri zituen. Ezkerreko sektoreek, iraultza baten beharra ikusten zuten eta baita saiatu ere; ANV eta ELAko zenbait militantek ere hartu zuten parte iraultza honetan, baina esan bezala, matxinadak porrot egin zuen eta horren ondoren errepre-sio izugarria etorri zen, ezkerreko alderdi eta sindikatuak izan ziren kaltetue-nak, beren zuzendariak atxilotu eta egoitzak itxi egin zituzten..

**1934ko iraultzan auziperatuak
Gipuzkoako herrietan**

<i>Herria</i>	<i>Kopurua</i>
Hernani	39
Beasain	31
Eibar	171
Errenteria*	14
Tolosa*	45
Lasarte	29
Beste herrietan	91
Gipuzkoan guztira	420

Iturria: Barruso, P. (ikusi bibl.)

* Atxilotu kopurua

²⁸ 2002-FAA-01 elkarrizketa, erdialdean.

1935eko uztailaren 30ean, Hernaniko gertakizunetan parte hartu zuten atxilotuak auziperatu egin zituzten; 39 atxilotu egon ziren herrian, guztiak UGTko kideak ziren eta beste gauza askoren artean, lapurretak egitea eta armak hartzea egotzi zieten, gainera, udaletxean gotortu ziren guardia zibilekin tiroketa bat egon zela eta, oso zigor gogorak ipini zizkieten, hauetatik auziperaturiko 23k, 14 urte eta hamar hilabete arteko kartzela zigorrak jasan zituzten, eta besteak aske geratu ziren.²⁹

1936ko udaberria: Fronte popularra eta Joxe Aranburu

Urriko Iraultzaren ostean, urte betez ezkertiarrek beraien ekintzak eta ekimenak zertxobait gutxitu zituzten, grebak ere ez ziren hainbeste izan, baina 1936. urtea iritsita, arlo politikoan zenbait mugimendu nabaritu ziren, ezker-tiar eta errepublikarren arteko batasuna eskatzen zen eta horrela sortu zen "Fronte Popularra". 1936ko otsailean egin ziren hauteskundeetan, Fronte Popularrak agintea bereganatu zuen Espainian; Euskal Herrian berriz EAJ-k lortu zuen nagusigoa -nahiz eta boto kopurua jaitsi -, aldiz, Hernanin Fronte Popularra izan zen garaile 1196 botorekin, baina "Iraultzaren kontrako Koalizioak" EAJri babesa eman eta EAJko Miguel Toledo jarri zen berriz ere alkate.

Fronte Popularrak agintea hartzearekin batera, espainiar estatu osoan iraultza giroa sortu zen, ezkerreko sektoreak indarberriturik atera baitziren. Eskuinak berriz, politika arloko borroka erabat galdutzat eman zuen, baina era berean, indarkeriaren bidetik jotzeko prestatzen ari zen, uztailaren 18an ikusi zen bezala. Hernaniko kaleetan giroa berriro ere zakar zebilen, ezker-tiarren asmo iraultzaileak abertzaleak eta katolikoak guardian jarri zituen; elizaren eta ordenaren kontrako erasoei aurre egiteko prest; horrek bi sektore hauen arteko hika-mikak areagotuko zituen.

San Jose eguna zen, 1936ko martxoaren 19a eta, urtero bezala, jende ugari hurbildu zen komunio mezetara. Hemezortzi urteko Joxe Aranburu Lasa ere horretan ibili zen Agustinetako komentuan, baina bueltan, Plaza Berritik zihoala, hil egin zuten. Joxe Aranburu abertzale amorratua zen eta, dirudie-nez, bere hiltzaileak "Euzkadi Gorria" egunkari komunista saltzen ari ziren hiru ezker-tiar izan ziren, horien artean Leon Arbizu Mateo. Hiltzaileak atxilotu egin zituzten eta Joxe Laburuk dioenez udaletxeko presondegian sartu zituzten; gainera, egon zen mendeku bila joan zen abertzalerik ere: *...EAJko*

²⁹ BARRUSO BARES, Pedro: *El movimiento obrero en Guipúzcoa...*, 343 or.

*gazteek, alderdiari armak eskatu zizkioten...*³⁰ Donostian berriz, zenbait istilu suertatu ziren, Egian eta Amaran JSUko eta UGTko bi militante tirokatu baitzituzten. Egun haietan tentsioa asko handitu zen.³¹ Tiburtzio Agirreren ustez, Joxe Aranburu izan zen EAJko lehenengo martiria:

*...Giro txarra zegoen, bildako lehen gudaria Hernanin izan zan neretzako, Joxe Aranburu. Puerton bizi zan eta San Jose egunian, komuniyua egin eta gero garbitu zuten, Plazaberrin hil zuten tiroka, bertako semiak hil zuten, horregaitikan giro txarra. Horiek ziran, esaten zutenez komunistan aldekuak! (...) Hernani guztiya jendez bete zan, Goia-ren etxetikan plazaraino jendian manifestapena egin zan, entierruan eh! Pentsa zer dan eh! Baiña... eltxo bat kabitzen ez zala! Lehendakaria eta PNVkuak etorri ziran. (...) Eta hori izan zan lehenengo saltua, Eusko Alderdi Jeltzalearen lehenengo martiria, neretzako...*³²

Jendetza handia
Joxe Aranburu
hernaniar
abertzalearen
hiletan, 1936an.
Dirudienez,
"Euzkadi Gorria"
egunkari
komunista
saltzen ari
zirenek hil
zuten.



³⁰ ODRIOZOLA, Jon: *Hernaniko aiene eta ajeak...*, 7. or.

³¹ *1936: Gerra Civil en Euskal Herria*, IV. liburukia, Aralar liburuak, Donostia, 1998, 33. or.

³² 2002-TAZ-01(01) elkarrizketa, erdialdean.

Momentu horretatik aurrera, gertakizunak errenkadan etorri ziren, aberztale katolikoek, nola hala egiten zieten aurre ezkertiar iraultzaileei, eskuineko espainolistak berriz, isilik zebiltzan, isilegi agian... Hauteskundeak galdu zituztenetik, erabat ezinezkoa zitzairen politikaren bidetik joatea eskuineko hauei, errepublika, garai ilun bat izan zen beraiantzako, Primo de Riverarekin eta Monarkiarekin hobeto zeudela uste zuten. Batzuk karlistak ziren, beste batzuk berriz tradizio monarkikoa edo militarra zuten, garai bateko ideologiaren defendatzaileak; ez ziren asko, gutxi batzuk herrian, ...*baiño nabikuak baztarrak izorratzeko!*...³³ Beste asko, 1936ko irailaren 13an tropa nazionalak Hernanira sartu zirenean, kontserbadore hauen alde jarri ziren, eta faxismo kutsuko erregimen berria besarkatu zuten. Gerra hasi zen eta gerra guztiak bezala, gerra zitala izan zen, latza.

1.2.- Gerra aurreko hernaniar gizartea (1920-1936)

Hernani herri txikia izaki, guztiek ezagutzen zuten elkar, gauzarik txikiena ere, azkar asko jakiten zuten ahotik ahora herritar guztiek: Honek hau esan duela, hark irratia erosi duela... Gauza gutxi ziren jakiten ez zirenak. Gauza txiki horiek ordea, hain ziren txikiak, garrantzirik gabekoak, ez daukela inon idatzirik. Baina ez ziren hain garrantzi gutxikoak izango, baldin eta gure aiton-amonek gogoan badituzte, beraiantzat gauza txiki horiek, nahiz gertaldi xebreak izan edo eguneroko ohiturak izan, bizitza oso baten irudikapena dira. Nolakoak ziren garai bateko festak? Nola moldatzen ziren eskolan? Eta kalean? Zer jaten zuten? Zertan jolasten ziren? Nolakoak ziren zinemako eserlekuak? Nolako gurpilak zituzten garai haietako bizikletek? Nondik hasten ziren kale buelta egiten, Kale Nagusitik edo *Andreakaletik*? Nolakoa zen, gerra aurreko hernaniar gizartea?³⁴

Maisuak, maistrak eta eskolak

José Gay Mur, Hernaniko eskola publikoetako irakaslea zen, Biteri eskoletatik pasatako gerra aurreko ume gehienek ezagutu zuten Gay Mur. Bere egitekoa, eskola horretako zuzendaria izateaz gain, jadanik koxkortzen ari ziren neska-mutilei erakustea zen, 14 urte egin arte alegia.³⁵ Bernardo Mar-

³³ 2002-LGM-01 elkarrizketa, erdialdean.

³⁴ 2002-LGM-01 elkarrizketa, bukaeran.

³⁵ *Maestro-Padre-Hombre, un homenaje. Hernani, 6 de junio de 1971.* (HUA, 2625/39)

tín, Medina del Campon jaio zen 1917an, baina hamabi urterekin Euskal Herrira etorri zen lan bila, izan ere, bere aita hil egin zen eta amak bera eta bere arreba hartu eta Hernanira ekarri zituen, hemen inguruan zituen senide batzuen bidez. Hernanira etortzean, koxkorturik jadanik, Jose Gay-rekin hasi zen ikasten, berak ondo gogoan dauka José Gay-ren itxura zein zen: *...1929. urtean, oraindik oso gaztea nintzen lanean hasteko eta bemengo eskolara joan nintzen, Don Jose Gay-rekin, hura berrena zen. Don Joserekin gorengo mailara pasatzen ginen, hortik aurrera karrera egitera edo lanera joan behar ziñen...*³⁶

Felixa Aldasorok, Biteriko eskola garaiaz oso gogotsu hitz egiten digu, badirudi bertan asko ikasi zuela eta orduko irakasleak oso onak omen ziren bere ustez, horien artean Geronimo Benalmanzan, Doña Cesaria eta baita José Gay Mur bera ere:

*...Don Jeronimo Benalmanzan, hemen Hernanin izango zan maixurik onenetakua, umilla, ondo erakusten zuena, kategori haundiya zuena eta bestia Don Jose Gay, hori direktoria zan, denen direktoria. Eta gero maistra bat bazan, maistran tartian direktora bezela egiten zuena, Doña Cesaria. Eta eskola ematen ziguten...eskola ematia bakarrik ez zan, konfiantza zan, zuk galdetzeko modua zenuen nabi zenuena eta erantzunak ere xuxenak izaten ziran...*³⁷

Biteriko eskoletara joan aurretik, *Portalezkanpon* - udaletxe atzealdean - zegoen umeentzako eskolatik pasatu beharra zegoen; eskola hau, lehenago “Jesusen Bihotza” fraideen esku zegoen, baina Errepublikari iritsi aurretik, udalak eraikina eskuratu zuen eta haur eskola publiko bihurtu zen: *...Nik uste det, Primo Riverak, bidaldu egin zituela edo alde egin zutela hemen-dikan, Hernanitik, Donostian oraindikan hor daude. Hau izango zan 1923an edo...*³⁸ Publikoa egin zenean, txikienak edo “parbuloak” joaten ziren eraikin honetara, bertan, Agustina Martikorena eta Presentación Miner irakasleek irakatsi zuten urte askoan. Era berean, Arriatsun, Pagoagan, Jaurigin eta beste zenbait lekutan auzo-eskolak zeuden, Urnietako Xoxoka auzoan esate baterako.

³⁶ 2002-BMS-01 elkarrizketa, hasieran.

³⁷ 2002-FAA-01 elkarrizketa, hasieran.

³⁸ 2002-LGM-01 elkarrizketa, hasieran.



Gerra aurrean
Atzietan zegoen
eskola, orain
Musika Eskola
dagoen horretan.

Baina diru pixka bat zuenak, ez zituen bere umeak eskola publikoetara eramaten, erlijiosoetara baizik. Hernanin, mutilak fraideetara joaten ziren eta neskek berriz mojetara. Anttoni Egaña urte askoan eskola erlijiosora joanez ibili zen: ...*“Las hijas de la Caridad”* kolegiyua, hori bakarrik zan ordun bemen, iya hogei urte arte egon nintzan. Danetik ikasi genuen, baiño lanian ere bai eb!...³⁹ Esan bezala, diru pixka bat eduki behar zen honelako eskola batera joateko: ...*Xentimorik ez genian, zera... pobriak giñan eta...* dio Manoli Olanok umoretsu. Manoliri zaplasteko galantak emanak dira eskola publikoan, baina gaizki portatzen zirelako:

Maistra batek zaukan ttonttor bat bemen [buruan], ta oso gaiztuak giñan, egiya da eb! “Doña ttonttorritos, doña ttonttorritos!” deitzen geniyon! Eta masailekuak nik hartu dizkiñat galant askuak, gaiztuak giñan! Goguan zeukanat, motxa zan [irakaslea], txikiya eta potxolita eta ttonttor batekin...⁴⁰

³⁹ 2002-AEA-01 elkarrizketa, hasieran.

⁴⁰ 2002-MOG-01 elkarrizketa, hasieran.

Baina kasu gehienetan irakasleak ondo portatzen zirela diote, oso gutxitan jotzen zituztelako eta soilik gaizki portatzen zirenei. Hala ere, bazeuden zigor bereziak, “Hijas de la Caridad” eskolan, kartoizko mingain moduko bat zintzilikatzen zioten asko hitz egiten zuenari eta zigor gela batera eramaten zituzten, eskola publikoan berriz egurra erabili izan zen noiz edo noiz. Bittor Zabaleta, Martindegiko Beltzanean jaio zen, baina oso gazterik Portu auzora joan zen bizitzera, bertatik Biterira joaten zen ikastera; horrela gogoratzen ditu Bittorrek zigor haiek: *...Esaten zidan [irakasleak]: “Joan kalera eta egin hau eta beste, zu ‘kaxeroa’ zera eta”, neri “Kaxero tonto!” deitzen zidaten denek, ez nekien kastellanoz eta! Ez nekien! Eta maisuari zumia eman, bihatzak jarri horrela [batzak erakutsiz], eta gero egurra ematen zuen!...*⁴¹ Auzo eskoletan, Errepublika garaiko urteetan, euskaraz irakasten zen, baina ez oso osorik; herri guneko eskoletan berriz, hizkuntza nagusia gaztelania zen: *...Lebenago dana erderaz zan, hitzegin euskeraz egiten genuen baiño...*⁴² Honen erakusgarri, 1908an M^a Consuelo Rodríguez irakasleak idatzi zuena, XX. mende hasieran irakaskuntzak hizkuntzari zein trataera ematen zion:

“Herrialde honetako dialektoa hesi bat suertatzen zaio hau idazten duenari, izan ere, neska askori gaztelera erabat ezezagun egiten zaio eta denbora asko eman behar izaten dut espresuki hizkuntza hau hitz egin dezaten irakatsiz, gutxi gora behera bada ere, beste irakasgaietan uler nazaten.”⁴³

Felixa Aldasorok dioenez, labore edo joste garaian euskaraz hitz egiten zuten umeen artean, baina bestela dena erdaraz egiten zen. Nolako zen, ordea, gerra aurreko eskola egun bat?

...Gerra aurrian, gure artian euskeraz aritzen giñan, labore garaian, arratsaldian laboriak egiten genituen, “arte”ko lanak: Nabiz gantxilo eta nabiz josi, nabiz bordatu...lan asko erakusten ziguten! Goizian zortzitatik hamabitara eta arratsaldian hiru ta erditatikan bostetara. Mahaiak pupitriak ziran, barrenian edukitzen genituen kuadernuak eta osagarri guztiyak, libruak eta lapitzak eta tinteruak ere bagenituen, tintakin idazten baikenuen. Eta gero kaligrafia genuen, kuader-

⁴¹ 2002-BZA-01 elkarrizketa, hasieran.

⁴² 2002-MOG-01 elkarrizketa, hasieran.

⁴³ HUA (B/5/IV/1/8). Liburuaren egileak euskaraturiko testua.

no bereziyak, hori zan nunbait eskua ontzeko. (...) Denetati-kan ikasten genuen: aritmetika, geometria, geografia... dena. Entziklopediarekin ikasten genuen, lodi-lodi bat... Eta gero gimnasiya ere astian hirutan egiten genuen, mahai tartietan jarrita, kanta bat ere bagenuen... egiten genuen gimnasiya eta halaberian ikasi egiten genuen [kanta horrekin]...⁴⁴

Ume gehienak, hamalau urte egiten zituztenerako eskola utzi eta lanean hasten ziren, oso gutxi ziren jarraitzen zutenak, horretarako arrazoia dirua zen. Eskola publikoak hamalau urte arte ematen zituen bere zerbitzuak, hortik aurrera ordaindu egin behar zen: *...Hamalau urterekin? Orduan bamalaurekin normala zan (...), hamalau urterekin eskola utzi eta lane-ra!... Iñaxi Otamendik garbi dauka hori. Baina Tiburtzio Agirrek esate bate-rako, Nafarroako Lekarotzen ikasi zuen, bertan fraideen ikastetxe bat zego-en, oso famatua, Donostiako eta Hernaniko jende asko joaten zen bertara. Lekarotzeko ikasketak bukatu eta gero Donostiara joan zen Tiburtzio, batxilerra egitera: *...Donostiako institutua zana zegoen orain Koldo Mitxe-lena dagoen tokiyan. (...) Hortxe ibili giñan gu gerra hasi arte, nik buka-tu nuen batxilergua Donostin; hemen orduan ez zegoen (horrelakorik), batxilergo titulua ateratzeko joan bihar zan Valladolidera...⁴⁵* Baina hura salbuespena zen, ikasle gehienak fabrikari, neskame moduan edo etxean amari laguntzen, hasten ziren lanean.*

1936ko uztailaren 17ko egun hartan, José Gay Mur, eskolako zuzenda-ria, beti bezala eskolara joan zen, baina Hernanin bizitako bere azken eguna izango zen; bere ikasleak bildu eta honako eta halako azaldu zien, horrela ohartu zen Bittor Zabaleta gerra hastear zegoela eta urte askoan bere irakasle izan zen errepublikar hori joan beharrean zegoela:

...Nik gerra hasi zanian hamabi urte nituen eta etorri giña-nian eskolara, Don José Gay-k, hemengo maixu hobereneta-kua, barrek abisatu zigun. Bera republikanua zan, gogorra, hura zan liberala benetakua! - Eta esan zigun gerra hasi zala eta hau ta hola ta zera...eta despeditu zigun danori. Bera joan egin zan eta ez zan etorri gehiago honera eh!...⁴⁶

⁴⁴ 2002-FAA-01 elkarrizketa, hasieran

⁴⁵ 2002-TAZ-01(01) elkarrizketa, hasieran.

⁴⁶ 2002-BZA-01 elkarrizketa, erdialdean

Euskal Herrian irakasten zuten irakasle gehienak kanpokoak ziren, José Gay bezala, Zaragozatik edo Espainiako beste hiri batzuetatik etorritakoak, horregatik, hasieran foruzaleek eta XX. mendean abertzale eta foruzaleek, kanpoko irakasle hauek asko kritikatu zituzten, euskaraz irakasten ez zutelako edo bertako kultura ulertzen ez zutelako. Kanpoko maisu hauen aldarrikapenak ez ziren euskaltzaleak, diru gehiago eskatzen zuten, eskolen instalazioak hobetzeko edo baita beraien soldatak igotzeko ere, soldata nahiko baxuak omen zituzten eta.⁴⁷

Errepublika garaian, irakasleek egindako aldarrikapen asko lortu egin ziren eta irakasleen lan baldintzak asko hobetu ziren, horrekin batera irakaskuntza ere hobetuz. Hernaniko Biteri eskolak Pedro Biteri Arana (1833-1911) arrasatearraren diruarekin egin ziren 1907an; eskola hauek Hernanin eta Gipuzkoako beste bederatzi herritan egin ziren - Hondarribia, Irun, Antxo, Donibane, Urnieta, Oiartzun, Donostia, Aretxabaleta eta Arrasate (1902) -. Eskola guzti hauen funtzionamendua aurrera eramateko, "Biteri fundazioa" eratu zen. Biteri jaunaren ideologia, liberalen aldekoa zela jakina zen eta fundazioak ere ideologia horrekin egin zuen lan; horregatik tradizionalisten eta elizaren kritika asko jaso zituzten hasiera batean. Ez da harrizkoa beraz, bertan lan egiten zuten irakasle askok ideologia liberal edo errepublikarra eduki izana, Gay Murrek bezala. Honek azaldu dezake, irakasle asko errepublikaren alde jartzea eta gerra hasi zenean, Francoren tropek lurak bereganatu ahala, ihes egin behar izatea, Gay-k egin zuen bezalaxe, alegia. Horretaz gainera, gelditu zirenen artean, garbiketa eta bahetze prozesu handi bat hasi zen, gerra osteko urteetako eskola frankistak sortzeko bidean.⁴⁸

⁴⁷ RODRIGUEZ, Fito: *Ikastolak eta euskal eskolak*, Orain S.A, Hernani, 1996. 25-36 or.

⁴⁸ OSTOLAZA, Maitane: *El garrote de la depuración. Maestros vascos en la guerra civil y el primer franquismo (1936-1945)*, Ibaeta Pedagogía EHU, Donostia, 1996, 37-45 or. Pedro Biteriri buruz ikusi: *Arrasate 1936. Una generación cortada*, Oktubre taldeak argitaratua.



Biteriko ikasleak irakaslearekin, 1920an.

Ezkerretik eskuinera:

1. Plazaola, Pablo Aranburu, Luis Rejano, Luis Alvarez, Manolo Altolagirre, Joakin Oa, Aristimuño, Arrozpide.
2. Odriozola, Iñiguez, Leibar, Irujo, Gregorio San Adrián eta semea, Telleria, Etxebeste, Hermenegildo Garcia "Mere", Corcuera.
3. Amezua, Blanco, Mariano Mujika, Joxe Iruña, Elías Alsua, Caraciolo, Joakin Erdozia, Cruz Lesaka, Luis Ruiz "Paxtero", Joxe Laburu, Fernández, Carrascoso.
4. Sagastume, XX, Joxe Arrieta, Odriozola, José Luis Madina, XX, Eusebio Sevillano, "Komunista", Ogando, Oiartzabal, XX, XX, Ugalde.



Biteri, Urbieta kaletik begiratuta.

Bule buleka

Iñaxi eta Gregori Otamendi, orduan irekirik egon ohi ziren ganbaretan bule buleka edo ‘a bules’ jolasten ziren, alde zaharreko etxe batetik bestera pasatuz. Joko honen funtsa zera zen, ume bat begiak itxi eta kontatzen hasten zen: bat, bi hiru... besteak aldiz ezkutatu egiten ziren, horrela, begiak itxi zituen umeak ezkutatu zirenak aurkitu behar zituen: ...*Kontatzen jarri bihar ziñan eta bestiak izkutatu egin bihar ziran, eta gero aurkitu egin bihar zenituen, horri “bule buleka” deitzen geniyon...*⁴⁹ Jakina da, joko hau oraindik ere ezagutzen dela, “gordeketa” edo bestelako izenen bidez. Beste joko garrantzitsu bat, “cuatro árboles” deitzen ziotena zen, izenak berak dioen bezala lau zuhaitzen inguruan jolasten ziren haurrak: ...*arbolatan ibiltzen giñan, eskolan bazeuden arbolak [ezkiak], arbolatik arbolara korrika egiten eta horrela...*⁵⁰ dio Manoli Olanok. Felix Aldasoro, Biteri eskolaren parean zuhaitz batzuk zeudela gogoratzen da eta hor jolasten ziren “cuatro árboles” delakora: Ume bakoitza zuhaitz batean jartzen zen eta batetik bestera korrika egin behar zuten; erdian gelditzen zen umeak lekua harrapatu behar zuen.

Zergatik aipatzen dituzte, Hernaniko aiton-amona gehienek, erdarazko hitzekin joko hauek? ‘Al diablo’ edo ‘tabak’ - beste herri batzuetan *tortolosa* -, ‘kanikak’... denak dira erdarazko hitzak, batzuk aspaldikoak, besteak gertukoagoak... Hau azaltzeko arrazoi bat zera izan daiteke: Umeek, urte horietan jolasteko denbora gehiago izaten zuten, baita eskolan ere, horregatik pentsa daiteke, eskolan erdaraz egin behar zutenez gero, joko hauen izenak erdaraz ikasten zituztela. Gainera, urte horietan erdaraz zuen prestigioa ikusirik, umeek gazteleraizko izen hauek ez ahazteko ahaleginak egingo zituztela ere pentsatzekoa da.

Joko gehienek ez zuten inolako ondare material handirik eskatzen, irudimen pixka bat besterik ez. Tabak, esate baterako, hezur zatiak ziren, aharriarenak edo bildotsarenak, formula konplikatu bidez eta kanten bidez jolasten ziren orduko neskatilak tabekin; Manoli Olanok irribarre egiten du joko honetaz hitz egiten hasten denean, gogoan du kantaren bukaeran nola esaten zuten: “Gorgorito...partida!!”. Kanikekin ere asko ibiltzen ziren,

⁴⁹ 2002-FAA-01 elkarrizketa, hasieran.

⁵⁰ 2002-MOG-01 elkarrizketa, hasieran.

kristalezkoak edo buztinezkoak izan zitezkeen, baina baita material pobreagoekin eginikoak ere; Luis Gorrotxategik gerezien hezurak erabiltzen zituen kanika modura. Fruituen hezurak edo zuhaitz ezberdinen haziak erabiltzea ohikoa izan zen, buztinezko edo beirazko kanikak erabili baino lehenago behintzat.⁵¹

Umeez jolasteko leku ezberdinak zituzten, esate baterako, Biteri eskolaren aurreko plazan edo Ezkiaga Pasealekuko pilotalekuan. Felixia Aldasorok dioenez ez zegoen erreparorik mutilak eta neskak elkarrekin jolasteko; zentzu honetan, Manoli Olanok gogoan du mutilekin batera jolasten zela pilotan: *...Bai bai, neskak mutilakin eh! Idarretakin eta ibiltzen giñan gu, nik goguan daukat!...*⁵²

Etxe barne bizia

Horrelako izenburu polit batekin idatzi zuen Lizardik artikulu bat, 1932an Kirikiño saria irabazi zuen idazlana hain zuzen. Ezin egokiago dator kio izenburu hori honako atal honi. Orain arte, kanporakoak azaldu direnez, ez legoke sobera, gerra aurreko gizartea etxe barrura begira nolakoa zen jakitea, adibide pare batekin bada ere. “Atarian ilun, ta leioan txingor, tun-tun otsa diranean, goxoa oi-dek etxeko sutondoa”, idatzi zuen behin Lizardik.⁵³

Gauzak zenbat aldatu diren jakina da, hirurogei edo laurogei urte eta gero, gerra aurreko kontuak, askotan sinesteak lanak ematen dizkigu. Luis Gorrotxategik ere badaki hori, urte horietan gertatu den aldaketa bere baitan bizi izan baitu, bere 88 urteek ematen dioten esperientziarekin oso garbi dio: *...Zuen denboratikan bonera, alderdi ikaragarriya dago eh! (...) Horregaitikan esaten det nik, oraingo diferentzi hau handikan bonera: lehenago ezer ere ez eta orain... - ingurura begiratzen du Luisek, zenbat gauza dituen erakutsi nahian - ...Eta nik ez dakit izango dan beste generaziyorik, horrelako saltua ezagutuko duenik. (...) Orain badaude gauzak, orduan pentsatzen ez ziranak ere!...*⁵⁴

⁵¹ BARANDIARAN, J.M (Zuz.): *Juegos infantiles en Vasconia*, Eusko Jaurlaritzza - Etniker, Bilbo, 1993, 417-419 or.

⁵² 2002-MOG-01 elkarrizketa, hasieran.

⁵³ *Yakintza*, 1932, 90 or.

⁵⁴ 2002-LGM-01 elkarrizketa, erdialde-bukaeran.

Ez da gutxiagorako, famili ohituretan esate baterako, aita eta amari, sekulako errespetua zitzaion garai haietan, gaur egun ere horrela izango da, baina orduan, beste modu batera hitz egin behar zitzaien eta beraien esanari, askotan, ezin zitzaion kontra egin. Anttoni Egañak, gogoan du, nola bere amari “berorika” hitz egiten zioten berak eta bere anaiek: *...Jesus, zer zan hori! Errespetua aitari eta amari... berorrika hitz egiten geniyon guk beti amari, “berorri”!*⁵⁵ Gurasoek ere, errespetatuak izaten bazekiten, batzuk oso zorrotzak ziren, garai haietan normala zen umeak indarraren bidez hezte, hots, kontrakorik eginez gero, denek edo ia denek jasotzen zuten zaplaztekoren bat; Bittor Zabaletak, kontatzen duenez, eskolan txikarra eginez gero, maisuaren zigorrak jasateaz gain, aitaren zigorrak ere jasan behar ziren etxean:

*...Ni eskolara joaten nintzanean bastante txintxua nintzan, baina hemen [Biteriko eskolan], txikarra egiten genuenian, aita etortzen zan, joe! Egurra, orduan badakizu zer zan? Egurra! Etxian egurra. Galdetuko ziyon [maisuari]: “¿Zer, semia zer moduz portatzen da?”, eta bestiak egiya esan! Gero aitak arreglatuko ziyon [semeari], bandik aurrerako legiak aitak zituen!...*⁵⁶

Esan bezala, umeen heziketa ez zen gaur egun bezalakoa, garai haietan indarkeriazko jokabideak nahiko onarturik zeuden etxe barruan. Lizardik bere artikuluan, honako hau idatzi zuen seme bati buruz, naturaltasun osoz: “Bearrik, garaiz iritxi nauk, eta, kazkarreko bat emanaz, or biali diat berriz ere etxean zear”. Modu berean, gai delikatuez hitz egiteko unean, etxe bakoitzean kontakizun harrigarriak asmatzen ziren, gaia saihestu nahian; sexuaz hitz egitea, esate baterako, erabat debekatua zegoen eta umeak Parisetik ekartzen zituztela uste zuten haur gehienek, baina bazeuden familia batzuk, haurrak nondik zetozen, beraien seme-alabei nola-hala azaltzen zietenak. Honako pasarte xeble haur Felix Aldasororen ahotik entzuna da:

⁵⁵ 2002-AEA-01 elkarrizketa, erdialde-bukaeran.

⁵⁶ 2002-BZA-01 elkarrizketa, hasiera-erdialdea.

...Guk etxian genuen oso hartu eman haundiya, gurasuekin (...) aitari gustatzen zitzaion haurrak ondo beztia eta amari zer esanik ez. Kontatuko dizut orain guri gertatutakua: Amak egun batian esan zidan “Felixa, seriyozki hitzegin biharra zeukanagu. Zuek zer aritzen zerate lagun artian esaten? Haurrak nundik etortzen dirala?” eta nik: “Haurrak Paristik, ta beste batzuk berriz, zikuñak ekartzen dituztela. Paris herri bat omen da eta han sortzen dituzte, fabrika bat omen dago handik eta...” eta esan zian amak: “Aizu Felixa, zuk sinisten al dezu, famili pobre batian dirua badagola Pariseraino joateko?” “Ez, horrek txokia ematen dit neri, Pariseraino haur bila joatiak... dirua zeinek ematen ote diyoten pentsatzen det nik” “Ondo pentsatzen dezu ba!” esan zidan, “Orain esango dizut, zer dan eta nola dan: Begira, lur lanian baserritarrak zer egiten duten ba al dakizue?” “Bai, lurrian haziya bota, gero landaria aterako bada!” erantzun niyon, “Oso ondo. Eta oilarrak jartzen diyo haziya oiloari eta oiloak egiten ditu arrautzak, ta txitoak ateratzen dira arrautzetatik, baina pertsonak ez degu bolakorik, pertsonak gera animaliyak bezela, eta animaliek dute boltsa berezi bat tripa barruan, aitag sartzen diyo haziya eta amari sortzen zaio haurra, ba emakumiak gauza bera, zuek hemen barrundikan sortu zerate, aitan eta aman kariñuakin”...⁵⁷

ETXEEN EGITURA FISIKOA

“Etxeak” bere baitan gordetzen duenaz ari gara, kalean ikusten ez denaz: Famili kideen arteko harremanak, umeen heziketa... baina etxea bera? Nolakoak ziren urte horietako Hernaniko etxeak? Gaur egungo modernitate guztiak albo batera utzi eta orduko etxe batek zituen “erosotasunak” zein ziren jakitea komenigarria litzateke. Jakina da, oraindik ere, garai bateko etxeen egiturak irauten duela alde zaharreko edo auzoetako zenbait eraikinetan. Bestela, nork ez ditu ikusi eskailera iluneko etxe luzexka horiek, ate handi eta gela ugariz osatutakoak?

⁵⁷ 2002-FAA-01 elkarrizketa, hasiera-erdialdean.

Inaxi Otamendiren etxera sartzean, segituan konturatzen da bat, ez dela nolana hiko etxea, berak 84 urte ditu eta bizitza guztia bertan eman du. Bere ahizpak berriz zaharragoa izanagatik ere, ez ditu hainbeste urte eman etxe horretan, baina ongi gogoratzen da garai batean nolakoa zen. Inaxi eta Gregoriren gurasoak Kale Nagusiko beste etxe batean bizi ziren, baina mende hasieran bizitza hori saldu eta *Imazeneko* etxean etxebizitza bat erosi zuten, gaur egungo Iñaxiren etxea, alegia. *Imazeneko* lehenengo pisuko bizitza handi batetaz ari gara, gaur egun bitan banaturik dagoena: *...guk genuen hemendikan atzealderaino eb! (...) Hau dago bi puskatan egiña, oso haundiya, badakizu, batzuk ezkondu gurasuak hil eta azkenian erdibitu egin genuen...*⁵⁸ Izan ere, garai haietako etxeen ezaugarri bat, beraien handitasuna zen, pisu oso handiak ziren, familiak ere hala moduzkoak zirelako. Etxe itxurosoak ziren, batzuk egongelan etzaleku edo “alkoba” bat izaten zuten: *... Salak zeukan alkoba bat, ate haundi bat zegoen sala barruan eta handikan abitaziyura sartzen ziñan [alkobara]. (...) Etxe majua zan, ez oraingo etxe apain horietakua, baiño bebiñipin bizitzeko etxe nabiko politta zan...*⁵⁹ Horrela hitz egiten digu Felix Aldasorok bera bizi zen *Andrekaleko* etxeaz.

Baina etxe itxurosoenetan, etzalekuak egonik ere, beste gauza asko falta ziren, esate baterako, logela batek ohea eta beste bizpahiru altzari izaten zituen soilik, gainera, gela batean, pertsona batek baina gehiagok egin zezakeen lo. Sukaldeak berriz, antzinako modura zeuden moldatuak, batzuek sukalde ekonomikoak zituzten, beste batzuek berriz, oraindik “subajua” zeukaten euren sukaldeetan; baina sukaldeak, gaur egun jadanik galdua duen beste zera bat zuen, xarma bat, hura baitzen etxeko erdigunea, famili kideak elkartzeko tokia: *...sukaldian, bizidun guztiyak bezela, sukaldian!...*⁶⁰ Iñaxik arrazoia du, bizidunak izanez gero, sukaldean, batez ere hotz egiten zuen garaian, orduan ez baitzeuden “gaur egungo estufak eta hoik”, orduan, etxe gehienak sukaldea piztuta berotzen ziren; auskalo zenbat korrika saio egin dituzten zenbaitzuk, sukaldetik ohera, pasabide hotz eta hezeetan barrena!

⁵⁸ 2002-GIOA-01 elkarrizketa, hasieran.

⁵⁹ 2002-FAA-01 elkarrizketa, hasieran.

⁶⁰ 2002-GIOA-01 elkarrizketa, hasieran.

Etxe pobreenetan, bizi baldintzak kaxkarragoak ziren, Manoli Olano, Plaza Berritik behera *Andrekaleko* ezker aldean jaio zen, etxe txiki batean, etxe horrek baserri itxura zuen eta berak dioenez eskuin aldean, askoz etxe dotoreagoak zeuden; Manolik, alde handia nabaritu omen zuen eskuin aldeko etxe batera bizitzera joan zenean, gaur egun ere bertan bizi da:

*...Ez dakit zenbat urterekin pasa giñan honera, txikiya zan etxe hau guretzako, zortzi lagun juntatzen giñan! Eta txiki xamarra zanez, honera pasa giñan beste alde hontara [Kardaberaz 62, eskuinaldean], eta hemendik ez gera mugitu (...) Baserri moduko bat zan [ezker aldeko etxea] eta aldamenekua ere bai, aldamenekua zan "Txirritanekua", Txirrita deitzen ziyoten horri, han ukuilua zegoen eta hor ere [Txirritanian] ukuilua zegoen. (...) Hemen [eskuinaldean] dotoriak ziran, hemen notariyua eta bizi ziran, eta gu zera... ukuiluko kaka usaiarekin!...*⁶¹



Kale Nagusia mende hasieran. Aurrean Egino, jauregi dotorea.

Dena den, argi indarra etxe gehienetan zegoen jadanik, behintzat herri-guneko etxeetan. Argi indarra 1898an ipini zuen udaletxeak, Ibarluzeko erriberan zentral elektriko bat eginez.⁶² Ordudanik kaleak elektrizitatearekin argitu izan dira Hernanin, Jorge Villarrek dioenez, *Andrekalea*, Kale Nagusia eta inguruko kaleak izan ziren lehenengo argitu zirenak. Irratia edukitzea berriz bitxikeria bat zen gerra aurrean, banaka gutxi batzuk

⁶¹ 2002-MOG-01 elkarrizketa, hasieran.

⁶² HUA, 10/1/2 eta 10/2/3. Baita ere: 2002-JVE-01 elkarrizketa, erdialde-bukaeran (argi indarrari buruzko komentarioak).

baino ez zuten. Ura, argia baina beranduago sartu zen etxeetara, Iñaxik eta Gregori Otamendik beti ezagutu dute ura beraien etxean, Luis Gorrotxategik ere horrela ezagutu du, baina Jorge Villarrek dioenez, etxe guztietan ez zegoen urik, batzuk garbilekuetara edo Zinkoenea, Plaza Berri edo “goiko plazako”, hots, Gudarien Plazako iturri publikoetara joaten ziren ur bila. Suila hartu, buru gainean jarri eta horrela eramaten zuten ura emakume askok Hernanin: *...Mutil koxkorretan jende askok! Emakumiak suila hartu eta Leokara ur bila! Elxe horietan ez zegoen urik eta! Nik beti ezagutu det etxian ura, baiño (beste batzuetan ez zegoen) bestela ez ziran joango emakumiak bara!...*⁶³ Gorrotxategik, eskuak altxatuz, garbi esaten du hori.


Garbilekuak edo “labaderoak”

Urak bor-bor egiten du iturritik ateratzen denean; soinu horrek musulmanak liluraturik uzten omen zituzten, bizi ziren lurralde lehorretan ura oso ondare eskasa baitzen, horregatik, musulman lurraldeetako Kordoba, Alhambra edo Bagdad nahiz Istanbulko jekeek, jasmin edo laranja usainaz aparte, uraren bor-bor soinua zuten gogoko beraien lorategietan. Bor-bor soinu hori entzunaz jaiotako eta hazi izan gara hernaniarrak, herri honetan, ura gogotsu datorrelako edozein menditako malda edo sakonunetik behe-ra. Ur garden horietan garbitu dituzte arropak herri honetako emakumeek mendeetan zehar.

Hernanin, ura etxeetara berandu sartu zenez, emakumeak herri guztian zehar barreiatuak zeuden zenbait garbilekuetara joaten ziren, arropa garbitzera edo ur bila. Hauetako batzuk aski ezagunak dira herrian, Leokako “labaderoa” edo Latsunbekoa, esate baterako, azken hau jadanik desagertu dago. Gerra aurrean txikiak izan arren, askok gogoan dituzte emakumeak suila, pitxar edo barreñoak eskuan nahiz buruan jarri eta leku horietara joaten. Josebe Goia *Beheko iturria* deitzen zioten iturriaz mintzatzen da, Pipiritta baserritik behera joanez, gaur egungo Elizatxo auzoan dagoen iturburuaz; bertara joaten ziren ur bila: *...Orduan suilarik ez... orduan geneukan ‘ojalata’ deitzen ziyotena, kirten batzuekin, borobilak ziran. Hartu eta ti-ta burura! Trapu bat jartzen genuen, bola-bola egin eta “burukiya” esaten zitzaion, haren gañian jarri eta bala!...*⁶⁴

⁶³ 2002-IGM-01 elkarrizketa, erdialdean.

⁶⁴ 2002-JGZ-02 elkarrizketa, hasiera-erdialdean.




*Leokako garbilekua.
Makina bat arropa
garbitu izan da bertan
eta oraindik erabil
daiteke.*

**Hernaniko iturburu
publikoen zerrenda (1944)**

<i>Iturriaren izena</i>	<i>Uraren egoera</i>
Iturriaundieta	Hotza, lodia
Oztaleku	Hotza, edatekoa
Arrikarte	Hotza, ona
Iparragirre-aldia	Hotza, ona
Iturralde	Hotza, ona
Iturregi	Hotza, garbilekurako
Leoka	Hotza, garbilekurako
Otzarramendi	Hotza, ona
Tango iturri	Hotza

Ituria: Hernaniko Udal Artxiboa

Latsunbeko garbilekua. Goian, edifizioa eta behean, garbilekua barrutik. 1869an egin zuen Jose Antonio Muruak eta gaur egun Kiroldegia dago bertan.



Joseberen amak, Malen Zubirik, baserria bakarrik gobernatu behar izan zuen, senarrak Gaztela aldean egiten baitzuen lan; baina honek, hargina zenez, garbileku egoki bat egin zion Maleni Elizatzoko *Beheko iturrian*. Joseberen hitzetan, leku hori, Leokakoa baino hobea omen zen, ur garbi garbia zeriolako, baina ama aspertu egiten zen eta azkenean Leokara joaten zen garbiketarak egitera, bertan herriko beste zenbait emakumerekin aritzen zen berriketan, kontua gora kontua behera, politika ere hizketa gai izaten zen garbileku hartan. Malenek ikatz errautsa erabiltzen zuen arropa garbitzeko:

*...Guk ez degu ezagutu, amak bai, errautsarekin, balde batian ura berua jarri eta han egosi eta zuri zuri jartzen zuten, ura garbitu egin bihar zan eb! Eta errautsak ez zuen zikintzen, errautsa egurrarena baitzan, baina hori ez det ezagutu nik (...). Guk jaboiarekin garbitzen genuen, "Jabón Chimbo" eta "Jabón Lagarto" oraindik ere badira. Lejiarik ere ez zan, hartu jaboia, eman eta gero belarretan jarri, eguzkiyak jartzen zuen zuri zuriya, akklaratu eta gero zabalduz. Ze lanak!...*⁶⁵

"...jaiak ordun xelebriak zian!"

Behin Voltairek, euskaldunak zer ginen esan zuen: "...Pirineotako bi aldeetan abestu eta dantzatzen duen herria...". Hernanin kantariak eta dantzariak ez ziren falta inolaz ere. Bazter eta txoko guztietan jai, erromeria edo bestelako ospakizunak egiten ziren garai batean Hernanin. Gaur egun hauetako asko galdurik daude, baina zaharrenen oroimenean bizirik ordea!

SAN JOAN

San Joan, Hernaniko patroia jaiak, modu bikainean ospatzen ziren, gainera harro esan daiteke orduko ohitura berezienak oraindik ez direla galdu; *erronda* dugu hauetako ohitura berezi bat, San Joan bezperan zenbait bertsolari elkartu eta *Dios te salve, ongi etorri...* batekin hasten ziren kantatzen, bertsolari hauen artean Txirrita ere egoten omen zen. Mende askotako tradizioa dugu hau; Lasarten, XVII. mende bukaeran, ohitura hau ospatzen zela jasota dago Hernaniko agiritegian, eta dokumentu honen arabera, baliteke makilak erabili izana, gaur egun Santa Ageda bezperan egiten den moduan.⁶⁶

⁶⁵ Ibid., hasiera-erdialdean.

⁶⁶ HUA, E/7/III/6/11. Juan de Azcue-ren kontrako auziak, Lorenzo Michelenaren hilketagatik. Hilketan San Juan bezperan gertatu zen, bi bertsolari edo "glosadore" taldeen arteko liskar baten ondorioz.

Galdu ez den beste ohitura garrantzitsu bat San Joan sua eta bertan egiten den aureskua dugu, alkatea eta zinegotziak derrigorrez irten behar ziren, gainera “sekretarioak” ere dantzaten zuen aureskua. San Joanetako festa ikusgarrienetako bat zezenak ziren, Udalatxeko plazan egiten ziren: *...zezenak egiten ziran plazan, ixten zuten egurrekin goraino eta hor jendia eseri egiten zan; sokamuturra berriz kalia barrena, Zinkonearaino, Zinkonean buelta eman eta gora!...*⁶⁷ Luis Blas Zuleta esaten duenez, plazan ez ezik, Txantxillan ere egiten ziren zezenketak, horretarako zezen plaza mugikor bat ekarri zuten, hau 1931 urte inguruan gertatu zen.⁶⁸

Anttoni Egañak su artifizialak zituen gustuko, tamalez ez da gogoratzen nondik botatzen zituzten. Bittor Zabaleta berriz, “afiladorectaz” gogoratzen da, konpartsa hau inauteritako tipikoa izan arren, San Joanetan ikusi izan zituen: *...Berrogei afiladore, afiladoriak eb! Ez da broma eb! Afilatzeko katxarruekin: “Afilamos, las tijeras...”, zera, orain danborrada bezela? Orduan zera zan, afiladoriak, oso dotoriak ziran afiladorian kantak eta...*⁶⁹

“KIKIRIKI” BARKILEROA

Barraka gutxi etortzen ziren orduan Hernanira, “tiovivo” batzuk eta “kulunpiyuak” ziren ohizkoenak Felix Aldasoreoren ustetan. Manoli Olanori txikia zenean, 1920ko hamarkadan, goxokiak, txokolatea, barkilloak eta horrelako gozogarri guztiak asko gustatzen zitzaizkion, haur orori bezala, noski. Manoli eta bere lagunak *Adarraganeko* gozoki dendan elkartzen ziren, bertan ematen zituzten txokolate puskak jateko. Txokolatea ia egunero jaten zuten, sei librazio ogi puska batekin edo “Inñaxi panaderak” - Inñaxi Goñi, Kale Nagusiko okindegi batean egiten zuen lan - emandako esnetarako opilekin. Baina gehien gustatzen zitzaiona barkilloak ziren, San Joanetan edo ‘Tilos’etako dantzaldiak zeudenean, “Kikiriki barkillerua” etortzen zen: *...“Kikiriki” bai, bigote ttiki bat zuen, karameluak erosi egiten genitun, baiño barkilluak... (makinari) buelta eman eta ateratzen bazan bosta edo birua, (tokatu egiten zitzaizun)...*⁷⁰ Makinak aspa moduko bat zuen eta horri

⁶⁷ 2002-FAA-01 elkarrizketa, erdialdean.

⁶⁸ BLAS ZULETA, Luis; *Hernani entre dos guerras...*, 76-77 or.

⁶⁹ 2002-BZA-01 elkarrizketa, erdialdean.

⁷⁰ 2002-MOG-01 elkarrizketa, hasiera-erdialdean.

bueltak emanez, irteten zen zenbakiaren araberrako barkilloak irabazten zituzten; aspa biratzeko, lehenik bost edo hamar xentimo ordaindu behar zuten haurrek, “txakur txiki” edo “txakur haundi” bat, alegia.

“...¡CUIDAU CON BAILAR EL AGARRAU!”

Ezkiaga pasealekuan egiten ziren dantzaldiak oso garrantzitsuak izaten ziren, probintzi osoan ezagunak, eta kanpotik jende piloa etortzen zen. Dantzaldiak, 1930eko hamarkadan hasi ziren ezagun egiten eta gerra etorri zenean eten bat egon bazen ere, hortik pixka batera berriro martxan jarri ziren. Dantzaldiak pasealekuko kioskoaren inguruan egiten ziren, bertako ezkien itzalpean. *Joxe Marineko* Mañoli Zigaranez oso ongi ezagutu zituen dantzaldi haiek, baina amorruez dio, jaiak eta dantzaldiak zeudenean inoiz baino lan gehiago egin behar zutela, tabernan jende mordoa biltzen zelako. Berak dioenez, bandak hiru pieza jotzen zituen eta gero: *...txistulariyak, sueltuan dantzatzeko...*⁷¹ Manoli Olanok ere ederki pasatzen zuen bertan: *...Bi, hiru, sei, bederatzi pieza eta gero ttunttuna tartian. Ze ederki pasatzen genuen, joe!...*⁷² Izan ere, hogeigarren mendea ongi sarturik zegoen eta moda berriak agertzen ari ziren, “al agarrau” dantzatzea zen moda horietako bat, dantza askatua ia erabat ordezkatu zuelarik, gainera hiri handienetan - Donostian adibidez - areto itxiak zeuden dantzatzeko eta bertan, udan etortzen ziren turistek “dancing”-a edo Ameriketatik zetorren jazz eta “fox”-a dantzatzen zuten.⁷³ Hernanin ez omen zegoen arazorik “agarrau” modura dantzatzeko, baina herri txikietan oraindik oso gauza berria zen, Manoliri ez zitzaion Urnietako jaietara joatea gustatzen, bertan “jende elizkoia” zegoelako eta ez omen zuten “al agarrau” dantzatzen uzten. Mañoli Zigaranez, “Hijas de la Caridad” mojen eskolara joaten zen ikastera eta bertan bai izaten zuela arazorik: *...“¡Cuidau eb! Con bailar el agarrau!”...esaten zioten mojek.*

Gazte koadrila asko etortzen ziren, batez ere Donostiakoak, *Egañanean* merienda egin eta gero Ezkiaga pasealekura abiatzen ziren, bertako dantzaldian parte hartzera. Askoren ustez, koadrila hauen eta Hernanikoen

⁷¹ 2002-MZA-01 elkarrizketa, erdialdean.

⁷² 2002-MOG-01 elkarrizketa, hasieran.

⁷³ PABLO, Santiago de: *Euskal Herriko II. Errepublikaren eta Gerra Zibila: Eguneroko bizitza*, Gero-Mensajero, Bilbo, 1995, 50-51 or.

artean hika-mika eta istilu ugari egoten ziren, sagardotegietan elkartzen zirenean, batez ere. Dantzaldia, berez Ezkiaga pasealekuan edo “Tilosetan” izaten zen, baina euria ari bazuen, korrika batean Udaletxeko arkupetara garraiatzen zituzten tresnak, banda ezker aldeko arkupe txikian jartzen zen eta jendea beste aldean, batzuk berriz aterkia harturik kanpoaldean jartzen ziren dantzan, horrela gogoratzen du Mañoli Zigaranez behinik behin.⁷⁴



Ezkiaga pasealekuko kioskoa, bandak jo aurretik pronto. Jende asko etortzen zen igandeetako dantzaldietara.

Gerraren etorrerarekin eten bat egon zen, hilabete batzuetan ez baitzen herrian inolako dantzaldi eta festarik egin, baina giroa pixka bat lasaitu zenean, berriro hasi ziren dantzaldiak, indar handiagoz gainera. Tiburtzio Agirrek, Ezkiaga pasealekuko dantzaldia, inguruko “nagusiena” zela dio, oso ospetsua egin baitzen, bertan mahai ugari jartzen zituzten, Joxe Mari taberna eta *Bar Frontónen* inguruan, gainera komedianteren bat etortzen zenean, jendea etxeko aulkiak hartuta joaten zen Ezkiagara, edo inguruko tabernetako aulkiak hartzen zituzten ikuskizunerako:

⁷⁴ 2002-MZA-01 elkarrizketa, erdialdean.

...Orduan etortzen ziran asko komediantiak, publizitatea egiten zuten, danbor bat joaz: “Gaur gabian, hamarretan plazan!”, batzutan plazan beste batzutan Tilosetan... eta jendiak etxetik ‘bankillo’ batzuk hartzen zituen eta korrika joaten zen ikustera (...) Baina gogoratzen naiz, amorrarazten egoten giñala, aulki ‘plegabliak’ genitun Tilosetan jartzeko eta jendiak kafia hartzeko, freskuran... eta hartzen zituzten aulki baiek eta gañian jartzen ziran [komediantek ikusteko] eta orduan osaba Tiburtziok [Tiburtzio Zigarán, bere anaia] esaten zuen: “Aizu! Jeitsi hortikan!” Eta aulkiya kentzen ziyen!...⁷⁵

Iñaxi Otamendik dio, gerraostean dantzaldia bukatzen zenean ereserkiak jotzen zituztela, falangekoen eta erreketeen gustagarri: ...*Dantzaldiko musika amaitzear zegoela, ahal zutenek, arinenek, ospa egiten zuten eta ban, patriotak soilik geratzen ziren ereserkiak kantatzen...*⁷⁶

INAUTERIAK

San Joan jaiez hitz egiten hasi orduko, Mañoli Zigaranez garbi esan zuen, San Joan jaien pareko izan zirela garai bateko inauteriak Hernanin, konpartsak eta guzti antolatzen zituztelarik. Festa hau XIX. mendetik bazetorren gutxienik eta XX. mende hasieran gorakada nabarmena izan zuen. 1920tik aurrera “kaldereroak” ere ospatu ziren Hernanin, Momo erregearen oroimenetan; Donostian 1884an hasi ziren ospatzen, Hungariatik zetozen ijito nomada hauen joan-etorriak antzetzeko asmoz. Jende asko ateratzen omen zen, batzuk trapu zaharrak buruan jantzita eta beste batzuk, ijito jantziak ez bazituzten, baserritarren brusak jazen zituzten.⁷⁷ Inauterietako ekitaldirik bereziena *axeridantzaren ondoren* zen. Luis Gorrotxategik mutil koxkorretatik hartu zuen parte festa honetan, berak orduko Axeri-dantza nola ikusten zuen kontatzen du:

⁷⁵ 2002-MZA-01 elkarrizketa, erdialde-bukaeran

⁷⁶ ODRIOZOLA, Jon: *Hernaniko aiene eta ajeak...*, 15.6 atala.

⁷⁷ 2002-FAA-01 elkarrizketa, erdialdean. Ikusi ere: ZAPIAIN, José: “Viejas comparsas de caldereros e iñudes”, *Vida Vasca*, 20 zbk. (1943), Gasteiz, 95-96 or.

...Neretzako earra zan hori, lehendabiziko egiten zan mutil koxkorrentzako, ostegun gizen egunian, eta gero 'astelenitas', bueno 'astelenitas' esaten diogu, karnabaletako astelehenari, eta 'astiartitas' astiartiari. Axeri dantza nere gustukua zan (...). Baina ordun zortzitan eh! Zortzitatikan bederatziak eta erditara. Orduan baztar guztititikan pasaizua bazegoen... Bai, hura earra zan...⁷⁸

Luisen berezko ofizioa harakintza zen, beraz erraza zuen maskuriak lortzea. Maskuria zuenak udaletxeko “alhondegina” aurkeztea besterik ez zuen festan parte hartzeko. Axeridantza eta gero, angulak eta zurrurutuna gosaldutan ostean, gehienek festan jarraitzen zuten.⁷⁹

SANTA MADALENAK LIZEAGAN

Lizeaga kalea *Portalezkan*potik Urnieta aldera doan hasierako bideari deitzen zaio, Tellerigaineraino iristen dena; hain zuzen, garai batean errege bidea edo Gaztelarako bidea izan zen. Lizeaga abizenaren historia luzea da Hernanin. 1875eko uztailan, Hernani karlistek inguraturik zegoela, Ignacio Lizeaga kapitain liberala, Santiago Menditik botatako granada batek jo zuen eta horren ondorioz eskua galdu zuen; horregatik, udaletxe atzeko lurrei, ordu arte “Barrio del Humilladero” izena zuen auzoari - bertan dagoen ermitagatik - “Barrio de Liceaga” izena jartzea proposatu zuten. Mende bat beranduago, auzoa baino, Lizeaga kalea izango zela erabaki zuen udalak⁸⁰.

Baina, zergatik jarri zitzaion leku horri eta ez beste bati, “Barrio de Liceaga” izena? Hori azaltzea arraz erraza da; badirudi, udaletxe atzeko lur gehienak, lizeagatarren jabetzakoak zirela, ez da harrizkoa beraz, leku hori izen horrekin ezagutu izana. Zenbait berriemailek ere, gogoan dauzkate bertan bizi ziren lizeagatarrak, dirua franko zutela ematen du: *...Hemen bi neska zahar baziran, bestia militar batekin ezkondua, eta baiiek gelditu ziran denakin... terrenu hauek denak, Lizeagako terrenu*

⁷⁸ 2002-LGM-01 elkarrizketa, bukaeran.

⁷⁹ IRIARTE, Xabier: “Azeri Dantza”, *Hernaniko Kultur Koadernoak*, Dobera Euskara Elkarte, Hernani, 2000.

⁸⁰ HUA, D/1/3/5.

*boiek eta gure etxeko terrenuak, Paradorekuak eta denak beraienak ziran...*⁸¹. Roxarito Goikoetxeak “Lizeagako señoritak” deitzen die, bi neska zaharrek, “señorita Lucina” eta “señorita Bittori” izena zutela uste du, hirugarrenak nola izena zuen berriz, ez da gogoratzen, baina bai militar horrekin ezkondu zen egunaz: *...Berak ez zuen umerik, berandu ezkondu zan, gogoratzen naiz hura, Lizeagatik elizaraino alfonbrarekin!...* Ondare handia omen zuten, Leoka inguruko lurak ere beraienak zirela gogoratzen baitu Roxaritok.⁸²

Imanol Larretxea, *Portalezkanpoko* “etxe zahar batian” jaio zen, gerra aurrean. Lizeagatarrak, larretxeatarren “etxe zahar” horren aldamenean bizi ziren, inguruko lur guztiak famili horretakoak ziren gainera. Imanolek neska zahar bezala ezagutu zituen ahizpa horiek ere eta bat alarguna omen zen.⁸³

Artxiboko zenbait dokumenturen arabera, Ignacio Lizeaga delakoa, Nicolasa Dolhagaray-rekin ezkondu zen eta Candida, Lucina eta Maria Lizeaga Dolhagaray izeneko hiru alaba izan zituzten, azkeneko hau ezkondua zegoen; gainera, Nicolasa laster alargundu zen, 1894an eta Ignacio Lizeagak sekulako arazoa utzi zion, udaletxearekin auzitan baitzebilen, lur batzuk zirela medio. Hain zuzen, Ignacio izan zen Lizeagatik Portura doan bidea egiteko proposatu zuena, orduan “Txingurri-txulo” izena zuen lekutik jaitsi eta Leoka aldamentik pasatzen dena. Gizon honek lur asko erosi zituen udaletxe atzealdean, batzuk pertsona pribatuei eta beste batzuk Diputazioari; hala ere, azkenean adostasun batera iritsi ziren, bai lizeagatarrak eta baita udaletxea ere, azken honek, Lizeagak erositako lur batzuk publikoak zirela esaten baitzuen eta azkenik herriarentzat bereganatu zituen.⁸⁴

Dena dela, Hernaniko auzo zaharrenetako bat dela dudarik ez dago, garai bateko herri harresituaren kanpoko lehenengo auzoa baitugu, errege bidearen inguruan sortua. Gerra Zibilaren aurretik, uztailearen 22an, Santa Madalena egunean, jaiak ospatzea ohikoa zen; urtero-urtero, auzo honetako bizilagunek, danbolina jotzaile baten eta zenbait txistulariren zerbitzuak eskatzen zizkioten udaletxeari,⁸⁵ gainera axeri-dantza ere ospatu izan zen.

⁸¹ 2002-JGZ-01 elkarrizketa, hasieran.

⁸² 2002-RGO-01 elkarrizketa, hasieran.

⁸³ 2002-ILG-01 elkarrizketa, hasieran.

⁸⁴ HUA, D/5/3/2.

⁸⁵ HUA, B/3/1/3.

Mañoli Zigaranez kontu honetaz honela hitz egin digu: *Lizeagan urte batian jarri zuten Madalenetan [Axeri dantza], baiño... kamioi bat sartu eta uste det bi neska hil zituela. (...) Jendia dantzan zegoen kamiñuan eta...*⁸⁶ Istripu hori gertatu eta gero, jaiak bertan behera utzi ziren gaur arte, hemerotekan ematen da horren berri: "...Urte batean istripu larri bat gertatu zen eta festa horiek bertan behera geratu ziren..."⁸⁷



Lizeaga kalea. Auzoko lur gehienak Ignacio Lizeaga militarrenak ziren, XIX. mende bukaeran.

⁸⁶ 2002-MZA-01 elkarrizketa, bukaeran.

⁸⁷ *El Diario Vasco*, Hernaniri buruzko atala, 1979ko abuztuaren 18a.

EGAÑANEKO KAXIANO ETA ALFONTSO XIII.a

Bittor Zabaletak inork baino hobeto daki Portuko jaiak, San Juan Txikiak zer nola ospatzen ziren. Berak dio giro bikaina egoten zela eta asto karrera betidanik ezagutu duela, baita parte hartu ere, horretaz gain haur jokoak, barre-jokoak, aureskua eta beste zenbait ekitaldi egiten ziren. Bertsoak ere ba omen zeuden, garai haietako “zaharrek” kantatuak. Horien artean xelebreena Egaña baserriko Kaxiano Zubeldia gogoratzen du Bittor Zabaletak, bere seme Joxe Joakinekin batera - gerora Argentinara joan zena -, bertsoak kantatzeaz gainera tobera jotzen omen zutelako: *...soka batetik txintxilik, palanka eh! Alde batetik soka batekin txintxilikatu eta beste aldetik ere txintxilik eta biyek beltzen ziyoten sokari eta “tin, tin, tin..”, baina oso soinu fiña ateratzen zan, oraingo boiek gañian jartzen dituzte eta nereztako ez du baliyo; orduan bai zerakin [sokarekin] “tin, tin, tin...”...* Horretaz gain Bittor, umoretsu, bertsoan ere aritzen zirela gogoratzen da:

*San Martín de la Moja
moja de San Martin,
toberak jo ditzagun
ordu onarekin;
ordu onarekin ta
Birjin Amarekin.⁸⁸*

Xelebrea behar zuen izan *Egañaneko* Kaxianok, xelebrekeriak egiten baitzituen dudarik gabe, honako pasarte hau ere Bittorrek kontatua da, Alfons XIII.aren erregearen inguruan Kaxianok egindakoa:

...Egun batian etorri ziran erregiak, Madriletik, eta zijuazten bazkaltzera, Epeleko Etxeberrira. Bazijuazten eta bidian Kaxiano azaldu zan, zerakin...txalaparta, dantzari eta bertsoak botatzen! Orduan etorri ziran mikeletiak esanez: “Fuera hemendik eh! Bidia iriki, bidia iriki! Fuera! Erregiak datozte, hemen dirala erregiak!”. Karrozan erregiak, Alfonso XIII.a edo

⁸⁸ BELTRAN, Juan Mari: *Soinu tresnak Euskal Herri musikan*, Orain, Hernani, 1996, 31 or. Juan Mari Beltranek, abesti hau Lesakako zenbait tobera jotzaileri jaso zien eta disko batean argitaraturik dago. Bittor Zabaleta eta Iñaxio Mari Zubeldia bertsoaren hasieraz bakarrik gogoratzen dira, baina Hernaniko tobera jotzaileek kantatzen zutela ziurtatzen digute.

ez dakit zein zan. Eta hor zaudela erregiak karrozatikan jeitsi ziran: "Geldi, segi dezatela, segi dezatela!", gustatu egin zitzaien! Erregiak gustora baiei ikusten, nola egiten zuten dantza eta bertsotan...⁸⁹

Ohitura erlijiosoak

Igandea. Goizeko freskuran jende ugari elizara hurbilduz doa, bederatziak dira eta jende behartsuena, igandero ohi denez, errezatzeraz joaten da herrian dauden eliza ezberdinetara, dela San Joan bataiatzailearen parrokiara, dela Zikuñagako ermitara, edo dela Agustinen komentura... Eguerdialdera berriz, meza nagusira jende aberatsagoa hurbilduko da elizara. Mojekin ikasten duten neskatilak uniforme eta guzti azaltzen dira. Hona hemen, igande goiz bateko hernaniar gizarte katolikoaren erretratua, Pilar Loperenak egina.⁹⁰

Hernaniarren gehiengoa igandero joaten zen mezetara, bai gazteak eta baita aiton-amonak ere; baliteke Hernanin, mende hasierako industrializazioa gauzatu zenetik jende aurrerakoi eta ezkertiar asko egotea, baina hauetako askok, ez zituzten ohitura katolikoak galdu. Egun berezietan, elizak sekulako betekada izaten zuen, Josebe Goiak hala dio:

...Egunero ez giñan joaten baina astian behin mezetara bai, igandetako mezetara. 'Purísima' eguna izaten zan eta ez dakit ze beste egun, eta baserrietatikan farolakin etortzen ziran, bederatziurrena egiten zan, meza eman eta errosariyuarekin... korua eta guzti betia egoten zan! Aste Santuan, kriston jende pila etortzen zan, gaztiak eh! Ta orain iñor, denak alargunak eta zabarrak...⁹¹

⁸⁹ 2002-BZA-01 elkarrizketa, hasiera-erdialdean.

⁹⁰ LARRETXE, Lierni: *Hernani 1933-1934*, argitaratu gabea (Hernaniko udal agiritegian ikusgai). Pilar Loperenak lan honen egileari esandako hitzak dira. Pilar 1926an jaio zen Donamarian eta urte gutxi zituela etorri zen Hernanira.

⁹¹ 2002-JGZ-02 elkarrizketa, bukaeran.

Mañoli Zigarán ere iritzi berekoa da, lehenago, gerra aurrean mezetara askoz jende gehiago joaten zela dio berak ere. Baserritarrak ziren eliza munduko sektorerik handiena, prozesioak egiten zirenean beraiek baitziren nagusi: *...Prozesiyuak ziranian Aste Santuan, orduan baserritarrak etortzen ziran alkandora txuriya edo bodako trajia jantzita... ni gogortzen naiz kandela batzuekin, prozesiyuan Urumea kaletik jetsi Zinkonearaino eta Kale Nagusitik gora...* Era berean, inauteriak ospatu eta gero, etxe gehienetan garizuma seriooki errespetatzen zen.⁹²



Prozesioa Hernaniko kaleetan barrena, 1918an. Ama Birjiñaren irudia daramate bizkar gainean.

“TXIMINIKO LARATZAK BELTZAK IZATEN DITUN!”


Modurik ez zuenak bataio nahiko xumeak egiten zituen, normalean bi edo hiru ume bataiatzen ziren egun eta elizkizun berean, umea bataiatu behar bazen, apaizarengana joan eta eguna ipintzen zen arazorik gabe. Umea lehen baino lehen bataiatzea hobe zela pentsatzen zen, kristaua ez zena ezin baitzen zerura joan, baina pixkanaka bataio eguna atzeratuz joan zen. Bataiatzera, haurra, aita-amak eta “aitajaun-amandriak” joaten ziren bakarrik; aspaldi batean berriz, aita ez zen agertzen bataiora. Garai haietan,

⁹² 2002-MZA-01 elkarrizketa, erdialdean.

dirua botatzeko ohitura jadanik errotua zegoen, baina ahal zuenak botatzen zuen, Felix Aldasorok, gerra osteko urteak zirela eta, ez zuen dirurik bota, Josebe Goiak berriz baietz esaten du, “sosak eta karameluak” bota zituztela. Gainera, gogoratzen da bera eta bere anaiei bataiatzeko traje dotoreak ipintzen zizkietela, ‘faldoi’ bereziak.

1910ean, Pio X.a Aita Santuak, *Ouam Singulari* dekretua atera zuen, jaunartzea, umeak arrazoitzeko gaitasuna zuen urtetik aurrera egin behar zela esanez. Dekretu honekin polemika handia sortu zen eta Gipuzkoan batez ere, bi jaunartze egiten hasi ziren, bata *komunio txikia* eta bestea *komunio haundia*; gero, pixkanaka jaunartze bakarra egiten hasi zen, hasieran zazpi eta gero bederatzi urterekin⁹³ Josebe Goiak dio, berak jaunartze bat egin zuela hamabi urterekin, baina bere semeak bi egin zituela, bata zazpi urterekin eta bestea hamabi urterekin. Iñaxio Mari Zubeldiak ere bi jaunartze hauek egin zituela dio, gerra ondorenean noski.⁹⁴ Ez zen erregaluri egiten, umeari pezetaren bat edo beste soilik ematen zitzaion, sari gisa.⁹⁵

Neskak Lehen
Jaunartzean
parrokiko
eskaileretan,
1920an.



⁹³ BARANDIARAN, J.M (Zuz.): *Ritos del nacimiento al matrimonio en Vasconia*, Eusko Jaurlaritzaren Etniker, Bilbo, 1998, Jaunartzeari buruzko atalean.

⁹⁴ 2002-IZM-01 elkarrizketa, erdialdean.

⁹⁵ 2002-JGZ-02 elkarrizketa, hasieran.

Neska-mutilen arteko harremanak oso zorrotzak ziren, horregatik “txintxo txintxo” ibili behar izaten ziren Anttoni Egañaren esanetan, besotik helduta joaten baziren gaizki ikusia zegoen, baina elkarrekin kale bueltak ematen zituzten. Festetan eta dantzaldietan bikote ugari ezagutu zuten elkar, Donostiako jendea etortzen zenean esate baterako; erromerietan ere antzera pasatzen zen, Roxarito Goikoetxeak “xoxomikote” batzuk zirela esaten du: *...Erromerietan dantzan! Heldu-heldu egin eta... goxo-goxo! Baiña gu xoxomikotiak izaten giñan eh! Gure amonak esaten zuen bezela: “tximinko laratzak beltzak izaten ditun neska!”* (“iturbidean dabilen txarroa bidean hautsi”), *eta egiya da...*⁹⁶. Ezkontzeko garaian berriz, mutila neskari deklaratzeko zen normalena; gero, etxe askotan gurasoen baimena beharrezkoa zen eta azkenik ezkontza. Komenentziazko ezkontzak ere ba omen zeuden, baina gehienbat baserritar jendearen artean; Anttoniren etxera, *Egañaneko* tabernara, baserritar jende asko joaten zen eta bertan baserrien arteko komenentziazko ezkontzak nola izaten ziren jakiten zuten; Anttonik gero, bere ama edo aitari entzun izan dizkio horrelako kontuak.⁹⁷

Garai bateko ezkontza, Euskal Herrian, beltzez egiten zen, andregaiak soineko beltz dotore bat eramaten zuen; zuriz oso jende gutxi janzten zen, arrazoi ekonomikoak tartean omen zeuden eta: *...Orain bezela, txuriz, aberatsak bakarrikan janzten zian! Orain pobriak eta dana luze joaten dira, traje txuriyakin baiña denbora haietan... Ni, gure ezkontzan beltzez jantzita nago...*⁹⁸ Erraza da asmatzea zergatik zen zuriz jantzita joatea garestiago, esaldi honekin garbi asko geratzen da: *...Ez zan modurik! Txuriz gero jantziko ez zenuen arropa? Ez, aberatsek egiten zuten hori...*⁹⁹ Dena den, arrazoi ekonomikoez gain, beltzez janztea ohitura bat ere bazela ziurtatu dezakegu, izan ere, kanpoko jendea etortzearekin batera, ezkontza egunean soineko zuria eramateko ohitura zabaldu baitzen, nahiz eta jakina den bezala, Euskal Herrira emigratu zuen jendearen gehiengoak maila ekonomiko oso baxua zuen, baina hauen artean soineko zuria janztea zen ohitura, euskaldunen artean, lehenago, soineko beltza janzteko ohitura zegoen bezala.

⁹⁶ 2002-RGO-01 elkarrizketa, hasieran.

⁹⁷ 2002-AEA-01 elkarrizketa, erdialde-bukaeran.

⁹⁸ 2002-MOG-01 elkarrizketa, bukaeran.

⁹⁹ 2002-FAA-01 elkarrizketa, bukaeran.

Arreoari dagokionez, maindireak eta norberaren arropak ziren gehien eramaten zirenak. Manoli Olano, behin baina gehiagotan joan izan zen arreoak ikustera, ohitura berezi bati jarraituz: Andregaiaren arrea ohearen gainean jarri eta jendea bisitan joaten zenean, maindire, arropa eta bestelakoak bertan egoten ziren erakusgarri modura: *...Bai, egiten zan, jartzen zituzten arropak eta gonak, oyian [ohearen] gañian, bordatu eta erropa danak oyian gañian jartzen ziran eta jendia arreua ikustera joaten zan. (...). A zer arreuk egiten zituzten batzuk! Dirua zegoen tokin...*¹⁰⁰

DOLUA

Lagun edo senide bat hiltzen zenean, dolua erakustea ohitura bat zen. XX. mende erdialde arte, dolua eramateko ohitura oso zabalduko zegoen eta doluaren ezaugarri garrantzitsuenak hauek ziren: Arropa berezia eramatea, etxe barruan zenbait errito burutzea, bizitza publikoan eta ospakizuntan ahalik eta gutxien agertzea, hildakoaren aldeko meza ugari egitea...¹⁰¹

Aiton-amonek esan digutenez, garai batean, dolua oso zorrotza zen; Anttoni Egañaren aita oso gazterik hil zen eta berak gogoratzen duenez, ama beti beltzez jantzita egoten zen, berak horrela irudikatzen du. Senarra hiltzen zenean, emakumeek bizitza guztirako eramaten zuten dolua Hernanin, gizonak ez hainbeste. Adin batetik aurrera, berrogei urtetik aurrera gutxi gora behera, beltzez edo txuri beltzez jantzen ziren herri honetako emakumeak, “amon arropa” esaten dio horri Felix Aldasorok. Bere amona hil zenean urte bete egon zen dolua eramanez, baina lehenik dolua eramaten zen eta gero “luto erdia”, txuri beltzez jantzita, alegia.

Manoli Olanok dioenez, bi urte egon behar izaten ziren doluarekin, beltzez jantzita, denbora hori pasa eta gero txuri beltzez jantzen ziren; gainera, Olanok dio jende “kastellanuak” zorrotzago eramaten zuela dolua. Gero igandero mezetara joaten ziren: *...Igandero igandero, joaten giñan meza nagusira kandelakin... Kandela piztutzen genuen, bi kandela luze eta bildumena...*¹⁰² “Bildumena” argizagia findu eta soka bat balitz bezala bilduta aurkezten zen kandela zen, Gipuzkoako kostaldean erabiltzen den hitza

¹⁰⁰ 2002-MOG-01 elkarrizketa, bukaeran.

¹⁰¹ BARANDIARAN, J.M. (Zuz.): *Ritos funerarios en Vasconia...*, 549-566. Ikus baita ere: AGUIRRE, Antxon: *El rito funerario en Euskal Herria*, Orain, Hernani, 1996.

¹⁰² Ibid.

dugu “bildumena”; hau, bi kandelen artean jartzen zen trapu beltz baten gainean eta meza nagusian, urte osoan zehar pizten zen. Ospakizun eta jaietan ere ez zen parte hartzen. Josebe Goia ezkondu zenean, bere aita hil berria zen eta horregatik ez zuten bazkari berezirik egin.¹⁰³

Herri medikuntza eta medikuntza ofiziala

“ERREZETARRAK”

Intsusa lorea zuria da, arbola beltz batean hazten den lore zuria. Agian horregatik, zeinek daki, gure arbasoek dohain bereziak zituela pentsatu zuten eta noizbait sendabelar modura erabili zuten. Intsusa lorea, pasmobelarra, argizagia, baratxuri pixka bat eta olioia; hori da Otamenditarren etxean erabiltzen zutena erredurak sendatzeko, *errezetarrak* izenez deitzen zioten honako ukendu honi:

...Errezetarrak! Bai oso ona zan eb! Nere amak bere amarengandik ikasi zuen. Jartzen dezu oliyuarekin, pasmobelarra eta gero... Gero intsusa lorearen makila zuritu eta geratzen zen azal berriari argizagia gehitzen zitzaion, hau guztia zartagin batean baratxuriarekin batera frijitzen zen... ta gero zatarrak han busti busti egin eta ez dakizu erriantzako zer ona! Ela edozein zaurirentzako! Gregori ukendu honek izan zuen arrakastaz gogoratzen da: ...Fundiziyuan lana egiten zutenak, nik uste det langile guztiyak pasa ziralda gure etxetik, hori bezelakorik ez dago...¹⁰⁴

Manoli Olanok ere, beste jende askok bezala, fede handia dauka sendabelarretan eta batez ere pasmobelarrak erabiltzen ditu. Dela intsusa lorea, dela pasmobelarra, hauen erabilera oso zabaldurik zegoen Euskal Herrian, gaur egun baino gehiago. Kasu gehienetan orain azaldu berri dugun bezala egiten ziren ukendu hauek, oliotan argizagiarekin frijitu eta trapu edo “zatar” batzuekin bustiz. Hala ere, Hernani ez omen da herri medikuntzan eta sineskeren inguruko medikuntzan oso zalea izan, horrela adierazten du behintzat Fernando de Santiago Urquijok 1986an Hernaniko medikuntzaren historiari buruz azaleratu zuen bere tesian. Tesi honetan sendabelarrekin esperientzia handia izan zuten zenbait pertsonaia azaltzen dira, batzuk botere bereziak omen zituztela uste zen, hauen artean aurkitzen ditugu

¹⁰³ 2002-JGZ-01 elkarrizketa, bukaeran.

¹⁰⁴ 2002-GIOA-01 elkarrizketa, erdialde-bukaeran.

besteak beste Bernardo Zabaleta “Doctor Vientos”, 1961ean hil zena eta Josefa Olazagirre, *Leatza* izenez ezaguna. Gainera, Portuko Antonio Erdozia ere sendabelarretan aditua zela esaten du Fernando de Santiagok, besteak beste olioia, zerrautsa eta argizagiarekin egindako ukenduak egiten zituen honek, eta batzuetan intsusa lorearen azala ere botatzen zion.¹⁰⁵

Sendatzeko ahalmena duen sineskerarik baldin badago, hori Zikuñagako Ermitarekin pasatzen da. Aldare azpian zulo moduko bat zegoen eta bertan burua jarri behar zen, horrela buruko minak kentzen omen ziren. Inñaxi Otamendik egina dauka hori, baina ez berak bakarrik, erromerietan edo meza berezietan bertara joaten ziren ia guztiek dute jarrita bertan burua, kredoaren errezatu behar omen zen. Gainera, Zikuñagako Amabirjiñaren maindireak sendatzeko boterea omen zuen eta garai batean, Hernaniko haur ugari estali zituzten maindire horrekin, gaixotasunik har ez zeza- ten: *...Haur guztiak pasatzen ziran handikan, jaiio berriyak, Amabirjiñaren zeratik [maindiretik]...*¹⁰⁶

MEDIKUAK ETA GAIXOTASUNAK

Farmazian ez zen sendabelarrik saltzen eta medikuek ere erabat bazterten zituzten horrelakoak:

...Hoiak ez, belarrekin medikuak ez ziran ibiltzen baiño gure aitak hiltzia sartu zuenian [hankan] tetanoarekin ibili zan. Ama ordurako hilda genuen eta Altzako izeba etorri zan, harek ekarri zigun enplastera bat eta harek enplastoak jarri eta pasmobelarran ura eman zion. (...) Gau guztiya pasa genuen aitari txandaka pasmo-belarra ematen; medikua ere etortzen zan baina medikuari ezin esan etortzen zanian! Eta gogoratzen naiz Egañaneko Anttonin amak esan zigula: “Esan egin biharko zaio medikuari, bestela...” “Bueno-bueno esango diyogu”, berak esan zion, nola ekarri zuen gure izebak enplastera eta medikuak esan zuen “Bueno bueno, hau ona baldin bada...” (...) baiño segun ze medikuk? Denuntziya!...”¹⁰⁷


¹⁰⁵ SANTIAGO URQUIJO, Fernando de: *Historia de la Medicina en Hernani*, 1986, herri medikuntzari buruzko atala.

¹⁰⁶ 2002-GIOA-01 elkarriketa, bukaeran.

¹⁰⁷ Ibid.

XX. menderako, oso kutsagarriak eta hilgarriak ziren zenbait gaixotasun ezabaturik zeuden herri honetan, baztangak esate baterako, aspaldi ez zuen agerraldirik egiten Hernanin, txertoa jadanik bazegoelako; 1919an Lasarteko baztangadunak ekarri behar zituztelako sortu ziren istiluetan, agerian geratu zen, gaitz horrek iraganean egindako hondamendiek herritar askoren memorian irauten zutela. Anttoni Egañak dioenez, bera txikia zenean, eskolara sartu aurretik baztangaren kontrako txertoa jartzen zuten¹⁰⁸. Modu berean kolera edo differia bezalako gaixotasunak erabat desagertu ziren.

Baina oraindik beste gaixotasun askok irauten zuten: Bazeuden elgorriaz hiltzen ziren umeak eta tuberkulosia esate baterako ez zen XX. mendeko bigarren erdialde arte ezabatu. Beste gaitz kutsagarri bat tifusa zen; gaitz hau, herri baten osasun egoera zein den neurtzeko oso tresna ona da eta badakigu, Hernanin gaitz honek jota, 1948an hil zela azkeneko pertsona. 1914an tifus izurrite bat egon zen Hernanin, hamabi lagun hil ziren eta Leokako iturburua erabiltzea debekatu behar izan zen.



Doroteo Irigoien Arrutik, 1893an jaio eta Valladoliden ikasketak egin zituen. 1919tik 1963 arte izan zen Hernaniko medikua. Honekin batera Florencio Sarasketa itsasoarra aritu zen 1938 arte, eta geroago, Pablo Mutiozabal, Hernanin urte asko pasa zituen medikua¹⁰⁹.

Medikuak etxeetara joaten ziren normalean gainera, emakumeren bat erditzeko baldin bazegoen, emagina joaten zen eta bertan izaten zituzten umeak; askotan, emagina izateko esperientzia edukitzearekin nahikoa izaten zen. Hernanin Doña Carmen emaginak haur asko ekarri zituen mundura, bera Kale Nagusian bizi zen, Madinatarren etxe ondoan. Roxarito Goikoetxea hamabi anai-arrebetatik zaharrena da eta berak bere anai-arrebak etxean nola jaiotzen ziren ikusten zuen: *...Gure amak hamabiyak etxian izan zituen, aitarekin eta bizilagunarekin, beste inor ez! Eta abizpa tti-kiena nik jaso nuen eta garbitzen ari nintzanian... "txilborra, txilborra!", "Roxaito utzi txilborra!". Eta horrela atera gera ba aurrera denok!, Atera*


¹⁰⁸ 2002-AEA-01 elkarrizketa, erdialdean.

¹⁰⁹ SANTIAGO URQUIJO, Fernando de: *Historia de la Medicina en Hernani, 1986*, "Los profesionales sanitarios" atalean.

egin gera!...¹¹⁰ Beranduago, medikuaren laguntzaz izaten zuten haurra, Manoli Olanok dioenez, Don Pablo oso “partero” ona omen zen, baina berak nahiago izan zuen Ategorrietan umea izan. XX. mende erdialdetik aurrera, emakume asko erresidentzi eta ospitaletara eramaten zituzten umea izateko, baina oraindik bazeuden batzuk etxean izaten zituztenak:

...Nik nahiago nuen [ospitalean], etxian baiño hobeto! Han toki propiyuak zauden hortarako eta... Baiña jende gehiena barea joaten zan eh! Beste askok etxian nahiago izaten zuten, obitura jarraituz. (...) Batzuk hala esaten zuten, etxian nahiago zutela. Nik ez, ni hara joaten nitzan, gainera egon nintzan zortzi egunez, lau egun egon biharrin, ni ban oso ondo egoten nintzan. Han dana zenuen, garbitu eta... Hemen umiak eta gizonak zauden eta... ezta pentsatu ere! Hara joan eta erregiña bezela!...¹¹¹


Tuberkulosia eta baztanga Hernanin (1930-1981)



Iturria: SANTIAGO, Fernando: *Historia de la medicina en Hernani*, 1986)

¹¹⁰ 2002-RGO-01 elkarrizketa, hasiera-erdialdean.

¹¹¹ 2002-MOG-01 elkarrizketa, bukaeran.

Haurren heriotz tasa (1930-1979)

Iturria: SANTIAGO, Fernando: *Historia de la medicina en Hernani*, 1986)



Cuevas farmazia, 1929an.

...Donostira ordu laurden? Ordu bat! Tran tran, tran tran...

TXIMIST GURDIA

“Ordu bat! Tran tran...” Horrelaxe erantzun zuen Mañoli Zigaraneke tranbiak Donostiaraino iristeko zenbat denbora behar zuen galdetzerakoan. Mañoliren aitona, bere amaren aita, “Kapoteko” Arrieta zen, Karapote baserria Floridan zegoen, gaur egun fabrika ugari daude, baina garai batean baserri hori zen lurralde hartan zegoen eraikin bakarrenetakoa. Dena dela, aitona zahartu zenean, alabaren etxera joan zen bizitzera, aspertu egiten zen nonbait ordea, bere baserriko lurretan hainbeste urtez egon eta gero...: *...Nere aitona Kapoten bizi zan, baina pixka bat zabartu zanian gure etxera etorri zan bizitzera, eta arratsaldia pasatzeko tranbia hartzen zuen eta Donostira joaten zan; orduan alde batian jartzen zan eta (buel-tan) tranbiatik atera gabe, beste aldian jartzen zan, horrela bere barat-zak ikusten zituen...[Karapote ingurutik pasatzerakoan]...*¹¹²



Hernaniko tranbia “Villa Manolita” paretik pasatzen. Euskal Herrian trenbide sarea XIX. mendean osatu zen “norteko trenbidea” egin zutenean. Honi, industria guneetako trenbideak eta beste zenbait tranbia gehitu zitzaizkion, horien artean Donostia-Hendaia edo Donostia-Hernani.

¹¹² 2002-MZA-01 elkarrizketa, bukaeran.



Asmakizun latza behar zuen izan Kapotekoarentzat tranbiaren kontua, trena - "norteko trenbidea" Txirritak behin esan zuen bezala - jadanik pasatzen zen, baina tranbia erabat ezberdina zen, hiriburutik Hernanira joateko propio egina baitzen. Hernaniko tranbia 1903an jarri zen martxan eta *tximist gurdi* ere deitu izan zioten; Loiola, Martutene, Astigarraga eta Hernaniko ibilbidea egiten zuen eta mende erdi baino gehiagoz, Hernaniko kaleak gurutzatu zituen, 1958an betirako gelditu zen arte. Mende erdi ez da denbora asko, baina bere eragina oso handia izan zen, arratsalde pasan Donostiara joateko, lanera joateko, igandeko dantzaldietara etortzeko, feria egunean baserritarrek beraien produktuak ekartzeko eta beste mila eginkizunetarako garraio ezin hobea baitzen.

Hernaniko tranbiaren lehenengo gidaria Domingo Sardina izan zen, baina denbora gehien egon zena Astigarragako Jose Miguel Guerra zen; Manoli Olanok, Melchor izeneko gidari bat dauka gogoan:

Tranbia Plaza Berrian (orduan Plaza de los Fueros). 1903an jarri zen martxan eta 1958an egin zuen azken bidaia.

*...Nik almidonian egiten nuen lana eta tranbia etortzen zan Donostitik bonera... eta tranbian tranberuak zauden. Konfiantza hartu genuen haiekin eta estaziyotik Hernaniraino, debalde! Xentimorik gastatu gabe! (...) Melchor (zan tranberua), gizon haundi bat. Danak ezagunak, sartzen giñan estaziyuan eta Hernaniraino, ba al dakizu zer zan hura, tranbian ibiltzia? Dirurik ez zioken eta almidoitik bonera tranbian joaten giñan gu!...*¹¹³

“...BIZIKLETARIK BALDIN BAZAN BIZIKLETAN, BESTELA OIÑEZ”.

Tranbian jende asko joaten zen, baina batez ere diru pixka bat zuenak, umeak eta gazteak gutxiagotan joaten ziren, Tiburtzio Agirrek dioen bezala ahal zen bezala “harrapazka” ibiltzen zirelako, xentimo batzuk bildu eta tranbian ibiltzeko. Bestela bizikleta zen gazte hauentzako baliabide hobereena, baina bizikleta ez zuen edonork izaten, hori ere luxu bat baitzen askorentzat.

Orduan jendeak hankak erabiltzen zituen, gaur ez bezala, orduan askoz gehiago erabiltzen ziren hankak eta zangoak. Luis Gorrotxategik kontatzen duenez, Manuel Apaolaza, Bixente Zubiria eta bera Donostiara oinez joaten omen ziren Euskal Herriko Itzulia ikustera. Roxaritok ere oinez egin behar izaten zuen bere lagunekin batera Ereñotzurako bidea, San Antonio-tara joateko. Gerra aurreko denbora horietan gainera, “apretak” ziren jendearen oinetako arruntena, Manoli Olanok, uretan alpargatak sartu eta biboteak irteteen moztu egiten zizkien, horrela gehiago irauten zuten, orduan ez baitzegoen gomazko zola erosteko dirurik.

Beste batzuetan, bizikletaren bat lortzen bazuten urrutiago joaten ziren; Anttoni Egaña eta bere lagunak Oriora joaten ziren hondartzara: *...Bai, hori ere bagenuen, bizikletaz joaten giñan ordun bai, Oriyora joaten giñan hondartzara, ez zan inñor joaten ordun Oriyora eta... (...) Gu bakarrik joaten giñan, han Joakin egoten zan, zeukan bizikletak uzteko katxarro bat eta hari deitu eta txintxilik jartzen zituen...*¹¹⁴

¹¹³ 2002-MOG-01 elkarrizketa, hasieran.

¹¹⁴ 2002-AEA-01 elkarrizketa, hasiera-erdialdean

SARASKETAREN KOTXE ZAHARRA

Autoak ziren gutxien ikusten zirenak, orduan ez zegoen trafiko arazorik, istripuren bat gertatzen bazen, hori anekdota modura hartzen zen. Kale Nagusitik autoak pasatzea libre zen, baina Inaxik dioenez noizean behin bakarrik ikusten ziren:

...Hainbeste automobil eta ez ziran pasatzen orduan! Begira: Anttoni Egañan ama, gure ama, Rekondoneko ama, eta laugarrena Inaxi Egiguren; lau emakume, bemenguak; tabernatik [Egañanetik] ateratzen zuten banku luze bat, udaran freskura hartzeko. Eta baiek han eserita zeudela Zinkoenean ikusi ezkeroz automobil bat, kamioi bat edo ikusten bazuten: "badator, kendu egin biharko gera", lauak altxa, aulkiya paretikan kendu eta hura pasa arte!...¹¹⁵

Herrian trafikorik nabaritzen bazen, automobilen karre-
rak zeuden egunean izaten zen, Lasarten hasten zen zirkui-
tuaren zati bat Hernanitik pasatzen zen eta gerora herriaren
kanpoaldetik bidea egin bazuten ere, hasieran, *kaxkoan*
barrena ibiltzen ziren autoak:

*... "Zirkuitoko karretera"
deitzen zitzaion. Lasar-
tetik Urnietara joaten
zan. Orduan jende pila
bat etortzen zan! (...) Kardaberazetik kotxiak
pasatzen ziran eta kris-
ton soinua egiten zuten!
(...) Gero, egin zutenian
"zirkuitoko karretera"
orduan hortik joaten
ziran. Baina hori egin*

Kotxe laisterketako iragarkia.



Lasterketa Galarretatik pasatzen. Gerra aurrean Donostian egiten ziren karrerak oso famatuak izan ziren. Lasartetik abiatu eta Hernanitik pasatzen ziren.

¹¹⁵ 2002-GIOA-01 elkarrizketa, bukaeran.

*baiño lehenago, kalea itxi egiten zuten eta egurrezko pasua jartzen zuten. (...) Gero Urumea kaletik jeitsi eta Donostira joaten ziran hortik. Gogoratzen naiz 'Bugati' zirala kotxe batzuk eta bestiak 'Maserati'. Brruuuuu!! Egiten zuten!...*¹¹⁶

Autoa zuen jendea jende dotorea izaten zen, diruduna, alegia, Manoli Olanoren ondoan bizi zen medikuak, Sarasketa jaunak, ba omen zuen auto zahar bat, xelebrequeria dezente eginak dira, auto hori martxan jartzeko:

*...Aberatsak ibiltzen ziran, orain edozeinek dauka, baiña denbora horietan ez...medikuak eta horrela, Sarasketak eta bakarrik. Gaiñera kotxia bultzatzen egiten zioten atzetik eh! (...) Ez dakit zer kotxe izango ziran... Hemen bizitzen zan Sarasketa [bere etxe ondoan] eta kotxia bultzatzen egiten zioten, ni gogoratzen naiz medikuak kotxe zaharra zuela eta bultzatzen zutela...*¹¹⁷

Kotxe bat Biteri parean "aparkatuta". Mende hasieran oso kotxe gutxi ikusten zen Hernanin.



¹¹⁶ 2002-MZA-01 elkarrizketa, erdialdean.

¹¹⁷ 2002-MOG-01 elkarrizketa, erdialdean.

Sagardotegi eta taberna giroa

“SAGARDORIK ONENA, NUN OTE DEGU GUK?”

Gaur egun, sagardotegiak baserrietan ezagutzen ditugu, euren sagasti eta tolareekin, upategi bikainekin... Baina garai batean sagardotegi asko eta asko herriko kaleetan zeuden, jendea sartu eta bertan sagardo trago batzuk hartzeko, giro bikaina sortzen zen orduan. Sagardotegi hauek normalean beraien tolarea zuten, baina batzuetan, sagardoa baserrietatik ekarzen zuten. Gurdiekin upelak garraiatzen zituzten, kale erdian jarri eta hortik edaria sagardotegi barruko upeletara eramaten zuten. Sagardotegi handienak Adarra, Gorrotxategi, Rekondo (*Astiasu*) eta Rezola familiek zeuzkaten; batzuek sagardoa saltzeko lokal bat baino gehiago izaten zuten: Luis Gorrotxategi, *Errio-guardakoen* etxe atzealdean jaio zen, Kale Nagusian eta gogoratzen da, lehenengo sagardotegia bertan izan zutela. Gero, Kale Nagusiko beste etxe batera pasa ziren eta sagardotegia bertan jarri zuten, aldi berean, *Oraiendarren* etxe atzealdean beste upategi bat zuten.

Gerra aurreko sagardotegietako ohiturak eta gaur egungoak oso ezberdinak dira. Gaur egun, oso arau zorrotzak daude, sagardoa modu honetara edan behar dela, sagardotegian modu honetan egon behar dela, sagardoa edateko maiztasuna eta epeak... Badirudi, herritar orok sagardoarekiko duen ezaguera adierazi nahi duela eta zenbait ohitura, lege, arau eta mito bilakatu dituzte. Baina esan bezala, horietako arau askok ez dute funtsik gerra aurreko sagardotegietako ohiturei begiratzen badiegu. Orduan, ohitura hauek oso aldakorak ziren, inprobisazioa zen nagusi. Esate baterako, gaur egun upel bat baino gehiago irekitzen da, baina orduan upel bat bukatu arte ez zen bestea irekitzen. Sagardotegian zutik egon behar dela uste da, baina zenbait argazkitan, Txirrita eta ingurukoak eserita nola egoten ziren ikustea besterik ez dago; gainera, sagardoa kanila bidez edo pitxarretik botatzen zen. txotxaren ohitura beranduago nola hasi zen Juanito Goikoetxeak badaki: *...Jendia hasi zan soziedadetatik etorri eta upelak aukeratzen eta klaro, garai baietan upel bakoitzari ezin zeniyon kanila jarri, txotxaren bidez iriki biharra zeneukan, ta piskana piskanaka hasi ziran sagardoa bihar zutenak sagardoa aukeratzera etortzen eta txotxa jartzen zitzaien upel guztiyeiri eta bueno... bat probatu, bestia probatu...*¹¹⁸ Sagardoa goitik bota eta hautsi egin behar dela esaten da, baina

¹¹⁸ 2002-JGL-01 elkarrizketa, hasieran.

orduan, sagardoa hausteko kontu hori txorakeria bat besterik ez zen: *...Orain esaten da: "Bota goitik, sagardua hautsi egin bibar da eta!" baina...* Baina Luis Gorrotxategik, kanilatik gertu apal bat jartzen zuen puntapaxa batekin, apal horren gainean baso guztiak jarri eta sagardoz betetzen zituen horrela, hautsi gabe.¹¹⁹

Sagardoa egiteko modua ere, zerbait aldatu da, batez ere makinak berri-tu direlako. Altzuetako Juanitok dioenez, garai batean tolarea egurrezkoa zen, patsolak ere egurrekoak ziren, txabetak bezalaxe - patsola jartzeko egurrezko langak -. Horrek zainketa berezi bat eskatzen zuen, sagardoa egin baino lehenago lan handia ematen zuena; gainera, sagardoa egiteko garaian askoz jende gehiago behar zen, baina hori ez zen oztopo, familia kideen kopurua oso handia baitzen. Sagarra berdin hartzen zen, "kizkiya"-rekin eta gurdiekin. Matxakak bai zirela ezberdinak: *...Matxaka ezberdina zan, matxaka nik neronek ez det ezagutu, baino garai batian esaten zuten sagarra tolarian jarri ta mazelakin "zanpa zanpa zanpa!". Enbor bat hartu ta puskak zapaltzen, zapaldu ta baztarrea bota; hortan ere nere aita aritu zan, ni ez naiz iritsi hortara...*¹²⁰ Gero beste matxaka batzuk etorri ziren "hortzekin", hegal batzuk alboan zituela, bira egin eta horrela "matxakatzen" zen sagarra. Sagarra norberarena izaten zen edo inguruko sagastietakoa, Luis Gorrotxategiren aitak, Eugeniok, sagarrik ez zuenean kanpotik ekartzen zuen, baina asko jota Goierri aldetik.

Zein zen sagardotegietako giroa? Noiz joaten zen jendea sagardotegietara eta zertara joaten zen? Luisek dioenez, goizeko hamaika eta erdiak aldera, emakumeak eta haurrak, pitxarrak edo botilak eskuetan zituztela sagardo bila joaten ziren, gizonak lanetik itzulitakoan bazkaltzeko sagardo pixka bat eduki zezaten. Eguerdialdera giroa berotzen hasten zen eta gero, seietan, langileak lanetik irtetean betetzen ziren gehien sagardotegiak: *...Jendia eguerdin lanetik atera, baxo bat edan ta bazkaltzera. Gero behin seiretatik aurrera lanetik atera ta bakoitzak bere merienda zuela edo afariyarekin sagardotegira, giro earra eh!*¹²¹ Hizketa gaiak denetatik izaten ziren, lana edo kirola; donostiarrak Hernaniko sagardotegietara tranbian etortzen ziren, kazuela eta guzti eta hauekin eztabaida asko egoten ziren; baina errepublika

¹¹⁹ 2002-LGM-01 elkarrizketa, erdialdean.

¹²⁰ 2002-JGL-01 elkarrizketa, erdialdean.

¹²¹ 2002-LGM-01 elkarrizketa, erdialde-bukaeran

iritsi eta lehenengo hauteskundeak hasi zirenean, orduan giroa zertxobait gaiztotu omen zen, Dena den, bertsorik ere izaten zen; honako hau Luis Gorrotxategik, txikia zela, mila bider entzuna du bere aitaren sagardotegian:

*Sagardorik onena nun ote degu guk,
Astiasu, Adarra o Eugeniok ote du.*

*Beste gebiagok ere,
dakite onak saltzen,
ay hau lana gurea,
danenak proatzen!*

*Eta gu beti, beti alai,
eta gu beti, beti alai...
Jan zagun eran zagun
eta pakia eman dezagun.¹²²*

Baserrietako sagardotegietan berriz, jokoak asko ziren; bolatokia leku askotan zegoen eta “fitxatan” ere ibiltzen ziren gizonak edo hamar xentimoko kobrezko txanpon zaharrekin “arrastoa egin ta distantzia jarri ta zenek arrastoa aldero ibili”, bertsotan ere aritzen ziren, tokan... Altzuetako nagusienak gogoan dauka nola probaketa garaia hasten zenean bandoa jotzen zen herrian: *...Bandua jotzen zan kalia, eguerdiko garayian edo jende geitxo zegon garayian, bandua jotzen zuten... “danbarranba danba!” danborra joz, Hernaniko kalia, igual plazatik atera ta Zinkoneaiño buelta egin ta igual joko zuten lau edo bost aldiz...¹²³*

Baina sagardotegietako giro honek beherakada nabarmena izan zuen, beherakada hau, batez ere kaleetako sagardotegietan nabaritu zen eta horren arrazoia beste produktu batean aurkitu behar dugu, ardoan hain zuzen. Ardoa, ordu arte oso edari garestia zen, urrutitik ekarri beharrekoa, baina gerra ostean merketzen hasi zen eta gure herriko tabernetan ardoa edaten hasi ziren, kategoria handiagoa zuen edari modura: *...Hemen nik uste det sagarduan gora-behera izorratu zala hasi zanian Roke Telleria (ardua saltzen); ni joan izandu naiz horrekin ardo bila ta orduan izorra-*

¹²² 2002-LGM-02 elkarrizketa.

¹²³ 2002-JGL-01 elkarrizketa, erdialdean.

*tu zan. (...) Gauza berriya, badakizu...*¹²⁴ Gorrotxategi ez zen ardoa ekarri zuen bakarria izan, eta beste zenbait lekutan ere ardoa ekartzen zen, "Casa Egañan" adibidez: *...Asko saltzen zan, ardo asko saltzen zan (...) Fuenmayortik hasi ziran ekartzen, Riojan, ta gero joaten ziran Fuente Jalón-era, Aragoira ta azken azkena handik ekartzen zuten...*¹²⁵ Horretaz gain, sagardoari zerga ugari jarri omen zizkioten eta horrek erabat hondatu zuen sagardoaren negozioa: *...Kristoren zerga jarri ziyoten sagarduari, nik azkenengo sagardua egin nuen, berrogeita bostian [1945], ta handik aurrera kitto! itxi egin bihar; izugarritzko zergak jarri zituzten eta... Adarragatarrak bakarrik segitu zuten, eta haiek ere laster itxi zuten...*¹²⁶



Andrekaleko sagardotegi batera sagardoa garraiatzen. Sagardo kupelak zeramatzen gurdia ohiko irudia ziren Hernaniko kaleetan.

Gerora, sagardoa baserrietan bakarrik egiten jarraitu zuten, norberak edateko adina sagardo, baina sagasti asko pinudi bilakatu ziren; baziren hala ere, sagardoa saltzen jarraitu zuten baserri batzuk. Juanito Goikoetxeak dioenez, Alzuetako sagardoa Portuko *Indianonian* eta *Makalanian*, baita Ereñotzuko Txilibita baserrian ere saltzen omen zen, baina gerora utzi egin zuten. Gero, gogoan dauka nola sagardoa lehen aldiz botiletan sartu zuten urtea 1948-1950 ingurua izan zen, orduan Donostiako elkarte gastronomikoez eskaturik hasi ziren sagardoa botiletan sartzen, hasieran botilak elkarteak jartzen zituen eta mota guztietakoak izaten ziren, anis botiletatik hasi eta xanpain botiletara. Sagardoa aukeratzera joaten zirenak elkarteetako jendea, jatetxeetakoak edo tabernariak izaten ziren; gainera, aukeratzera joaten zirenez, ia kobratu ere ez zitzaien egiten. Baina urtetik urtera, gero eta jende gehiago joaten hasi zen eta otorduak kobratzen hasi ziren, orduan jendeak kazuelak edo janaria eramaten zituen bertan egiteko. Horrela hasi zen pixkanaka txotx garaia indartzen gaur egungo egoerara iritsi arte. Egun, ez da aspaldian bezala sagardorik kanilatik erosten, sagardoa behar baldin bada, botiletan erosten da.¹²⁷

¹²⁴ 2002-LGM-01 elkarrizketa, erdialde-bukaeran

¹²⁵ 2002-AEA-01 elkarrizketa, hasieran.

¹²⁶ 2002-LGM-01 elkarrizketa, erdialde-bukaeran.

¹²⁷ URÍA IRASTORZA, José: *La sidra: El más completo estudio sobre la sidra: Su pasado y su futuro*, Sendoa, Oiartzun, 1987.

TXIKITEOA

Sagardotegiez gain, bestelako taberna eta jatetxe batzuk ere bazeuden, hauetan ardoa edatea ohikoagoa zen, batez ere gerra ostean. Tiburtzio Agirrek esaten duenez, porroietan edaten zen orduan ardoa; bi motatako porroiak egoten ziren, batzuk txikiak eta besteak handiak, baina baso berezi batzuk ere erabiltzen ziren: *...Orduan etortzen ziran langiliak Egañanera kopatxo bat hartzera eta porroi txiki bat edo porroi haundi bat hartzen zan... Basuak ere izaten ziran, basu lodi batzuk, oso lodik, oso xelebriak ziren orduan baso horiek. Baiño txikiteua behiñipin porroiarekin askoz ere gebiago egiten zan...*¹²⁸ Izan ere, Kale Nagusiko Egaña jatetxea oso famatua zen garai haietan, jende ugari joaten omen zen bertara, “txikiteatzera” edo igandetako dantzaldia baina lehenago meriendatzera, baita baserritarrak ostegunetan ere, honela kontatzen ditu Anttoni Egañak tabernari buruzkoak:

*...Jatetxea zan eta ardua ikaragarri saltzen zan, baiño jana ere bai, ikaragarri, zergaitik orduan ez zan ez soziedaderik eta ez ezer, gero hasi ziran, Santa Barbara eta... baiño bestela dena hemen, tabernan. Ostegunetan eta jayian [igandean] lan asko egiten genuen... Giro majua zegoen orduan! Orain baiño majuago! Gaiñera orduan merkia zan gauza, hamar xentimon baso erdiya ezagutu degu, gero peztan jarri zanian... Jesus! Eta gero ikusi noraiño joan dan! (...) Izaten genuen zopa, garbantzua edo baburruna edo berdura eta gero jakiya ta kafia ta hiru pezta ta berrogeitamar xentimo, hori dena! (...) Orduan umoria izaten zan! Politikaz gutxi (bitz egiten zan), gero hasi zan politika asko... orduan izaten ziran apustuak, traineruak izaten ziran Oriyon eta jesus!...*¹²⁹

Anttoni Egañaren gurasoak baserritarrak izanik, ostegunetan baserritar ugari joaten ziren, feria eguna zelako. Garai batean, feria Plaza Berrian (garai hartan Plaza de los Fueros) egiten zen, eta bertan ganadua egoten zen. Mañoli Zigaranekek ere gogoan dauka nola baserritarrak Joxe Mari tabernara joaten ziren, tripakiak jatera, ganadua Plaza Berriko barra

¹²⁸ 2002-TAZ-01(01) elkarrizketa, hasiera- erdialdean.

¹²⁹ 2002-AEA-01 elkarrizketa, hasieran.

batzuetan loturik izaten zutela ere gogoratzen da, Atzieta kalean berriz, arropa saltzen zuten. Luis Gorrotxategik zera esaten du garai bateko feriari buruz: *...Hiru autobus kontatu ditut bemen Hernanin eh! Azkoititik eta Azpeititik etorrita, baserritarrak, ganaduan gora beberakin Plazaberrin, baita "Atxetasen" ere, ban ere feriya zan; ban txerriyak eta saltzen zituzten, txerriyak eta landariak...*¹⁵⁰



Mende hasierako feria. Plaza Berrian egiten zen, garai hartan Plaza de los Fueros zenean.

¹⁵⁰ 2002-LGM-01 elkarrizketa, erdialdean

BERTSOTARAKO HERRI BAT

Egun horretan, kaleak jendez gainezka egoten ziren eta festarako giroa egon ohi zen, San Joan bezpera izaki, herriko patroiairen jaia behar zen bezala ospatzeko gogoia egoten zen. Kalean zehar hara non azaltzen diren bertsolariak, urtero legez, ohitura zaharrak berritzeko asmotan, erronda egiten. Joxe Antonio Goñi "Maldaburu", soinua jotzen - zekien doinu bakarrenetako Santa eskekoa zen -, ondoan berriz *Egañaneko* Kaxiano Zubeldia eta hauen artean Joxe Manuel Lujanbio, "Txirrita". Kaxianok eskuan aulki bat zuen, antza, Txirritaren hankek ez baitzuten bere gorputz "sendoa" denbora luzez jasaten eta bera esertzeko eramaten zuen. Joxe Antoniok eskeko doinua jo eta Txirritak kantari jarraitzen zion, Kaxiano berriz, makila handi bat eskuetan, burua haren gainean jarri eta serio baino serioago kontzentratuirik; Txirritari erantzun, xentimo batzuk jaso eta hurrengo etxera, bikarioarengana edo alkatearengana, auskalo.¹³¹

"Txirrita zan jefia!" esaten digu Jorge Villarrek parrez lehertzen. Berak Kaxianorekin baino "frantsesa" deitzen zioten batekin aditu eta ikusi omen zuen Txirrita - seguruenik Frantses-Txikia dugu hau, "frantsesa" izeneko bertsolari oiartuarra oso gaztea baitzen oraindik garai haietan -, baita Usurbil eta Errekaldeko beste bi bertsolariarekin batera, horrela esaten zioten: ... "*Joxe Manuel!*" eta "*Zer?*" "*Pronto al bago rondatako?*" eta "*Bai bai!*", eta erronda egiten zuten kale bueltan...¹³² Aiton amon gehienek ezagutu dute Txirrita, San Joan bezperan ibiltzen zen batez ere, herritik kantari eta Bittor Zabaletak dienez angariletan eramaten zuten, Olentzero balitz bezala, kaleetan zehar. Joxe Mari tabernan Mañoli Zigarani ere kantatua da, baina baita beste tabernetan ere: ...*Jesus! San Joanetan... Gero ere, ekartzen zuten aulki ttiki batekin, taberna guztiyetatik eb! Ematen zitzaiyon dirua, ez naiz gogoratzen, durua edo...*¹³³. Behin Txirrita errondan ari zela, Kale Nagusiko Zaraguetaren etxean ez omen zioten diru gehiegi eman eta honek kopla hauxe bota zuen:

*Orain bi urte durua zan da,
joan dan urtean bi pezta,
ni engaiñatzen ez baldin banaiz
aurten xentimorik ezta.*¹³⁴

¹³¹ 2002-IZM-01 elkarrizketa, erdialde-bukaeran.

¹³² 2002-JVZ-01 elkarrizketa, erdialde-bukaeran.

¹³³ 2002-MZA-01 elkarrizketa, hasieran.

¹³⁴ ZAVALA, Antonio: *Txirrita (Bizitza eta bat-bateko bertsoak)*, Auspoa, Donostia, 1962, 169 or.

Latxeko bertsolariak, beretzako propio gordetako gela bat izaten zuen San Joanetan “Casa Egañan”, goiko pisuan, apopiloak izaten zituzten eta bertan Txirritaren gela deitzen zioten lekua omen zegoen. Baina Txirritak bazituen gaua pasatzeko beste leku batzuk ere, Kaxianoren etxea esate baterako, Egaña baserria, bertsolarien ostatu bezala ibiltzen zen urte guztian zehar, bertatik makina bat bertsolari pasa zirelarik. Honako hau, Iñaxio Mari Zubeldiak, behin, Uztapideri entzuna da, ordurako zahartuta:

...Batian, Ereñotzuko San Antonio batzutan, urte batian, Uztapide zana eta Xalbador zana bertsolariyak izandu ziran hor bertotan; ekarri gemitun herriko apeederora, kotxian; eta han geunden, trenaren zain eta balako batian Uztapide Portura begira jarri zan, eta esan zian: “Joño! Hamaika egun gozo pasatako parajiak!” “Bai eh? Hor egondu zera?” eta “Bai, Egañaneko Kaxianon etxian, egun pare bat pasa gabe ez nitzan etxeratzen”, Zumarraga aldetik edo Legazpitik bertotan aritu eta Hernanitik pasa gabe ez zan etxera joaten...¹³⁵

Jende ugarik dakizki Txirritaren inguruko xelebrekeriak eta pasadizoak, Juanjo Uriaren aitona, Juan Joxe Zubiarrain, Txirritarekin lan egindakoa zen eta makina bat istorio eta bertso zekizkien Joxe Manuel Lujanbiori buruz. Beste lekuko eta parte hartzaile berezi bat, Pablo Zubiarrain izan genuen; plaza askoko gizona zen Paulo Txiki, 1912an jaio zen Epele auzoko Telleria baserrian eta etxean bertsoarako giroa izan zuen, aitona ere bertsolaria omen zen eta, Txirritarekin batera ikasitakoa, baita bere aita ere. Paulo Txiki hil zen, baina bere bertsoak bizirik geratu dira, handik eta hemendik jasoak, horregatik badakigu nola pentsatzen zuen eta bere inguruko giro nahiz pasarteak zein izan ziren. Segidan azaltzen diren bertso hauek, Paulok Portun bizi ziren bertsolari zaharrei jarriak dira *Gaziak eta gozoak* liburuan; “bromoso hutsak eta gizon galantak” omen ziren, Txirritarekin urtero San Joan eskean ibilitakoak “danak lege zarreko aitonak”:

¹³⁵ 2002-IZM-01 elkarrizketa, bigarren erdialdean.

- 1.- Lengoan egon nitzan
Portu'ra begira,
gaztetan ibillitzen
giñaden tokira,
galdetuaz: "Orduko
aitonak nun dira?"
Joan ziran emendikan
oso urrutira
- 2.- Graziano zarra ta
Joan Jose Andola
goratuko nituzke
banekike nola.
Iduritzen zait beren
ondoan nagola,
ezin baititut aztu
nik aiek iñola
- 3.- Bat izaten zan beti
kuadrillako buru,
an alkartuko ziran
lau aiton inguru.
Aiekin alkartzean
bertsoak seguru,
'Makala' aterea
makiña bat orru.
- 4.- Jerolimo 'Makala'
zalarik burua,
ura zan pakea ta
ura zan zerua.
Gaur ere artu leike
alako girua,
bañan mudatu zaigu
ederki mundua.
- 5.- 'Maldaburu' ere etzan
izan lagun txarra,
gaur badago alako
batzuen bearra.
Bertsoa ta txistea,
broma eta parra,
ura zan Euskadi'ko
lengo lege zarra.
- 6.- Ia etxero bazan
sagardotegia,
bakallo errea ta
etxeke ogia.
Berriz noiz ezagutu
ain mundu garbia?
Parra egiten ere
aztu zaigu ia.
- 7.- Ernani'ko Portua'n
Sanghai'ko taberna,
ta nagusia Jose
izena zuena.
Antxen bilduko ziran
aiton jende dena,
erriak eman zuen
jenderik onena.
- 8.- Arratsaldea pasa
nola edo ala,
etzuten osatutzen
laukote makala.
Nik uste det zeruan
sartuko zirala,
ta an ere kantari
Ariko dirala.



Txirrita.



II

GERRA ETA GERRA OSTEA

(1936-1945)

2.1.- Gerra Zibilaren bilakaera Hernanin

Espainiar eskuinak 1936an hauteskundeak galdu eta gero, bide militarri ekitea erabaki zuen. Ordu arte, bide militarra irtenbide bat zen, alternatiba bat, baina Fronte Popularra boterera iristearekin batera, altxamendua alternatiba bakar bilakatu zen. Joxe Laburuk gerra hasi baino egun batzuk lehenago jakin zuen karlistak zerbaitetan ari zirela. 1936ko San Pedro egunean aitak Oriora eraman zuen, bere lagun batzuekin batera bazkaltzeko: *...Bazkaltzen ari ginela, lagun artean, Abartzuzako euskaldun karlista amorratu batek, aitaren laguna zenak, zera bota zuen: "gerra aurki hasi eta motza izango da. Berehala egingo dugu hau"...*¹

Zerbait sumatzen zen, abertzaleek ere kontaktuak izan zituzten espainiar eskuinarekin, baina ez zuten ezer garbirik atera. Erreketeak Nafarroa eta Arabako mendietan egiten zituzten desfile eta maniobrak ugaritu egin zituzten, baina batzuk mendira militarki prestatzera joaten ziren bitartean, beste batzuk txangoak egitera eta eguna pasatzeko asmoa izaten omen zuten buruan. Martin Ugalde, andoaindar idazleak txango hauen berri ematen digu:

¹ ODRIOZOLA, Jon: op. cit., 8 or., Joxe Laburuk esandakoak.

...Onerako ala gaitzerako, baina ez genuen militarren mentalitate dogmatikorik gureganatu, zeren uste izaten baikenuen elkarren estimuan bitzeginda dena konpon zitekeela; makila, mendibizkarretako beti-gorako malkartsuetan lagungarri gisa bakarrik eramaten genuen, ez aldameneko anaiaren bezurretan dantzatzeko...²

Gerra aurreko urte horietan, abertzaleak ezkertiarrekin izaten zituzten liskarrez defendatzeko prestatu ziren, Adarra mendian gorostiak hartzen zituzten edo ezkertiarrek ezkutuan pasatzen zituzten armak lapurtzen ibiltzen ziren; baina hortik gerrara, alde handia zegoen. Ezkertiarrek berriz prestatuago zeuden, 1934ko iraultzan ikusi zen hori; armak eskuratu zituzten eta faxismoaren kontra borrokatzeko prest zeuden, seguruenik horregatik izan ziren altxamenduaren kontrako lehenengo defentsa antolatu zutenak.

1936ko uztailaren 18a: Altxamendua

ALTXAMENDUAREN BERRI: "GERRA OMEN DIÑAGU!"

Badira egunak jende guztiak gogoan dituenak, badira egunak norberak zer egin zuen eta non zegoen ordurik ordu gogoratzen dituenak. Egun bereziak dira hauek, historikoak. Izan liteke gizakia ilargira heldu zen eguna, izan liteke Franco hil zen eguna edo ikurriña legezatu zuten eguna, irailaren 11 ere izan liteke, bai 2001ekoa eta baita 1973koa ere, Allenderen heriotzaren eguna alegia, Che Guevararen heriotzaz asko gogoratuko dira eta beste egun berezi askotaz ere bai. 1936ko uztailaren 18a egun berezi horietako bat zen, urte horretan bizirik zegoen adin batetik aurrerako pertsona orok daki zer ari zen egiten, zer ikusi eta entzun zuen.

Hernani, milaka gutxi batzuek osaturiko herria zenez eta Gipuzkoa probintzia txiki bat izanik, gerra hasi zelako berria lau haizeetara zabaldu zen segituan. Bernardo Martín, egunero ohi bezala, "La baldosa" lantegira joan zen lanera, hemezortzi urte ere ez zituen gaztea zen, baina bazekien zer-

² LASA, Xabier: *Gerra Zibila andoaindarren begietatik*, Manuel Larramendi Kultur Bazkuna, Andoain, 1994, 79 or.

bait larria pasatzen ari zela, lantegian komentarioak ahotik ahora zebiltzan eta batean zera esan zioten: “Que se han sublevau en Marruecos! Que vienen los requetés y los moros!”. Baina berak, orduan “sublevarse” hitza zer zen ez zekiela esaten du, zerbait larria pasatzen ari zela bazekien ordea, hilaren 17a zen (1936) , ostirala eta Francoren tropak Melillan altxa ziren.³

Anttoni Egaña Errioxan zegoen, bere iloba gaixorik zebilen eta klima lehorra gomendatu zioten, horregatik bere ahizpa, iloba eta hirurak Errioxara joan ziren, uda pasatzera; baina ohartzeko gerra gainean zuten eta beldur galanta pasa zuten, han denak baitziren erreketek, altxatuen aldekoak. Tiburtzio Agirrek iratiaren bidez jakin zuen gerra hasi zela eta Mañoli Zigaranez dioenez larunbata goizean - uztailaren 18an -, kalean mugimendua nabaritu zuen, taberna egun horretan bertan itxi eta ez zuten gehiago ireki. Gorrotxategi soldaduska egiten zegoen Donostian eta Hernanira askotan etortzen zen; egun horretan hauxe galdetu zion laguna zuen Manuel Apaolazari: “Orduan aurten etziok karrerarik?” “Keba, ezta pentsatu ere!”⁴

Josebe Goiak bere amaren bitartez jakin zuen altxamenduaren berri. Goiz hartan kalera irten baitzen, bueltan Pipirittara zihoala *Mediometro* deitzen zioten bat ikusi zuen lagun batekin eta eskopeta bat lokarri batetik zintzilik zuelarik “Que ha estallau la guerra!” esan omen zion. Joseberen ama, Malen, ez zen beldurtu, mende hasierako errusiar eta japoniarren arteko gerraz eta Lehen Mundu Gerraz ondo oroitzen baitzen, baina etxera iritsi eta lehenengo hitzak hauek izan ziren: “Gerra omen diñagu!”⁵

ESPAINIA BITAN, EUSKAL HERRIA ERE BAI:

Uztailaren 13an José Calvo Sotelo hil zuten, Primo de Riveraren diktaduran ministroa izandakoa. Hilketak hau seinale bat besterik ez zen izan, militarren goarnizioetan itxaroten ari ziren seinalea. Egun batzuk beranduago, uztailaren 17an Melillako goarnizioaren zati bat errepublikaren kontra altxatu zen, honi Marokoko beste goarnizio guztiek jarraitu zioten - 47.000 soldadu denetara - eta erresistentzia batzuk gainditu ondoren, uztailaren 18rako espainiar ejertzitoaren erdia altxatuen alde jarri zen, Franco, Sanjur-

³ 2002-BMS-01 elkarrizketa, hasiera-erdialdean.

⁴ 2002-LGM-01 elkarrizketa, erdialdean

⁵ 2002-JGZ-01 elkarrizketa, erdialdean.

jo, Mola, Queipo Llano eta beste zenbait jeneralek gidaturik. Egun gutxi batzuen buruan Espainia guztia erdibiturik geratu zen altxatuen eta errepublikaren aldekoen artean.⁶

Euskal Herrian Nafarroa izan zen altxatuetan altxatuena. Nafarroan ez zen goarnizio baten beharrik izan, militarrek ez ziren altxamenduaren protagonista izan, urteetan zehar prestatu ziren karlista erreketek hartu baitzuten ardura hori, Mola jeneralak gidaturik.⁷ Arabak, Nafarroaren ezau-garri berdinak zituen, bertako erreketek, Luis Rabaneraren gidaritzapean, aspalditik zebiltzan altxamendurako isilpean prestatzen, baina badirudi, Gasteizen, altxamenduak ez zuela Iruñean bezalako berotasunik eragin, altxamendua modu hotzagoan jaso zen, baina hala ere, erreketek talde ugari antolatu ziren, gero Madrileko frontera bidali zituzten gazte karlistak⁸.

*Erreketek,
Andi-Mendin
(Nafarroa),
1935ean.*



⁶ Espainiako gerra zibilar buruz ikusi: PAYNE, S. G. (zuz.): *La guerra civil. Una nueva visión del conflicto que dividió España*, Madrid, 1996. JACKSON, G.: *La República española y la guerra civil*, Mexiko, 1967. Ahozko historiari buruz: FRASER, Ronald: *Recuerdalo tu y recuerdalo a otros: historia oral de la guerra civil española*, Grijalbo Mondanoni, Bartzelona, 1997. BULLON de MENDOZA, Alfonso, DIEGO, Alvaro de: *Historias orales de la guerra civil*, Ariel, Bartzelona, 2000.

⁷ UGARTE, Javier: *La nueva Covadonga insurgente*, Biblioteca Nueva, Madrid, 1998, 158-160 or.

⁸ *Ibid.*, 188-227 or.

Gipuzkoa eta Bizkaiaren kasuan, errepublikaren aldeko apustua egin zuten. Gipuzkoan estu ibili ziren, Donostian altxamenduak eragin nabarmena izan baitzuen, gainera probintzia karlistez beteta zegoen, Azkoitia eta Tolosa bezalako herrietan antolakuntza sendo batekin gainera. Bizkaiaren ordea, agintari militarrek errepublikaren aldeko leialtasuna adierazi zuten segituan. EAJ duda mudan ibili zen, baina azkenean altxatuen kontrako jarrera azaldu zuen.

LEHENENGO EGUNAK HERNANI ETA INGURUETAN

Susmoak bazeuden arren, jende asko ezustean harrapatu zuen gerra honek, baita Hernanin ere. Luis Gorrotxategi esate baterako, orduan gaztea zen, 21 urte bete berriak eta kiroletan soilik pentsatzen zuela esaten digu, berak ez zuen uste gerrarik hasiko zenik “Keba! Ezta pentsatu ere!” esaten du bere baitan. Lehenengo mugimenduak segituan nabaritu ziren, uztailearen 17an, Marokoko tropak lehen altxamendua izan zutenerako, zenbait lantegitan greba oihuak entzuten ziren. Bernardo Martinek dioenez, altxamenduaren berri izan eta gero, “La baldosa” lantegian grebarako deialdia egin zen, hurrengo egunean ez omen zuten lanik egin, larunbata baitzen, baina astelehenean - uztailearen 20an - greba probintzia osora zabaldu zen.

Hala ere, esan beharra dago lehenengo egunetan nahasmena nagusi izan zela, jende guztia berriak nondik etorriko zain omen zegoen eta horregatik ez zen defentsarako ekimen garrantzitsurik antolatu. Hasiera batean denda eta taberna asko itxita egon baziren ere, pixkanaka irekitzen hasi ziren, berdin gertatu zen garraioekin, tranbiak ez zuen egun horietan ibilbidetik egin.⁹ Hernaniar guztiak Donostian gertatzen ari zenari begira zeuden, zerbait bazebilen Loiolako koartelen inguruan:

...Loiolako koartelak altxa egin ziren, koartel gainean dagoen mendira artilleria igo zuten eta tropak beheran geratu ziren. Orduan, herriko jendeak, eskopeta eta pistola zenbaitekin koartela inguratu zuten eta ez zieten irteten utzi, aurre egin zieten eta han egon ziren. Eibartik ere jendea etorri zen, arma mordo batekin, han arma lantegi bat baitzegoen eta batzuk ekarri zituzten. Nik ez nituen ikusi, hori da esaten zutena, gero errenditu egin ziren...¹⁰

⁹ BLAS ZULETA, Luis: *Hernani entre dos guerras...* 59-61 or.

¹⁰ 2002-BMS-01 elkarrizketa, hasiera-erdialdean.

Egunkaririk ez zen iritsi. Garai haietan ideologi ezberdinetako egunkariak saltzen ziren herrian, *La Voz de Guipúzcoa* esate baterako oso irakurria zen probintzian, errepublikarra baitzen, *El Diario Vasco*, erabat konterbadorea zen eta eten asko izan zituen, baina gerraren ondoren jarraitu zuen bakarrenetako bat izan zen. Gure aiton-amonek gogoratzen duten beste egunkari bat *El Dia* egunkari abertzalea dugu, Hernanin salgai zegoena. Astekarien artean *Euzkadi Roja* nabarmentzen zen, komunisten aldekoa omen zen hau. Baina uztailearen 19tik 27ra bitartean ez zen egunkaririk agertu, hilaren 27an *Frente Popular* egunkari berria editatu zen arte, *El Diario Vascoren* errotatiba erabili zen egunkari hau kaleratzeko. Honen bidez, Donostiako gertakizunen berri zehatz-mehatz jakin zuten hernaniarrek. Irailean, nazionalen tropak sartu zirenean, *Frente Popular* desagertu eta *Unidad* gaueko egunkari falangista edo *La Voz de España* frankista kaleratu zituzten; zentsuraren garaia hasi zen orduan.¹¹

La Voz egunkarian,
Marokoko
altxamenduaren
berri egun batetik
bestera eman zen.



Donostiako hiria, errege-erreginen uda-pasen gune garrantzitsua bihurtu zen XIX. mende bukaeratik; bertaratzen zirenean makina bat neskame eta morroi ekartzen zituzten. Inguruko aristokrazia eta burgesia aberatsena ere hurbiltzen zen eta Donostia hiri turistikoa bihurtu zen. Kontxako badia-

¹¹ GARCIA de CORTAZAR, Fernando; MONTERO, Manuel: *Diccionario de historia del País Vasco*, Txertoa, 1999, Donostia, "Prensa" atala.

ren edertasunak liluraturik agian edo beste arrazoi batzuegatik behar bada, Donostia aberatsez betetzen zen uda guztietan.

1936ko uda berezia izango zen ordea, gerrak kanpotik etorritako aberats asko Donostian harrapatu zituen eta hauetako zenbait espainiar eskuinarekin bat egitegatik atxilotu zituzten. Marokoko tropak altxa eta hurrengo egunean *La Voz de Guipúzcoa* izan zen Donostian irten zen egunkari bakarra, honek, errepublikari leial, lasaitasun mezua eman nahi zuen, dena kontrolpean zegoela esanez. Horregatik, uztailaren 19an normaltasuna nagusi zen Donostiako kaleetan, hipodromoan zaldi lasterketak egongo zirela ere esaten zen, normaltasun hori frogatzeko. Baina normaltasuna itxurazkoa besterik ez zen, Gobernu Zibila eta Loiolako koartelen inguruan mugimendu handia nabaritzen baitzen, antza, hasiera batean altxamenduaren alde azaldu ziren zenbait agintari, momentu horretan dudatan zebiltzan, horien artean Carrasco koronela. Baina Mola jeneralak, hori ikusita, Carrasco paretik kendu eta Vallespín teniente koronela agintean jartzeko ordena eman zuen.

Bizpahiru egunen buruan UGT eta CNTren egoitzen inguruan milizia boluntarioek defentsa sendo bat osatu zuten. Miliziak, anarkistek eta sozialistek osatu zituzten, abertzaleak berriz aldean geratu ziren, nahiz eta EAJko zenbait buruzagik hiriaren defentsaren aldeko apustua egin - Irujo eta Lasarte, esate baterako -. Loiolako koarteleko tropak uztailaren 22an irten ziren Donostiarantz, hiriaren erdian sartu eta Maria Kristina hotelean, kasinoan - gaur egungo udaletxea -, Kursaalera eraikinean eta Gobernu Zibilean ezarri ziren, baina ez zuten hiria kontrolpean izaterik lortu, anarkistek Larramendi kale inguruak bereganatu baitzituzten eta sozialistek Alde Zaharra eta Boulevard aldea.¹²

Donostiako erasoaz ohartzean, hiri honetatik bi egun lehenago Gasteiz aldera irten zen boluntario zutabe bat - erbesteratutako galiziarrez osatua, batez ere - atzera egin eta Eibarren, Bilbotik zetorren beste zutabe batekin elkartu zen, Donostiara bueltatzeko asmotan. Egun horretan bertan Donostia erasotzen ari ziren militarrek koartelen ingurura erretiratu behar izan zuten, Eibartik etorri ziren soldadu errepublikarrek atzetik eraso baitzieten. Hurrengo egunean Maria Kristina hotelean gotorturik geratu ziren militarrei eraso zieten eta hotela asaltatu zuten. Beraz, altxaturiko militarrek, soilik Ametzagaina, Egia, Puiuko lurraldeak eta Loiolako koartela zuten beren menpe.

¹² CHIAPUSO, Manuel: *Los anarquistas y la guerra en Euskadi: La comuna de San Sebastián*, Donostia, 1977.

Ametzagainatik Donostia guztia menperatzen zen, bertan, Loiolatik eramandako zenbait artilleri pieza jarri zituzten militarrek. Luis Gorrotxategik kuota ordaindu ostean - soldaduskako zozketan ez sartzeko ordaintzen zen diru mordo bat, Donostian geratzeko -, Loiolako koarteletan zegoen altxamendua gertatu zenean. Bera, beste soldadu asko bezala, Ametzagainara eraman zuten, baina han zegoela ihes egin zuen, ez baitzuen militarren alde borrokatu nahi. Ongi egin zuen, izan ere, Ametzagainako soldaduak, errepublikarren presioa zela eta, koartelera erretiratu ziren.¹³ Koartela erabat setiatu geratu zen, ur eta argirik gabe, tiro eta bonben artean, egun gutxiren buruan militarren morala erabat birrindurik geratu zen eta Beorlegiren tropa nafarrak Oiartzunen zeudela jakin arren, buruzagiek errenditza erabaki zuten.

1936ko uztailaren 28an, Donostiako borroka amaitu ziren, Carrasco eta beste 68 ofizial preso sartu zituzten, baina horien artean ez zen Vallespín ageri, goizean goiz ihes egin baitzuen. Astigarratik pasa eta Hernanitik Goizuetara doan bidean, auto batek jaso eta Iruñeara eraman zuen Vallespín teniente koronela, Donostia defendatzeko gogo gehien azaldu zuen gizona; berak honela idatzi zuen Loiolan, setiatu zegoenean errepublikarrei zuzenduriko gutun batean: "Ulertuko duzue nire bizitza aberriari eskaini diodala. Ez dago ezer nire erabakiak zalantzan jartzeko". Baina, ihes egiteko aukera ikusi orduko, alde egin zuen militarra izan zen Vallespín.¹⁴

Militarrak errendituz zihoazen bitartean, CNTko militante batzuek - Felix Likiniano tartean -, koartelaren atzealdetik sartu eta bertan zegoen munitzioaren gehiengoa bereganatu zuten. Ekintza honek hika-mika ugari sortu zituen errepublikarren artean, anarkistek munitzioa beraientzako nahi zutelako. Bittor Zabaletak badu arma horien berri, berak dioenez: *...Koartela harrapatu zuten, Loiolakua, eta kañoiak ekarri zituzten; handikan hartutakuak eta Santa Barbarako puntan jarri zituzten; kriston duelua izaten zan, zergatik Santa Barbaratikan Xoxokara (botatzen zuten), Xoxokara reketiak etorri ziran eta...*¹⁵ Beraz, Loiolako armak hernaniarren eskura egon omen ziren, artilleria piezak Santa Barbaraino eraman baitzituzten. Donostian altxamenduak porrot egin izana, altxatu en antolakuntza eta ausardi ezari egozten zaio, baina baita miliziek egin zuten lanari.

¹³ 2002-LGM-01 elkarrizketa, erdialdean

¹⁴ BARRUSO, Pedro: *Verano y revolución. La guerra civil en Guipúzcoa (Julio-Setiembre de 1936)*, Haranburu editor, 1996, lehenengo atala.

¹⁵ 2002-BZA-01 elkarrizketa, erdialde-bukaeran.



Defentsaren antolaketa

HERNANIARRAK GERRARAKO PRESTATZEN

Altxamenduak izan zuen garrantzia ikusita, errepublikari leial mantendu zirenak defentsa bat antolatzeko beharra ikusi zuten. Donostian, uztailaren 27rako Defentsa Batzordea edo "Junta" antolatu zuten; Batzordeen eraketa aspaldiko ohitura bat zen, altxamendu edo "pronuntziamentu" bat zegoen bakoitzean sortzen ziren. Batzordeak komisaritza ezberdinak zituen, gerrarako komisaritza eta ordenu publikorakoa ziren garrantzitsuenak, azken hau EAJren kargu geratu zelarik, horrela, abertzaleek ordena mantentzeko eta atxilotuak babesteko ardura hartu zuten, komentuak eta elizak babesteko asmotan, batez ere.¹⁶

Barrikada Donostiako Larramendi kalean, anarkisten egoitza parean. Hernanin Donostiako lehenengo gertakizunak gertutik bizi izan ziren, ezkertiarrek defentsa bizkor antolatu baitzuten bertan.

¹⁶ BARRUSO, Pedro: *Verano y revolución...* 118 or.

Donostiako Defentsa Batzordeaz gain, Eibarkoa eta Azpeitikoa ere osatu ziren, lehena sozialisten esku zegoen, bigarrena berriz abertzaleen esku. Dena den, gerora, herri bakoitzean Defentsa Batzorde txikiak osatu ziren, nagusienei atxikirik; Donostiako herri guztietan omen zegoen Defentsa Batzorde bat, baina askotan ez ziren izen horrekin ezagutzen eta egitura kaxkarrekoak ziren. Hernaniri dagokionez, aiton-amonek ez dute gogoratzen horrelako erakunderik antolatu zenik, ez behintzat izen horrekin, baizik eta defentsa antolatzen aritu zirela, soil-soilik. Dena den, liburu artean Hernaniko Batzordearen gerrarako komisarioak zein ziren azaltzen da: Francisco Domingo, Joxe Apaolaza, Darío Guzmán eta Juan Ibáñez ziren hauek.¹⁷

Hernanin, Gipuzkoako leku gehienetan bezala, ezkertiarak izan ziren lehenengo erreakzionatu zutenak, batez ere UGTn sindikaturik zeudenak eta sozialistak., abertzaleak berriz dudatan zebiltzan, ezkertiarrekin bat egin da borrokatzeko gogo gutxi baitzuten: *...Nazionalistak dudatan zebiltzan, ez zekiten alde batera edo bestera joan behar ote ziren eta lehenengo momentuetan ez ziren asko sartu, ez gauza bat ezta bestea defendatzera ere; inor baino gebiago, sozialistak eta sindikalistak izan ziren lehenik aurrerpegia eman zutenak...*¹⁸ Baina abertzaleen arteko sektore batek EAE-ANV alderdikoek, horiek ezkertiarak izaki, bai erreakzionatu zutela eta sozialistekin batera antolatu ziren. EAJko militanteek ordena publikoa mantentzeko ardura hartu nahi izan zuten, horregatik, herriko zenbait tradizionalista eta eraikin erlijioso babestu zituzten, gero ikusiko dugun bezala.

Hasierako anabasa nabaria zen, antolaketa apur bat zegoen arren, armak falta ziren eta boluntarioen gerrarako ezagutza oso eskasa zen: *...Ni gogoratzen naiz hemen armak errekisatu nahi izan zituztela, eskopetak, beste armarik ez baitzegoen, guardia zibilei fusilak kendu zizkieten, dozena bat edo dozena erdi bat zeuden eta arma horiekin Gipuzkoa hartzera zetozen nafarrei eusten saiatu ziren...* Erreketek Hernanira iristeko egun asko falta ziren, baina uztailearen 25erako Beasainen zeuden jadanik, Oria bailararen atea zen Beasain; bertan gertatu ziren lehenengo enfrentamenduak, Eibarko zenbait errepublikarrek herri hura defendatu nahi izan zutelako; hernaniar batzuk ere han zebiltzala dio Bernardo Martinek, preso harrapatu omen

¹⁷ URGOITIA, J.A.: *Crónica de la Guerra Civil de 1936-1937 en Euzkadi peninsular. Pérdida de Guipúzcoa*, Sendoa, Oiartzun, 2001, 1 alea, 423 or.

¹⁸ 2002-BMS-01 elkarrizketa, erdialdean

zituzten eta berak ez zituen gehiago ikusi. Uztaila eta abuztuko egun horietan, Oindi aldetik erreketekak ikusi zituzten, baina leku hartara bertaratu ziren hirurogei bat errepublikarrek atzera itzularazi zituzten, eta tiroketa horietan Bernardo Erdozia izeneko errepublikar bat hil zuten.¹⁹

Mobilizatu ziren pertsonak hainbat egiteko zituzten: Arma ziztrin batzuk eskuetan zituztela guardiak egiten zituzten leku estrategikoetan: *...Neri eskopeta bat eman zidaten eta uste det aurrera baino, atzera gehiago tirokatzen zuela, guardiak egiten genituen, hemen, hilerrian, herrian barrena...* Santa Barbara mendira, Oriamendira eta inguruko tontorretara artilleria piezak eraman zituzten, erreketekak hurbiltzen ari baitziren eta horrela defentsa zabal bat osatu ahal izateko. Gainera, Santa Barbara azpian trintxera asko ireki ziren eta horretarako trenbideko habeak aprobeixatu zituzten:

...Santa Barbarako behe hartan? Baiño zenbat trintxera egongo ziran? (...) Asko, baina trintxera haundik eb! Nola "norte"ko ferrokarrillaren bigak? Hori dena iyo egin bihar zan Santa Barbara denbora haietan eb, iyo egin bihar zan! Eta ze trintxera?, Zulua egin, kriston zulua eta gero biga botatzen zuten (gainetik) eta refugiyua egiten zuten. Bertako jendiak egiten zituen (trintxerak)...²⁰

Portutik gora, Tellerigain inguruan ere trintxera bat egin zuten eta Mandazubi inguruan beste bat. Bitartean, erreketekak gero eta gertuago...

ATXILOKETAK ETA ZAINTZAK

Errepublikaren aldeko borrokan, abertzale askok hartu zuen parte, baina gehienak, behin tropak herrira sartutakoan hasi ziren borrokan. Azpeitian edo Bilbon, Eusko Gudarostera sartu ahal izateko, eskaria egitea nahikoa izaten zen, baina Hernanik errepublikarren aldekoen menpe jarraitu zuen bitartean, abertzaleen egiteko nagusia zainketak izan ziren. Koartela, berehala, Agustindarren komentuan jarri zuten, ikurriña handi batekin:

¹⁹ Ibid.; erdialdean.

²⁰ 2002-BZA-01 elkarrizketa, erdialde-bukaeran

...Gerra hasi eta koartela jarri zuten, monjak barrenian, zakuekin refugiyua egin ziguten, abiaziyua etortzen zanera-ko. Izugarri haundiya da komentu hori eta monjen zeldak guri uzten zizkiguten lo egiteko, "kamastroak" jarri zizkiguten. Gero, mendian relebua egiten zutenian, batzuk lotara eta bestiak bazkaltzera etortzen ziran... Jana ere bihar zan, guk etxian gendun guztiya ematen gendun eta baserritarrek ere bai jana ekartzen zuten...²¹

Josebek egun horiek bizi-bizi ditu memorian, bera eta beste neska gazte batzuk hor ibiltzen ziren, bazkaria egiten edo koartela garbitzen, eta berak dioenez, mojak irrikitan zeuden horrelako neska gazteak komentuan sartuko ote ziren, moja modura noski; batean, zera esan zien Josebek: "Egunero kale buelta egiten uzten badidazue bai, bestela ez!". Zaintza lanetan ibili zen beste pertsona bat Joxe Laburu izan zen, artean ume mokoia izanik ere, bere aitari Floridako eskuindar baten etxea babesten lagundu zion, pistola eskuan hartuta.²²

Gerra hasi bezain laster, eskuineko tradizionalista nabarmenduenak arriskuan geratu ziren; batzuk kaleetatik lasai asko ibiltzen ziren, baina beste batzuk alde egitea edo ezkutatzea erabaki zuten. Atxiloketa batzuk ere egon ziren, Julian Madina, Nemesio Leal, Elias Querejeta, Olaizola eta beste zenbait karlista ezagun izan ziren atxilotu zituztenak, hauek zaintzen Otamenditarren anaia bat ibili zen: *...Nazionalistak ari ziran defenditzen boieri, preso boieri zergatikan hori politikaren zera zan eta...arrisku haundiya zuten eb!...* eta dirudienez, lehenik arkupe txikira eramane zituzten, gero Birebendarren etxera - Ezkiaga pasealekuaren parean - eta azkenik Agustindarren komentura. EAJkoak izan ziren atxilotu hauek babestu zituztenak, Azpeitiraino eramane zituzten eta bertan askatu egin zituzten, askatzean horrela esan zieten, erdaraz: *...bonaino guk ekarri zaituztegu, arriskatu gera baina ekarri zaituztegu, hemendikan aurrera zuek moldatu bibarko dezute bizirauteko, zergatikan guk Bilbora joan bihar degu...*²³

²¹ 2002-JGZ-02, elkarrizketa, erdialde-bukaeran.

²² ODRIOZOLA, Jon: Op. cit., "Zaintzak" atalean.

²³ 2002-GIOA-01 elkarrizketa, erdialdean.

Pablo Morencos, *Morencos* ehun-lantegiaren jabea, eskuindar ezaguna zen, Kale Nagusian bizi zen eta uztailaren 20an Fronte Popularreko zenbait kide bere bila joan zirenean, honek etxean zuen eskopeta bat hartu eta tiroka hasi zitzaien, baina tiroketaren ondoren atxilotu egin zuten, hori dio behintzat agiritegian aurkitutako txosten batek, orduko alkate zen Miguel Toledok idatzia: “Gaurko egunean, Guardia Zibilaren sarjentuak Pablo Morencos Cunchillos bizilaguna entregatu dit eta Guardia Zibilaren koartelean atxiloturik jarraitzen du”²⁴ Bernardo Martinek aditua duenez, gero Bilbora eraman zuten eta bertan egon zen atxiloturik itsasontzi batean, hortik aurrerakoak ez dakizki. Dena den, Morencos, Hernaniko alkate bihurtu zen geroago, Hernanira bueltatu zenaren seinale.

Baina zergatik arduratu ziren EAJkoak ordena publikoa mantentzen? Zergatik babestu zituzten eskuindar, karlista eta tradizionalista hauek? Arrazoi askoren artean, EAJkoen jarrera ideologikoak nabarmendu behar dira, baina badago beste arrazoirik ere: Gipuzkoara, noiz edo noiz erreketek Nafarroan egiten ari ziren sarraskien berri ailegatzen zen; Nafarroan 3.000 pertsona inguru fusilatu zituzten matxinatuek, batez ere Erribera aldean, baina Nafarroako herri guztietan egon ziren fusilamenduak, gehienetan, arbitrarioki eta inolako epai edo agindurik gabe, gainera Mola jeneralaren jarrera beldurgarriak horretara bultzatu zituen; uztailaren 19an Gaztelu Plazan zera esan zuen:

“...izua zabaldu behar da, menpean ditugun sentazioa sortu behar da, gu bezala pentsatzen ez duten guztiak ezabatuz; Fronte Popularreko kideren bat babesten duen pertsona oro akabatu egin behar da....”

Honen aurrean, historialari batzuek diotenez, EAJk ahalik eta sarraski txikiena izan zedin nahi omen zuen, behin erreketek Gipuzkoako herrietan barrena sartuz gero, herritarrenganako errepresioa txikiagoa izan zedin, azken finean biolentzia areagotuko zuen jarrera oro ezabatu nahi omen zuen alderdi honek. Baina ez zen gauza izan, bai alde batetik eta bai bestetik hilketa, suntsiketa eta zigor ugari egon baitziren; adibide bezala, Donostiako kartzelatik atera eta Jesus Larrañaga komunistaren baimenarekin burutu ziren 53 pertsonen fusilamenduak ditugu edo Tolosan, erreketek sartu baino lehenago, errepublikarrek egindako hilketak.

²⁴ HUA, E/5/II/27/1


BEASAINDIK ANDOAINERA, GERRAREN BILAKAERA:

Franco, Mola eta beste militar altxatuen asmoa, boterea segituan hartzea zen, baina altxamenduak jasotako babes eskasa ikusirik, gerra gogor bat hasi zuten espainiar estatu guztian. Hasiera batean, gerraren kontzepzioa eta bilakaera tradizionalagoa izan zen, militarrek zutabeak osatzen zituzten eta zuzenean beraien helburuetara abiatzen ziren. Francok esate baterako, Madrileraino iritsiko zen zutabe bat osatu zuen, honek Toledo eta Badajoz menperatu zituen eta bi hilabetetan bostehun kilometro baino gehiago egin zituen; irailaren erdialdean, Francoren tropak, Madril erasotzeko prest zeuden.

Molak, Donostiako goarnizioak altxamenduarekin bat egingo zuela uste zuen, baina Donostiako gertakizunen ondoren, zenbait erreketete zutabe, Gipuzkoan barrena bidaltzea pentsatu zuen. Zutabe hauetatik garrantzitsuena Beorlegik agintzen zuena zen, Bidasoa haranetik Irunera iritsi eta Donostiara sartu nahi zuen honek, Loiolako koartelean zeudenei lagunduz; baina milizia errepublikarrek zutabea Endarlatza inguruan gelditu zuten. Ondorioz, Oiartzunetik sartzea erabaki zuen Beorlegik, Errenteria erasoz, lehentasuna Loiolako koartelean zeudenei laguntzea baitzen. Loiolako militarrek errenditzean, hasierako erabakiak ez zuen zentzurik eta bere tropak Irun erasotzeko antolatu zituen, Lapurdiko muga itxi nahian. Hemen ere erresistentzia latza izan zuen Beorlegik, Aiako Harrien inguruan borrokaldi gogorrek gertatu baitziren.

Bitartean, erreketeten beste zutabe batek Lizarrusti gainditu, Lazkao, Beasain, Ordizia eta Alegi menperatu eta pare bat astetan Tolosarako bidean zeuden. Beste zutabe bat Lizartzatik sartu eta Berastegiraino iritsi zen, han mikeleteen postu bati eraso egin eta zutabe hau Tolosara iritsi zen. Abuztuaren 10erako Tolosa erabat setiaturik zegoen eta bertako errepublikarrek errefortzuak eskatu zituzten Donostia aldetik; errefortzu horiei esker, Tolosan harrapaturik zeuden errepublikarrak bertatik irten ahal izan ziren. San Frantzisko kaleko barrikada hutsik ageri zen erreketeteak sartu zirenean, hortik atzera, Buruntza-Santa Barbara-Oriamendi-Santiomendi defentsa lerroa geratu zen bakarrik.

1936ko gerra Gipuzkoan (uztaila-iraila)



Errepublikarrek, hasierako momentuetan, ez zuten inolako antolakuntzarik izan, batailoiak geroago sortu ziren eta miliziek, bakoitzak bere kabuz borrokatzen zuten. Gainera, gazte abertzaleak oraindik antolatu gabe zeuden, nahiz eta jadanik Azpeitirako joera nabarmena zegoen. Erreketeek Bidaniako portua eta Orio harrapatzeko asmoz egin zuten erasoari, abertzaleek gogor erantzun zioten, horrela, Donostiatik Bilborako pasabidea irekita mantendu ahal izan zuten.²⁵

...“**Dónde están esos nacionalistas!**”

NAFARRAK HERNANIRA HURBILTZEN

Erreketeek Tolosa harrapatu eta gero, Andoain izan zuten hurrengo helburua. Herri hau oso zigortua izan zen gerrak iraun zuen bitartean; abuztuaren 16an erreketek herrira iritsi eta egun osoan zehar tiroketak izan ziren geratu ziren errepublikar apurren eta nafarren artean; errepublikarrak berriz, Buruntza eta Belkoain mendi gailurretan gotortu ziren. Ondorioz, hurrengo egunetan erreketek bidea itxita aurkitu zuten, behin eta berriro saiatu ziren aurrera egiten, baina mendi gailurretako defentsak eta Santa Barbarako artilleriak kalte handiak egin zizkieten, Asturiasetik etorritako meategietako zenbait langile errepublikar omen zeuden Santa Barbaran, bonbak erabiltzen ederki asko zekitenak.²⁶ Bernardo Martinen esanetan, Buruntzan ez zen hernaniarrik gotortu, Oria haranetik barrena ihesi zetozen errepublikarrak baizik.

Abuztuaren 29an, Buruntza erreketen esku geratu zen; horrela, Hernani eta nafar erreketen artean Santa Barbarako gotorlekuak soilik irauten zuen. Buruntzako erasoetan hildako ugari egon ziren, gainera Andoain eta Hernanik bonbardaketak jasan behar izan zituzten, bai matxinatuen eta baita errepublikarren eskutik - azken kasu honetan Andoainek -. Buruntza nafarrek eskuratu eta gero, eten bat egon zen eta hernaniarrek arnas pixka bat hartzeko parada izan zuten, izan ere Bidasoako bataila gertatzen ari zen momentu horretan. Irun faxisten menpe erori zenean, orduan Donostiako bideak ireki ziren, baina Donostiari azken eraso egiteko, erreketek

²⁵ Gerra Zibila eta Gipuzkoari buruz: *1936: La Guerra civil en Euskal Herria. La guerra en Gipuzkoa*, Aralar, IV liburukia.

²⁶ LASA, Xabier: Op. cit., 84-135 or.

Hernani hartu behar zuten nahi eta nahi ez. Horretarako, Galiziatik etorritako ehunka falangista batu zitzairen nafar erreketeei, *gallego haizea* zeto-rrera esaten zuen Malen Zubirik, Joseberen amak.



*Errepublikar talde bat
Santa Barbaran.*

Santa Barbarako gotorlekua bonbardatzen zuten bitartean, Urnieta eta Hernani arteko lurretan borrokaldiak egon ziren, hauetako batean Karlos Lazkano hil zen, Josebe Goiaren bizilaguna: *...hemen danak frentian zeuden, saltsan. Gure goien bizi zan bizilagun bat, Karlos Lazkano, izugarritzko ebiztariya zan eta punteri ear bat zuen eta behin "daa!" bota zuen [tiroa] eta esan omen zuen: "hoi jun dek!" eta berak burua altsa zuenian, bementxe zakan, bala aizute! [kopeta erdian]...*²⁷ Mandazubin ere egon zen borrokaldirik, inguru horretan zegoen etxe batean:

²⁷ 2002-JGZ-01 elkarrizketa, erdialdean.

...Mandazubin beste trintxera bat egin zuten, baina ez zen ezkerretara zegoen dorretxea hartu. Bertan etxe karratu bat dago eta etxe hori lehenengo erreketek hartu zuten, baina gero hemengoek, Hernanikoek, bereganatu egin zuten eta erreketek ibes egin zuten metrailadore bat bertan utzita. Hernanikoek etxea hartu zuten, baina nola ez zegoen inongo agintari militarrik ezta antolakuntzarik ere, berriro utzi zuten etxe bura, orduan erreketek behin betirako sartu ziren bertan...²⁸

Tiroketa galantak izan ziren beraz inguru horietan. Baina irailaren 11 eta 12an, borrokaldi gogorren ondoren Santa Barbarako inguruak galiziarren esku geratu ziren, Santa Barbarako gotorlekua ordea, ez zen irailaren 13a arte menperatua izan, baina Donostia Irundik zetozen tropen esku zegoen ordurako.

BONBARDAKETAK

Frontean gertatutakoaz baino gehiago, hernaniarrak, herrian gertatutakoaz gogoratzen dira, eta batez ere bonbardaketaz. Izan ere bonbek txiki-zio handiak eragiten zituzten eta herrian segituan zabaltzen zen non erori ziren eta zein zauritu edo hil zuten. Hala ere, Hernanik ez zituen bonbardaketa asko jasan, ez behintzat gerora, Bizkaiko herriek jasan behar izan zituztenak bezalakoak. Bonbardaketak egun zehatz batzutan burutu ziren, Andoain erreketen esku erori zenetik, Buruntza eta Santa Barbaran borrokaldiak iraun zuen bitartean, hain zuzen. Bonbak dimentsio txikiko hegazkin batetik jaurti zituzten, Savoia S.81 izeneko italiar hegazkin batetik, zehazki esateko.

Hasiera batean, hernaniarrak ez ziren bonben arriskuaz ohartzen, ikuskizun gisa hartzen zuten bonbak botatzearena. Inaxi Otamendi, artean gaztea zen eta beste haur askorekin batera kalean ibiltzen zen jolasean:

...Baiño ez zitzaigun iruditzen kalte egingo zigunik! Bueno... Andrekalian erori zanian, orduan bai, jolin! Eta gero hor, Oblatotan ere erori zan, baiño gainèrakuan? Balkoira, abioia

²⁸ 2002-BMS-01 elkarrizketa, hasiera-erdialdean



SM-81 hegazkina airean. Hanelako hegazkinek bonbardatu zuten Hernani gerra garaian. Savoia hegazkinak Italian egiten ziren.

nola pasatzen zan ikustera; baiño ze abioi? Abionetak! (...) Gero bai! Baiño lehendabizi gu ume guztiak zera... plazan, tilosetan: "Abioia dator!" ta badakizu nun izaten giñan? Pasadizua nola dagoen Tilosetan? Sotu hartan, ikusten dezu! Segurua iruditzen zitzaigun, etxea etorri ta "¿Baina nun zabiltzate?" eta "Sotuan sartu gera" "Bai zera sotuan!"...²⁹

Bittor Zabaletak, baserrira Portu auzoan zuen, bertan bizi zen bere senideekin batera, baita amona ere, baina amonak ez omen zituen gerra "moderno" horiek ulertzen eta ez zen ohartzen hegazkin batek egin zezakeen kalteaz, babarrunak biltzea nahiago izaten zuen: ...*Baratzan zingirak ibiltzen ziran eta sartzen giñan zulu hartan; behetik gora abioiari beida*

²⁹ 2002-GIOA-01 elkarrizketa, erdialdean.

*egoten giñan, eta amona berriz baburrinak biltzen! Balak goitik: "dibidiii...!" ta amona berriz baburrinak biltzen, harek ez zun nabi alpe- rrik galtzia ezerre!...*³⁰ Gero bai, egiten zituzten txikizioak ikusita, orduan jende guztiak babeslekuak eraiki zituen, soto eta leku berezietan. Imanol Larretxeak lau urte besterik ez zituen eta gerrari buruz gogoan daukan irudi bakarra zera omen da, babeslekuan errezatzen nola ibiltzen ziren:

...Gogoratzen naiz nola gu bizi giñan Portalezkanpon eta abioiak bonbardeatzera etortzen ziranian, sirena jotzen zuten eta orduan gu etxetik kamiñu azpira pasatzen giñan, hori zan gordetzeko lekua (...) Ni gogoratzen naiz mutil koxkorra nitza- la nola jeisten giñan hareka, refujiyu hortara eta han erreza- tzen egoten ziran eta egoten zan barriyu guztiko jendia...³¹

Babeslekuak etxe sendoenetan egin zituzten, Joxe Mari tabernako sotoa esate baterako, etxea berri berria zen eta hormigoiz egina, horregatik jen- deak ez zuen uste etxe hori bonbek botako zutenik. Beste babesleku bat gerora Guardia Zibilen koartela jarri zuten Zapa Kaleko eraikina zen, Zapi- rainek egina, berri berria hau ere; *Zaraguetaneko* sotoan ere gordetzen ziren asko. Babesleku bitxiak egon ziren, trenbide azpitik Karabel auzora pasatzeko oinezkoentzat dagoen tunel estuan adibidez: *...Nere gizonak eta koñatak eta esaten zuten, apeaderoko tunel hortan lasto farduak jarri eta han sartzen zirala, klaro Karabeleko etxerik ez zan orduan eta...* Roxari- to Goikoetxearen gizonak Joxe Mari Ugalde *Balantxak* bazekien non gorde, baina Roxaritok berak ere gordeleku aparta bilatu zuen, bere ama gaixoa berriz, umea izatekotan zegoen orduan, komeri dezente izan zituen Eziagoko paper lantegiaren ondoan bizi zen familia honek:

...Fabrikan sartzen giñan gu. Hemen [fabrikan]turbina zegoen eta kanal bat ere, eta bonbak botatzen bazituzten, azpi horre- tan sartuta egoten giñan, ez gu bakarrik eh! Orkolaganekuak eta... Ezion [Eziagon] denak han sartzen giñan, abal genuen bezela. (...) Orduan gure ama gaixua partuan [erditzeko] zegoen eta goiko bizitzatik behera jeitsi behar izan omen zuten, aittak eta bizilagunak...³²

³⁰ 2002-BZA-01 elkarrizketa, erdialde-bukaeran.

³¹ 2002-ILG-01 elkarrizketa, erdialdean.

³² 2002-RGO-01 elkarrizketa, hasieran.

Hegazkinik baldin bazetorren, herri guztian abisua ematen zen, horretarako herriko gizonak leku estrategikoetan jartzen ziren, esate baterako elizako kanpai dorrean: *...Ni ere hor egon nintzen [kanpandorrean], abiazioa etortzen zenean abisatzeko, egun batzuk bertan pasa nituen, abisatu eta jendea babeslekuetan edo beste lekuren batetan sartzeko...*³⁵ Hegazkinak etortzen zirenean kanpandorreko kanpaiak jotzen zituzten, baina horretaz gain, lantegietako sirenak ere martxan jartzen ziren, horrela konturatzen zen jendea abiazioa bazetorrela. Dena den, askotan, abiazioa Santa Barbara gotorlekura joaten zen zuzenean, Hernaniko herri gunetik pasa gabe.

Erori ziren bonba eskasak non erori ziren, herritarrak ongi gogoratzen dira: batek *Andrekaleko* etxe batean jo zuen bete beterik, Rezola pareko *Prontxonian*, Gudarien Plazatik gertu, bertan pertsona bat hil zuen bonbak, Angel Mendizabal, ofizioz harakina, etxe horretan sartu zen berria zelako, baina ez zion askorako balio izan. *Atzietan* berriz, baserriko lanak egiten ari zela, beste aitona bat hil omen zuen, gainera bertan dagoen *Gingo Biloba* arbola famatuak kalteak izan zituen, gerora porlanaren bitartez sendatu zuten arren. Ez dakigu ziur *Atzieta* kaleko bonba eta *Andrekalekoa* berdinak izan ote ziren, baina arbola hori ez zen kaltetua suertatu zen arbola bakarra izan, garai haietan Ezkiaga Pasealekua autoen ezkutaleku bezala erabiltzen zen, bertan beste bonba batek jo zuenean han zeuden ezkiak kaltetu zituen, orduz geroztik hauen adarrak ez dira berdin ateratzen.

Bonba gehiago bota zituzten, askotan jo puntua asmatu gabe, baina bestetan bai. Agustindarren komentuan EAJren koartela zegoenez, bertara bonba pare bat bota zituzten. Honela kontatzen du Sabina Villarrek ikusitakoa, *Zinkoeneako* etxe zaharrean bizi baitzen orduan:

*...Monjak joan ziranian ikurrina jarri zuten, eta Francon aldetikan bonbardeatzen hasi ziran; klaro, ikusten zuten ikurrina eta bonba botatzen zuten. Ni terrazan negoen eta ikusi nuen indar askoko zeozer bazetorrela, argiya ta berotasunagatik, eta bota egin zidan! Harren haiziak bota egin zidan! Eta lurrian gelditu nitzan, terrazan negarrez... Obus bat omen zan, hemendikan etorri eta Imazenen etxera sartu zana, karpinteria zan hura, baino obusa ez zan lebertu...*³⁹

³⁵ 2002-BMS-01 elkarrizketa, hasiera-erdialdean

³⁹ 2002-JVE-01 elkarrizketa, erdialdean. Sabina Villarrek gerrari buruz esandakoak.

*Agustindarren
komentua. EAJ-ren
koartela leku
honetan zegoen eta
ikurrin handi bat ere
jarri zuten bertan.
Agian, horregatik
izan zen
hegazkinetatik
botatako bonben
helburu.*



Obusak herio haizearekin zetozen eta hernaniarrek beldur galanta pasa zuten abuztuko eta iraileko egun horietan, baina behin Santa Barbarako gotorlekua faxisten esku geratu zelarik, orduan bonbardaketak ere eten egin ziren, Hernanik gerra galdu zuen eta frontea Azpeititik haratago omen zegoen jadanik.

“GAIZTUAK ZIRAN NAPAR HORIEK!”

“Viva Cristo Rey” esanez sartu ziren nafarrak Gipuzkoako herrietan. Fama txarra zuten, gaiztoak omen ziren, sekulakoak eta bi egin zituzten, bai Nafarroan eta baita pasa ziren Gipuzkoako beste herrietan ere; Molaren “izua zabaldu behar da” hitzek eragina izan zuten eta, abertzale, sozialista edo errepublikarra zen edonork alde egiten zuen, nafarren eskuetan ez erortzeagatik. Donostian sarrera egin zutenean, denek besoa altxatuta erre-zibitu zituzten erreketek, tartean Uzkudun boxeolaria ere bazebilen:

*...Nik Donostin ikusi nituen nola sartzen ziran, Donostira sartu ziran eta Uzkudun boxeolaria tanke batian ikusi nuen, jefia bezela; han sartu ziran... "Viva Cristo Rey!" esaten zuten, "Mecauen Dios, Viva Cristo Rey!" danak karraxika. Gaiztuak ziran napar horiek! Inpernu-jotzailiak beraiek egin zituzten!...*³⁵

Ez da harritzekoa, nafarrak eta galiziar falangistak Hernanin sartu baino lehenagoko egunak, urduritasun egunak izana herri honetan. Urduritasun horrengatik edo nafarren astakeriak mendekatzeagatik, oraindik herrian geratzen ziren ezkertiarrek, eskuindarren etxeen kontra eta elizaren kontra zenbait eraso burutu zituzten. Ubarretxenatarrak bizi ziren etxea *Atzietan* zegoen, "patateraren" etxe ondoan, etxe luze bat zen eta honi su eman zioten, garaiz iritsi ziren ordea, sua itzaltzeko; Juan Maria Larrea apaizaren etxea ere erre zuten, Izpizua kalean.

Ezkertiar erradikalen helburu nagusietako bat elizak izan ziren, Euskal Herrian baino Espainian gehiago; hala ere, hemen badugu elizen okupazio eta usurpazioen berri, baina jakina da okupazio hauek ere askotan abertzaleek burutu zituztela, Agustindarren Komentua edo Loiolako Santutegia dira horretarako adibide. Hernanin eraso batzuk suertatu ziren, erreketek sartu baino lehenago, miliziar batek aldareari su eman zion eta abertzale batek bere gorputzaz sutea itzali zuen.³⁶

Tropa faxistak sartu aurretik egon zen anabasaren ondoren, faxismoa heldu zen herrira. Jende gehienak alde egin zuen, baina Hernanin oraindik jende asko zegoen, inora ezin joanik geratu zirenak alegia. Horien begietatik ikusi zuten nola eta nondik sartu ziren erreketek eta falangistak herrian. Gregori Otamendik, gogoan dauka irailaren 13an ez zela kalean inor ikusten, erreketek soilik:

...Geroztikan askok, abal zutenak alde egiten zuten, nere bi anaiek alde egin zuten, nere amak pena earra zeukan. Sartu ziranian ikusi genuen nafar batzuk zirala, danak beraien eskapulayuaekin eta nere amak horrela ikusi zituenian: "Ohh! Hemen ez dago gauza onik!" (...) Nik, jakin genuenian

³⁵ 2002-BZA-01 elkarrizketa, erdialde-bukaeran.

³⁶ ODRIOZOLA, Jon: Op. cit., 23 or. Iñaxi Otamendik esana.

boiek sartu zirala, nere ama eta nere aita nun zeuden jakin nahi nuen! Eta karkabatan banetorrela horrela esan zuen batek: “Dónde están esos nacionalistas!!”...³⁷

“Dónde estan esos nacionalistas!” Garrasi eginez sartu ziren nafarrak eta galiziarrek Hernanira, baina kalean ez zegoen inor. Tiburtzio Agirre, zer pasatzen zen jakin nahi eta plaza aldera joan zen aitak bidalita; bidean topatu zuena ‘desastria’ omen zela esaten du Tiburtziok:

...Ni gelditu nitzan Hernanin eta plazara joan nitzanian ez zegoen ezta iñor ere! Denon artian hamar gizon ta emakume izango giñan plazan, falangistak jeitsi ziranian... Aitak ze pasatzen zan jakiteagatikan bidaldu zigun plazara, esan zigun, “joan zaitzte plazara zer ikusten dezuten” eta plazara joan eta iñor ez! Plazarako bidian “La Cosmopolita”³⁸ denda zegoen eta dana txikituta zegoen, hori desastria! (...) Galleguak jeitsi ziranian tanke batzugin etorri ziran, baiño preokupatuta zabiltzan zergatikan ‘Dourodier’-en etxian bandera frantsesa zegoen eta ez zakiten zer zan etxe hura! Galderak egiten aritu ziran eta batek esan ziyen, “Ez, hori frantsesa dek!” Ez zegoen ez española eta ezta naizonalista ere, herrian bandera hura bakarrikan zegoen...³⁹


Aiton-amon guztiek gauza berbera esaten dute, Hernanira galiziarrek eta nafarrak sartu zirela lehenengo momentu batean. Galiziarrek falangistak ziren eta hauek izan ziren Santa Barbarako borroketan azken momentuan parte hartu zutenak, horregatik, Tellerigain eta Santa Barbara inguruetatik sartu ziren. Nafarrak berriz Oindi ingurutik sartu zirela esaten dute herrian geratu zirenek, Iartza-gaina deitzen zaion muinotik Portu auzora jaitsi ziren eta hortik berriz herri-gunera.

³⁷ 2002-GIOA-01 elkarrizketa, erdialde-bukaeran.

³⁸ Aierdi jauregiaren aldamen batcan, *karkabara* begiraturaz, zegoen denda denetarik saltzen zuena.

³⁹ 2002-TAZ-01(01) elkarrizketa, erdialdean.

1936ko gerra Hernani inguruetan (abuztua-iraila)



Baina nafarrekin nahiz galiziarrekin batera, itxura beldurgarritzko zenbait jendilaje ere iritsi zen. Alemanek eta italiarrek Francoren gudarosteari erabateko laguntza eskaini zieten: Alemanek laguntza teknikoa - *Legión Cóndor* famatua, esate baterako - eta italiarrek laguntza fisikoa, milaka soldaduz osaturiko batailoiak zehazkiago. Sabina Villarren osabak *Zinkoene-ako* etxe azpian tailerra zuen, bertara hasieran errepublikarrak eta gero faxistak autoak konpontzera joaten omen ziren; han ikusi zituen Sabinak itxura zakarreko aleman horiek. Agurra egiterakoan, hankekin “taaa!” egiten zuten bakoitzean, hotzikarazko sentsazioa nabaritzen zuen Sabinak gorputzean.⁴⁰ Gerora, II. Mundu Gerraren ondoren, alemaniar asko etorri ziren Euskal Herrira, hango diru faltsua harturik lurralde hauetan negozioa egitera; Hernanin, Schroeder abizena ezaguna egin zen, hauetako bat, Erich Schroeder, Gestapoko komandantea izan omen zen.⁴¹

Italiarrak, maila handiago batean sartu ziren Gerra Zibilean; errepublikarrek Frankori, italiarrek Espainia inbaditu behar zutela leporatzen zioten, milaka izan baitziren hara joan zirenak. Hernanin italiarrik egon zen jakitea zaila da, baina hauei buruzko kantak oso ezagunak egin ziren; Manoli Olanok, soldaduen arropak garbitzen zituen Hernaniko bere etxean, horrela sos batzuk ateratzen zituen gainera. Gehienetan arropak garbitzeko eske hurbiltzen zirenak gailegoak ziren, baina bazegoen italiarrik ere tartean, honela kantatzen zuten Manoli eta bere lagunek:

*Los italianos se marcharán...
y de recuerdo, un bebé te dejarán!*⁴²

Kanta batek ez zuen herrian zegoen tristura alaitzen ordea, jendearen gehiengoa joan egin zen, beste asko etxean beldurtuta atera ezinik... Eta orduan benetako infernua hasi zen, fusilamenduak gauaren ilunean, zerbaitetan nabarmendu zenaren kontrako errepresio bortitza... Gerra osteko urteak gogorak izan ziren, askok ahaztea nahi izango luketen garaia dudarik gabe, baina noizbait gogora ekartzea komeni izanen da, gertakizun horiek berriro errepika ez daitezen, behinik behin.

⁴⁰ 2002-JVE-01 elkarrizketa, erdialdean. Sabina Villarrek gerrari buruz esandakoak.

⁴¹ 2002-BZA-01 elkarrizketa, hasiera-erdialdean eta bukaeran.

⁴² 2002-MOG-01 elkarrizketa, erdialde-bukaeran.

2.2.- Gerra osteko urte ilunak

Batzuetan, gerra bera baino zitalagoa izaten da gerra ostea, are gehiago galdu duenarentzat. Hernanin, herri errepublikarra eta aldi berean abertzalea izaki, jende askok galdu zuen gerra - "Frente Popular"ek 1.196 boto lortu zituen eta 1.181 abertzaleek; tradizionalistek berriz 285 boto bakarrik jaso zituzten 1936an -. Ondoren errepresioa etorri zen, errepresio bortitza eta beldurgarria, jende askoren hilketa eta fusilamenduak herriko bazterretan, beste batzuei berriz zigor iraingarriak ezarri zizkieten, gosea pasa zuten, erbestea, kartzela... Herria triste zegoen, kalean inor ez, "patria"ren aldeko pertsona gutxi batzuk eta noraezean zebiltzan gizajoak bakarrik.

Gerra ondoreneko errepresioa

"AMA, ZEIN AI DA ALFONBRAK ASTINTZEN?"

Gerra osteko fusilamenduen testigantza gutxi aurkitzen dira gaur egun, gaueko ordu txikietan egin zirelako edo jendeak, beldurratik, ez ikusia-rena egitea nahiago zuelako. Hala ere, jakina da, egunen batean, aitaren aitak noizbait kontatutakoa jende aurrean esango duenik egongo dela, "honako hau hemen hil zuten" edo "hemen honako hauek fusilatu zituzten", jadanik zenbait lekutan gertatu den bezala.

Hernanin, fusilamenduak noiz nola eta non egin ziren, gutxi gora behera badakigu hala ere. Herri hau izan zen, Euskal Herrian, fusilamendu gehien egon zirenetako bat; Ondarretako kartzelatik atera eta Hernanira ekartzen zituzten gerran harrapatutako preso errepublikarrak - hauen artean sozialistak, anarkistak, komunistak, abertzaleak... sartzen ditugu -, bertan hil eta nola hala lurperatzeko. Hau guztia bere begiekin ikusi zuenik bada, hauen artean Josebe Goia, garai haietan hamasei urte zituen neska gaztea; bere aita udaletxeko ehorzle lanetan hasi zen, ordu arte egon zen Larunbe izeneko ehorzle nafarrak gerrara alde egin baitzuen. Joxe Goia abertzalea zen eta bera ere harrapatuko ote zuten beldurrez zebilen, horregatik zerbaiti eutsi behar zitzaiola eta ehorzle izateko aurkeztu zen udaletxean; eta bertako fusilamenduen berri zehatz-mehatz jakin zuen horrela.

Fusilamenduak ez ziren gerra bukatzearekin hasi, baizik eta gerrak Euskal Herrian zirauen bitartean. Hernani 1936ko irailaren erdialdean geratu zen faxisten esku, Donostia erori zen egun berean, eta handik pare bat astera jada hasiak ziren jendea hiltzen, urria eta azaroa bitartean. Esan

bezala, hildako gehienak Ondarretako kartzelatik ateratako presoak ziren, “Cuesta de la Muerte” deitzen zaion lekura eramaten zituzten kamioi zahar batean eta bertan hiltzen zituzten: ... *‘Cuesta de la Muerte’ko goikaldean Galarreta allaitu eta ezkerretara tunel batzuk zeuden eta zoku hartan hiltzen zituzten; gero barrenderua joaten zan, mandua eta karruakin ibiltzen zan hau baina gure zaborra biltzeko ez zan izaten! Eta barek ekartzen zituen karruan, kanposantura...*⁴³

“Cuesta de la muerte” izenaren jatorria ezezaguna da, garai batean malda honetan behera joaterik bazegoenez, istripu eta hildako ugari egoten ziren, eta agian horregatik jarri zioten izen hori; baina baliteke fusilamenduengatik ere jarri izana, nahiz eta azkeneko hau nabarmenegi geratzen zela iruditzen zaigun, dena isildu nahi zuten agintari frankisten aurrean. Gauaren iluntasunean, zabor gurdia hilotzez beterik hilerrira zetorrela, Pipiritta baserriko *Nabarro* txakurrak oihu egiten zuen, horrela jakiten zuten bertakoek gurdia bazetorrela.

Batzuen ustetan, hasierako hilketak Galarretan egin ziren. Gainera, baliteke bertan hildakoren bat edo beste lurperatu izana. Baina gerora, gauza nabarmena zela eta, gorpuak handik atera eta hilerrira eraman omen zituzten; orduan presoak kanposantuko eskuin hormara eramaten zituzten, bertan hil eta hilobi komunetan lurperatzeko. Josebe Goia ere iritzi berekoa da, fusilamenduak, hasieran Galarretan eta gero hilerrian egin zirela; gainera, tarteko bidean *Laubidieta* inguruan, zenbaiti, fusilatu aurretik konfesatzeko aukera eman zietela dio Josebek, horien artean apaiz batzuk ere bazeuden: Joxe Aristimuño Olaso, *Aitzol*, Martín Lekuona, Gervasio Albisu edo Alejandro Mendikute. Azken hau Hernaniko erretorearen anaia zen eta Nemesio Leal, fusilamenduak ikusten zegoen eskuindarrari “Nemesio salba nazazu!” esanez hil omen zen. Ihes egiten saiatzen zirenak, bertan hiltzen zituzten tiro zartada baten bidez. Elias Miner izeneko hernaniar batek ihes egitea lortu zuen, tiro artean korrika alde egin eta urte luzeetan ezkutu egon eta gero, diktadura osoan bizirik mantentzea lortu zuen.⁴⁴

Horrelako kontuak, fusilamenduak egin ziren lekuetatik gertu bizi ziren baserritarrek - Errotaburu baserrikoek esaterako⁴⁵ - edo fusilamenduak

⁴³ 2002-JGZ-01 elkarrizketa, hasiera-erdialdean.

⁴⁴ Ibid. erdialdean. Elias Minerri buruzkoa ikusi: *1936: Gerra Zibila Euskal Herrian...* IV. liburukia, 220 or.

⁴⁵ Ibid. erdialdean

ikusten egon zirenek kontatzen zituzten, garai haietan herriko serenoa (gauzaina) zen Juan Joxe Sagarna *Kixkilluk* edo Ramón Campos kale-garbitzaileak esaterako, azken honek hildakoen gurdia Galarretatik hilerrira eramaten zuen. Behin kale-garbitzaile batek zera kontatu zuen: ...*Gaur ederra gertatu zaigu! Hilerrira generamatzala, dozena inguru, gurdia bustutzen ari ginela, bat falta zitzaigula ohartu gara, eta erori zaigunaren bila joan behar izan dugu bueltan...*⁴⁶ Hilerrian dozena bat hildako baino gehiagorentzako prestatutako zuloak ere ikusi izan zituen Josebe Goiak Pipiritatik hilerrira isilean joaten zenean, egun batean hogeit hamar pertsonentzako zulo handiak kontatu omen zituen, bere begiz ikusiak.

Hilerrian, zuloak egiteko zenbait mutil gazte hartzen zituzten, askotan falangeko kide egin berriak zirenak, beraien burua salbatzeko, noski. Han, lurperatze hauek ikuskatzen herritarrak ere egon ohi ziren. Fusilamendu pelotoietan berriz boluntariorik ere bazegoen, hor aurkitzen dugu esate baterako Paulino Uzkudun, behin Donostian, Bittor Zabaletak “Viva Cristo Rey!” lau haizetara oihukatuz topatu zuena. Uzkudun anarkistek atxilotu zuten Zarautzen, baina EAJri esker askatu egin zuten; faxistak Donostiara sartzean, errepresioaren gurpil zoroan erabat barneratu zen Uzkudun boxeolaria eta fusilamenduen arduradunetako bat bihurtu zen. Hona EAJk zer idatzi zuen pertsonaia honen inguruan:

“Arrakero ziztrina, traidorea eta porrot egindako boxeolaria den Uzkudun, fusilamenduen arduraduna da Donostian. Orangutan itxurako pertsonaia honek, bere misio iluna fronte atzealdean burutzen du. Koldarra! Zure lekua parapetoan dago, ikusiko duzu nola ez zaren bederatzigarren roundera iritsiko.”⁴⁷

Beste informazio batzuen arabera, jende gehiago ere egoten zen fusilamenduak ikusten, Donostiako eskuineko familia ospetsuak etortzen omen ziren igande jantziekin fusilamenduak ikustera. Halaxe dio behintzat Jose Luis Villalongak, hilketak ikusten egon zen aristokrata batek. Baina informazio hau fidagarritasun gutxikoa da, batez ere kontuan izanik fusilamenduak gauaren erdian izaten zirela eta ez ikuskizun gisara igande eguerdian buruturikoak.⁴⁸

⁴⁶ ODRIOZOLA, Jon: *Hernaniko aiene eta ajeak...* 35 or. Gregori Otamendik esandakoak.

⁴⁷ 1936: *Guerra Civil en Euskal Herria*, IV liburukia, Aralar liburuak, 181 or.

⁴⁸ Ibid. 184 or.

Donostian, 1936ko
irailaren 13an
Nazionalak tanketik
agurtzen.



Hernaniko lurretan apaiz ugari fusilatu zituzten - hamar bat -, baina baita beste pertsona asko ere, hauetako bat harrapatu eta nola gehiago ez omen zuten ikusi kontatzen du Gregori Otamendik. Angel Tormes, Hernaniko EAJko arduradunetarikoa bat zen eta Gregorik Irizar taberna dagoen Plaza Berriko bazterrean ikusi zuenean:

*...Hura han egoten zan eta gogoratzen naiz balkoitik hor ikusi nuela nik eta esan nuen: "Nolaz ez da hori joan? Oi ama!" (...) Hurrengo egunian, detenitu eta fusilatu egin zuten. Hemengo zera [neska mutil] guztiak komentura eramaten zituzten, monjei laguntzeko eta presoak ere horrera eramaten zituzten; horrek [Angel Tormesek] lan asko egin zuen bertan eta monjek esaten zioten ez bildurrik izateko zergatikan beraiek abalegiñak egingo zituztela eta lagunduko ziotela, baiña orduan ez zegoen ez monjarik eta ez frailerik!...*⁴⁹

⁴⁹ 2002-GIOA-01 elkarrizketa, erdialdean.

Galiziar eta nafar soldaduak etxeetako aldabak joaz ibiltzen ziren, jendea atxilotu edo fusilatzeke, aldaba bakoitzaren soinua ezagutzen zuten bezala beste askori ere gertatu zitzaion; ezaguna da Elias Miner izeneko hernaniar baten kasua, kamioitik salto egin eta tiro artean ihes egitea lortu zuena. Bittor Zabaletak kontatzen duenez: *...Nik badakit istori bat. Kanposantuan fusilatu egiten zituzten, eta bat ustez bilda utzi zuten, orduan gizajuak zer egin zuen? Berriz etxera presentatu! Fusilatzera eraman zuten eta ez zuten hil zergatikan ez ziyoten jo... ta harek etxera alde egin zuen eta gero etorri ziran berriz bila! Berriz harrapatu eta orduan bai fusilatu zutela!...*⁵⁰

Fusilamendu hauek oso arbitrarioak izan ziren, nahikoa zen edozer txorakeria, fusilatua izateko; gainera, askotan arrazoi politikoak baino, errebantxa eta mendeku kontuak zeuden atzetik, gerraren ondoren herritarren artean sortu zen giro txarra zela eta. Felix Aldasororen aita, sozialista eta UGTko kidea zen, baina ez zuen sekula armarik eskuetan hartu, soldaduska egin zuenean ere ez zen horretarako gai izan eta. Horregatik, gerra hasi zenean anbulantzietan ibili zen lanean, errepublikaren alde. Behin gerra pasa zenean, berarekin lanean ibilitako pertsonaia ezagun batek salatu egin zuen, gerrak iraun zuen bitartean Aldasorok egin zuena adieraziz, honako hau izan zen bere salaketa:

“ Aldasoro Sagastume, Agustín: Oso gorria, UGTra atxikia zegoen Paper langileen Sindikatuko zuzendaritzako lehendakaria izan zen eta hauteskundeetan biziki parte hartu zuen. Lehenengo egunetik Mugimendu Gloriatsuaren kontra egin zuen, armaturik eta osasun kamioneta arbuigarrietan ikusi izan zen.”⁵²

Agustin Aldasoro fusilatua izateko zorian egon zen, baina zorionez patu horretatik irtetea lortu zuen, hala ere “sekulako traiziyua” egin ziotela esaten du bere alabak. Honako hauen patua bestelakoa izan zen ordea. Ondorengo taulan daude Hernanin jaio edo bizi, eta bertan hil zituzten pertsonen izen abizenak:⁵³

⁵⁰ Ibid.

⁵¹ 2002-BZA-01 elkarrizketa, bukaeran.

⁵² HUA, E/5/II/28

⁵³ Datu hauek Iñaki Egañak zuzendu duen *1936: Gerra Civil en Euskal Herria* ikerketatik atera dira.

Hernanin 1936an fusilaturiko hernaniarrak

<i>Izen abizenak</i>	<i>Adina</i>	<i>Jaiolekua</i>	<i>Fusilamendua</i>
AJARNAUTE ENRIQUE, Eduardo	?	VALLADOLID	?
ADARRAGA LARBURU, Jose	30	BILLABONA	1936/10/17
ALCELAY, Julian	23	HERNANI	?
AMILIBIA SALDIAS, Jose	29	HERNANI	?
ARANBURU OIARZABAL, Carmen	54	HERNANI	1936/10/18
ARBIZU LASA., Angel	35	HERNANI	1936/10/18
ARRIETA GOIBURU, Bernardo	52	HERNANI	1936/09/23
ARRIGORRIAGA, Luis	17	HERNANI	1937/01/02*
ECHEVERRIA, Ezequiel	34	URRIZOLA	1937/07/31*
GARBIZU ARBIZU, Saturnino	39	HERNANI	1936/10/28
GOMEZ AGUIRRE, Jose**	31	BERA	?
GONZALEZ FDEZ., Silveiro	48	ZAMORA	1936/10/23
GUTIERREZ FDEZ., J.C.	61	BURGOS	1936/10/21
JIMENEZ, Angel	25	?	?
MANRIQUE, Jose	38	?	?
PEREZ RODRIGUEZ, Julian	49	PALENTZIA	1936/10/23
TORMES ASIN, Angel	24	HERNANI	?
USARRAGA GAMILBOY, Policarpo	47	HERNANI	1936/10/26
ZABALA, Pascual	?	HERNANI	?
ZAPIRAIN GURUCEAGA, I.***	?	DONOSTIA	1936/10/29

* Data ez da segurua

** Hernanin bizi baina Andoainen fusilatu zuten

*** Hernanin bizi baina Lasarten fusilatua

Iturria: Hernaniko Udal Artxiboa

Hernanin 200dik gora izan ziren fusilatu zituztenak, gehienak kanpokoak ziren, baina ikusten den bezala, bertako jendea ere fusilatu zuten hor-maren kontra ipinita. Gipuzkoa osoan 1.100-1.200 pertsona inguru hil zituzten horrela; hala ere, hobi gehienak oso sakabanaturik daude eta Hernanikoa - Oiartzungoa bezalaxe -salbuespen bat besterik ez da, bertan gorpu asko aurki daitezkeelako.

Hernaniko zenbait pertsonaia ezagunen isilmandatuaren erruz makina bat pertsona fusilatu eta zigortu zituzten herri honetan. Hilerriko mugen barruan hobirik eraiki gabeko lur batzuk zeuden; bertan sartu zituzten hildakoak, eta bertan hilobiraturik dauden hamarnaka hilotz dira fusilamendu horien protagonista, noizbait beraien senitartekoak saiakera antzuz, bertatik ateratzen saiatu ziren gorpuak alegia. Baina detaile txikiak ere geratzen dira, Luis Gorrotxategik aipatzen duen eskuin aldeko burdin barra batean dagoen ia ikus ezinezko bala arrastoa, esate baterako.⁵⁴

“Ama, zein ari da alfonbrak astintzen?” galdetu zion Joseberen ahizpatxoak bere amari...”ta ta ta!” soinu hotsak entzun eta ez zuen bestelakorik uste gaixoak, ez zuen uste gizakiak hain zital jokatu zezakeenik, gerra eta gerraostean egin ziren zitalkeria horiek guztiak egin zitezkeenik. Ez ziren alfonbrak, tiroak ziren eta lur-rean, zerraldoak.

BAINA FUSILAMENDUAK BAKARRIK EZ...

Pertsona baten hilketa zigorrik gogaikarriena den arren, bazeuden ahan-tzi ezin diren beste hamaika zigor. Norbanakoaren duintasunaren kontrako zigorrak, esaterako; horrelakoak, emakumeek jasan behar izan zituzten, normalean. Gizonak frontean zeuden bitartean, emakumeek, errepresioa beraien haragitan jasan zuten, batzuetan, anaiak errepublikaren aldeko gerrara joan zirelako, bestetan aita izan zelako gerrara joan zena edo sena-rra agian ere bai... Horregatik guztiagatik, zigor gogorrek ipintzen zituzten faxistek, eta jakina da Hernanin ere horrelako asko egon zirela.

Zigorrak estandarizatuta zeuden, hots, leku gehienetan berdinak ziren; emakumeei ilea moztea zen hauetako bat: Ilea guztiz moztu eta gero herri-ko leku publikoetara joan behar izaten ziren gustuko ez zituzten esaldiak

⁵⁴ 2002-LGM-01 elkarrizketa, erdialdean.

oihukatuz edo kartel iraingarriak gorputzean itsatsita zituztela. Hernanin bizpahiru izan ziren ilea mozteko iraina jasan behar izan zutenak, baina gainera kale buelta egin behar izaten zuten: *...nik ikusi izan ditut, kalia bueltak egiñarazten zieten propiyo eta kali hontatik ere pasatzen ziran eb! Nik ikusi det hori eta illia dana rapatuta izaten zuten...*⁵⁵ Errizino-olioa edatera behartzen zituztenak ere, gero kale buelta egin behar izaten zuten, jende askoren barregarri.⁵⁶

Beste batzuetan, agintariak herriko jendearen kontrola eraman nahi izaten zutelako, komandantziara joan behar izaten zuten egunero edo astero fitxatzera. Felix Aldasorok, erbestetik etorri eta gero hori egin behar izaten zuen, jadanik gerra bukatu zenetik urte batzuk paseak ziren arren:

*...Nik igandero igandero, famili guztiyan izenian, bamaiketa-ko meza ondorenian presentatu bihar izaten nuen hor izena ematera [Andrekaleko Guardia Zibilaren koartelean], behin, jefia zana, sargentua, mezetan zala eta itxoiteko hura etorri arte esan zidaten eta esan nien : “Ba ez det inungo gogorik hemen egoteko, atxilotua nagoela ematen du! Eta esan jaun horri igandero etortziaz nazkatuta nagoela, ia zer gogo duen berak ni ikusteko?” Orduan geroago joateko esan zidaten, joan nitzan eta esan niyon aspertua negoela eta hala bukatu nuen...*⁵⁷

Guardia Zibilak beldur handia eragiten zuen herrian, edozeini edozer egiteko gauza baitziren; Manoliren senarra, *Prailia*, eta bere lagunak kalean “Cara al sol” kantatzera behartzen zituzten merienda jaten ari zirela euskaraz hitz egiteagatik, baina hauek ez zieten jaramon handirik egiten, egia esan.⁵⁸ Guardia Zibilari jaramonik ez egitea ez zen normala, gehienetan denak tente jartzen ziren, Egaña tabernara sartzean esaterako, jende gutzia mututzen zela esaten du Anttoni Egañak, gainera, bertan Francoren irudia begi bistan jarri behar izan zuten, beste leku askotan bezala:

⁵⁵ 2002-MOG-01 elkarrizketa, erdialdean.

⁵⁶ 2002-BZA-01 elkarrizketa, erdialde-bukaeran.

⁵⁷ 2002-FAA-01 elkarrizketa, erdialde-bukaeran.

⁵⁸ 2002-MOG-01 elkarrizketa, erdialde-bukaeran.

...Ixil ixilik, danak aurpegi ona jarri bihar gainera! Gure amak Francon aurpegiya txistuarekin garbitzen zuen! Aurrena jarri arazi ziguten zintzilik eta gure amak zoku batian sartu zuen eta Inñaxi Guardarriosenekuak: "Juanita, Francon kartela jarri bihar omen degu" eta amak "Hori iluna zionen!" eta "puff" txistua botatzen ziyon garbitzeko...⁵⁹

Beldurra izan zen nagusi lehenengo urte horietan, gerraren su hotsak oraindik gertu zeudela. Galdu zutenek beraien porrota gogor jasan behar izan zuten. Guardia Zibilaren, soldaduen eta faxisten eskuetan eroriz gero, bukatu ezinezko amets gaizto batean bizitzen ziren, bertatik noiz eta nola irtengo ziren jakin ezinik. Anttonik egia borobila dio: *...Danak bildur galanta pasa genun guk ordun!...*

PATRIOTISMOAREN PARAFERNALIAK

Esana dago, Francoren irudia leku publiko guztietan jartzera behartu zutela, diktadorea gurtu egin behar baitzen. Izan ere, gerraosteko lehenengo urteetan - Hitlerrek gerra galduko zuela ikusi zen arte - Francoren erregimenak faxismoaren parafernalia guztiak bereganatu zituen, hauetako batzuk urte askoan iraun zuten gainera. Falangean esate baterako, urte askotan zehar desfileak egiten jarraitu zuten. Imanol Larretxeak, bere begiz ikusita kontatzen du nola izaten ziren hasierako falangearen desfile "patriotiko" horiek Hernanin:

...Orduan zeuden bemen "fletxak eta pelaioak", 'fletxak' ziran falangistak, alkandora urdiñarekin eta ibiltzen ziranak eta "pelaioak" ziran reketiak. Mutil koxkorretatikan jartzen zituzten desfiliak egiten, nagusiak ere bazeuden, buru egiten zutenak, txaketa zuriyakin eta guardia zibilak galako jantziekin eta trikorniuarekin, denak prozesiyuan Jesusen Bihotzari desfilatzen ibiltzen ziran...⁶⁰

⁵⁹ 2002-AEA-01 elkarrizketa, erdialdean.

⁶⁰ 2002-ILG-01 elkarrizketa, erdialdean.

Desfileak, Oblatoetan zegoen Murua jauregitik hasten ziren igande goizez eta mezataran bidean desfilatzen zuten; udaletxeko plazan monumentu bat jarri zuten altxamenduan hildakoen ohoretan, bertan geldialdia egin eta berriz ere *Andrekaletik* behera Oblatoetara joaten ziren, gainera, bidean desfilea topatzen zutenek eskua altxa behar izaten zuten. Gerrak iraun zuen bitartean gainera, hiri garrantzitsuren bat "askatzen" zutenean manifestazioa egiten zen herrian zehar eta jende askok beldurraren beldurrez hartzen zuen parte bertan.⁶¹

*Murua Jauregia,
"Oblatos"
inguruan. Bertan
elkartzen ziren
errekete eta
falangistak herrian
zehar desfileak
egiteko.*




Baina desfileetan irteten zirenak ez ziren familia nabarmenetako semeak bakarrik izaten. Askotan, norbait mehatxaturik baldin bazegoen, bere seme-alabak falangera edo erreketetara apuntatzen zituen, horrela bakean utziko zutelakoan. Joxe Labururen aitari, behin, guardia zibil batek hori egiteko gomendatu zion, alkateak sinatutako bere kontrako salaketa bat zegoelako, horregatik, Joxek erreketez jantzita ibili behar izan zuen eta

⁶¹ ODRIÓZOLA, Jon: *Hermaniko aiene eta ajeak...* 13. Atalean, Gregori eta Iñaxi Otamendik esandakoak.

bere arrebak berriz "margaritaz".⁶² Josebe Goiari antzeko zerbait pasa zitzaion, bere aitak udaletxean lana egiten zuenez desfilectara joatera behartzen zuten:

*... Meza solemnietan txapela gorriyarekin mezatara joan behar zuen gure aitak, baina gaizki zegon osasunez eta orduan guri esan ziguten reketek bezela egiteko, bi ahizpa zabarreneri. Soinekua jantzita, 'guerrera' eta txapela gorriyarekin. Urumea ikastolaren aurre hortan, instrukziyua erakusten aritzen zitzaiguten: "Eskubira begiratu! Ezkerrera! Ti ta!". Gogoratzen naiz Bilbao erori zanian, reketek jantzita egon giñala plazan, gu negarrez, zergatikan gogoratzen naiz Hernaniko batzuk aritzen zitzaizkigula besotik heldu eta: "Roja separatista! Una dos y tres, Bilbao nuestro es! Esan hori!"...*⁶³



Erreketek, falangista eta Guardia Zibilen desfile bat Hernaniko plazan 1936an.

⁶² Ibid. 10 atala, Jose Laburuk esandakoak.

⁶³ 2002-JGZ-02 elkarrizketa, erdialde-bukaeran.

Dena den, Josebe Goiaren aburuz, desfile hauek ez zuten asko iraun, lehenengo hilabeteetan bakarrik, Bilbo erori zen arte gutxi gora behera; beharturik zihoazenek joateari utzi zioten orduz geroztik behintzat, baina beste batzuek falangekoak izaten jarraitu zuten. Jai bereziak ospatzean, espainiar bandera herriko kale nagusietako balkoietan ipintzera behartzen zuten agintariek, guardia zibilak “¡Ponga usted las colgaduras!” esanez hurbiltzen ziren etxe bakoitzera.

Gerra bukatu eta gero, herriko zaharrek zera diote, jende gehienak txaketa aldatu zuela, noizbait abertzale, liberal edo errepublikaren aldeko izan zirenak, frankista eta falangista bihurtu ziren orduan. Lehenago ez omen zegoen falangistarik herrian, hori zer zen ere justu-justu zekiten herritarrek, gehienez ere betiko karlista edo tradizionalistak ziren herrian zeudenak. Baina gerra bukatzean, falangistek ezin hobekiago jakin zuten protagonismoa hartzen, beraien itxura eta ekimenek gerra ostean eragin handia izan zuten dudarik gabe.

Horrela, batzuek beldurragatik hartu zuten parte erakunde horretan, baina beste batzuek errepublika garaian kikildurik egon eta autoritarismoa herrira iritsi zenean orduan bai: *...orduan egin ziran, loria nola zabaltzen dan? Ba egin ziran arrotu...*⁶⁴ Hauek gutxi baziren ere, familia nabarmenak ziren eta herrian eragin handia zuten: Udal instituzioetako buruak, enpresaburuak, aberatsak, militar izandakoak... oso ezagunak ziren familiak, alegia.

FRONTEAN, ERBESTEAN ETA ITZULERA GARRATZEAN

“Hernanin ez zen inor gelditu”, hauxe esaten dute garai haiek bizi izan zituzten gehienek, ez zela inor gelditu. Agian batzuk geratu ziren, baina gutxi. Kalkulurik ezin liteke zehazki atera, baina gerra aurreko Hernanin 6.600 lagun inguru bizi ziren eta gerra ondorenean 4.800 geratzen ziren, populazioaren laurden batek baina gehiagok alde egin zuen beraz.

Faxistak herrira sartu baino lehen, familia askok bertatik joatea hobe zela pentsatu zuten, gerraren beldurrez eta gerraren ondotik etor zitekeen errepresiotik ihesi. Batzuek Frantzia aldera jo zuten, beste batzuk Bilbora abiatu ziren eta gizon askok Eusko Gudarostean edo batailoietan izena eman

⁶⁴ 2002-ILG-01 elkarrizketa, erdialdean.

zuten faxistei aurre egiteko. Baina alde egiteak ez zuen arriskuetatik kanpo egotea esan nahi, sufrikario latzak pasa zituzten zenbaitek erbestean edo gerran. Felixia Aldasoro bere familiarekin batera Donostiara joan zen, bertan ikatzez kargaturik zegoen itsasontzi batek Bordelera eramango zituela esan zieten, ezin kabiturik, itsasontziaren gainaldean joan ziren, Felixia, bere familia eta askoz jende gehiago, baina ordu gutxiko bidaiaria hura luzatzen ari zela iruditu zitzaien zenbaiti, kapitaina harrapatu eta honek azkenean onartu behar izan zuen itsasontzia “falangistei” entregatzera zihoala:

*...gu aurrian jartzeko eta beraiek atzetik kostako herriak bonbardeatzeko. Orduan kapitaina kalderara bota zuten, sutara! Eta han kixkali zan. Gero eskobak sutan astindu zituzten eta hasi ziran sirenak jo eta jo, azkenian barku frantsesak gure defentsan etorri ziran arte eta hauek Burdeosera eramán ziguten. Izugarriya pasa genuen!...*⁶⁵

Aldasorotarren sufrimendua ez zen hor bukatu ordea, Bordeletik Nimes-era eramán zituzten eta hortik jende guztia banatu zuten, beraiei Alpe inguruetako herri batera joatea egokitu zitzaien, bi hilabetez sekulako hotza pasa eta gero, Hendaiara joan ziren beraien izeba-osaben etxera, han egon ziren lau urtez, berriro ere Hernanira etorri arte.

Beste batzuk ez zuten horrelako zorterik izan, ez baitzuten erbestean inor ezagutzen, Manoli Olanoren amak zera esaten zuen: ...“*Nora joan bihar degu? Inor ez degu ezagutzen kanpua eta!*”...⁶⁶ Azkenean, Manoli Donostian geratu zen, bere amonaren etxean, zaharturik zegoen senideari laguntzekotan. Sabina Villarrek dioenez bera eta bere ama Pasaiara joan ziren, bertatik Frantziara pasatzeko asmoz, egun osoan itxaroten egon eta gero, itsasontzia Bilbora zihoala esan zieten eta bere amak “Ezta pentsatu ere!” esanez berriro ere Hernanira itzuli ziren, Bilbon harrapatuta egoteko, nahiago zutelako Hernanin harrapatuta egotea. Bilbo aldera joan zenik izan zen, Zubillaga eta Zugasti familiak esaterako, hauek 1937ko ekainaren 19an etorri ziren berriro Hernanira, Bilbok amore eman zuenean, orduan sekulakoak eta bi entzun behar izan omen zituzten familia hauek Hernanira iristean.⁶⁷

⁶⁵ 2002-FAA-01 elkarrizketa, erdialdean.

⁶⁶ 2002-MOG-01 elkarrizketa, erdialdean.

⁶⁷ ODRIOZOLA, Jon: *Hernaniko aienea eta ajeak*... “Etxeko habira” atalaren hasieran.

tan, harrapaturiko guztiak sartu zituzten. Han topatu zuen Bernardok Hernanikoa zen Juanito Apaolaza, *Juanito txiki* “Txirrian” jolasten abila. Juanito Hernanin geratu zen erreketek sartu zirenean eta hauekin batera gerrara joatera behartu zuten, San Ignacio tertzioan, baina aukera izan orduko errepublikar zonara pasatu zen armamentu eta guzti⁶⁹; gero ez dakigu zer pasatu zitzaion, baina Bernardok Laredon ikusi zuen, kontzentrazio gunean.

Berak esaten duenez bizia ere salbatu zioten, izan ere, bertan zeudela, erreketek talde bat pasa zen, Juanito egon zen tertzio berekoa hain zuzen, hau ezagutu zutenean kontzentrazio gunetik atera nahi izan zuten fusilatzeke asmoz, noski: *...eraman egin nahi zuten, jadanik harrapatuta zuten eta gunetik kanpo zeramaten, baina gu italiarrei karraxika hasi ginen, eraman egin behar zutela oihukatuz eta orduan italiarrek Juanito berriro gunera itzularazi zuten...*⁷⁰

Bernardoren esanetan, italiarrak nahiko ongi portatu ziren errenditu zirenekin, baina espainiarren esku geratu zirenean, bestelako tratua jasan zuten:

*...Gero italiarrak ordezkatzuz espainolak etorri ziren eta soldadu espainolek oso gaizki tratatu gintuzten. Guztiori erregistratu eta genuen diru guztia kendu ostean eskola batetan sartu gintuzten. Ezin izan genuen lorik egin, gehiegi baikeunden etzanda egoteko, hortik Laredoko elizara eta hurrengo egunean Valladolidera eraman gintuzten, Medina del Rio Seco-ko kontzentrazio gunera. Orduan jendea ateratzen hasi ziren, bakoitzaren kidesasuna eta bestelako datuak deklaratzeko, gero jatorrizko herrian bakoitzari buruzko txosten bat eskatzen zuten eta horren arabera, batzuk kartzelara joaten ziren, besteak fusilatu egiten zituzten eta beste batzuk soldadu jaritzen zituzten, neri soldadu tokatu zitzaidan...*⁷¹

Bernardo soldadu joan zen, baina oraingo honetan errepublikaren kontra borrokatzera, ez baitzuen beste erremediorik. Soldadu zela, sanitario moduan egin zuen lan, Valladoliden bertan, baina Terueleko batailara eramango ote zuten beldur zen hernaniarra, horregatik Guadalajarara joateko boluntario

⁶⁹ Mañoli Zigaranez kontatutakoa eta agiritegiko E/5/II/28 ataleko txosten batean aurkitutakoa.

⁷⁰ 2002-BMS-01 elkarrizketa, erdialde-bukaeran.

⁷¹ Ibid.

aurkeztu zuen bere burua eta probintzia horretako Alcolea del Pinar herrira eramane zuten, frontea urruti zegoen leku batera alegia. Gerra bukatzean zegoenean Guadalajaratik Hernanira itzuli zen azkenean, bere ama alarguna zenez utzi egin zioten, familia aurrera ateratzeko lan egin zezan.

Bernardok bezala beste askok bueltatzeko ekinbidea hartu zuten. Batzuek, bueltatzerakoan irabazleen isekak eta irainak jasan behar izan zituzten, beste batzuek berriz, etxeak hutsik utzi zituzten eta hauek konfiskatuta aurkitu zituzten, eta etxea bereganatzeko hainbesteko bat ordaindu behar izan zuten; Joxe Mari Zigarani hori pasa zitzaion, Ziburura alde egin zuen eta itzultzean diru mordo bat ordaindu behar izan zuen etxea eta taberna berreskuratzeko⁷². Gauza bera gertatu zen Joakin Amilibia, Jose Beroitz, Bautista Sarobe, Jeronimo Mujika, Jose Goia edo Zapiainekin. Azken hau errepublikar ezaguna zen, Hernaniko epaile izandakoa eta Hernanitik joan zenean, bere denda, Eginoko Etxeko *La Cosmopolita* famatua, guztiz txikitu zuten; gainera, egin berria zuen *Andrekaleko* etxea Guardia Zibilaren koartel bilakatu zen.⁷³

Itzulerak beste arazo batzuk ekarri zituen, hauetako bat lanpostuarena izan zen. Gerra hasi baino lehenagoko lanpostuak, kasu askotan ez ziren mantendu, gerran ibilitakoak ez baitzituzten onartzen. Bernardo Martinek arazo hori izan zuen, gerra aurretik “La baldosa” lantegian egin zuen lan eta gerratik itzultzean beretzako lanik ez zegoela esan zioten.⁷⁴ Beste batzuk Zikuñagako paper lantegi berrian sartu ziren gerra ondoren lan egitera, aurreko lanpostuak ezin mantendurik.

Erbestean eta gerran egon zirenek hamaika miseria pasatu behar izan zituztela garbi geratu da. Euskaldun asko ez ziren beraien jaioterrira itzuli, lubaki batean edo naziek Frantzia hartu zutenean egindako kontzentrazio guneetan hil baitzituzten, beste asko preso egon ziren urte luzeetan eta langile batailoietan bideak edo monumentuak eginez bizia eman zuenik ere egon zen. Honako hau da frontean hil zituzten hernaniar batzuen zerrenda. Iñaki Egañaren *1936: La Guerra Civil en Euskal Herria*, ikerketa erraldoitik berreskuratutako izenak dira:

⁷² Mañoli Zigaraneke esanda, grabatu gabea.

⁷³ *1936: Gerra Civil en Euskal Herria*, Aralar liburuak, 1998, IV liburukia, (Konfiskazioei buruzko eranskina). Guardia Zibilaren kuartelari buruzko informazioa Mañoli Zigaraneke kontatua da (grabatu gabea).

⁷⁴ 2002-BMS-01 elkarrizketa, bukaeran.

Frontean hildako hernaniarrak

<i>Izen abizenak</i>	<i>Batailoia</i>	<i>Lekua</i>	<i>Data</i>
ALDASORO SAGASTUME, Pascual	Herri Miliziak	Donostia Ospitalea	12/09/1936
ALVAREZ PEREZ, Angel	Karl Liebkencht	Urduña	12/06/1937
ALVARO SUSO, Felix	Dragones	Kanpatzar	04/10/1936
ARTOLA ARIZMENDI, Pedro	Dragones	Murua	13/12/1936
AZPEITIA OTXOTORENA, J.C.	Herri Miliziak	Durango	06/10/1936
BERIAIN UGALDE, Tomas	Dragones	Eibar	01/19/1936
DOMINGO BERIAIN, Augusto	Amaiur	Asturias	22/02/1937
ERDOZIA URRETABIZKAIA, F.	Herri Miliziak	Usartza	09/10/1936
GARCIA ZARZUELO, Ernesto	Dragones	Intxorta	22/04/1937
LIZARAZU GARAIALDE, Jose M.	Dragones	Bilbo Ospitalea	22/04/1937
MARTINEZ MAGELLON, Cesareo	Dragones	Donostia Ospitalea	12/09/1936
OLLOLZINDIA, Guillermo	?	Itxarkundia	17/05/1937
OTAMENDI ZELARAIN, Joakin	Dragones	Elorrio	05/12/1936
OTAÑO EIZAGIRRE, Joakin	Dragones	Arrasate	18/12/1936
PEDROSA VALIENTE, Nicasio	CNTko Milizia	Irun	19/07/1936
PEREZ VALERO, Antonio	Dragones	Pagasarri	16/06/1937
SARASOLA GOENAGA, Felipe	Dragones	Elgeta	20/04/1937
ZABALA IZAGIRRE, Gabriel	Ingeniari Mistoa	Nafarrate	07/12/1936
ZALDUA VERGARA, Juan Jose	Dragones	Elorrio	07/12/1936

Iturria: Hernaniko Udal Artxiboa

Ikusten denez, hildako gudari eta miliziar askok *Dragones* batailoian hartu zuten parte, izan ere, batailoi honen erdia hernaniarrez osaturik zegoen, beste erdia Arrasateko eta beste leku batzuetako jendeak osatzen zuen bitartean. Ikusten da orobat, Herri Milizia edo CNTko miliziarrik baze-

goela, Hernaniko herriak Errepublikaren defentsan eman zuen erresistentzia askotarikoaren erakusgarri. Hauek guztiak, gerra hartan beraien bizia eman zuten, eta hamarkada askotan isiltasunean egon eta gero, zein izan ziren eta zergatik hil ziren kontatzea komeni dela uste dugu.

“...ez arrautza eta ez urik!”

Gerra aurreko urte bizietan jendea ahora zerbaiteko eramateko nola hala moldatzen zen. Elikadura, mende hasieratik asko garatu zen eta diru pixka bat zuenak ongi jan zezakeen. Nonbait, lehenago zegoen monotonia apurtuz jaki berriak sartuz joan ziren eguneroko dietan; batez ere hirietan gertatu zen hau, baina baserrietan ere gauzak aldatuz zihozten. 30. hamarkada trantsiziozkoa izan zen zentzu honetan, eta euskal biztanleak, urte haueetan, elikadura monotono eta tradizional batetik, barietate eta jaki berriko elikadura batera pasa ziren.

Hiritarren eta baserriarren arteko ezberdintasunak nabarmenak ziren hala ere, otamenditarrek, kalekumeak izaki, ez zuten gaizki jaten, nahiz eta beti berdina izan, honela diote Iñaxi eta Gregorik: ... *haragiya egosi, salda harekin zopa egin, gero potajia jaten genuen edo haragi hura patata frejituekin edo tomatiakin... eta igandetan garbantzuak...*⁷⁵ Baina gogoratzen dira, behin, Alzako bere izebarengana joan zirenean, baserri hartan taloak jan zituztela. Izan ere, baserrietan oso ohikoa zen arto irinarekin egindako taloak jatea, eltzekoarekin edo aza pixka batekin lagundurik, gero postre gisara gaztainak edo gazta jaten zuten.

Aste osoan zopa, eltzekoa edo babarrunak jan eta gero, igandetan bazkari bereziagoa izaten zen, garbantzuak arkume buruarekin edo agian arrai pixka bat. Arraia freskoa erosi behar zen eta Hernani itsasotik gertu dagoenez, herrira maiz iristen zen. Paula izeneko arrain saltzaile batek oihu ederrak botatzen zituen Plaza Berriko bazterrean jarrita: “Bokartak! Bokartak!”: ...*Hernaniko katu guztiak han ziran! hartu ta arraia botatzen zien!*... Bokarta eta sardinak gordetzeko erabiltzen zuen galdara katuz inguraturik egoten zen, baina dena den, arrai guztiak saltzen zituen; gero, berriz tranbia hartu eta Donostiara joaten zen gehiagoren bila, arrai fresko freskoa hernaniarren gustuko baitzen. Gabonetan eta bazkari berezietan berriz, oilasko errea edo txixarroak prestatzen zituzten, garai batean oilaskoa oso preziatua izan zen.

⁷⁵ 2002-GIOA-01 elkarriketa, hasiera-erdialdean

GERRA ETA GOSEA EUSKAL HERRIAN

Jaki gozoak, oilasko errea edo arkume buruak gerra hastearekin batera bukatu ziren. Euskal Herrian, beste leku askotan bezala, gose galanta pasa behar izan zuen biztanleriak. Ekonomiaren arlo guztiak gerrara bideraturik zeudenez, tripa betetzeko ezer gutxi geratzen zen eta familia askotan bizi iraupena izan zen eguneroko ogi bakarra. Jaki falta segituan nabaritu zen, Euskal Herria oraindik errepublikarren esku zegoenean, txanpona erabat desagertu zen eta dendetan produkturik ez zegoenez, askok ateak denbora luzez itxi egin behar izan zituzten.

Haragia, arrautzak, kafea eta beste zenbait produktu merkatutik at geratu ziren eta horren orde zaldi eta asto haragia agertu ziren, izan zen katu anoak eta horrelako bitxikeriaren bat jan zuenik, gainera, etxeetan ogia egiten hasi ziren berriz ere, batez ere labea mantentzen zuten baserrietan. Esnea, soilik urte gutxiko haurrei ematen zitzaien eta oinarrizko produktak lortzeko, emakumeek ilara luzeak egin behar izan zituzten, banatze-liburuxkak eskuetan zituztela.⁷⁶

Faxistek lehenik Gipuzkoa eta gero Bizkaia eskuratu ondoren, zenbait produktu berriro ugaritu ziren, batez ere, Gaztelako lur zabaletan produzitzen ziren zerealak izan ziren Euskal Herrira iritsi zirenak. Izan ere, lurralde hau izan zen faxistek menperatu zuten lehenengoetarikoa eta Katalunia, Teruel, Madril eta Valentziako lurraldeak errepublikarren menpe zeudenez, Gaztela, Extremadura, Andaluzia eta beste nekazaritza lurraldeetan produzitzen zena, Euskal Herria bezalako gune industrializatueta bideratu zen. Baina beste lurraldeak faxisten esku erori zirenean, produkzioa lurralde guztien artean banatu behar izan zen eta horrekin batera gosea areagotu egin zen euskal lurraldeetan.

“PLATER BAKARRAREN EGUNA” ETA BANATZE-LIBURUXKAK

Gerra Hernanitik urrundu zenean, baina frontea oraindik irekita zegoenean, agintari frankistek dirua lortu eta jakiak kontrolatzeko zenbait sistema ezarri zituzten. Horretarako, frontean borrokan zeuden “soldadu ausartak” jartzen zituzten aitzakia gisa, herritarren alde bizia ematen ari zirela eta, hauen aldeko ekintzak egin behar zirela esanez, hauetako bat “plater

⁷⁶ De Pablo, Santiago; *Errepublikak eta gerra zibila Euskal Herrian...* (Gerra Zibilari buruzko atalean)

bakarraren eguna” omen zen. Izenak dioen bezala, bazkari batean bi plater jan beharrean, bakarra jan behar zen, beste platereko jakia edo horretan gastatu beharreko dirua, autoritate frankistei eman behar zitzaien, soldaduenganako elkertasuna adierazi eta hauei laguntzeko. Joxe Mari jatetxean plater bakarra atera behar zuten, baina plater hori oso handia ateratzen zutela gogoratzen da Mañoli Zigarán, inspektore edo autoritateak, hori ikusiko ote zuten beldurrez egon arren.

Garbi dago honen atzean zer ezkututzen den: Zerga berri baten ezarrera, jatetxeetan, tabernetan eta etxe guztietan jaso beharreko zerga berri bat, alegia. Hernanin badaude “plater bakarraren eguna”ren inguruko kontuak, *Plato Único* bezala ezagutzen zen bertan: ... *Egunian behin jan bihar zan eta janarian gastatu bihar zenuen dirua estatuai eman. Zerga bat zan! Dirua eman bihar zan, nunbaiten kobratzen zuten baina ez dakit nun; astian behin izaten zan “Plato Único” delakoa....*⁷⁷ Baina *Plato Único* ez zen bakarra izaten, “Postrerik gabeko eguna” ere bazegoen; otamenditarren etxean adibidez, sagar garaitik kanpora ez omen zuten postrerik jaten, neurri horren erruz.

Neurri berezi hauetaz gain, Hernanin ere badira “banatze-liburuxkak” ezagutu zituztenak. Liburuxka hauen bidez jakiak kontrolatzen ziren. Bakoitzari egokitutako jana oso gutxi izaten zen, famili batek ezin zuen bertatik bizi inolaz ere. Luis Gorrotxategik kalkulu bat egiten du nolako jaki kantitatea erosi zitekeen ikusteko: ...*Oliyua? Bakoitzantzako litrotikan zortzigarrenge puxka edo horrela izaten genuen, desastria!...*⁷⁸ Horixe zen guztia, gainera, hamabost egunean behin, 35 gramo haragi bakarrik jatera iritsi ziren Luisen etxean eta hori harakinak zirela! Banaketa lanak plazako lokal batean egin ohi ziren eta jendeak bertara joan behar izaten zuen, ahora eramateko zer edo zer lortu nahi bazuen behintzat. Josebe Goiak asko zirikatzen omen zuen denda horretako gizona, errepublikazalea ez zela ongi baitzekien; behin horrela esan zion bertakoak Joseberi: “Bilbon arrautzak urarekin frejitzen dituzte!”, Josebek 17 urte zituen, baina bizkortutako gaztea zen ordurako eta erantzuna sekulakoa izan zen: “A zer suertia, hemen ez arrautza eta ez urik!”⁷⁹

⁷⁷ 2002-JGZ-02 elkarrizketa, bukaeran.

⁷⁸ 2002-LGM-01 elkarrizketa, erdialdean.

⁷⁹ 2002-JGZ-01 elkarrizketa, bukaeran.

NOLA HALA MOLDATU BEHARRA

Goserik ez pasatzeko nola hala moldatu ziren hernaniarrak, batzuk handik eta besteak hemendik atera zituzten zorigaitzoko egun horiek pasatzeko jakiak. Baliabiderik onena baserria zen, baserritarrek ez zuten horrenbesteko goserik pasa, izan ere, nahiz eta autoritateek baserriko produktu gehienak eskuetatik kendu, ezkutuan produzitzen zutena edo ezkutalekutan gordetako animaliak asko ziren. Hernanin jende askok janaria Goizueta aldetik ekartzen zuen, batez ere bertako baserrietan egindako ogia, zuria omen zen eta ez Hernani aldean egiten zen ogi zakar hori, lehengai eskasiak behartuta, askorentzat ogia ere ez omen zena: *...Gero etorri zan gosia eta diru asko zuenak jan egiten zuen, orduko ogi zuriya adibidez, Goizuetara bizikletan joanda, handikan ekartzen zuten, baina ez gendukenak...*⁸⁰

Mila adibide jar daitezke janaria lortzeko gure herrian pasatakoaz. Baratzaren bat zuenak, bertatik jasotzen zuen behar zuen janaria. Manoli Olanoren familiak “baatza koxkor bat” zuen Karabelen eta bertatik egunero-egunero babarrunak jaten omen zituzten, hala ere udaletxera, baratza



Bizilagun talde bat Portu auzoko baratza baten ondoan bilduta. "Baratza koxkor bat" zuenak bakarrik jaten zuen gerra ostean. Gosea gogotik pasa zuten hernaniarrek.

⁸⁰ 2002-RGO-01 elkarrizketa, hasiera-erdialdean.

horrek produzitzen zuenaren zati bat eramán behar izaten zuten. Josebe Goia Pipiritta baserrian jaio zen, baina errepublika garaian Tellerigaineko beste etxe batera joan ziren bizitzera, hala ere, bere aitak baserria utzi nahi izan zuenean, hori ez egiteko esan zioten ...*“Aita, orain ez utzi baserririk eb! Orain dator gogorra eb! Gosia earra eb!”*... esan omen zioten eta baserri horretatik atera ahal izan zuten bizitzeko adina janari. Dena den, eskerak urte horretan babarrun uzta handia egon zela. Baina hala ere, soldaduek jakia errequisatu egiten zuten eta horregatik hura gordetzen ibili behar izaten ziren: ...*Dena rekisatzen ziguten eta! Kanposantuko aldarian azpian, babarrunak edo artua gordeta izaten genuen... Metak eta dena miatzen zituzten, dena kentzen ziguten ejerzitu hontakuak! Eta guk gordelekuak izaten gizkiñan...*⁸¹

Hernanin ez zen kontrabandora jo ez zuen gizasemerik egon, honako hau saldu edo bestea ezkutuan erosi ez zuenik. Felixá Aldasororen aitak, Agustinek, Akarregiko baratetik ateratzen zuen babarruna Goizuetara eramaten zuen, han olioarekin trukatzeko.⁸² Lapurreta txikiak egitea ere zilegi zen, baina estuasunak beharturiko lapurretak izaten ziren hauek. Bernardo



“Remy” irin fabrika, Florida auzoan.

Martin gerratik etorri zenean, Remy almidoi lantegian hasi zen lanean; bertatik almidoia egiteko erabiltzen zuten arrozaren eskukada bat ezkutuan hartuta etxeratzen zen egunero eta bere amak sekulakoak eta bi botatzen zizkion, hori lapurtzea zela eta hori ez zela kristaua izatea esanez. Berak, orain, urteek eman dioten patxada eta lasaitasunarekin, zera aipatzen du barrez, “eskerrak ez nuela gainerako langileek hartzen zuten adinako arroza hartzen, bestela ama sustoz hilko zitzaidan!”. Beraz, Remyko langile guztiek, almidoia egiteko erabiltzen zen arrozarekin pasa ahal izan zuten gerra osteko gosetea.⁸³

⁸¹ 2002-JGZ-01 elkarrizketa, erdialdean.

⁸² 2002-FAA-01 elkarrizketa, bukaeran.

⁸³ 2002-BMS-01 elkarrizketa, bukaeran.

Nazien kontrako gerra, “comete sarea” eta makiak

Alemaniak 1939an Polonia bereganatu zuenean Bigarren Mundu Gerra hasi zen; Francoren erregimenak nazien postulatuekin bat egiten bazuen ere, gerra zibila bukatu berri zegoenez Espainiak ez zuen baliabiderik beste gerra batean sartzeko, neutraltasuna mantendu behar izan zuen beraz. Baina Francoren kontrakoek ahaleginak egin zituzten naziekin zituen loturak erakusteko, behin “aliatuek” gerra irabazita Francoren kontra egingo zutelakoan: *...Mundu guztiyak uste zuen libre izango giñala, baiño...*⁸⁴

Gorrotxategiren etxean 40. hamarkadan erosi zuten irratiak. Orduan irrati gutxi zeuden, baina zeudenei arreta handia jartzen zitzairen eta esandako guztia adi adi entzuten zen; *Radio Pirenaica* emisoreak esaterako, gerraren berri zehatz-mehatz ematen zuen. Horrela jakiten zuten Gorrotxategik eta bere lagunek Alemaniako gerraren berri, “como los grandes estrategas” ibiltzen omen ziren, orratza mapan jarri eta alemanak hemen daude edo hor daude esanez.⁸⁵

Baina orokorrean, jendea ez zen nazioarteko politika konplikatu horretaz asko ohartu, II. Mundu Gerrateak ez zuen eragin handirik izan, jendeak beste arazo larriago batzuk baitzituen: *...Ba gu nola nahiko gaixki geunden, gaixkiago ez giñala egongo! Horixe pentsatzen genuen...*⁸⁶ Dena den, jendearen belarrietara kontrabandista eta mugalariei buruzko berriak iritsi ohi ziren, Europan gertatzen ari zen gerra horrekin erlazionaturiko istorioak. Benetan famatu egin zena Alzuetako seme Florentino Goikoetxea izan zen, lurralde arrotzean erori ziren pilotuak eta beste zenbait jende, leku seguruetara eramateko sortu zen *comete* sare famatuan lan asko egin zuen Florentinok. Patxi Goia, harekin batera ibili omen zen, behin iparraldean zegoela bertan topatu eta Florentinok Hernanira ekarri baitzuen goseak akabatzen zegoen mutil gaixoa:

...Hura nola etorri zan Saratikan, mendiz pasa eta bonera, Pipiritaraiño, ez da sinistekua, eskeleto bat ematen zuen. Bizkortu arte etxian eduki genuen eta gero etortzen zan “Comete” horrekin noiz behinka, bisita egiten zigun eta martxa berriro!

⁸⁴ 2002-LGM-01 elkarrizketa, erdialdean.

⁸⁵ Ibid., bukaeran.

⁸⁶ 2002-AEA-01 elkarrizketa, erdialde-bukaeran.

*Asko ibili zan eta kontu guztik harek esaten zizkigun! Normandiako 'desembarkuan' planuak horrek pasa zituen Ingalaterrara [Florentino Goikoetxeak]...*⁸⁷

Florentino gizon bizkorra zela askok esaten dute, Belgikako errege Balduino ere berak jarri zuen leku seguruan. Behin, menditik muga gurutzatuz zihoala, Gestapoko zenbait polizi alemaniar topatu omen zituen eta paper konprometigarri batzuekin ez harrapatzearren, jan egin zituela esaten da.

Baina Hitlerrek gerra galdu zuenean, jendea mugaz alde batera eta bestera pasatzeko lana bukatu zen, orduan kontrabando lanetan hasi ziren asko. Josebe Goiaren anaia, Patxi, kartzelan egon zen baliozko mahai tresnekin harrapatu zutelako: *...Gero gerra bukatu zanian, "pasatzia" eta hori dena bukatu zan... gerra mundiala bukatu zan eta zeozer egin bibarra eta kontrabanduan hasi zan, baina kubiartuekin harrapatu zuten eta kartzelara eramán zuten, Ondarretara!...*⁸⁸ Ez zen bakarra izan, kontrabando oso handia egon zen garai haietan, etekinak ere hala zirelako, izan ere, Espainia autarkia batean sarturik zegoen, Europarekiko komertzioa erabat etenda zegoen eta horregatik kontrabandoak eta estraperloak gorakada nabarmena izan zuten: *...Frantzian kontrabandistak ibiltzen ziran, zergatikan orduan asko kontrabandeatzen zan eh! Puntillakin kamioia detenitu ziyoten bati Madrilen eh! Puntillak zakarkizkin Frantzitikan eta txibatazua izan zuten!...*⁸⁹

Askotan, kontrabandistak, Florentino Goikoetxearen "lanak" edo makiak, erabat nahasten dituzte garai haiek bizi izan zituztenek. Jakina da, kontu horiei guztiei buruzko oso berri gutxi iristen zirela herrira, sekretupean egin beharreko gauzak baitziren, beraz, normala da jendeak, hauek guztiak multzo berean sartu izana. Baina Florentino Goikoetxea ez zen maki bat izan eta makiak ere ez ziren kontrabandistak. Makiak, batez ere ezkertiarren barruan sorturiko erakunde klandestino bat ziren, Pirinio inguruan baso-mutil lanetan ibiltzen zirenak baina modu berean espainiar faxismoaren kontra egiteko prestatzen ari zirenak.

⁸⁷ 2002-JGZ-01 elkarrizketa, erdialde-bukaeran.

⁸⁸ Ibid.

⁸⁹ 2002-RGO-01 elkarrizketa, hasiera-erdialdean.

Makiek Frantziako askapenean espresuki parte hartu zuten, hegoaldeko Frantzian batez ere, sinetsita baitzeuden, Frantzia nazien menpetik askatu eta gero, aliatuak Francoren kontrako borrokan hasiko zirela. Horregatik, 1944tik hasita zenbait ekintza burutu zituzten; urte bereko urrian gertatu zen Aran bailarako eraso izan zen hauetan ezagunena. Baina ekintza guztiak zapuztuak izan ziren, makiak hilak edo kartzelaratuak eta urteetan zehar mendian gorde behar izan zirenak bazeuden, Francoren propagandak gaizkile eta lapur gisa aurkeztu zituelako.⁹⁰



*Maki talde bat
Pirineotako
mendietan.*

Beraz, ez da harritzekoa, makien inguruan molde askotako iritziak eta nahasmenak sortu izana. Roxarito Goikoetxea gaztetxoa zen makiak mar txan jarri zirenean eta berak “beste galaxia bateko gizonak” bezala imajinatzen zituztela esaten du. Imanol Larretxeak berriz zera dio: *...Gure familiak bazekien makiak zein ziran, gero makiak “gaiztuak” omen ziran, baina etorri ziran beraien aberriya lortzera!...*⁹¹ Garai horietan soldaduska tokatzen zitzaiola eta, Hernaniko jende asko ibili zen mugan guardiak eginez, honela entzun zuen behin Imanolek:

⁹⁰ APAOLAZA AVILA, Urko: “Makiak Euskal Herrian”, *Uztaro*, 37 alea, UEU, Bilbo, 2001, 105-118 or. Ikusi ere: RODRIGUEZ ALVAREZ, Mikel: *Maquis: La guerrilla vasca, 1938-1962*, Txalaparta, Tafalla, 2001. SERRANO, Secundino: *Maquis: historia de la guerrilla antifranquista*, Temas de Hoy, Madril, 2001. RODRIGUEZ ALVAREZ, Mikel: *Maquis: La guerrilla vasca, 1938-1962*, Txalaparta, Tafalla, 2001.

⁹¹ 2002-ILG-01 elkarrizketa, erdialdean.

...Hau da batek neri esandakua. Ba omen zijuazten kabua eta lau soldadu mendian eta balako batian zubaitz baten gañian batek esan zuen "Alto! Manos arriba!" eta jeitsi omen zan "maki" bat zubaitz gainetikan, bere metraileta edo fusilarekin. Esan omen zien: "Eta ni zuekin joanez gero eta entregatuz gero zer egingo lirateke?", "Seguruasko detenitu eta kartzelara eramán edo..." Desesperatua egongo zan, jan gabe ta ezer gabe eta beraiekin joan omen zan; joan ziran kapitainarengana: "Zure aginduetara! Hemen ekartzen dizugu preso bat" eta bonek "Neri ez ekarri makirik bizirik!" eta pistola hartu eta beraien aurrian garbitu egin omen zuen. Hori neri, hor tartian zegoen soldadu batek esana...⁹²

Horrela ziren kontuak makientzako, ez zuten oso ongi bukatu, asko jota, erbestean hamaika urte egin eta gero bueltatu ahal izan ziren, Lasarteko semea den Victorio Bikuña, euskal makiaren burua bezalaxe.

Hitlerrek gerra galdu eta geroko urteak esperantza handikoak izan ziren, batez ere agintari politikoentzat. Baina *Gerra Hotza* hastearekin mundua jadanik ez zen faxisten eta demokraten artean banatu, mundua kapitalisten eta komunisten artean banatu zen eta Francok, nola ez, kapitalismoaren alde egin zuen, Errusiaren eta komunisten etsai amorratua zelako. Honen ondoren, ezkutuan, klandestinitatean eta erbestean zeuden antifrankistek Francoren kontra armen bidez borrokatzeko esperantza guztiak galdu zituzten, hauen artean etsipena nagusitu zen orduan.

Euskal Herrian EAJ erresistentzia bat antolatzeko ezgai bihurtu zen, Euskadiko Gobernua erbestean zegoela, honen ekimenak erbestera mugatu ziren. Gauza bera gertatu zen gainontzeko beste alderdiekin, urte luzeetan, erakunde eta belaunaldi berriak ailegatu arte, Francoren kontrako oposizio politikoa lozorro batean geratu zen⁹³.

⁹² Ibid.

⁹³ TUSSEL, Javier: *La oposicion democratica al franquismo, 1939-1962*, Planeta, Bartzelona, 1977. SAN SEBASTIAN, Koldo: *Historia del Partido Nacionalista Vasco*, Txertoa, San Sebastian, 1984. JIMENEZ de ABERASTURI, Juan Carlos: *De la derrota a la esperanza: Politicas vascas durante la Segunda Guerra Mundial*, IVAP, Bilbao, 1999.



III

FRANKISMOA BETE-BETEAN

(1945-1964)

Gerra ondorenean, Euskal Herria Francoren diktadurapean erori zen berrogei urte luzez, eta urte horietan aldaketa nabarmenak gertatu ziren: Askatasun falta, euskal kulturaren atzerakada, bigarren industrializazioa, inmigrazioa eta gizarte aldaketa dira hauetako batzuk. Dena den, gerraosteko errepresioa pasa eta gero, oraindik Euskal Herriko baloreak eta askatasuna defendatzeko indarra geratzen zitzaienei, beraien ekimenak frankismoak legitimaturiko zenbait erakunderen babesean egitea besterik ez zitzaien gelditu, eliza bezalako erakunde boteretsuen babesean edo elkarre apolitikoetan, esaterako. Bitartean, euskara galduz zihoan, umeek gero eta gutxiago hitz egiten zutelako, eta, etxe barruan nahiz kalean, gerran pasatako tragedia guztiak ahaztu nahi izan ziren.

3.1.- Euskara, eskolak eta dotrina frankista

Irakaskuntza: Espainiaren laudorioa eta Euskal Herriaren ukazioa

...Orduan, eskolara joaten ginen guztiontzat ordutegi bakarra zegoen, aguazilen artean Jorge zegoen, baita Ruiz ere, azken hau aguazilen sarjentua zen; eta hauek, eskola orduan umeen bat kaletik ikusiz gero, belarritik harrapatu eta eskolara eramaten zuten automatikoki...¹

¹ 2002-MCL-01 elkarriketa, hasieran.

Beste atal batean, gerra aurreko eskolen eta irakaskuntzaren bilakaera zein izan ziren aztertu da. Orain, gerra ondorengo urteetan, irakaskuntza horrek zer nolako aldaketa eman zuen nabarmendu nahi da, frankismoaren dotrinak Hernanin nola ezarri ziren ikustea da helburua.

ZIGOR FISIKOAK ETA ZORROZTASUNA

Jakina da, frankismoaren lehen urteetan eskolara joan behar izan zutenek ez zutela oso ederki pasa, denetariko iritziak dauden arren, zera azpimarratu behar da, eskola hori gogortasunean oinarritu zela, umei erakusteko metodo oso zorrotzak erabiltzen zituzten, eta zigorrak eguneroko ogia ziren. Gerra aurrean zigor fisikoak bazeuden arren, diktadurako urteetan hauek ugaltu egin ziren eta sistematikoki erabiltzen zituzten, ohitura bihurtzeraino. Hernani ez zen salbuespen bat izan eta Rafa Egigurenek gogoratzen duenez, umeak askotan zigortzen zituzten: *Lehendabizi firme jartzen giñan, ilaratan eta bandera espagnol an aurrian kantatu behar izaten genituen “Cara al sol” eta “Prietas las filas”. Makilarekin jotzia normala zan, irakasle batek kaña luze bat zuen eta burua altxatzen bazenuen edo zeozer eginez gero harekin jotzen zizun, gainera obitura bala zalako!...*² Rafa Egigurenek zazpi urte arte “Hijas de la Caridad” mojen eskolan ikasi zuen eta gero, mutilek bertan ikasi ezin zutenenez, Biterira pasa zen, eskola publikoetara.

Eskola publikoetan, *Portalezkanpoko* haur eskolan ibilitako bat Miren Clemente dugu, bere gurasoek sei urterekin ekarri zuten Tolosatik Hernanira eta Agustina Martikorena andereñoarekin hasi zen ikasten. Mirenek, irakasle hau oso pertsona zorrotza bezala gogoratzen du, nahiz eta irakasle ona izan, oso gogorra omen zen eta gaizki portatzen zena eskola azpian zegoen soto ilun batean sartzen zuen: *...Neri diziplina askoko eskola zela iruditzen zait; Biterin ez zegoen sotorik, baina trasteak gordetzeko gela batean zigortzen zizuten eta Agustina andereñoa berriz oso pertsona gogorra bezala gogoratzen det...*³ Ez da bakarria ordea, Begoña Ogandok ez ditu eskolako oroitzapen asko, baina gogoan du, bera ezkerre zenez, Agustina andereñoak eskua lotzen ziola, eskuinarekin idazten ikas zezan.⁴

² 2002-RER-01 elkarrizketa, hasieran.

³ 2002-MCL-01 elkarrizketa, hasieran.

⁴ 2002-BOO-01 elkarrizketa, hasieran.



1955. urtean, Agustina Martikorena, Carmina Posadas eta bere ikasleak
Ezkerretik eskuinera:

- 1: Koldo Okariz, Iñaki Barrio, Pedro Mendiabale, Juan A. Usarraga, Joxe L. Urdangarin, Andres Mujika, Miguel M^o Zubiri, Jose M^o Aldasoro, Joakin Ortega "Kanario", Juan Rojas, Justo Fanegas.
- 2: xx, xx, Felix Arabiatorre, Angel M^o Carrera, Eugenio Belategi, Felix Goikoetxea, Juan Cruz Aldaregia, Jose A. Iriarte, Jose M^o Jalon, Josetxo Oiartzabal, Jose A. Aristegi, Jesus M^o Galdos.
- 3: Javier Mendizabal, Iganacio Loinaz, Juan M^o Lizarralde, Xabier Ormaetxea, Jose A. Yubero, Fernando López de Zubiria, Javier Garmendia, Satur Idarreta, Felix Ortega, Jesus M^o Erize, xx, Jesus M^o Sasiain, Jose Manuel Lizarralde.
- 4: Rufino Gastesi, Jon Zabaleta, Luis M^o Ruiz Malles, Miguel Goiburu, J.J. Gereño, Jose I. Pineda, Pedro Aizpurua, Jose M^o Aranberri, Jose M^o Etxezarreta, Martin Zabaleta, Javier Eguren, Jose A. Olano.

Lehen esan bezala, eskola frankistaren gogortasunaren inguruan iritzi ezberdinak daude. Batzuentzat, oroitzapenak ez dira horren txarrak, umeak zirenez, jolasteko gogoz joaten ziren eskolara eta umore onez jasozten zuten bertan ikasitakoa edo jasandakoa. Ixiar Egigureni, mojetan, falangeko zenbait kanta erakutsi zizkioten eta berari asko gustatzen zitzaizkion, kantak baitziren, baina etxera joan eta kanta horiek abesten hasten zenean, bere amak segituan esaten zion “ez okurritu aittaren aurrian hori abestea!”, aita oso abertzalea baitzuen eta gerran hamaika komeri pasatutakoa.⁵ Juanjo Uriak ere ez ditu oroitzapen oso txarrak:

...Nik uste det ume oso berezia behar zuela gogortasun hori adierazteko, agian gu baino, zortzi hamar urte gehiago zuten gazte edo umeak agian hori ezagutuko zuten, baina nik gogortasun hori ez det ezagutu. Detaile batzuk ematen ziran: maisuak egun txarra zuelako edo, mahaiairen gainian burua jarri eta joka jarduten zan, baina ez zan normalean hori izaten...⁶


Arrazoi du Juanjok, bera baino zaharragoak zirenekin okerrago portatu ote zirela pentsatzean, berak 50. hamarkadako irakaskuntza bizi izan zuen, baina Roxarito Goikoetxeak esaterako errepublikako eta gerra osteko eskolak ezagutu zituen, 1929an jaio baitzen. Arriatsuko auzo eskolara joan zen ikastera, lehenbizi Loidi inguruan zegoena eta gero Arriatsura pasa zutena. Neska-mutilek batera ikasten zuten Arriatsun, baina batzuk alde batean eta besteak bestean, erdian estufa handi bat zutelarik; estufa horretan, oinetakoak berotzen uzten zituzten. Bandera ateratzeko, txandakatu egiten ziren eta eskuin eskua gora altxatuta kantatzen zuten, faxismoaren keinua eginez.⁷ Iñaxio Mari Zubeldiari kontatu ziotenez, zigorrak, nahiko gogorrak izaten ziren bertan, euskaraz hitz egiteagatik eraztuna jarri ziotenik ere ezagutzen baitu. Dena den Iñaxio Mari ez zen Arriatsura joan, ezta Biteriko eskoletara ere, Jauregiko auzo eskolan ikasi zuen berak, aitak hara eramanez baitzuen, auzo eskola horretan euskal giroa zegoelako.⁸

⁵ 2002-IER-01 elkarrizketa, hasiera-erdialdean.

⁶ 2002-JUZ-01 elkarrizketa, hasieran.

⁷ 2002-RGO-01 elkarrizketa, hasiera-erdialdean Ikusi baita ere: ARANBURU URKIZU, Eulali: “Arriatsuko Eskolaren historia”, *Hernani 2002*, 27-35 or., Hernani, 2002.

⁸ 2002-IZM-01 elkarrizketa, hasieran.



Umeak Murua jauregiko San Ignacio eskolan, Oblatoetan. Bertan fraideek erakusten zuten eta erregimenaren aldeko dotrina erabatekoa zen.

Oblatoetan fraideen eskola bat zegoen, erabat espainolista, eta bertara joateko hainbesteko bat ordaindu behar zen. Han, fraideak ez omen ziren hain gogorrak Imanol Larretxearen ustez, baina irakasleek ematen zuten masailekoez ondo gogoratzen da, “Por dios por la patria y el buey!” abesten zutelako. Dena den, eskola horretan falangeko abesti guztiak goitik behera ikasten zituzten, besteen modura.⁹

FRANKISMOAREN DOTRINA

Etxean irratia erosi zutenean Ixiar Egiguren segituan joan zen berri ona *Rufinoneko* amonari ematera. Irratiko berri emankizunen ostean “errege martxa” jartzen zuten eta etxean beti zegoen baten bat “Ia radio hori! Radio hori itzali” esateko, musika hori debekatua baitzegoen bertan. Baina mojekin meza entzuten zutenean, hori entzun behar izaten zuten nahitaez, hori agoantatu beharra izugarritzkoa zen Ixiar eta bere anaiantzat, amorrarazten egoten ziren, etxean bekatu zena, eskolan goraiatu egiten baitzen.¹⁰

⁹ 2002-IIG-01 elkarrizketa, erdialdean.

¹⁰ 2002-IER-01 elkarrizketa, hasieran.

Frankismoaren doktrina leku guztietan berdina zen; eskolako irakasgaien edukiei dagokienez, berriemaile guztiak bat datoz, Euskal Herria agertu ere egiten ez zela esatean. Gainera, Francoren irudia goraipatu egiten zen eta umeez naturaltasun osoz jasotzen zituzten erregimen faxistaren ideiak:

...Ni horrela bazi nintzen, neretzako gauza guztiz naturala zen eta gero konturatzen zera erregimenaren doktrina bat zela. Eskolan “Cara al Sol” kantatzen genuen eta ilaratan jarrita geundela, aurrekoari eskua sorbalda gainean ipintzen genion. Egun berezietan eskolara ilaratan joaten ginen bandera espainola aurrean genuela... horrelako detaileak zeuden...¹¹

Irakaskuntza metodoak ere ez ziren asko aldatzen, kasu guztietan buruz ikastea izaten zen lantzen zen alderdi bakarra eta bertan Euskal Herriaren kontrako hamaika istorio ere azaltzen ziren, batez ere historia liburuetan edo entziklopedietan: *...Ikasteko modua dena memoriz zan, eskulana ere egiten genuen eta lijarakin egindako letrak ere bazeuden, ukuimenaren bidez lantzen zirenak; beraz, bazituzten beste metodoak, baina hori eskolaurrean batez ere...¹²* Eskolaurrean jokoak bai, baina koxkortuz gero, errege godoak, ibaiak eta hiriburuak, buruz ikasten zituzten frankismo garaiko eskoletan ibilitako haurrek, Miren Clementek dioen bezala “Denek entziklopedia bat eramaten genuen eta ibaien izenak ez zitzaizkigun inolaz ere ahazten!

Euskara hiltzorian

GERRA AURREKO EUSKAL GIROA

Hernaniko herria ongi aztertuz gero, ikusi daiteke nola Euskal Herriko zenbait errealitateren erdigunean zegoen, gaur egun bezalatsu ere hala da. Izan ere, industria dezenteko herria genuen Hernani, bertara kanpotar asko etorri ziren eta auzo batzuetan erdal giro nabarmena zegoen, batez ere Floridako “Casa Grande” inguruan; baina bertako euskal familiak ere bazeuden, *kaxkoan* edo inguruetan bizi zirenak. Hogeigarren mendeak

¹¹ 2002-MCL-01 elkarrizketa, hasiera-erdialdean.

¹² 2002-IER-01 elkarrizketa, hasiera-erdialdean.

aurrera egin ahala, kalekume hauek, pixkanaka, hiritar ohiturak onartzen hasi ziren, kanpoko eraginaren ondorioz, euskal ohituretatik at zeuden beste ohitura batzuk ere barneratuz, baina modu berean euskal ohitura asko galdu gabe. Azkenik baserritarrak ditugu, hauek Hernani inguruetan bizi ziren, herri gunera etorri eta “kaletartutako” baserritarrak ere bazeuden arren; baserritarren artean, euskal ohiturak, hizkuntza eta fedea sendo mantentzen ziren gerra aurreko Hernanin.

Euskarari dagokionez, berriemaile guztiak ados daude, baserritarrek euskaraz hitz egiten zutela esatean, are gehiago, askok erdaraz ez zekitelako esaten digute. Bittor Zabaletari “casero tonto!” esaten zioten, erdaraz ongi ez zekielako eta Josebe Goiak garbi dio, bere familian erdaraz ozta-ozta zekitelako, gerora ikasi zutela erdaraz hitz egiten. Baina herriko kaleetan egoera bestelakoa zen, bertan ezberdintasunak nabarmenagoak ziren. ...*Euskeraz? Orduan orain baina gebiago hitz egiten zan! Ni gogoratzen naiz gure anaien kuadrilak ikaragarri haundiak zirala eta danak euskeraz hitz egiten zuten...*¹³ Anttoni Egañaren hitzak dira hauek, baina berak aitortzen digunez, eskolak eragin handia zuen erdaraz hitz egiteko garaian, behin eskolan haziz gero, berak kalean erdaraz egiten zuen, etxean berriz euskaraz, bere amak gaztelaniaz ez baitzekien oso ongi.

Beraz, euskara asko hitz egiten bazen ere, atzerakada bat nabarmentzen hasi zen herriko kalekumeen artean; euskara, gazte askorentzako, balorerik gabeko hizkuntza bat zen, herrira etortzen ziren baserritarrei ere burla galantak egiten zizkieten gaztelaniaz ez zekitelako. Roxarito Goikoetxea,



Ume talde bat Kale Nagusian. Frankismoan euskararen erabilerak sekulako beherakada izan zuen. Kalean erdaraz zen nagusi gazteen artean eta euskara etxean mantendu behar izan zen.

¹³ 2002-AEA-01 elkarrizketa, erdialdean.

inguruko beste zenbait baserritarrekin batera, doktrina ikastera Eziagotik Hernanira etortzen zen eta kalekoek zera esaten zuten: “Ya vienen los caseros, ya vienen los caseros!” euskaraz aritzen baitziren.¹⁴ Atzerakada horretaz konturatu zenik ere egon zen; familia askotako gurasoek, batez ere abertzaleak zirenak, etxean euskaraz egiteko asmo sendoa hartu zuten. Honako pasarte honetan ongi ikusten da hori:

...Nere aita etorri zan etxera lagun batekin sagardua edatera eta esan zidan: “joan hadi salara eta errepa(ratu) zan ze ordu dan”, etorri nitzan eta esan niyon: “Aita, ‘son las seis’”, nik bere lagunaren aurrian erderaz. “Joan hadi eta erreparayon ze ordu dan!” “Aita, ‘que son las seis!’” “Joan hadi eta erreparayon, ondo!” eta sala nijuala konturatu nintzan: “aitta, seirak dira”, “Ab! Ondo zegon”...¹⁵

Dena den, beste zenbait adibideren bidez ikus daiteke, herriko kaleetan euskara oso zabaldua zegoela, edadetuenek hizkuntza hau bakarrik ezagutzen zutela eta gazte ugari une oro erabiltzen zuela: *...Baserritarrak euskeraz egiten zuten, baina tranbia egiteko kastellano asko etorri ziran bonera.... Hala ere kalekuak euskeraz bakarrik egiten zuten orduan ere, edadekuek batez ere; gero galdu zan euskera...¹⁶*

“PUTZU SAKON ETA ILUN BAT”

Gerra aurretik euskararen atzerakada nabarmena bazen, gerra ondorenean hizkuntza hau hiltorian egon zen; urteak joan ahala, helduek ez zieten gazteei erakusten eta gazteek ez zuten gaztelania besterik hitz egiten, frankismoa “putzu sakon eta ilun bat” bihurtu zen euskarentzat, nekez eta izerdi galantak boteaz egoera horretatik ateratzea lortu zuten arte.

Francok, euskal usaina zuen guztia deuseztatzeko asmoari jarraituz, euskaldunen hizkuntza galarazi zuen, hitz egitea debekatuz; horrela, bere erabilera, eremu gutxi batzuetara mugatu zen, batez ere etxe barruko hizkuntza bilakatu zelarik, lehengo garaietako zaharrek hitz egiten zuten hizkuntza zahar bat. Euskaldun familietan, euskara kalera begira ezin zela

¹⁴ 2002-RGO-01 elkarrizketa, erdialdean.

¹⁵ 2002-GIOA-01 elkarrizketa, erdialdean.

¹⁶ 2002-MZA-01 elkarrizketa, erdialde-bukaeran.

erabili ikustean, etxean, beraien hizkuntza zaharra mantentzeko premia nabaritu zuten. Juanjo Uriaren aita gerran ibilia zen eta ez zitzaion politikaz hitz egitea gustatzen, are gutxiago diktadura baten pean, baina etxe horretan hitz egiten zen hizkuntza bakarra euskara zen:

...Umeak giñala, gauza bat bai geldittu zela oso garbi gure etxean, zehazki zen hizkuntzarena; gure etxean, sekula ez zen erderaz hitz bat esan, baino sekula! Eta gure kasuan, euskerari gurasoei esker eutsi diogu. Pentsatuta eskolan dena erabat erderaz egiten genuela eta auzoan ere bai... auzoan gure edadeko jendia emigrantien seme alabak ziran eta "barrioan" ere dena erderaz egiten genuen. Orduan, etxean hizkuntza oso gauza sakratua zan eta gainera aitta ikaragarri hasarretzen zan iñoiz edo, guk amari bitzen bat erdaraz egiten bagenion...¹⁷

Beste kasu askotan, arazoak baino ekarriko ez zituen hizkuntza hori, umeei ez erakustea pentsatu zuten gurasoek. Miren Clementeren gurasoak Tolosatik etorri ziren eta euskaldun peto petoak ziren, aita Bizkaian jaio eta Tolosan hazia, ama berriz Mutiloakoa. Baina Mirenek ez zuen euskaraz ikasi, etxean erdaraz hitz egiten zuten: *...Ni gogoratzen naiz, gurasoek zerbait serioski hitz egin behar zuten bakoitzean euskeraz egiten zutela, guk ez genielako ulertzen. Ni 1943an jaio nintzen eta euskeraz hitz egiten zuen oso jende gutxi ezagutu nuen, "habla en cristiano" esaten zen. Jende gazteak erdaraz hitz egiteko eta ikasteko obitura oso haundia zuen...¹⁸*

Etxe batzuetan euskara mantendu zen arren, kalean gaztelania erabiltzea zen ohikoena: "Ene! Jesusen seme-alabak erderaz?" zioen Iñaxi *panaderak* haurrak gaztelaniaz hitz egiten entzuten zituenean.¹⁹ Garai haietako euskararen egoeraren deskribapen hoberena, Rafa Eigurenek egiten du, berak dioenez, euskara kaxkar bat erabiltzen zuten eta bere aita lanetik etxera joaten zenean, beldur pixka bat ere izaten zuten, ez zekitelako euskaraz aitak nahi bezala hitz egiten. Rafa, Donostiako Santo Tomas Lizeoan hasi zen ikasten, euskarazko zenbait ikasgai zituen eskola bakarrenetarikoa, baina euskal irakaskuntzaren maila oso baxua zen:

¹⁷ 2002-JUZ-01 elkarrizketa, hasieran.

¹⁸ 2002-MCL-01 elkarrizketa, hasiera-erdialdean

¹⁹ 2002-IER-01 elkarrizketa, hasiera-erdialdean.

...Guk euskera genekien titilin-patala; ez da oraingo mundua, guk esaterako, kalian dena erderaz egiten genuen. Amarekin batzutan euskeraz, baino gehienetan, gero eta gehiago erderaz egiten genuen etxian, eta kalian dena egiten zen erderaz, eskolan dena egiten zen erderaz. Lizeora joan giñanian, patiyuan dena erderaz egiten genuen eta esaten ziguten "euskeraz egin!" Baino ez genuen obiturarik eta gainera ez genekien bainbeste, erakusten zigutena izaten ziran gauza funtsezkoenak, umeen euskera bat geneukan, desarroilatu gabekua eta deterioratua erabat...²⁰

Hala ere, putzu sakon horretan, bazegoen argirik noizbehinka. Etxeetan euskara zertxobait mantentzeaz gain, kalean batzuetan entzun ohi zen, baita ekimen ofizialetan ere; adibidez, meza, kasu batzuetan euskaraz ematen zen, baserritarrek uler zezaten eta Tiburtzio Agirreren aburuz, udaltxean ere, euskaldunen hizkuntzan hitz egiten zuten baserritarrak etortzen zirenean: *...Gure artian gutxi, baiño jendiarekin bai, zergatikan baserritarrak ez zakiten erderaz. (...) Nik ayuntamentuan alkatetza hartzeko ere, bi hiru hitz esan nituen euskeraz, eta gobernadoria aurrian zegon eb! Nik euskeraz bi hiru hitz beti esan ditut, gogoratzeko gu euskaldunak gerala...²¹* Euskara, noizean behin euskaldunak garela gogorarazteko, besterik gabe. Hizkuntza hau organismo ofizialetan eta ekimen publikoetan erabiltzekotan, kutsu folkloriko batekin izaten zen eta ez herri baten nortasunaren sinbolo gisa, hizkuntza hori suspertzeko asmoz.

Gerora bai, ikastolen sorrerarekin eta gazteria berriaren bultzadarekin, euskararen aldeko ekimenak hasi ziren: Euskara batuaren inguruko eztabaidak, euskararen egoeraren ingurukoak... Hizkuntza hau, diktaduraren kontrako borroka politikoaren oinarrietako bat bilakatu zen gerora, trantsizioaren garai bizietako aldarrikapen sendo bat.

²⁰ 2002-RER-01 elkarrizketa, hasieran.

²¹ 2002-TAZ-01(01) elkarrizketa, erdialde-bukaeran.

3.2.- Sustraiia nonbaitetik hartu beharra

“...Hartu bihar zan sustraiia nunbaitetikan, eta elizatikan hartu zuten.” Tiburtzio Agirrek uste hori dauka, eta hala izan zen, baina ez soilik elizatik, politikarekin zerikusirik ez zuen gauza oroz baliatuz heldu zioten sustraiari, berdin gertatzen baitzen herriko jaiekin, kirolarekin, ohitura bereziekin edo zenbait elkarterekin. Hauek guztiak, kalean azaleratu ezin zitekeen euskal giro baten babesgune bilakatu ziren. Segidan, adibide batzuk besterik ez dira ipintzen.

Elkarte gastronomikoak

Elkarte gastronomikoen jatorria Donostian bilatu behar dugu, bertan sortu ziren orain dela mende eta erdi; tradizio gastronomiko handia duen hiri bat da beraz, Donostia.²² Hernanin, gerra aurrean Xalaparta elkartearen ezagunena, baina gero desagertu egin zen. Horregatik, gaur egungo Hernaniko elkarte gastronomiko guztiak gerra ondorenekoak dira. Herriko giroan, elkartzeko lekuen beharra ikusten zen eta 1947an, Santa Barbara elkartearen sortu zen. Elkarte hau sortzeko hamaika kontaktu behar izan zituzten, guztia debekaturik zegoen momentu batean, ez baitzen erraza elkartzeko baimenik izatea.²³

Lehenengo fundatzaileen artean Tiburtzio Agirre dago, berak, bere ustez elkarte bat egiteko ideia nola sortu zen kontatzen du: Gerraren ondoren, Xalaparta eta horrelako elkarteetan ibiltzen zirenak non elkarturik ez zutela zeuden. Denboraldi batez Tiburtzioren garajearen elkartearen sortu ziren astelehenero, afaltzeko eta jokoan edo berriketan ibiltzeko, horrela sortu zen ideia:

...orduan ez zegoen biltzerik, ez zegoen soziedadiak jartzerik, ez baitzuten baimenik ematen; gaiñera, denak salangekoen izenian jarri bihar ziran. Nik garajia naukan eta bara joaten giñan astelehenero, gustora ibiltzen giñan afaltzen... Eta bueltaka hasi giñan, soziedadia formatu bihar zala, zergatikan ez zegoela horrela egoterik, nolabait ere formatu bihar zala...; baina zaila zegoen...²⁴

²² MARTIN, Pedro: *101 Sociedades gastronómicas de Guipúzcoa*, Tarttalo, 1997.

²³ *Santa Barbara Elkartearen 50. urteurrena*, Santa Barbara Elkartearen eta Hernaniko Udala, Hernani, 1997.

²⁴ 2002-TAZ-01(02) elkarrizketa, hasieran.

Pasarte honetan azaltzen den bezala, dena erregimenaren laguntza zuten pertsonen babesarekin egin behar zen, bestela ez zen baimenik izaten. Santa Barbara sortzeko, Jose M. Berriatua eta Pedro Agirre Arnaiz jarri zituzten lehendakari eta lehendakari orde bezala, gainera, Espainiako bandera eta Francoren irudia jarri behar ziren, baina sekula ez zen horrelakorik egin: *...Hor ez ziran behin ere jarri eb! Ezta apaizarik sartu!...* dio Tiburtziok. Baina bi pertsonaia hauek lehendakari bezala jartzeagatik jende askok hasiera batean bazkide izateari uko egin zion, ez zuten hauekin ezer jakin nahi; Luis Gorrotxategi izan zen hauetako bat: *...esan ziguten "bueno soziedadia irikitzero guaz eta presidente kapitaina egin bihar degu" [Berriatua eta Agirre militarrek ziren], eta gu: "kapitaina? Ba ez diagu joan bihar!", eta bala utzi genuen, ez giñan soziyo egin, baiña gero bai...*²⁵

Baina zein zen era horretako elkarte bat irekitzeko benetako arrazoia? Zergatik elkartzeko leku bat izateko horrenbesteko gogoa? Honako pasarte honetan garbi ikusten da, frankismoaren zentsura eta errepresiotik libreago izateko sortu zutela elkarteak:

*...beste tokietan ez zegoen hitzegiterik eta han nahi zenue-naz hitz egiten zenuen, edozein gauzataz hitz eginda ere, libre! Tabernan beti egoten giñan zein ote zegoen edo zein ez... Baina soziedadean berrogeita hamar bazkide giñan, denak ezagunak; bagenekin bat holakua zala eta bestia halakua, baiño beti alkartasunian egoteko moduan geunden, ez bata bestian kezkan "horrek zer esango dun edo zer egingo du..." pentsatuz, diferentzi haundiya zan hori...*²⁶

Izena ere Santa Barbara jarri zioten, baina ez santuarengatik, baizik eta mendiagatik. Izan ere, artean ez urte asko, errepublikarren eta liberalen aldeko jaia egiten zen bertan, Ekainaren 2ko egun famatuan. Santa Barbara eta gero, beste elkarte asko zabaldu dira Hernanin: Elur Txori, Ur-mia, Txantxangorri, Txalaparta...²⁷

²⁵ 2002-LGM-01 elkarrizketa, bukaeran.

²⁶ 2002-TAZ-01(02) elkarrizketa, hasieran.

²⁷ Ibid.

Luistarrak eta inguruko taldeak

LUISTARRAK, EUSKAL GIROKO KONGREGAZIO BAT

Urtero bezala, San Joanak iristen zirenean, Juan Joxe Iruretagoyena, *Oriyok*, urte askotan Hernaniko musika eskolako irakaslea izandakoa, eta beste zenbaitzuk, pilota partiduak antolatzen zituzten Hernanin, Antigua-koekin batera oso famatuak ziren txapelketa hauek. Baina batzuen gustuko ez izan eta egun horretan guardia zibilak agertu ziren, *Oriyok* bere patrikatik ordaindutako torneoaren egitaraua ikusi nahi zutela esanez. Inongo arazorik gabe eman zien egitaraua, ezer pasatuko ez zelakoan, baina denen harridurarako, poliziak egitaraua tolestu zuen, hala tolestu ere!. Tolestura modu hartara eginez, ikurrinaren koloreak azaltzen ziren, debekaturiko euskal sinboloaren koloreak alegia; ondorioz, txapelketa burutu ahal izateko arazo franko izan zituzten.

Iñaxio Mari Zubeldiak kontatu digu hau, berak dioenez *...luistarrak oso pertsegituak izan ziren...*²⁸ Behin “komunio haundia” eginez gero, hamabi urterekin, San Luis Gantzagaren inguruan sorturiko talde honetan, mutil guztiak sartzen ziren, herriko gazte guztiak bilduz. Baina taldea ez zen autoritate frankisten gustuko, izan ere, kongregazio honen euskal giroa eta mugitzeko gogoia izugarrikoa zen, horren erakusgarri izan daiteke Juanito Olano bera, kongregazioan parte hartu zuen pertsona estimagarria.

Imanol Larretxeak luistarren aktibitate eta nortasunaren berri ematen digu, bere ustez luistarrek indar handia zuten herrian:

*... Luistarrak lan asko egin zuten, elizako kongregazio bat ziran. Luistarrak lokal bat zuten plazan, han billarrak egoten ziran eta kantak, liburuak... Zuk Hernanin gauza bat lortu nahi bazenuen “Club Deportibuarengana” joan bihar zenuen, baina nabiz eta luistarrek ez zuten horrelako boterarik, kanpeonatuak egiten zituzten, mendira joaten ziran, korua formatu zuten... Eta gazte jende guztia etortzen zan luistarretara; Ekainaren 21ean, luistarren egunian, festa egiten zan eta pelota txapelketa oso garrantzitsuak ere egiten ziran. Hor zeuden olanotarrak, Juanito Olano eta Juan Joxe Orio, Zubiria, Tiburtzio Odriozola... horiek denak lan asko egin zuten eta orduan gazte jendia beraien babesian bildu zan...*²⁹

²⁸ 2002-IZM-01 elkarrizketa, erdialdean.

²⁹ 2002-ILG-01 elkarrizketa, erdialde-bukaeran.

Imanol, ez da Club Deportivo Hernani-ren eta luistarren arteko antagonismo hau ikusi izan duen bakarra: "Hi Luistarretan egon haiz orain arte eta orain beste aldera pasa haiz!" egotzi zioten Tiburtzio Agirrerri, Club Deportivo Hernani-ko lehendakari egin zutenean, futbola izugarri gustatzen baitzizaion. Izan ere, bata soilik kirol mundura mugatzen zen, politika, kultura eta ohituretan asko sartu gabe, besteak berriz euskal ohituren defendatzaile izan nahi zuen.



Club Deportivo Hernani-ko mendi irteera bat Lizeaga kalean gora.



Mendizale talde bat San Antonio Paradorean, 1944an. Luistarrek Hernaniko gazteria biltzen jakin izan zuten, eta pilota txapelketak eta mendi irteerak antolatu zituzten.

Dena den, luistarrek babes politikorik izan ez arren, babes sozial izugarria zuten, goiko pasartean aipatzen den bezala, ekintza ugari burutzen zituzten, denak euskal kutsukoak, noski. Gainera, frankistak kontra izan arren, elizaren babes zuten, izan ere, Karmelo Labaka apaizak lan handia egin zuen bertan. Karmelo Labaka albiztuarra zen, baina bere azken urteak Hernanin igaro zituen apaiz lanetan. Lanbide Eskolaren proiektua berak eratu zuen, baina batez ere bere euskaltzaletasun eta zintzotasunagatik izan zen ezagun. Iñaxio Mari Zubeldiak horrela hitz egiten du gizon honetaz: *„Hura oso euskaltzalia zuan, euskeraz oso ondo hitz egiten zian. Nere garayian hamarretako meza zegoen; lehenengo sermoia nagusiei egiten zien eta gu, mutil koxkorrak, aurreneko bankutan eskubitara egoten giñan, gero guri hitz egiten zigun euskeraz, bai ondo ere! Neretzako izan zan pertsona bat, pentsamolde guztietako jendia biltzen zuena...”*³⁰ Mañoli Zigarán eta Joxe Apaolaza ezkontzerakoan, Ama Birjinaren egunean meza atera zuten, orduan, Labakari euskaraz egin zezan eskatu zioten, baina honek azken momentuan ezezkoa esan zien, egun garrantzitsu horretan udaletxeko autoritate guztiak joaten zirelako mezetara eta ez zelako momentu egokia.

³⁰ 2002-IZM-01 elkarrizketa, erdialde-bukaeran.

Baina Karmelo Labaka hil eta elizaren babesa bukatu zenean, orduan hasi ziren komeriak Juanito Olano eta beste askorentzat; badirudi, Elgarresta parrokoak traba ugari jarri zizkiela luistarren inguruko ekimen guztiei. Behin, *Corpus Christi* meza bukatutik, jendea elizaren kanpo aldean bildurik zegoela, Juanito Olano, Elgarresta parrokoarengana hurbildu zitzaion: “Don Jose, zurekin hitz egin nahi det, joango gera zure despatxura?” eta horrela joan ziren apaiz etxera, han zeudela honela esan zion Juanitok: “Mesedez, utz nazazu hitz egiten, utzi hitz egiten bukatu arte behintzat”. Bazekien hizketan gizon harrek eta bota zituen bota beharreko guztiak: Nola trabak eta oztopoak besterik ez zituzten izaten ekimen guztietarako, apaiz batek nola egin zezakeen hori... Eta bukatzean zera galde-tu zion: “Eta orain zer nahi dezu?”, Elgarrestaren erantzuna benetan gogorra izan zen: “Guzti honekin desegin!”. Ez dakigu zergatik zien horrenbesteko gorrotoa luistarrei eta euskal ohiturei; Iñaxio Mari Zubeldiak dioenez, hilero chunka gazte jaunartu eta konfesatzen zituen, baina luistarrak bere kontrolpetik kanpo geratzen ziren eta “hori ere ezin eraman!”, horrela zebilen Legazpitik etorritako apaiza.³¹

ANTZERKIA, *SCHOLA CANTORUM* ETA SANTA ESKEA

Garai haietan, luistarren inguruan ibiltzen ziren zenbait pertsonak, talde kultural batzuk sortu zituzten, eta hauetako bat antzerki taldea izan zen, *Zintzotasuna* zinema aretoan emanaldiak egiten zituen eta arrakasta handia izan zuen, ez bakarrik herrian, baita probintzia osoan ere.

Talde nahiko handia sortu zen bertatik, zuzendari, tekniko eta antzezle-en artean jende aski ezaguna zegoen: Jexux Mari Olano, Mari Kruz Uria, Patxi Odriozola, Atxukarro, Joxe Makazaga, Manuel *Axala*, Jexux Egiguren, Juan Migel Zugasti *Kattarro*, Pili Sarriegi, Maria Luisa Zubiria, Iñaxio Mari Zubeldia... eta beste hamaika pertsona ere. Gainera, Don Pedro Madinabeitia, Hernanira erbesteratu zuten apaiz bat jarri zuten zuzendari, baita Miguel Toledo ere, Hernaniko alkate ohia; orduan taldeak indar handiagoa hartu zuen oraindik. Bertako kideak etxez etxe joaten ziren antzerkiaren iragarkia egin eta sarrerak saltzera, horrela jende ugari erakartzen zuten. Gainera, antzerkiak euskaraz egiten zituzten, antzerki mota ezberdinak jorratuz: Zartzuelatik euskal dantzetara ausartzen ziren antzezle hauek,

³¹ Ibid.



Schola Cantorum
 abesbatzako kideak San Juan
 eliza aurrean. Frankismo
 garaian, euskaltzaletasuna
 barneratu zuten hainbat
 talde sortu ziren herrian,
 horietako bat izan zen Schola
 Cantorum.

komikoa, satira eta drama kutsuko emankizunak landuz, *Ezer ez da festa* bezalako obrekin. Dekoratuak etxeetatik altzariak ekarriz osatzen zituzten eta jantziak ere etxetik ekarritakoak edo bigarren eskukoak izaten ziren.³²

Hernanin bazegoen beste antzerki talde bat, erdarazko funtzioak egiten zituena, hauek ez omen zuten beraien emankizunetara katurik ere eramaten eta euskal taldeekin elkartu nahi zuten; baina Iñaxio Mari Zubeldia eta Jesus Mari Olano, Elgarresta apaizarengana joan ziren, horrekin guztiarekin arduraturik baitzeuden, erdaldunekin elkartzen baziren, funtzioak erdaraz egin beharko ote zituzten beldur ziren bi "artistak". Elgarrestak, berriro ere erantzun gogorra eman zien bi hauei:

...Elgarrestaren hitzak hauek izan ziran: Ez genuela arduratu bihar! Euskera galtzera zijuala erabat, aurki ekarriko zutela Orbegozo Zumarragatikan Hernanira eta ez dakit zenbat ehunka langile etorriko zirala kanpotikan, denak erdaldunak, urte gutxi barru ez zala euskeraz hitz egingo eta bukatuko zirala euskal obiturak eta hizkuntza eta dana kitto! Hori apai-zak esan zigun, Don Jose Elgarrestak...³³

³² Ibid.

³³ Ibid.

Dena den, nola hala baina oztopoen gainetik antzerkiak euskaraz egiten jarraitzea lortu zuten eta Zintzotasunean antzerki funtzioak ematen jarraitu zuten. Don Jose Elgarresta berriz, Donostiako Santa Maria elizara joan zen bikario modura, bere bizitzaren azken urteak bertan ematera.

Giro horretako beste talde garrantzitsu bat *Schola Cantorum* abesbatza zen, herriko makina bat neska mutil bildu zituen koroa zen hau, fama handia hartu zuena. Abesbatza Gabriel Olaizolak zuzendu zuen, Juan Joxe Oriyoren laguntza estimatuarekin eta leku askotara mugitu ziren Euskal Herrian barrena eta Espainiako zenbait hiritan ere egon ziren. Musika mota asko entzuten bazen ere, garai haietako adituenak herri musika eta musika klasikoa ziren: *...Korua oso ona zan, nik eta nere arreba Kontxik kantatzen genuen bertan, nik bebintzat beti herri musikatik klasikora saltatu izan det...*

Ezagun da Santa eskeko erronda eta San Joanetakoa zeinek berpiztu zituen, zein izan zen ohitura horien arima, Tiburtzio Odriozola hernaniarra hain zuzen. Gerra pasa eta gero, bai bata eta bai bestea guztiz galduta zeuden, baina luistarren, antzerkien eta koruen inguruko giro horrez kutsaturik edo, Tiburtziori Santa Ageda bezperan, aspaldian egiten ziren erronda famatuak berriro egitea bururatu zitzaion, baita antolatu eta egin ere:

... Irizarren geunden, Koldo Goia, Tiburtzio eta ni, hirurok, horrelaxe berriketan ari giñan eta: "Ze iruditzen zaizute Santa Agedako talde bat sortu eta San Agedako usariyua berriz ere hastea?", "Ondo zio! Guk lagunduko diyagu.", eta halaxe, baren babesian sortu zen taldea..."³⁴

Axeridantza: "...nola inauteriak galarazita zauden..."

Axeridantzaren inguruan hitz egin dezaketen belaunaldi asko daude Hernanin, lehenago ere aipatua dugu ohitura hau nolakoa zen gerra aurrean, batez ere Luis Gorrotxategiren hitzetatik. Baina hernaniarrentzat hain berezia den axeridantzak pasarte berezi bat behar du, honen inguruan konta daitezkeen ezaugarri eta anekdotak oso ugariak baitira. Gerra ondorengo axeridantzaren inguruan hobekien hitz egin dezakeena Imanol Larretxea da, berak txiki txikitatik jakin izan zuen axeridantzaren giro gazi-gozoa dastatzen eta.³⁵

³⁴ Ibid., bukaeran.

³⁵ Axeridantzaren pasarte Imanol Larretxearen hitzen bidez egin da guztiz, 2002-ILG-01 elkarrizketako lehen erdialdea erabiliz.

Imanol Larretxea 34 urte ibili izan da axeridantzaren barruan, herritarren bizkarrak berotzen. Bera txikia zen Francoren diktadura ezarri zenean, baina axeridantzaren data aldaketa nola izan zen entzuna dauka. Diktadura ezartzean, inauteriak debekaturik geratu ziren, ez baitziren erregimen faxista horren oso gustuko. Horren ondorioz, gerra osteko lehenengo urteetan axeridantzarik gabe geratu zen Hernani. Baina gerora, gazte koadrila batek bultzaturik, ohitura hau berriz martxan jartzea lortu zuten:

...Inauteriak debekatu zituztenian, egondu zan bi hiru urte axeridantzarik egin gabe; orduan, gazte kuadrila bat joan zan Hernaniko udaletxera eta alkatiari baimena eskatu zioten, San Juanetan ateratzeko, inauteriak galarazita zeudelako eta barrek baiezkoa esan zuen. Hori izan zan 1941-1942 urtiaz geroztik, nik hori daukat aditua Pron-txo Ayerrari, zergatikan bau izan zan alkatiarengana joan zan lehendabizikua...

Behin axeridantza San Joanetara pasa zenez gero, gaur egun arte iraun du jai hauen egitarauan barneraturik. Imanolek frankismo garaiko axeridantza ezagutu du, eta garai bateko axeridantzatik gaur egungo axeridantzarako bilakaera nola gertatu den oso ongi daki. Gauza asko aldatu dira, esate baterako, itxura aldetik herriaren egitura fisikoa: Garai bateko alde zaharra ez zen gaur egungoa bezalako, orduan *Andrekale* eta Kale Nagusiaren arteko karkaba luzeagoa zen, traba gutxiago zituen eta irteerak non-nahi aurki zitezkeen, ukuiluutarako sarrerak



Karkaboko plaza. Bertatik garbi ikusten da Kardaberaz eta Kale Nagusiaren arteko karkaba, axeridantzan erabiltzen dena.

ere bertan kokatzen ziren eta jendea ezustean harrapatzea errazagoa zen. Herriko edozein lekutatik sartu eta beste puntatik irten zitezkeen dantzariak, inork ikusi gabe, ate guztiak irekita baitzeuden.

Gainera, Hernani txikiagoa zen eta ez zen gaur egun kalean biltzen den jendetza biltzen. Axeridantza joko moduko bat omen zen, maskuria zue-nak kalean zegoena harrapatu behar zuen, horregatik zelatan ibiltzen ziren ia jendea non ote zegoen: *...jende herrikoia zana, ez zana kanpoko jendia egoten orain bezela. Orain askoz jende gehiago etortzen da. Orduan jendiak alde egiten zuen ez jotzeko, jendia ezustian harrapatu bihar zana, ez zakiten nundik aterako zinan eta korrika alde egiten zuten, baina beraien borondatez ez ziran jartzen jotzeko...* Balkoietara igotzea eta etxe-etara sartzea ere ohizkoa zen orduan, Imanolek berak eginga dauka hori, baina beti sokari helduta, sokari heltzea omen zen jokoaren lege bakarretakoa, hori ezin zen hautsi. Ezustean harrapatzeko grinak, hamaika triki-mailu erabiltzera eramán zituen axeridantzako partaideak:

...Ni gogoratzen naiz zaborrako karruan sartzen giñala; ordun idi batekin biltzen zana herriko zaborra, "Prailiak" idi bat zuen bere karruarekin eta zaborra jasotzen zuen. Eta gogoratzen naiz, Zinkoenean, jendia konturatu gabe karruan sartu eta bestiak zaborra botatzen zuen bitartian gu han egoten giñala gordeta, gero jendiarengana ailaizten giñanian karrotik ateratzen giñan. Beste batzutan tranbian ere bai, Morencoseneko hortan tranbian sartu eta Plazaberrin giñanian ateratzen giñan, inork ez zuen espero gu tranbian gento-zela! Horrelako gauzak izaten ziran, baina hortan oso bizkorra Prudentzio Ayerra difuntua zana...

Soka ez zen bi muturrekin bukatzen, baizik eta bakarra zen, orain urte batzuk erantsi zioten beste muturra sokari, Manu Gonzalezek proposaturik. Maskuriak berriz, partaide bakoitzak bina maskuri nola hala lortu eta horrela ibiltzen ziren, baina orduan ez ziren gaur egun bezain errez leher-tzen, norberak bere maskuria hobeto zaintzen baitzuen. Gehienak Leoka garbilekuaren ondoko hiltegira joaten ziren maskuri bila, bertan garbitu, puztu eta bakoitzaren etxean lehortzen zituzten; Maskuri on batek gainera, soinu asko atera eta min gutxi eman behar duela esaten du Imanolek.

Axeridantzan ateratzeko ez zen gauza berezirik egin behar, bertan ateratzea libre ez bazen ere, ez zegoen antolakuntza finkorik, bost edo sei egun lehenago, bati edo besteari galdetu eta horrela osatzen zuten 16-17 bat gazteko taldetxoak. Dena den, bazeuden axeridantzan beti irteten ziren batzuk, hauek kirolariak ziren:

...Izaten ziran lehendabizi korrika ibiltzen ziranak: Aierra, Alejandro Arrozpide, Jose Luis Adarraga, Antton Adarraga... deporte pixka bat egiten zutenak, eta gero hasi giñan balomnokuak, Manu González, Rekondo, ni... eta gero, tartian beti bi edo hiru izaten ziran. Baina ez da izango Hernaniko gizon bat, behin 50 urtetik gora, urte batian edo bestian atera ez dana. Gero izaten ziran Azkue, nere anai difuntua... Beti bost sei edo zazpi fijuak eta bestiak aldatu egiten ziran...

Jakina den bezala, orduan ez zegoen axeriaren irudirik eta dantza, hasieran eta bukaeran egiten zen, fandangoa batez ere, gainera: "orain baino hobeto!". Behin axeridantza bukatuta, etxeetan dutxa gutxi zeudenez, Plazaberriko komun publikoetara joaten ziren garbitu eta aldatzera, gero *Egañanean* gosari bapoa egin, zurrurutuna tartean zela, eta nor bere lagunekin, herriko festa nagusietan murgiltzen zen.

Orain urte gutxi, herriko zenbait eragileren eskutik, garai bateko axeridantzan abesten zen kantua bat zabaldu nahi izan zen, ez legoke gaizki festa honi buruzko pasarte xume honetan hitz horiek gogoratuko bagenitu:

*Axeri dantza txibulibulete
Opila janda konkete
Txibulibu libulibu libulete
Txibulibu libulibu txibule*

Ezkiagako dantzaldiak eta txistulariei txistuak

Dantzaldien inguruko azkeneko pasadizoetako bat txistularien eta txistu-tuen eskutik datorkigu. Bandak hiru pieza jotzen zituen eta gero txistuak beste hiru, *ttun-ttunean*, dantza askean ibiltzeko gehienbat. Baina 1964-65 inguruan, txistulariei, jendea txistua jotzen hasi zitzaien; txistulariek, egoera hori zela eta, gehiago ez jotzea erabaki zuten eta denboraldi batez, Her-

nani txistulari gabe egon zen³⁶. Roxarito Goikoetxeak honela esaten digu txistulariei buruz: *...Txistulariak ari ziranian, inñork "baltzian" egiten bazuen, txistulariak gelditu egiten ziran!...* Berak dioenez, baliteke txistulariei txistuak jotzea, baina hori Egia, Gros edo Donostiako Alde Zaharretik zetozen koadrilen eskutik izan zen, hauekin borroka asko izan baitziren herrian kontu horrengatik.

Dena den, badago Ezkiaga Pasealekuko dantzaldian, urte horietan gertatutakoari garrantzia kentzen dionik, Ignacio Iruin, bandako musikalaria zen eta honek zera esan digu: *...Txistu kontu hori ez da ordia esaten dan bezela eh! Egia bai dala, baiña gauza boiek pasa ziran eta kitto. Orduko gaztiek dantzatzeko beste modua nahi zuten eta txistuak sueltotan egiteko ziranez... hori pasa zan. (...) Gero, Hernania basi zan jendia etortzen eta Hernani zan pronbintzi guztiya erakartzen zuen herriya...*³⁷

Baina, zer gertatu zen txistulariek jotzeari uko egin ziotenean? Donostiako koadrila horiek kiosko atzealdera eramanez eta txistua jo zuenari egur galantak ematen omen zizkieten. Orduan, txistulariak nolabait ekarri behar zirela pentsatu zuten batzuk, ohitura galdu ez zedin; lan horretan Iñaxio Mari Zubeldia ibili zen, zenbait banda ere sortu zituzten Hernanin jo ahal izateko, berak dioenez banda basoerdi bat edan edo mokadu bat jateko geratzen zenean txistulariak hasten ziren, Joxe Ansorena eta bere semeak, baina bertan biltzen zen jendetzak txistu egiten zieten:

*...Txistuka hasten ziran eta noski, txistulariek ez zutela gehiago jo bihar esan zuten... Orduan basi giñan mugitzen eta lau banda sortu genituen, Andoainguak, Donostitik etorrirakuak, Alzakuak... Ta igande goizetan ni aurreneko bandakin netorrela, ekarri nituen Alzako txistulariak, erdi lotsatuta, jendia balkoiatarara aterata, danak txaloka... Iya galdutzat jo zan obitura hori eta!...*³⁸

Gero, gazte gazterik Patxi eta Joakin Apezetxea anaiak hasi ziren, Antonio Insaustik lagunduta. Gorriak eta bi pasa behar izan zituzten hauek ere, jendeak txistuka egiteaz gain gauzak botatzen omen zizkietelako. Dena

³⁶ APEZETXEA, Patxi: *Hernani eta txistua*, Kutxa Fundazioa, Donostia, 1992, 169-176 or. eta ARTECHE, José: "Silva a los Chistularis", *La voz de España*, Donostia, 1965eko Apirilaren 4a.

³⁷ 2002-III-01 elkarrizketa, bukaeran.

³⁸ 2002-IZM-01 elkarrizketa, bukaeran.



Hernaniko Txistulari Banda 1965ean, Ezkiagako Bar Frontón parean.

den, baziren Hernaniko koadrila ugari, kiosko ondoan jarri eta txistulariak babesten zituztenak, txalo zaparrada luzeak boteaz eta “sueltoan” dantzatuz, kanpoko jendeari erantzuteko asmotan.³⁹ Momentu gogorak izan ziren Hernaniko txistuarentzat 1960ko hamarkada erdialdeko urte horiek.

3.3.- Industri hazkundea eta inmigrazioa

Industrializazio berria


Esanda dago, gerra aurreko Hernaniko ekonomian industria zela nagusi: *...orduan zegoen Papelera Mendia eta baita Biyak Bat papelera ere, gero zeuden 'Fábrica de puntos Carrero', Morencos eta gebiago...*⁴⁰ Edozein aiton edo amonak jakingo luke garai haietan Hernanin zeuden lante-

³⁹ APEZETXEA, Patxi: *Hernani eta txistua...* 174 or.

⁴⁰ 2002-AEA-01 elkarrizketa, hasiera-erdialdean.

gien zerrenda bat egiten, hernaniar gizartean eragin handia izan baitzuten hauek. Baina gerra iristean hauetako asko desagertu egin ziren edo kalte handiak izan zituzten. Gainera, asko, molde zaharreko lantegiak ziren eta ez ziren garai berrietara behar bezala egokitu.

*Morencos
ehun lantegia
XX. mende
hasieran ireki
zuten.*




50. eta 60. hamarkadetan, Hernaniren itxura guztiz aldatu zen, urte hauetan industrializazio sendo bat errotu zen herri honetan eta industrializazioak jendea erakarri zuen eta, epe motzean, hauentzako etxeak egin behar izan ziren. Hernaniko biztanleria bikoiztu eta auzo berriak sortu ziren, bertan eraiki ziren molde berriko etxeak, Extremadura, Andaluzia, Galizia edo Gaztelatik etorritako langile familia ugariak bete zituztenak.

Gerra ondorenean, ekonomia frankistak autarkia gogor bat ezarri zuen estatu osoan, inportazioak eragotzi nahi zituen, espainiar ekonomia bere kabuz balia zedin. Baina sistema honek ez zuen batere onurarik ekarri Euskal Herriarentzat, industri produkzioa oso ahul ibili zen urte batzuetan, gainera Euskal Herriko "probintzia traidoreak", hots, Gipuzkoa eta Bizkaia, ez

ziren Francoren garapen proiektuetan sartu. Hala ere, industri sektoreak nola hala egin zuen aurrera, batez ere, metalgintza espezializatuak eta Gipuzkoako makina-erraminta lantegiek, hauek garapen handia izan baitzuten, Espainiako barne eskaerak bultzaturik. 1950. urtetik aurrera, estatu-ko ekonomian aldaketak nabaritzen hasi ziren eta 1959rako liberalizazio ekonomikoa burutu zen, honek suposatzen zuen guztiarekin. Orduan, atzerriko inbertsioak eta estatuak ematen zituen kredituek, industria izugarri bizkortu zuten eta Euskal Herriko hazkunde tasa berehala handitu zen.⁴¹

Industrializazio berri honen adibide Pedro Orbegozo metalgintza lantegia jarri daiteke. 1953an ireki zen eta ehunka langilek egiten zuten lan bertan, Hernaniko lantegi handiena bihurtu zelarik. Baina lehenagotik ere sortuak ziren hainbat lantegi: Zikuñagako paper lantegia, *Electroquímica Hernani S.A*, José Roig ehun lantegia, *Danak Bat* eta *Transpacar...* 1954tik hazkundea egonkortu egin zen eta lantegi berriak sortu baino, zeudenak handitu egin ziren.⁴²



Orbegozo lantegia eraikitzen. 1953. urtean jarri zen martxan. Hernaniko lantegirik handienetako bat izan zen, urteetan.

⁴¹ TAMAMES, Ramon: *Introducción a la economía española*, Alianza Editorial, Madrid, 1994, 279-281 or. Ikusi ere: ANSOLA, Gurutz: *Euskal Herriko ekonomiaz, 1955-1967*, Mensajero, Bilbo, 1971. URANGA, M.G.; HERRERO, J.L.: *Dinámica del capitalismo, crisis y economía vasca*, Hordago, Donostia, 1983.


⁴² LARRAÑAGA, I.; IRURETAGOYENA, R.: *Hernani 1962: Estudio sociológico de un pueblo industrial guipuzcoano*, Editorial Icharopena, Zarautz, 1964, 54 or.

Inmigrazioa: "...kastellanuak asko ziran!"

Esan bezala, industrializazio bizkor honen ondorioz, lantegietan langile asko behar zen, horregatik, kanpotik Hernanira lan bila etorri ziren inmi-grante espainiarrak asko izan ziren. Garai haietan egindako zenbait zentsu-ri jarraitzen badiegu, konturatuko gara Hernanik ozta-ozta errekuperatu ahal izan zuela gerra aurrean zuen biztanle kopurua, baina 50. hamarkadan eta batez ere 60.ean "boom" demografiko nabarmena izan zuen.

Gerra aurretik Hernanira etorritako kanpoko jendea asko izan zen, batez ere Gaztela aldeko langileak, baina modu jarraitu batean etorri ziren. Hauek, bere jaioterrian lanik ez zegoenez Euskal Herrirako bidea hartu behar izan zuten. Bernardo Martín San Miguel, Gaztelatik etorri zen bere familiarekin, hamabi urte besterik ez zituen eta aita hil zitzaionez, Medina del Campon ez zegoen beretzako lanik, industria oso gutxi baitzegoen bertan, horregatik etorri ziren Hernanira, lana aurkitzea errazagoa zelako: *...Ni Medina del Campo-n jaio nintzen eta bona hamabi urterekin etorri nintzen, ama, arreba eta amonarekin batera. Aita lebenago hil zitzaigun eta horregatik etorri ginen bona. Gazteak ginen eta arrebak han geundela lana bilatu zuen, baina han industria gutxiago zegoen...*⁴³

Hernaniko bilakaera demografikoa
(1950-1981)



⁴³ 2002-BMS-01 elkarrizketa, hasieran.

Gerra ostean, inmigrazioa ez zen oso handia izan eta gerra aurrean bezala, kanpoko jendea oso modu jarraituan etorri zen, baina Hernanira etortzen zirenak, batik bat Nafarroa eta Gipuzkoako biztanleak ziren. Egoera hau, 1950. hamarkadatik aurrera zeharo aldatu zen; esan bezala, industria berriak ezarri ziren, eta horrek urrutiko jendea erakarri zuen. Garai hauetako inmigrazio olatu handiena, 1956-1962 artean eman zen, ehunka langile eta familia etorri baitziren Hernanira, gehienak, Andaluzia eta Extremaduratik. 1962ko zentsu bati kasu eginez, ikus daiteke nola Espainiatik etorritako inmigrazioak Hernaniko biztanleriaren %23,6 betetzen duen; Andaluziatik 556 lagun etorri ziren, Extremaduratik 547 eta Gaztelatik etorritakoak berriz 896 ziren, azken hauek gerra aurretik etorritakoak, gehienbat; hau guztia, ia 11.000 biztanle inguru zituen herri batean. 1970erako, kopuru hau bikoiztu egin zen.⁴⁴



Hernaniko kaxkoa 1965ean. Hamarkada honetan asko handitu zen herria.

⁴⁴ LARRAÑAGA, I.; IRURETAGOYENA, R.: *Hernani 1962...* 275-313 or.

Inmigrazio olatu handi hauetan etorritako bat Mari Núñez Centeno da, Bernardo Martinen emaztea. Bera 1938an jaio zen Zalamea de la Serenan, Badajozeko herri txiki batean, baina oraindik haurra zela Huelvako Trigeros herrira joan zen bizitzera. Mariak kontaktzen digunez, beste erremedio-rik izan ez zuelako etorri zen 1963an Hernanira, 25 urte zituen orduan eta oraindik ezkondu gabe zegoen:

...Ni hogeita bost urterekin etorri eta Remy-n basi nintzen lanean, bertan ezagutu nuen nere senarra eta hortik bi urtetara berarekin ezkondu nintzen. Han ez zegoen lanik, soilik nekazaritzan eta nik ez nuen horretan lanik egin nahi, orduan bona etorri nintzen, fabrikara. Lehenago etorrita zeuden lagunak ezagutzen genituen, herrikoak, eta hauek deitu zidaten, ia bona etorri nahi nuen esanez, hemen lana bazegoelako; horrela etorri nintzen, familia guztiarekin batera, aita, ama eta denak...⁴⁵

Maria, bere herrikide ziren pertsonekin kontaktuan jarrita etorri zen Hernanira, haiek esan zioten hemen lana zegoela eta haiek animatu zuten erabaki hori hartzera. Izan ere, inmigrazioaren ezaugarrietako baten aurrean gaude, jende gehiena zenbait kontakturen bidez etorri baitzen Euskal Herrira; batzutan herrikideak ziren, beste batzutan berriz familiakoren bat zen kontaktu lanak egiten zituena. Bernardo Martinen familia, honen izeba batek deituta etorri zen gure herrira, esaterako. Ezaugarri hau migrazio mugimendu askotan ematen da, adibide modura, Amerikarako euskaldunen emigrazioa jar daiteke: Amerikara joateko, lagun edo familia-kideen kontaktuak ezinbestekoak ziren, bertara joaten zena egoera onean iritsiko bazen.

Baina gizarte euskaldun eta espainiarraren arteko diferentziak aski nabariak ziren. Hernani herri industrializatu bat zenez, eta urte askotan zehar inmigrazio jarraitu bat jaso zuenez, erdaldunduriko herri bat zen jadanik, baina oraindik ere euskaldun asko bizi ziren bertan eta euskal ohi-turak, izaera eta kultura, herriko kaleetan nabari zitekeen. Espainiatik etorritako inmigranteen lehenengo talka, euskaldunen nortasunarekin izaten zen: *...Obitura ezberdinak ziren eta ni triste nengoen, noski, bertako poz-*

⁴⁵ 2002-BSM-01 elkarrizketa, Maria Núñez-en hitzak elkarrizketaren bukaeran.

tasuna eta bertako gazteria... eta hemen ez nuen inor ezagutzen. (...) Klimagatik baino gehiago, pertsonengatik izan zen hau; itxiagoak ziren, ban jendea irekiagoa da, ez da hemen bezela, dena itxiagoa dela, nik diferentzi hori asko nabaritu nuen, baina laster moldatu nintzen...⁴⁶

Bertakoek ere aldaketa handiak sumatu zituzten, batzuek beldur pixka bat izaten zuten: ...*Esaten genuen "boiek etorriko dira eta guk baiño gehiago agindu bihar dute", gaiñera, etorri ziranian umil umil etorri ziran, zergatikan esaten zuten "neska, hemengo etxeek komunak dituzte!", ban sorora joan bihar eta!...*⁴⁷ Inmigrazioarekiko erantzuna oso ezberdina izan zen, batzuk erabat baztertu zituzten, baina beste batzuei ongi iruditzen zitzairen handik hona lan bila etorri izana; gehienera, herria nola erdalduntzen eta aldatzen zen ikusteak ez ziren grazia handiegirik egiten, ordea. Batzuek *txurrianoak* deitzen zieten kanpotarrei, beste batzuek *belarrimotzak*, baina hitz hauek euskaldunen artean erabiltzen ziren, bestela, orokorrean, errespetuz hitz egiten zuten euskaldun eta erdaldunen artean.

Oso fenomeno anitza dela esan beharrik ez dago, hernaniarren artean jarrera ezberdineko jendea zegoen eta, inmigranteen artean ere bai. Baziren Hernanira etorri eta bertako gizartearekin erabat maitemindu ziren pertsonak, baina baziren baita ere, auzoko giro erdaldunetik irteten ez zirenak. Dena den, beste herri batzuekin konparatuz, Hernanin ez zen inolako "getho"rik sortu, izan ere, Gipuzkoako beste herri askotan bi komunitateen arteko banaketa erabatekoa izan zen - herri oso euskaldunetan, esaterako -. Hernanin, egon, baziren erdaldunduriko langile auzoak, Florida auzoak esate baterako, urte askotako inmigrazioa jasan zuen eta 1962rako etxe berri asko egin zituzten bertan, inmigranteen kopurua %33koa zen, gutxi gora behera. Gauza bera gertatzen zen Antziola, Zikuñaga edo Lizeaga auzoetan, azken honi, *katanga* deitzen zioten gainera.⁴⁸

⁴⁶ Ibid.

⁴⁷ 2002-RGO-01 elkarrizketa, erdialde-bukaeran.

⁴⁸ LARRAÑAGA, I.; IRURETAGOYENA, R.: *Hernani 1962...* 275-313 or.

*Jaime Puig
fabrikako langileak
eta nagusiak
1955. urtean*



*Latxeko etxebizitzak eta
Jaime Puig fabrika
Erenotzu auzoan.*



Baina inmigranteak etortzearekin herria handitu egin zen, eta arazo larri bat sortu zen; ordurako alkate lanetan zebilen Tiburtzio Agirrek oso ongi azaltzen du, zein zen arazo hori: *...Herriya hazi egin zan, etxebizitzak egin ziran, baiño gero, ayuntamentuak berak ezin egin horientzako gauzarik! Gaur egun ayuntamentuan ematen dute dirua, baiña gure denboran ez zegoen horrelako-*

*rik, eta etxiak egiten ari ziran baiña ez hauentzako enparantzak edo jolasteko lekuak! Hemen negoziyua bakarrik zegoen, etxiak egin eta kitto!...*⁴⁹ Etxe asko bai, baina baliabide eta azpiegitura gutxi, hori zen arazoa. Dirurik ez zegoenez, egiten ari ziren auzo berriak oso larri zebiltzan zerbitzu aldetik; horrela, auzoetako jende gehienak, Hernaniko alde zaharrera joan behar izaten zuen erosketak edo eguneroko bizitzaren beste hamaika gauza egitera.

⁴⁹ 2002-TAZ-01(01) elkarrizketa, bukaeran.



I V

EUSKAL BERPIZKUNDEA ETA TRANTSIZIOA (1960-1981)

4.1.- Euskal berpizkundera: Iraultzaren hastapenak (1960-1968)

Euskal berpizkunderaz jardutean, frankismoaren amaieran gertatutako gizarte eta kultura iraultzaren hastapenez ari gara hemen; iraultza deritzogu, frankismotik irteteko edo frankismoan bizirik irauteko edozer jarduerak jarduera iraultzailea izan behar zuelako berez. 60. hamarkadatik aurrera, espainiar diktadurak Europarako atak ireki zituen, 1959ko erreforma liberalizatzaileen bidez, milaka pertsonak Alemania, Frantzia eta Europako beste leku askotara joateko aukera izan zuten..

Baina atak irekitzean, irteteko balio duen zuloak, sartzeko ere balio du. Europatik eta Amerikatik zetozen korrante ideologikoen eragin handia izan zuten euskal gazteriarengan. Musika, politika, modak, iraultzak... guzti hauekin liluraturik geratu ziren gazte asko, honi, euskaldunek jasaten zuten errepresio politiko eta soziala gehitu zitzaion eta orduan iraultza bat hasi zen Euskal Herrian, gizartearen alderdi guztiak irauli zituen mugimendu berritzaile bat, lelo finko batekin: "Gu gera Euskadiko gazteri berria!"

Ikastolen sorrera: Euskara abian

Elbira Zipitria Irastortza Zumaian jaio zen 1906an. 1926an irakasle eskolako ikasketak burutu ostean, Donostiako Ikatz kalean zegoen Muñoataren eskolan hasi zen lanean. Elbirak 1936ko gerra hastean erbestera alde

egin behar izan zuten, Lapurdiko Sara herrira hain zuzen. 1942 arte ez zen Donostiara itzuli eta iparraldean egondako urte luze horietan frantses irakaskuntzaren metodo eraberritzaileak ikasi zituen. Jadanik Donostian zela, ikasle talde bat biltzea lortu zuen eta ikasgaiak bere etxean irakasten zituen. Elbiraren irakaskuntza-metodoan abertzaletasunak eta erlijioak garrantzi handia zuten, zumaiarrak erlijiorik gabe irakastea ezinezkoa zela pentsatzen baitzuen. Urtetik urtera, Elbirarekin praktikak egin zituzten irakasleek, ikastola eta lokal berriak ireki zituzten Donostian zehar. 1960an Pasaian ikastola bat sortu zen eta 1962an Hernanin beste bat, Urumea ikastola.¹



Urumea Ikastola: Hernanin 1962an sortu zen lehenengo ikastola.

¹ FERNANDEZ, Idoia: *Oroimenaren hitza, ikastolen historia 1960-1975*, UEU, [Bilbo] 1994, 57-61 or.

Elbirarekin hasieratik irakasten aritu zen andereño batek, Karmele Esnalek, 1950eko hamarkadan Donostian sortu ziren ikastolei buruz honako hau dio: “Euskara garai honetan gaixo zegoen eta guk euskara mantentzen lagundu nahi genuen, galdu ez zedin. Horregatik ireki genituen ikastolak, umeei euskaraz ikasteko aukera zabaldu nahi genielako”.² Ikastola hauek modu erabat klandestinoan egiten zuten lan, akademi pribatuen itxura harturik, klase partikularrak bailiran. Ikas materialak oso urriak ziren, gehienetan gerra aurreko euskarazko testuliburu zaharrak, *Martin Txilibituren* antzekoak, bestela irakasle bakoitzak bere testuak prestatzen zituen ahal zuen moduan eta gero kopiak ateratzen zizkioten. Baliabide eskasia honen adibide garbi bat zera da, Elbira Zipitriaren etxean, hasiera batean egongelako lurrean eserita eman behar izaten zituztela klaseak, lekurik ez zegoelako.³

“ENSEÑANZAS URUMEA”, HERNANIKO LEHEN IKASTOLA

Urumea ikastola noiz eta nola sortu zen jakiteko, ikastolaren fundatzaile batengana jo dugu, Joxe Laburu Illarramendi. Lagun talde batekin batera ikastola sortzeko ekinbideari heldu zion Joxek, baina beti ere Elbira Zipitriaren arrastoak jarraituz: “Asko baliyo zuen emakumia” omen zen ikastolen sortzailea. Ikastolak aurrera egiteko lagundu zutenetako batzuk Iñaki Gurutzeaga, Santa Maria eta Juanito Goia izan ziren; baina hasierako andereñoak Maritxu izena zuen. Erasungo emakume honek Elbirarekin batera irakatsi zuen Donostian, honen metodo eta teknikak jarraituz:

...Andereño Maritxu hau berez, Erasungoa zan, hau sartu zanian, beste batzuk bezela, andereño Zipitriarekin eginak zituen kurtso batzuk. Zergatikan Elbirak, gerra garaian beste aldera ospa egin zuen [Iparraldera], han, metodo batzuk ikasi zituen frantsez eskoletatikan, Espainian oso atzera zaudenak. Orduan andereño hori [Maritxu], nolabait ere sartu zuen Juanito Goiak eta ekarri zuten honera eta hala hasi zen...⁴

² IRAETA USABIAGA, Ainara: “Donostiako Ikastolen Sorrera”, *Euskonews & Media*, 67 zbk. (2000/02/18-25)

³ Ibid.

⁴ 2002-JLI-01 elkarrizketa, hasiera-erdialdean

Ikusi daiteke beraz, Elbira Zipitriaren eskolakoa zen Maritxu andereñoaren bidez, zumaiarraren ikastola eredu jarraitu zutela Hernanin ikastola sortu zutenek. Hasierako lokala Oarso kaleko eraikin batean zegoen, lehenik solairu bat erosi zuten eta gero, leku hori txikia geratzen ari zenez, beste hainbesteko lokal bat erosi zuten aurrekoaren ondoan. Ikastola sortzeko, fundatzaileek herritarren babes handia izan zuten, batez ere abertzaleena, euskara sustatzeko irrikitan zegoen jendea; horrela, hasiera batean 50 bazkidek sinatu zuten ikastola egiteko fundazio akta. Dena den, Elbiraren Donostiako ikastolek bezala, Hernanikoak erdi ezkutuan jardun behar izan zuen, izena ere erdarazkoa eman zioten: “Enseñanzas Urumea”.⁵

Baina 1968 urtean aldaketa nabarmenak gertatu ziren hezkuntza arloan; Gipuzkoako Gobernadore Zibila zen Oltra-Moltoren agindu batek zioenez, eskola guztiek derrigorrez “Cartilla de Escolaridad” zeritzona eduki behar zuten. Honek agerian uzten zituen ikastola ezberdinen ezkutuko aktibitateak, agerian edo legez kanpo; beraz, Elbira Zipitriak, Mari Carmen Mitxelelak, Miren Teresa Alemanek eta Koruko Aldanondok, Euskal Herriko lehen ikastola sortzeari ekin zioten, Orixe Ikastola. Horretarako egokiena elizaren babesa izango zela pentsatu zuten eta Donostiako Andra Maria elizaren parrokoarekin hitz egin eta gero, eliza hau jarri zuten Ikastolaren titular moduan. Beste ikastola askok gauza berbera egin zuten eta eliza, berriz ere, euskal kulturaren babesgune bilakatu zen. Hernaniko Urumearen kasua ezberdina izan zen ordea, hauek ez ziren elizarekin kontaktuan jarri, Del Valle Lersundi militar famatuarekin baizik:

...Guk ez genuen elizan babesa hartu nahi izan eta asmatu egin genuen! Eta hau ez da apaizik ez zelako egon gero ikastolan eh! Setien jauna konferentzi bat ematera etorri zanian, neronek esan nion: “Eskerrak ez genuela elizan babesian jarri”. Leku askotan, gurian baino askoz zalaparta gehiagorekin ibili ziran eta gu bilduta geuden talde bat giñan, teniente bat jarri genuen [titular bezala] eta horrela moldatu giñan. (...) Guk eduki genuen diplomazi haundi bat hortan; hemen zegoen “Villa Ave Maria”kua [Del Valle Lersundi] eta guk propio hartu genuen hori...⁶

⁵ Ibid., erdialdean.

⁶ Ibid., erdialde-bukaeran.

Eragin handiko gizona zen Del Valle Lersundi, bere aita bezalaxe. Azken hau Alfontso XIII erregearen laguna izan omen zen eta aurkikuntza garrantzitsuak egin zituen Afrikako Iparraldean - Melillan Rif meatzeak aurkitu zituen -; gainera Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteko kide eta laguntzaile sutsua ere izan zen. Behin, gerra ondoreneko fusilamenduak zirela eta, kritika gogorak jaurti zituen haien kontra, horren ondorioz zenbait soldadu bere etxera joan ziren; honek, bere bila zihoazela ikustean, San Fernandoren Gurutzea jarri zuen soinean, hark egindako aurkikuntzengatik emandako kondekorazioa, horren aurrean soldaduak tente jarri behar izan ziren, baina hala ere zenbait egun pasa zituen atxiloturik Lersundi jaunak. Beste batean, kapitain modura zegoela, Lezon, Gobernadore Militarrak sekulakoak eta bi esan zituen euskaldunen kontra; hori ikusita, Del Valle Lersundik ezpata atera eta desafiatu egin zuen, bere ama iraindu zutela esanez, gobernadoreak orduan, hitza erretiratu behar izan zuen.⁷

Urumea ikastolaren babesle modura, Del Valle Lersundiren seme bat aritu zen, teniente kargua zuen militarra. Behin ikastolan jaialdi bat egin behar zela eta, bertsolariak ekarri behar zituzten, baina Gobernu Zibiletik bertsolariak zer kantatu behar ote zuten galdetu zioten, honek nola jakin ordea, bat-batekoa baldin bazen! Dena den: *...behin baina gehiagotan, gauzak gaizki jartzen baziran, hau joaten zen, ikastolako martxari oztoporik ez jartzeko...* Baina hala ere, oztopoak ugariak izan ziren ikastola honentzat, guardia zibilen bisita behin baino gehiagotan izan zuten eta falangeko emakumeen sekzioak ere ikusketak egin zituen. Urumeak aurrera jarraitu zuen eta, urte batzuk pasatu eta gero, eraikin berria erosi zuten, hasiera batean "Padres de Familia" elkartearen eskuetan zegoena eta gero, gaur egun ezagutzen dugun Urumea ikastola bihurtu zena.

LANGILE IKASTOLA ETA FREINETEN METODOLOGIA

1970. hamarkadan egoera politikoa eta soziala guztiz nahaspilatua zegoen. Euskal abertzaletasunaren barnean banaketa bat gauzatzen ari zen, euskal gizartean sektore aurrerakoi berri bat sortzen. Hezkuntza, gizartean barneraturiko arlo garrantzitsu bat zenez, ez zen mugimendu berri hauetatik at geratu.

⁷ Ibid., bukaeran.

Urumea ikastola sortu zenean, abertzale guztiek bat eginik sortu zuten, baina urteak joan ahala ikastola barnean aldaketa eta gatazkak sortzen hasi ziren. Gatazka hori “h”-ren inguruko eztabaidan nabaritu zen seriooki ikastolan: ...“b” sartu edo ez sartu gutxienekoa zan! Horren azpian zegoen *diferentzi ideologiko bat*...⁸ Abertzale kontserbadoreenen artean “h” jartzea ukatzen zen, aurrerakoienak berriz hizki honen alde jarri ziren. Elizaren aldeko eta kontrako jarrerak ere ikastola barruko eztabaidagai bihurtu ziren, batzuek ez zuten erakunde honen bitartekaritzarik nahi Jainkoarekin harremanetan jartzeko eta aitortza komunitarioak egiten hasi ziren.

1970. urte inguruan Elizatxo auzoa eraiki berria zen eta bertan eskolaurre bat jartzeko proposamena egin zioten Urumea ikastolari, modu autonomo batean funtzionatuko zuen ikastola bat. Eskolaurre horretan - Aita Kardaberaz eskola aurrea - lehen aipaturiko gizarte talde berri horretako partaideak biltzen hasi ziren; Begoña Ogando bertan hasi zen irakasten, eta esaten duenez gero eta ume gehiago eramaten zituzten:

...Ikastolan lanian ari giñan eta sortu ziran bi talde. Momentu horretan elizatxon eraiki zan eskola aurrea eta ni jeitsi nintzan eskola aurre hortara. Akordu bat egin zan, Elizatxokoek eskatu zuten, sei urte arte hor egotia eta sei urtetik aurrera gora [Urumeara] igotzia. Orduan jendea hasi zan umeak gure eskola aurrera bidaltzen, denetatik: ezkertiarak, sozializazioaren aldekuak, euskaldunak, PNVrekin ados ez zeudenak... PNV ari zan bere gazteekin puskatzen. Orduan iritsi giñan biru gela iza-tera eta noski, Urumean eman zan kristoren konfliktoa...⁹

Elizatxoko eskolaurrean bildu zen talde sozial berri honek, sekulakoak entzun behar izan zituen hasiera horretan, ikastola “politizatzen” ari zirela, ateoak zirela eta klaseetatik gurutzeak kentzen zituztela, maoistak omen zirela... Baina hori, gizartean zegoen gatazkaren isla besterik ez zen. Urte batzuk horrela egon eta gero, guraso talde batek hala erabakirik - Koldo Goia, Alzaga, Ixiar Goikoetxea... -, ikastola berri bat sortzeko azken pausoak eman zituzten; horretarako, lehenagotik kooperatiba bat eratu zuen lagun talde batekin kontaktatu zuten - Joxetxo Zubimendi etab. -, talde

⁸ 2002-BOO-01 elkarrizketa, erdialdean.

⁹ Ibid., erdialdean.

Hasieratik, arazo larriena diru eta baliabide falta izan ziren, hau lortzeko, ikastolaren sortzaileak herritarrekin harremanetan jarri ziren, irakasle, guraso eta ikasleen artean ekimen ugari burutuz: *...Rifa batzuk saltzen ziran eta hori zan burubauste bat gurasoentzako, zergatikan ez bazituzten saltzen beraiek ordaindu behar zituzten denak! Baino jende asko eduki genuen alde orduan Hernanin. (...) Ez genuen lokalik eta orduan jendiak lan asko egin zuen: dirua jarri zuen, San Juanetako taberna jarri zan... Baina jendea bain kobentzituta zegoen! Gurasoen aldetikan eta... nik behintzat oso gustora bizitu nuen...*¹²

Langile ikastolak Floridan, Elizatxon, Zikuñagan eta herri gunean gela ugari ireki zituen, 1981ean Euskal Eskola Publikoaren Aldeko kolektiboan sartu zen, 1982an “Kilometroak 82” ospatu zen Hernanin Langile ikastolarantzat dirua lortzeko eta 1993an eskola publiko bihurtzeko prozesuan bete betean parte hartu zuen.¹³

“...Euskadi bakarra da gure aberria!”

1951. urtea, urte benetan tristea izan zen Euskadiko Gobernuarentzat, Agirre lehendakariaren alargunak, Maria Zabalak, horrela esan zuen behin: “Agian hori izan zen nire senarra burumakur eta triste ikusi nuen momentu bakarra...”.¹⁴ Estatu Batuekin eta ingelesekin urte luzeetan kolaboratu ondoren, hauek, Francoren erregimenaren aldeko apustua egin zuten; gainera, urte berean gobernu frantsesak, Euskadiko Gobernu Parisen zuen egoitzatik bota zuen, bertan espainiar enbaxada ipiniz. Honek, Amerika eta Europa Frankoren kontra ezer egiteko prest ez zeudela erakusten zuen. Egoera berri bat sortu zen, abertzale eta antifrankisten artean etsipen handia zegoen, are gehiago 1951ko grebak izan zuen porrotaren ondoren, *barnealdean* eta *kanpoaldean* ez zen erresistentziarako indar zipitzik geratzen.

Testuinguru horretan sortu zen 1952an Ekin, abertzale “zaharren” etsipenari aurre egin nahian bezala, baina inongo mugimenduren buru izateko asmorik gabe. Jose Luis Alvarez *Txillardegi*, Iñaki Gainzarain, Iñaki Illarra-

¹² 2002-IER-01 elkarrizketa, bukaeran.

¹³ Langile ikastolako web gunea: Historia Laburra.

¹⁴ *Euskadi eta askatasuna*, I liburukia, Txalaparta, Tafalla, 1993, 25 or.

mendi eta beste batzuek osaturiko ikasle talde gazte bat zen eta *Ekin* talde honen aldizkaria. Bi ziren *Ekin*-en helburuak, bata bere kideei formazio intelektual zehatz bat ematea, Euskal Herrira begira, noski; bestea, talde erabat klandestinoaren sortzea, frankismoaren errepresioaren atzaparretan ez erortzeko. Hortik aurrera, *Ekin*-en hedapena hasi zen, batez ere EGiko gazteekin harremanetan jarri zirenean. Baina EAJ-k *barnealdean* zituen buruek - Ajuriagerra jaunak gidaturik- ez zuten korrante hau begi onez ikusi eta bien arteko tirabirak nabarmenak izan ziren. Azkenean, *Ekin* taldekoek EGlrekin zituzten harremanak haustea erabaki zuten.¹⁵

EUSKADI TA ASKATASUNA

1958ko abendua zen ETA izena lehen aldiz aipatu zenean. ETARA, EGiko gazte andana bat pasa zen, batez ere Gipuzkoan, izan ere, *Ekin* taldekoek intelektual fama zuten, maila kultural handiagokoak ziren eta bizitasun gehiago erakusten zuten gauzak aldatu nahi izateko. ETAREN sorrerak, uste-kabeen harrapatu zituen bertako agintariak, hernaniarrak ere ohartu ziren horretaz:


...Neri iruditzen zait, gertatu zanian ETAKo kontu hori izan zala PNVko banaketa bat. Gazte jendia ziran, oso bizkorrak, eta neri iruditzen zait hemengo agintariak hartu zituela ustegabian bezala; eta orduan piskanaka piskanaka indar gehiago hartu zuten. Askoz ere jende bizkorragua ziran, gaztiak, jakindura haundiya zutenak, bemen Hernaniko jende asko egon zan sartuta...¹⁶

Jakina den bezala, ETAK, jaio orduko hitzetatik ekintzetara pasatzea erabaki zuen, garai haietan erabat debekaturik zeuden ekimen klandestinoak antolatu zituzten, gizartearentzako oso ikusgarriak suertatzen zirenak, hauen artean, batez ere, ikurriñak jartzea eta pintadak egitea ziren erabilienak. Jendeak pixkanaka ETAREN izena gero eta gehiago entzun zuen, gauza berri bat zen, gizarteak eskatzen zuenari erantzuten jakin zuen erakunde bat eta ondorioz jende asko erakarri zuen bere baitara:

¹⁵ Ibid., 26-30 or.

¹⁶ 2002-ILG-01 elkarrizketa, erdialdean.

...ETAk bere lehenengo ekintzak egin zituen eta neretzako oso gauza berria zen hori, herri bat ginela entzutea. Euskera ere hainbeste denboran debekatuta egon zen... eta ni gogoratzen naiz zera esaten nuela: “Hori bai jende aurrerakoia [“Gente echada para adelante”], ez dute beldurrik!”...¹⁷



Jexux Egiguren.

Jexux Egiguren autobus gidaria zen, Donostiatik Iparralderako bidaia egiten zuen langilea. Jexuxek gerran, abertzaleen alde hartu zuen parte eta bere azalean gerrako eta gerra osteko errepresio bortitza jasan behar izan zuen, Santoñatik kartzelaratua izan baitzen eta hamaika bidaia egin baitzituen etxera itzuli arte. Baina abertzale sutsua izaki, Euskal Herriaren egoera aldatzeko prest zegoen gizona zen Jexux, etxe-ko babesean gordeta zenbait kuttun balioitsu zituen, ikurriña zahar bat eta kartzelan hil zuten aita batek bere alabari bidalitako gutun bat. ETA sortu zenean, haize berriei eusteko indarra geratzen zitzaion Jexuxi, bere lanbidez aprobeztaturik, *kanpoaldek barnealdera* zenbait gauza pasatzen zituen erakundeari laguntzarren.

Aita atxilotu zutenean, orduan konturatu zen Ixiar - Jexuxen alaba -, hura gauza serioa zela; ordu arte, erakunde horri buruzko erreferentzia eskas batzuk besterik ez zituen. Madrilen ari zen ikasketak burutzen eta 18 urteko neska gaztea zen: Nola jakin behar zuen berak, ETA, Francoren diktaduraren kontrako erakunde sendoena izango zela? Aitak hilabete eskas egin zuen kartzelan, gerra garaiko une tristeak gogoratuz, noski; ETAko lehenengo atxilotuetako bat izan zen Jexux Egiguren, baina ez zen azkena izango, ez horixe.¹⁸

¹⁷ 2002-MCL-01 elkarrizketa, erdialde-bukaeran.

¹⁸ 2002-IER-01 elkarrizketa, erdialdean.

“BANDERITAS VASCAS”

1959ko Aberri Egunean, Gipuzkoako zenbait herritan lehenengo pintada eta ikurriñak agertu ziren; urte bereko abuztuan, Franco Donostian zela, Kontxako badian ikurriña ugari agertu ziren, ETAk ekintza hau bere gain hartu zuen, horrela zioen: “Abuztuaren 15. egunean, Donostia guztia ikurriña txikiz beteta agertu da, bezperan Kontxako badia botatakoak. Esaten denez, hauetako asko Kontxan ainguraturik zegoen Francoren *Azor* yatearen ondoan agertu dira. Ez da egon ETako atxiloturik”.¹⁹

Joseba Elosegik Artzain Onaren kanpandorrea ikurrina jarri zuenetik, hamabost bat urte pasa ziren eta berriro ere kalean, mendian eta kanpandorreetan euskal ikurra ikusi zitekeen. Imanol Larretxeak dioenez, aberri egunetan, panfletoak eta paperezko ikurriñak botatzen zituzten kaleetatik, gainera Santa Barbaran ere jarri izan zuten noiz edo noiz ikurriñarik edo Iñaxio Mari Zubeldiak dioen bezala, argi indarren kableetan, inork kendu ez zitza. 60. hamarkada horretan euskaltasuna erakustea posible zen lekurik izanez gero, abertzaleak hara joaten ziren, mendira esate baterako. Orduan “Mendi-Gain” izeneko talde bat zegoen Hernanin, talde honetan, mendi ezberdinetara irteerak antolatzen zituzten, Adarra (lehenago “Age-re”) omen zen igotzeko mendi maitatuena:

...Urte hasieran, orduan obitura zan Adarrara joateko eta han izaten zan gure “expansiyua”, mendian ikurriñak izaten ziran eta behin Xoxokatikan gora sekulakua izaten zan! Ikurriñak atera eta euskeraz kantatzen... nabarmena zan jende guztiya abertzalia zala. Gero, handikan bera egoten ziran guardia zibilak eta dena gorde bihar zenuen edo bestela harrapatuz gero, detenitu egiten zizuten.(...) Hemen Hernanin Aberri Egunian ikurriñak isilka botatzen genituen, ikurriñak eta propaganda, lur guztiya ikurriñez betia egoten zan...²⁰

Mendia izaten zen jendearen “expansiyua” Imanol Larretxearen esanetan, euskaldun orok bere sentipenak beldurrik gabe adierazteko lekua, baina momentu batzuetan hori ere kontrolatu nahi izan zuten. Orduan

¹⁹ *Aberri*, 10 alea, 1959 uztaila-abuztua.

²⁰ 2002-ILG-01 elkarrizketa, erdialdean.

Urbiako zelaietan jende asko biltzen zen, bertan euskaltasuna adierazi nahirik; Hernanitik ere jende asko joaten zen, Iñaxio Mari Zubeldia zen hauetako bat eta mendizalez jantzitako bi polizia edo kazetari, jendeari argazkiak ateratzen nola harrapatu zituzten ongi gogoratzen da. Hurrengo urtean ez zen ekitaldirik izan Urbian (1968), erabat debekatu baitzuten, gainera Arantzazutik Urbiaraino dagoen bidean guardia zibil asko jarri ziren inor pasa ez zedin, hauetako batek zera esan zuen: Ia zergatik egin behar zituzten zaintza horiek? Jendeak mendira joan nahi bazuen, joan zedila, berari ez zitzaiola batere axola; komentario hori egin zuenean, bere kargu zegoen tenienteak tiro bat eman eta bertan akabatu zuen, hori Arantzazuko santutegian zegoen hernaniar batek ikusi omen zuen pare parean.²¹

Belaunaldi berrien haize iraultzaileak

HERRITIK MUNDURA, MUNDUTIK HERRIRA

XX. mendearen bigarren erdialdetik mundua aldatzen hasi zen, Kuban, 1959an Ernesto Guevarak eta Fidel Castrok kubatarren laguntzatz iraultza sozialista egin zuten, beste leku askotan ere saiakerak egon ziren eta *Che* argentinarra, gazte iraultzaileen eredu bilakatu zen. Estatu Batuetan “hipiek” beste bizi eredu bat aldarrikatzen zuten, bakezaleek Vietnamgo gerraren kontrako protestak egiten zituzten eta arrazismoaren kontrako borroka martxan zegoen. Kuban iraultza sozialista hasi zen, beste leku askotan bezala. European ere gauzak aldatuz zihoazen, gizarte iraultza lehertzeaz zegoen, izan ere ongizate estatuaren sorrerarekin, jendeak, ordu arte ez zituen hamaika gauza eskuratu ahal izan zituen; formazioa izan zen hauetako bat, ikasle kopurua asko ugartu baitzen. Unibertsitateetan, gazteek iraultzaren aldeko apustua egin zuten, ideia ezkertiar erradikalak onartu eta Mao-ren *Liburu gorria* edo Marx-en *Kapitala* irakurriz, ikasgeletan mundu hobego bat nola egin eztabaidatzen zuten, kapitalismoaren ereduarefusatuz.²²

1968ko maiatzean zerbait berezia gertatu zen Parisen, ikasleek Vietnamgo gerraren kontrako protesta ugari egin zituzten, eta errepresio basatia jaso zuten; erantzun gisara greba orokorra egin zen eta greba hau gizarte

²¹ 2002-IZM-01 elkarrizketa, erdialde-bukaeran.

²² MARTINEZ CARRERAS, Jose Urbano: *Historia del mundo actual*, Marcial Pons, Madrid, 1996.

osora zabaldu zen, istiluek matxinada kutsua hartu zuten baina azkenean egoera lasaituz joan zen. “Frantziako Maiatza” gertatu zen urte horretan, munduko beste leku askotan, batez ere unibertsitateetan, protestak, aldarrikapenak eta istiluak egon ziren; Ixiar Egiguren Madrilera joan zen unibertsitate ikasketak egitera eta han, espainiar hiriburuko ikasle giroa gertutik bizi izan zuen:

...Madrilen ere mobida haundiak ziran orduan (...) Ni gogorazten naiz ze katramila nituen buruan, ni talde erlijioso batian negoen baina nabiz talde erlijioso batian izan, nik ere nere griña naukala ikusten nuen eta joan nitzan hitz egitera (ikasle erresidentziako) zuzendariyarekin eta esan nion nik pentsatzen nuela guk ere parte hartu bihar genuela prozesu horretan. Baina horrelako gauza bat giro hartan “fikziozko zientzia” egitea zan...²³

Espainian, gizarte iraultzak ezaugarri ezberdinak zituen ordea, bertan diktadura bat zegoen eta honek ez bakarrik ikasleak, baizik eta sektore guztietako jendea mugitzen zuen, langileak frankismoaren kontrako borrokaren abangoardian egon ziren, esaterako. Madrilen, 1968ko martxoan unibertsitatea itxi egin behar izan zuten, ikasleen eta polizien arteko istilu larriak zirela medio, urte bete beranduago berriro ere itxi behar izan zuten, baita Bartzelonakoa ere. Ikasle giroan, diktaduraren kontrako jarrera nabaria zen.²¹

Rafa Egiguren Santo Tomas Lizeotik Suitzara joan zen ikastera, Ramon Sainzarbitoria, Luis Mari Gorrotxategi, Matxain eta Txato Agirrerekin batera; han zeudela, maiatzean Parisen gertatu zen matxinadaren berri jakin zuten, garai berezia izan zen Rafarentzat, gauza asko gertatu baitziren: *...Irakurtzen genituen ale zabar batian Frantzian gertatutakuak eta gu geunden txundituta, “Che”ren heriotza ere orduan gertatu zan [1967an], Inñaki Sarasketa, nere lagun izango zana atxilotu eta Txabi [Elxebarrieta] hil zuten...²⁵* Ikasle giroan politika asko nabaritzen zela ziurtatzen du hernaniarrak.

²³ 2002-IER-01 elkarriketa, erdialdean.

²⁴ RUIZ AYUCAR, Angel: *Cronica agitada de ocho años tranquilos 1963-1970. “De Grimau al Proceso de Burgos”*, San Martin, Madril, 1974.

²⁵ 2002-RER-01 elkarriketa, hasiera-erdialdean

Industrializazioak, diktaduraren liberalizazioak eta teknologia berrien globalizazioak eraginda, moda eta pentsamendu berriak sartu ziren euskal gazterian: *...Futbolaren eta masifikazioaren kontra geunden, beste alternatiba batzuk bilatu behar genituen, mendia zala, sormena, pintura... momentu horretan deskubritu nuen bizitza ez zala lana, ezkontza eta seme-alabak, beste mundu bat iriki zitzaidan. Gazteok ere beste harremanak izan nahi genituen, mutilak neskekin kuadrilak izatea...*²⁶ Begoña Ogandok Herri Gaztedin sartu zenean, baloreen aldaketak jaso zituen; atzerrian egon ziren aldaketak, pixkanaka Euskal Herrira ailegatzan ari ziren eta gazte askok besoak irekita jaso zituzten balore hauek. Gaur egun, bizitzak eman dien esperientziarekin, erromantiko xamarrak izan zirela esaten dute askok, orduan egiten zituzten erokeriak edo buruetan zituzten ideiak, aski erromantikoak omen ziren batzuentzat: *...Orain zabartu egin naiz, baina orduan gaztiak giñan eta beste ikuspegi bat geneukan... erromantiko xamarrak ere bai...* Iñaxo Mari Zubeldiaren hitzak dira hauek.

Janzteko modua eta itxura ere ezberdinak ziren ordurako, gazteek kanpoko modak jarraitu zituzten, galtza bakeroak, alkandora estuak, ile luzea eta bizarra... Abestiak ere hala dio: “...euskera salbu ikusi arte ez dut kenduko bizarra!” Gizartearen egoera nola dagoen hobekien erakusten duena musika izaten da, eta nola ez, garai hauetan musika oso tresna garrantzitsu bilakatu zen, musikaren bidez gizarte honek bere aldarrikapenak adieraz zitzakeen. Musikaren inguruan merkatu berri bat sortu zen, binilozko diskoak barra-barra saltzen ziren, ordu arte inoiz egon ez zen musika kontsumo handi bat hasi zen 60. hamarkada horretan: *...Ordu arte gazteriak ez zuen musika kontsumitzen, ez zegoen merkaturik. Hor gertatu zan “boom” ekonomiko bat egon zala; gazteriak lortu zuen ordu arte sekula izan ez zuen botere adkisitibo bat eta klaro, industriek produktuak eskaini zizkioten merkatu potentzial horri. Orduan sortu zen musikaren fenomeno, lehendabizi Ameriketara, gero Europan eta honera iritsi zan beranduxeago...*²⁷

Amerika eta Ingalaterratik zetorren musika berria, hasiera batean bitxikeria bat iruditzen zitzaien gazteei, hala ere “eskizofrenia baten moduan” bizi omen ziren, euskaldunak baitziren, euskal ohiturak defendatu nahi baitzituzten, baina kanpotik zetorren modernitatea ere gustatzen zitzaien.

²⁶ 2002-BOO-01 elkarrizketa, erdialdean.

²⁷ 2002-RER-01 elkarrizketa, erdialdean.

Modernitate hau ordea, askok baztertu egiten zuten, erdalduna zela esanez. Benito Lertxundiren hitzetan:

“Gitarra jotzeagatik ez omen ginen euskaldunak. Zeruko Argian kritikari euskaltzaleek gure aurka egin zuten, gitarra erabiltzen genuelako “Nola liteke - idatzi zuten -, ez dugu ulertzen nola erabil daitekeen euskalduna ez den euskal instrumentu hori. Noraino iritsi garen!”²⁸

Baina lehenengo talka pasa eta gero, euskaldun zen orori gustatu zitzaizkion *Ez Dok Amairuren* (1965-1972) abestiak eta emanaldiak; Mikel Laboa, Benito Lertxundi, Xabier Lete, Artze anaiak edo Lurdes Iriondoren eskutik, abesti berriak sortu zituzten, euskaltasuna eta joera berritzaileak uztartuz, beti ere gizarte eta politika aldarrikapenen ildotik. Iñaxio Mari Zubeldiak gogoan dauka Lurdes Iriondoren ahotsa lehenbiziko aldiz entzun zuen eguna, Lurdesek Hernanin kantatu zuen, artean *Ez Dok Amairu* sortu gabe zegoenean:

...Antzerki bat izandu huan [Zintzotasunean], eta badakik nola izaten zan atal erdiya edo deskansua... Eta Xabier Zugastik, “Kattarrok”, esan zidan: “Hi, nik ezautzen diat Urrietako neska bat, ahotsa zaukek zoragarriya! Eta nabi baldin badek, atal erdi hortan, berak kantatuko dik.”. Honen anaia apaiza zen orduan eta haren bitartez ekarri genuen, Xabierren [Lete] emaztia, Lurdes; txundituta geratu giñan, ze ahotsa! Zoragarriya! Antzerkia ikusten beste talde bat zegoen, ez dakit zertan ibiltzen ziran, baina Lurdesekin interesatuta gelditu ziran; esan daiteke handikan abiatu zala Lurdesen karrera...²⁹

Ez Dok Amairuren abestiak oso ospetsu egin ziren, orain, disko horiek etxean gordeta daude, erlikiak balira bezala. Orduan ere hala zen, gordeta edukitzen zituzten, baina ezkutuan, Espainian hauetako disko asko debekaturik baitzeuden. Diskoak Frantzian produzitu eta ezkutuan *hegoaldera* pasatzen zituzten garaiak ziren haiek, ez bakarrik *Ez dok Amairurenak*, baita beste askorenak ere, Michel Etxegarayren *Batzuek herria...* diskoa

²⁸ 2002ko urriaren 20ko *Zazpika* aldizkarian argitaraturiko elkarrizketan.

²⁹ 2002-IZM-01 elkarrizketa, erdialde-bukaeran.

esaterako, bertan honela ipintzen baitzuen: “Zapalduta dagoen Euskadi guztiari diska hau eskeintzen diot”, *Gudari* izeneko diskoa ere “Made in France” egina zen. Abesti horien artean gogoangarriak izan ziren *Zenbat gera, Loretxoa, Euskalerra nereea, Apur dezagun katea...* eta beste asko. Kantari hauekin jaialdiak antolatzen ziren; Hernani inguruan, Astigarragan egin zutenaz gogoratzen da Juanjo Uria, beretzako oso hunkigarria izan baitzen:

...Jaialdiak egoten ziren, orokorki Euskal Herrian eta bemen inguruan ere bai, Hernanin, Astigarragan... orduan jaialdiak izaten ziran oraindik dirauten artistekin, batez ere Xabier Lete, Benito Lertxundi, Mikel Laboa... Nik gogoan daukat Astigarragan antolatu zan jaialdi eder bat, gau batian, dekorazioaz eta guzti gogoratzen naiz iya, nik izango nituen hemeretzi urte seguru aski...³⁰

4.2.- Trantsizio politikoa: Diktaduraren amaiera (1968-1981)

Frankismoaren kontrako lehenengo mugimenduak hasi zirenetik urte dezente pasa eta gero begibistakoa zen, Francoren osasuna ez zela oso ona, denek uste zuten Francok ez zuela asko iraungo, urte edo hilabete gutxiren buruan hil egingo zela eta, nahiz eta honen erregimenari jarraipen bat emateko jende andana bat atzetik izan, Franco hilez gero, frankismoa bera ere hil egingo zela uste zuten askok. Baina hilabeteko gauza izango zena, urte askoan luzatu zen. Borroka urteak izan ziren.

Gizarte tradizionala hausteko bidean: Feminismo berria

Rosa Luxemburg-ek, emakumea izanda politikan aritzeagatik egiten zizkioten irainei, isiltasunaz erantzuten zien: “Nire defentsa bakarra isiltasuna da, duintasuna gordetzeko dudan bide bakarra baita horixe”³¹. Emakumezkoen sufragio unibertsalaren aldeko borroka urteak ziren horiek, emakumeek bozketetan parte hartzeko eskubidea aldarrikatzen zuten eta lehe-

³⁰ 2002-JUZ-01 elkarrizketa, erdialdean.

³¹ AGIRRE, Lorea: *Rosa Luxemburg*, Elkarlanean, Donostia, 2000, 39-40 or.

nengo mugimendu feministak zentzu horretan bideratu ziren. Zeelanda Berrian 1893an eskubide hori lortu zutenetik, urtetik urtera emakumezkoen sufragio unibertsala herri gehiagotan ezarri zen, Ingalaterran eta EE.BBetan protesta eta istilu gogorak gertatu ziren, baina Lehenengo Mundu Gerratea bukatzerako emakumeek botoa eman ahal izan zuten. Espainian, emakumeek 1931n lortu zuten bozkatzeko eskubidea, II. Errepublikan iristearekin batera.³²

Hernanin, emakumeek 1933an bozkatu zuten lehen aldiz, Autonomia Estatutuari buruzko erreferendumean. Baina eskubide horren lorpenak ez du esan nahi emakumeak oraindik zapalduta ez zeudenik, izan ere hezkuntza edo lanbide askotara ez zuten sarbiderik izaten. Gainera, irakurtzen eta idazten zekiten gizonak askoz gehiago ziren eta emakumeak bigarren maila batean geratzen ziren horretan ere.



Autonomi estatutua bozkatzeko erreferenduma, 1933an. Hauteskunde horietan eman zuten emakumeek lehen aldiz botoa.

³² *Emakumeak eta feminismoa mendebaldean: Gaiak*, Donostia, 1999, 93-98 or.


XIX. mendean emakumeak lan munduan sartuz joan ziren, baina oraindik zerbitzu arloko lanak burutzen zituzten, hirugarren sektoreko lanbideak. Saltzaile modura, erizaintzan, jasketan, zerbitzari lanetan... baita bulegoetan ere - mekanografian -, ostalaritza eta neskametza izan ziren emakumeen lanbiderik ohikoenak.³⁵ Hernanin ere, umeak zaindu eta garbiketak egiteko lana emakumeek zuten, Gregori Otamendik, adibidez, Nemesio Lealen etxean egin zuen lan eta Iñaxi Otamendik, berriz, Adarragarren etxean. Mañoli Zigararen etxean neskame bat zuten, apopiloak hartzen baitzituzten bertan eta lan handia zegoen guztia garbitzen; Mañolik, berriz, ostalari bezala, tabernan edo etxean laguntzen zuen; gauza bera gertatzen zen "Casa Egañan", bertan ere etxeko garbiketak neska batzuek egiten zituzten, arropak garbitzera Latsunbera joaten ziren hauek eta han emakumeak besterik ez ziren egoten labandera lanak egiten.



Santa Luzia egunean Tilosetan dantzan, 1909an.

³⁵ HOBBSAWN, Eric: *Historia del siglo XX*, Critica, Bartzelona, 1996, 312-322 or.

Emakumeek lantegietan lan egitearen kontrako jarrera oso nabarmena zen XIX. mendean, hauen egitekoa etxean egotea zela eta lan hau beraienezko duina ez zela argudiatzen zen. Gainera, emakumeak gizonari lana ostean ziola pentsatzen zen. Baina bizi-maila baxuak behartuta eta lan-eskaintza handiak eraginda, emakume asko lantegietan lan egiten hasi ziren, enpresariak nahiago izaten zituzten emakumeak, soldata baxuagoa ordaintzen zitzaielako eta hain iraultzaileak ez omen zirelako. Iraultzaileak ez zirenik ez da sinetsi behar ordea, XX. mende hasierako Bizkaiko emakume langileen greba bortitzek alderantzikoa erakusten digute behintzat.³⁴



Emakumeak
Hernaniko
Royalta goileta
lantegian lanean,
1914. urtean.

Emakumeak ehun lantegietan edo manipulaziorako esku trebeak behar ziren lantegietan hasi ziren lanean. XX. mende hasieran Hernanin baziren bi lantegi ehuna lantzen zutenak, *Morencos* eta *Santiago Carrero* ehun lantegiak ziren hauek. Azken honetan, gerra osteko miseriak behartuta, Josebe Goiak egin zuen lan, berak kontatzen du nola sartu zen lan munduan:

³⁴ Ibid.

...Nik eskola bukatu nuen hamalau urterekin eta gero etxian egoten nitzan, baina etxian ez zitzaidan gustatzen eta hama-zazpi urterekin Carreron hasi nitzan lanian amari ezer esan gabe. Eta hor hasi nitzan lanian erreleboka, goizeko seiretatik ordubiak arte eta bestiak ordubietatik hamarrak arte. Han danak emakumiak giñan, baina ofizinuak, arduraduna eta nagusiak gizonak ziran; noski, gizasmeren bat izango zan gurekin lana egiten, Atarrabiyo zan bat, baina gizon gutxi, danak emakumiak. Lana ez zan gogorra, gogorrena makinetakoa zan, ni makinetan aritu nitzan; "nabe" haundia zan eta bertan dena makinak ziran, haundiyyetan telarra egiten zan, zetazkua edo lanazkua, makina txikietan jertsia egiteko piezak eta goiko pisuan dena moztu eta josi egiten zuten. Dena zan emakumien lana, gaztiek, helduek eta ezkon-dutakoek ere egiten zuten lana han!...³⁵

Ehun lantegietan emakumeak gehiengo zirela garbi geratu da, nahiz eta ardura pixka bat eskatzen zuten lanak gizonezkoentzat utzi. Gainera, Josebek dioenez gazte eta helduak ibiltzen ziren Santiago Carreroren lantegian lanean, baita ezkonduak ere; honek ez du esan nahi azken hauek lanean aritzea ohikoa zenik. Izan ere, ikasketak bukatu eta lanean hasten ziren neskatilak asko ziren, baina behin ezkondu eta gero, askok etxea zaindu eta umeak hezteko ardura hartzen zuten, baina diru falta baldin bazegoen eta: ... *baldin bazegoen amona etxian kontu egiteko... segi lanian!...* Noski, kanpoan lana egin behar izaten zuten, baina etxean ere bai, etxeko lan guztiak emakumearen kontu geratzen ziren, gaur egun gertatzen den antzera.

XX. mendean zehar, 1936 arte, emakumeek bozkatzeko eskubidea eskuratu eta pixkanaka, ordu arte gizonezkoentzat omen ziren lanak egiten hasi ziren - ardura postuak oraindik hartu gabe, noski -, oraindik asko zegoen egiteko ordea, gizarte matxistaren sustraiak oso erroturik baitzeuden. Baina nork pentsatuko zuen Bartzelona edo Madrilgo kaleetan, noiz-bait emakume miliziarrek gerra egiten ikusiko zirenik? Hala ere, funtsean,

³⁵ 2002-JGZ-02 elkarrizketa, erdialdean.

emakumeen lekua etxean zegoen, arropak garbitu, etxeko lanak egin, umeak zaindu... Horretaz gain kanpoan lan egin nahi bazuten ongi zegoen, emakumeak etxetik kanpo lan egitea ez zegoen gaizki ikusia, baina etxeko ardurak baztertzen ez bazituzten eta soilik lan konkretu batzuk egiten bazituzten.

“...EMAKUMEEN MISIO BAKARRA ETXEA DA”

Gerra ostean, emakumeen eskubideek atzera egin zuten, Francoren diktadurak ezarritako legeek emakumeak gizartean izan behar zuen paperaren ikuspegi erabat kontserbadorea adierazten zuten. Hona zer zioen Falangeko Emakumeen sekzioak 1939ko ekitaldi batean: “Hemen gaude bilduta, gure garaipena ospatzeko eta gure soldaduak omentzeko bakarrik, emakumeei aberriaren eraikuntzan ezarri zaien misio bakarra Etxea baita.”³⁶



Falangearen Emakume Sekzioa Hernaniko plazan (orduan Espainiako Plaza) elizkizun baten ondoren, 1936. urtean.

³⁶ ANDERSON S., Bonie; ZINSSER, Judith: *Historia de la mujeres: Una historia propia*, II liburukia, Critica, Bartzelona, 1991, 643 or.

Atzerakada honen beste adibide bat, garai horretan sortu ziren Gastronomi Elkartean emakumeei egindako murrizketak ditugu - nahiz eta mende hasierako elkarteetan ere diskriminatzen ziren emakumeak -; elkarte haue-
tan emakumeek debekaturik zuten sartzea. Hernanin, erabaki hori hartze-
ko, Donostiako elkarte zaharrenen eredu eta ohiturek esaten zutena jarraitu
zuten besterik gabe, "Euskal Billera" elkarteak gerra aurretik Hernanin egin-
dako txangoek eragin handia izan zuten bertan. Tiburtzio Agirre, gaur, ema-
kumeen borrokarekin ulerkor agertzen da, baina berak esaten duenez,
orduan beste garai batzuk ziren eta ez zen horretan pentsatu ere egiten:

*...Obitura horrela zan, Donosti guztian, noiz sartu ziran ema-
kumiak? "Euskal Billera" eta soziedade inportantienetan ez
ziran sartzen... Ez zan pentsatu ere egiten! Orduan emakumiak
etxerako izaten ziran, lantokia etxian omen zaukaten, nabikua
eta gebiegi; amak eta amonak etxetikan nola aterako ziran? Ez
zegoen labadorarik eta ez ezer, arropak garbitu biharra...³⁷*

Esan bezala, frankismoak eta gerraren ondoren nagusitu zen gizarte
kontserbadoreak eraginda, feminismoak atzerakada nabarmena izan zuen,
emakumearen papera, berriro ere bigarren mailan geratu zen urte horietan.
Elizaren papera, hasiera batean guztiz kontserbadorea izan zen; ikusi bes-
terik ez dago zer pasatu zen emakume bat mezetara galtzak jantzita azaldu
zenean:

*...Andre bat seiretako mezara galtzakin joan zan, menditik
etorriko zan eta! Don Eusebiok aldaretik ikusiko zuen eta atze-
tik harrapatu zuen, heldu eta esan ziyon emakume horri:
"azken aldia izan dadila galtzakin etortzen zerala elizara
eh!". Eta horrela... gona estu xamarrarekin ibiltzen baziñan,
probokatzaile bat ziñan jendiarentzako...³⁸*

Baina onartu beharra dago, gero sortu ziren mugimendu asko, elizaren
babesean sortu zirela, esate baterako HOAC - Hermandad Obrera Acción
Católica - eratu zenean, bertan langileen borroka eta emakumeena uztartu

³⁷ 2002-TAZ-01(02) elkarrizketa, hasieran.

³⁸ 2002-RGO-01 elkarrizketa, erdialde-bukaeran.

ziren, legezko erakunde batek ematen zuen segurtasunaren babesean. Miren Clemente elizaren itzalean sartu zen langile borrokan, kontatzen digunez, frankismo garaiko emakume langilearen eskubideak erabat zapalduta zeuden, sexu arteko diferentziak nabarmenak omen ziren Zikuñaga-ko paper lantegian:

Ezberdintasunik garrantzitsuena soldatarena zen eta eskolan pasatzen zena lantegian ere pasatzen zen, emakumeek sekzio bat zuten eta gizonetzkoek beste bat, arduradun gehienak gizonetzkoak ziren. Lan mota ere ezberdina zen, emakumeek lan finagoak egiten genituen, horregatik eman zaio bain garrantzi gutxi emakumearen lanari. Eskulanak ziren, papera manipulatzeari, kontatzeari, eta indarra erabiltzeko garaian... guk laurbun kiloko bobinak mugitzen genituen! Baina gizon-emakume kontzeptu garbia zegoen: gizona makinetan, emakumea manipulazioan.³⁹

Gainera, lantegian lehen aipaturiko gizarte eredu matxista sustatzen zen, emakumeak familia osatu eta etxean egon behar zuela uste zen, hori zen hoberena. Ia-ia XIX. mendeko gizarte kontserbadorearen baloreak nagusitu ziren berriro ere, emakumeak lantegian lan ez egitea “lortu” omen zuen estatu frankistak: “Estatuak, emakumea lantegi eta tailerretatik askatuko du” esaten zuen orduko lege batek;⁴⁰ Horretarako ezkondu eta haurdun egonez gero, estatuak, emakumeak lantegitik irtetea behartzen zituen:

...Emakumea, etxekoandre tipikoa izatea asko baloratzen zen. Beraiek esaten zuten emakumeak ezkontzen zenean “dote” bat izatea lortu zutela, horrela deitzen zioten lana utzi eta familiara dedikatzeko ematen zuten kalte ordainari, derrigorrezkoa zen, lege bat, nabiz eta salbuespenak ere bazeuden. Gero, emakumeak lanean jarraitzeko eskubidea aldarrikatu zuen eta kontzeptu honekin amaitu zen...⁴¹

³⁹ 2002-MCL-01 elkarrizketa, hasiera-erdialdean.

⁴⁰ ANDERSON S., Bonie; ZINSSER, Judith: *Historia de la mujeres: Una historia propia*, II liburukia, Critica, Bartzelona, 1991, 641 or.

⁴¹ 2002-MCL-01 elkarrizketa, hasiera-erdialdean.

Eraso edo irain sexistak eguneroko ogia ziren arren, normaltasun osoz hartzen ziren, inongo salaketarik egin gabe: ...*Pentsaezina zen sexuari buruzko edozer astakeria esanagatik, gizon bati salaketa bat jartzea: "Zetxorakeria! Zer uste dezu!" esaten genuen, hori zen emakumeen obizko jokaera...*⁴²

"EMAKUMEA EZ DA JAIOTZEN, EGIN EGITEN DA"

Simone de Beauvoir *Bigarren Sexua* liburuaren idazlea 60. hamarkadako mugimendu feminista berriaren erreferentzi bilakatu zen, berak, emakumeek beraien eskubideak eskuratzeko borrokatu behar zutela garbi utzi zuen honako esaldi honetan: "Emakumea ez da jaiotzen, egin egiten da".⁴³ 68ko iraultzak, besteak beste, mugimendu feministaren borroka jaso zuen bere baitan, horretarako protesta eta ekimen ugari burutuz. Euskal Herrian mugimendu feminista berria garai horretan hasi bazen ere, ez zuen beste herrialdeetan bezalako indarririk hartu eta zenbait ezkertiar taldetan barnaturaturiko mugimendu bezala azaldu zen soilik.⁴⁴ Dena den, Francoren heriotzarekin batera eta diktaduraren amaierarekin, beste taldeen barruan sorturiko mugimendu klandestino honek indar handia hartu zuen. 1977an egin ziren Euskadiko Emakumeen Lehenengo Topaketetan ikusi zen hori, bertan ezarri ziren hurrengo urteetan emakumearen borroka izan behar zituen oinarriak.

Begoña Ogandok orain ere garbi dio, nahiz eta inongo talde feministatan ez parte hartu, bera feminista sentitzen dela, hori balore bat dela, galdu ezin den balore bat. Gazte garaian, Herri Gazterin hasi zenetik, orduko gizartearen balore kontserbadoreak aldatzeko asmotan ibili ziren, kasu askotan baita lortu ere. Emakumearen askatasunaren inguruan zera dio Begoñak:

...Hasieran Arri-Burni iriki zuten, gazte-zentro bezela eta gu hara joaten giñan, baina gero hortik pasa giñan tabernara. Emakumiak ez giñan bakarrik sartzen tabernara eta oso itsusi egiten zuen bakarrik sartzia; egun batian talde bat gelditu

⁴² Ibid.

⁴³ *Emakumeak eta feminismoa mendebaldean...* 99 or.

⁴⁴ *Auñamendi*: "El feminismo" Ikusi ere: VALLE, Teresa del: *Las mujeres en Euskal Herria. Ayer y hoy*, Orain, Hemani, 1996.

giñan tabernara bakarrik sartzeko, esaten genuen: “Baiña zergatik ez gera bakarrik sartuko?”. Aldatu zan dena; eliza utzi genuen eta hortik sartu giñan Herri Gazteria eta hor eman zan gure baloreen aldaketa, ez bakarrik emakumeena, neska-mutilen arteko harremanena ere, ez genuen mutil matxista hori nahi, baizik eta beste era bateko mutila... Hogei urterekin edo horrela hasi zitzaigun sartzen mentalitate hori; feminismoa zan emakumeen askatasuna...”⁴⁵

Baina hau guztia azaldu ostean Begoñak zera argitzen du “Dana teoria zan!”. Izan ere, ideia feminista eta baloreen aldaketen inguruko eztabaida asko bai, baina praktika gutxi izaten zuten garai haietako gazteek, nahiz eta zenbait kasutan aurrerapauso handiak eman, teoria praktikan jartze hori beranduago suertatu omen zen, desmitifikazioak ez ziren 70. hamarkada bukaera arte iritsi:

...Gu hasieran joaten giñan Tilosetara, guapak jarri, euskal dantza egin eta abar... Baina gero, baloreen aldaketa eman zanian, beste modu bateko dibersioan pentsatzen genuen eta esaten genuen “ba ez degu dantzara joan bibar” eta beste gauzak egiten genituen, baina azkenian joaten giñan zinera kriston porruk ikustera, intelektuala hori zalako eta hori egin bibar genuelako. (...) Baina hori zan mito bat, hori ez zan horrela, dana zan teoria eta elizak emandako eskema horiek puskatzea... baina kontu bat besterik ez zan! Gero bai, gero desmitifikatu zan birjinitatea, desmitifikatu zan plazerra ez zala sentitu behar, plazerraren mundua emakumearengan, emakumeak ezezkoa esaterik bazuela ta hori dana...”⁴⁶

⁴⁵ 2002-BOO-01 elkarrizketa, erdialdean.

⁴⁶ Ibid.

Lagun talde bat
dantzan. 70.
hamarkadak
aldaketa handiak
ekarri zituen
emakumeentzat.
Urte gutxian
janzkerak ere
aldaketa handiak
izan zituen.

Behean
makume koadrila
bat festan.



Euskal Herrian mugimendu femi-
nistak eta emakumeen eskubideak
lortzeko aurrerapausoak batez ere
diktadura ezabatu eta gero eman
ziren. 80 eta 90. hamarkadetan
zehar emakumeek eskubide ugari
eskuratu zituzten; baina ez hori
bakarrik, gizartean erroturik zegoen
matxismoari aurre egin zitzaion.
Hala ere, jakina da oraindik borro-
kan dabilzan talde feministak
badaudela, asko baitago egiteko
honen inguruan, matxismoak gizar-
te honetan dirauelako, batez ere
jende helduarengan, baina baita
gazteengan ere.

Itziarren semea

1968ko abuztuan, Guardia Zibilak Andoni Arrizabalaga ETako militantea atxilotu zuen Ondarroan. Arrizabalagak sekulako torturak jasan zituen, lehenik zortzi egunez Zarautzeko komisarian eta gero beste hamalau egunez Antigua auzoko Guardia Zibilaren koartelean. Tortura hauek guztiak jasan arren, Arrizabalaga isilik mantendu zen, ez zuen hitzik esan bere lagunak salatzeke. Hori dela eta Telesforo Monzonek *Itziarren semea, hori duk mutila* abesti ezaguna konposatu zuen... *Nihor salatu baino nabiago du bila...* Arrizabalagak jasandako tortura latzek egoera benetan larria zela adierazten zuten, “gerra beroaren hasiera” zela esan zuten bere senideek.⁴⁷

TXABI ETA MELITON

Andoni harrapatu zutenean, baziren bi hilabete Txabi Etxebarrieta Azpeitirako errepide horretan hil zutela, Guardia Zibilaren kontrol batean lurrera bota eta bi tiro eman zizkioten, Iñaki Sarasketak alde egin ahal izan zuen, baina beranduago, Errezileko elizan harrapatu zuten. Txabi, ETako lehenengo hildakoa izan zen, baina ez hori bakarrik, Francoren kontrako borrokan hil zen lehenengo gaztea zen hura, belaunaldi berri baten lehenengo hildakoa.

Bi hilabete geroago, ETak bere gain hartu zuen ekintza batean, Meliton Manzanasko polizi burua hil zuten, gizon hau oso ezaguna zen, urte luzeetan euskaldun ugari torturatzeagatik. Manzanasko hilketa jende askok ospatu zuen: *...Ni gogoratzen naiz, hil zutenean Logroñon nintzela eta gogoratzen naiz ni ez nintzela barritu, bere bosgarren pisuko bizilaguna izan zitekeen tiroa bota ziona, zergatik gizon hura oso gaiztoa zen...*⁴⁸ Baina segidan errepresio bortitza etorri zen, Gipuzkoa osoan “salbuespen egoera” ezarri baitzuten autoritate frankistek. Hiru hilabetetan ehunka pertsona atxilotu zituzten Meliton Manzanasko heriotzaren aitzakiarekin; Hernanin, Guardia Zibilak 30 pertsona atxilotu zituen taberna batean afaltzen ari zirela, inolako arrazoirik eman gabe, baina hauetako batek tiro artean ihes egin ahal izan zuen.⁴⁹

⁴⁷ *Euskal Herria y la libertad*: II. liburukia, Txalaparta, Tafalla, 1993, 123-124 or.

⁴⁸ 2002-MCL-01 elkarrizketa, bukaeran.

⁴⁹ *Euskal Herria y la libertad...* II. liburukia, 117 or.

1969. urtea ez zen hobeia izan, atxiloketak bata bestearen atzetik gertatu ziren, gainera ETako kide garrantzitsu asko harrapatu zituzten eta erakunde hau erabat ahulduta omen zegoen, poliziaren esanetan “ETArekin akabatu zuten”. Rafa Egigurenek, Suitzatik 1969an itzuli zenean, honako hau aurkitu zuen erakunde honetan sartzerakoan:

...Gu Suitzatik etorri giñanian zeozertan sartu nahi genuen, orduan ETAn sartu giñan. Gu sartu giñanian urte bete zan Txabi Etxebarrieta hil zutela eta guztia deseginda zegoen ez zegoen ezer, orduan basi giñan dana montatzen, kontaktu galduak biltzen... Hernanin, gu baino lehenago nik uste det Koldo Goia basi zala kontaktu batzuekin eta gero nere lehen-gusu batek, Begoñak, izan zituen beste kontaktu batzuk, nik hamabost urte nituela. ETara Hernaniko lau edo bost batera sartu giñan, bakoitza bere paperian, eta nik uste det urte gutxitan dena nabiko lotuta geratu zala...⁵⁰

1970. urtean ETA barruan banaketa bat egon zen, batzuk ETA V-ean geratu ziren, beste batzuk berriz *Sexta* - 1970eko VI asanblada - izeneko taldean baneratu ziren. Bai Rafa Egiguren eta baita Jesus Uzkudun ere, azken talde honetan sartu ziren. Rafak dioenez momentu gogorrak izan ziren horiek, hasieran herritarrek ez zuten banaketa horren berri, baina hortaz ohartu zirenean gehienek ETA V-i eman zioten babes, *Sextakoak* baztertuz. Gero, talde honetako kide gehienak troskista bihurtu ziren eta IV internazionalarekin bat egin zuten. Beste batzuk, batez ere ETaren langile frontekoak, ‘Frente Obrero’koak zirenak, CC.OO-en geratu ziren, Jesus Uzkudunek hala egin zuen.


BURGOSEKO PROZESUA

Askoren ustez, Burgoseko prozesua, oso gertaera eta momentu garrantzitsua izan zen, hortik aurrerakoak aldatuko zituen momentu historiko bat. 1970ko abenduan, 16 euskal preso epaitu behar zituzten ETArekin zerikusia zuten ekintzetan parte hartzeagatik, horien artean Meliton Manzanasen hilketa. Epaiketa, Burgoseko militarren tribunal berezi batek egin behar

⁵⁰ 2002-RER-01 elkarrizketa, erdialdean.

zuen eta fiskaltzak 6 heriotza zigor eta 147 urteko kartzela zigorrak ezarri zizkien auziperatuei. Hau jakin zenean, erreakzioa izugarrikoa izan zen, protestak bata bestearen atzetik hasi ziren, baita istilu ugari ere, ez bakarrik Euskal Herrian edo Espainian, baita Europa eta Amerika osoan ere. Zenbait herrialdetan espainiar enbaxadak asaltatu zituzten eta istiluak egon ziren.⁵¹

Hernanin, abenduaren 3 eta 4ko protestak oso larriak izan ziren, Gipuzkoa osoan bezala greba nagusitu zen eta jendea kalera atera zen. Istilu hauetan balazko bi zauritu egon ziren, Manuel Arredondo lasartearra eta Errazkin Izagurre abizeneko hernaniar bat. Niko Elizondok bere begiz ikusi zuen nola gertatu zen hori: *...Hemen 70ean, Burgoseko prozesuaren erantzuna ikaragarria izan huan, ni gogoatzen nauk guardia zibil batek tiro bat bota ziola tipo bati, lepotik sartu ziola...*⁵² Abenduko lehenengo egun horiek, askok gogoratzen dituzte, inoiz baino polizia gehiago agertu baitzen herrira: *...Abenduaren 3an, Santa Barbara eta herri guztiya poliziaz josita zegoen, herriya erabat geldituta grebagatik. Hemen Santa Barbaran, tiroteoak eta dana egon ziran, helikopteruakin herriya inguratuta eduki zuten... baina egondu ziran kristonak!...* esaten du Jesus Uzkudunek.



Polizia Nazionala Hernaniko plazan, 80ko hamarkadan.

⁵¹ RUIZ AYUCAR, Angel: *Cronica agitada de ocho años...* (Burgoseko prozesuari buruzko atala.). Ikusi ere: HALIMI, Gisele; SARTRE, Jean Paul; RIVERA, Mercedes: *El proceso de Burgos*, Monte Avila, Caracas, 1972. (Bere garaian eragin handia izan zuen Sartreren idatziak).

⁵² 2002-JEA-01 elkarrizketa, erdialdean.

ETA militarrek, Francori presionatzeko Eugen Beihl kontsul alemana bahitu zuen, Zuberoako Berorize (Muntori) herrian hiru astez gordeta eduki zuen, baina gero askatu egin zuen. Seguruenik, estatu mailan eta nazioartean egin ziren protestek beharturik, Francok abenduaren 30ean auziperatuak indultatu egin zituen: *...Europa mailan eta estatu mailan erantzuna oso haundiya izan zan, erantzun ikaragarriya...* Egun bereziak izan ziren, orduan ikusi zen Francoren erregimena ez zela garaiezina, kolokan eta hiltzeko zorian zegoela, zerbait bazetorrela:

...Ikusten zan zerbait bazetorrela, bi edo hiru urtetan ikaragarri bizkortu edo prezipitatu zan dena eta jende asko urtebeteren barruan kontzientziatu egin zan. Gainera gauza batzuk publikatzen hasi ziran, ETako lehenengo eroritakoak, presoak, kalean lehenengo manifestazio guztiz ilegalak... Eta orduan hor zu, hasten zera burua janzten, gauza askotaz jabetzen eta poliki-poliki parte hartzen: "Aizu! Bihar manifestazio bat dago" eta hor azaltzen giñan, gainera orduan guardia zibilak izaten ziran, balak ere botatzen zituzten, oso arriskutsua zan... Hala ere gu gazteak giñan, ez genuen kapazidaderik azterketa politiko bat egiteko, ikusten genuen gurdi bat martxan zihoala eta gu numero batzuk besterik ez giñan, gu baino sei edo zortzi urte zaharrago zirenak izan ziren erreferentzi, nere ustez...⁵³

"ODOLIK GABE HEMEN EZ DATOR EZER..."

Urte gutxitan, jendeak beldurra galdu zuen, batez ere gazteek: *...Eragin oso haundia izan zuen, harrigarria izan zen jendea nola matxinatu zen, jadanik ez geneukan beldurrik...* Baina zaharrek beste modu batean pentsatzen zuten, gerra bizi izan zutenek ikara handiz ikusten zituzten mugimendu iraultzaile horiek: *...Gure aitak esaten zuen: "Odolik gabe hemen ez dator ezerrez! Lehenago ere odola izandu zan..."(..) Ikara pixka bat bagenuen, noski... gerrarekin! Gerra ezautu degunak, ikara izan degu, gerrarik ezautu ez duenak ordea ez...⁵⁴* Miren Clementeren aitak, esaterako, urte mordoa pasa behar izan zuen kartzelan eta Mirenek Zikuñagako

⁵³ 2002-JUZ-01 elkarrizketa, erdialdean.

⁵⁴ 2002-RGO-01 elkarrizketa, bukaeran.

greba hasi zuenean, behin eta berriz esaten zion kontuz ibiltzeko: ...67. *urtean, Zikuñagako greba egin genuenean, nere aitak bi egunetan gerra berriro hasiko balitz bezala bizi izan zuen: "Kartzelan sartuko dizute! Ez dute ezer behar norbait kartzelara eramateko!" Bildurra oso haundia zen, bainbeste pasa zuen...*⁵⁵

1972ko abuztuan, Hernanin zegoen "eroritakoen" omenezko monumentuari bonba bat jarri zioten eta hilabete batzuk beranduago Sindikatu Bertikaleko lokalean beste lehergailu batek eztanda egin zuen. Azken gertakari honetan Eustakio Mendizabal *Txikiak* hartu zuen parte, honek Hernanitik bueltan zihoala, Mandazubiko aldapan motorra lehertu eta mendi aldera joan behar izan zuen, polizia atzetik zuela, baina bizirik irtetea lortu zuen. Gero, 1973an *Txikia* berriro itzuli zen Hernanira, herri honetako meatze batzuetan lehergailuak lapurtzera, orduan meatze horretako bederatzi zaindaria desarmatu zituzten eta meatzetik lapurtutako lau tona dinamitaren puska bat Carrero Blancoren kontra, abenduaren 20an egindako ekintzan erabili zuten. Urte bereko irailean, Iñaki Asteasuizarra hernaniarrak, *Beltzak*, preso zegoen Loiolako koarteleatik ihes egitea lortu zuen, komando baten laguntzarekin, hortik Iparraldera alde egin zuen. *Beltza*, 1985ean hil zen GALen atentatu baten ondorioz.⁵⁶

Burgoseko prozesutik aurrera ETaren eta beste talde iraultzaileen ekintzak ugarritu egin ziren, guardia zibilen kontrako tiroketak egon ziren eta lehergailuak maizago jartzen zituzten; ondorioz, errepresioa handitu egin zen eta poliziak euskal militante asko hil zituen sarekada ezberdinetan. Atxiloketak ugarritu zirenez, euskal presoek kopurua nabarmen igo zen, kolektibo honek antolatzeari ekin zion eta kartzeletan jasan behar zuten egoera salatzen hasi ziren. Salaketa honen berri segituan izan zen kalean, amnistiaren aldeko mugimenduak jaio zirenean. 1974ko abenduan, zenbait gizarte sektorek deiturik, amnistiaren aldeko ekitaldi ugari egin ziren, lantegietan greba deialdia egin zen eta herri guztietan manifestazioak burutu ziren. Hernanin greba erabatekoa izan zen eta manifestazioan istiluak egon ziren, Guardia Zibila tiroka hasi eta Jesus Mari Irazu Garmendia hernaniar gaztea, balaz zauritu zuen.⁵⁷

⁵⁵ 2002-MCL-01 elkarrizketa, erdialde-bukaeran.

⁵⁶ *Euskadi eta askatasuna...* III. Liburukia. Eduki nagusitik eta kronologiatik ateratako datuak.

⁵⁷ *Ibid.*

Aldarrikapen, salaketa, istilu eta errepresio artean iritsi zen 1975. urtea; Franco oster gaixo zebilen, denek zekiten ez zuela asko iraungo eta hil ostean zer pasako ote zen zain zeuden. Baina Franco hil baino lehenagoko hilabeteak benetan gogorrak izan ziren askorentzat, Otaegi eta *Tuparen* kontrako auziak udaberrian hasi ziren, gero, udan Juan Paredes *Txiki* eta FRAPEko hiru militante ere auziperatu zituzten, guztiek heriotza zigorra jaso zuten - *Tupak* izan ezik -. Errepresio basati honi aurre egiteko ekimen ugari egin ziren, KAS alternatiba aurkeztu zen eta grebak behin eta berriro egin ziren Euskal Herri osoan. Berriro ere, Burgoseko prozesuan gertatu bezala, nazioarteko elkartasuna oso handia izan zen, baina berriro ere, errepresioa latza izan zen: Salbuespen egoera, milaka atxilotu eta istiluetan hildako batzuk ere egon ziren hilabete horietan. Bi euskal gazteak (Txiki eta Otaegi) eta FRAPEko militanteak 1975eko irailaren 27an hil zituzten. Franco berriz, bi hilabete eskas geroago hil zen, azaroaren 20an, ospitaleko ohe batean, hodi eta makinez inguraturik.

Langile borroka

“Hiru dira Organización Nacional Sindicalista izeneko erakundearen printzipioak, Lanaren Foruan aurreikusiak daude hauek eta Estatu Berriak duen antolamendu politikoaren isla dira: Batasuna, Osotasuna eta Hierarkia. Beraz, Foru honen arabera, sindikatuen orden bakarra egongo da eta bertan ekonomiaren faktore guztiak sartuko dira, produkzio edo zerbitzuetan banaturik”.⁵⁸

1930eko hamarkada hasieran, sindikalismoak (UGT, STV eta CNTk batez ere) indar eta protagonismo handia hartu zuen. Garai haietako langile askoren pentsaeran, langile iraultza politika sistema aldatuz egin behar omen zen eta militante kopurua ere ez zen gutxiestekoa. Egia da 30. hamarkada oso gatazkatsua izan zela, errepublikak iraun zuen bitartean grebak bata bestearen atzetik egin ziren, manifestazio eta iraultza saialdiak ohiko bihurtu ziren, baina nola nahi ere, langileen lan-baldintzak asko hobetu ziren, mende hasierako baldintza kaxkarrekin konparatuz gero, behintzat.

⁵⁸ SALAYA, Guillen: “Referente a la Unidad Sindical”, *Historia del sindicalismo español*, Editora Nacional, Madril, 1941, 183 or.

1936ko altxamenduarekin diktadura ezarri zenean, estatu frankistak erakunde berri bat sortu zuen langileak ordezkatzeko “La Organización Nacional-Sindicalista”. Goiko pasartean irakur dezakegunez, honen helburua batasuna, hierarkia, diziplina eta kontrola mantentzea zen; erakunde berri hau estatuaren interes ekonomikoen menpe mantentzea, alegia.

Ez da harritzekoa, “Sindikatu Bertikala” izenarekin ezagutu izana eta langileek honenganako mesfidantza izatea: *...Nik ez nuen sindikatuarekin kontaktatu, neri udaletxeak, sindikatuak eta horiek danak iruditzen zitzaizkidan iruzur tresna bat balira bezela, horregatikan ez nitzan hortan sartu...*⁵⁹ Dena den, 1950. hamarkadatik “Sindikatu Bertikalean” ezker-tiarrak eta antifrankistak ziren zenbait militante infiltratu ziren, erakunde horren abantailak aprobetxatu nahirik. 1960an langile munduan mugimenduak nabari ziren, horien artean CC.OO-en sorrera (1962), hasieran jabeekin negoziatzeko langile komite soilak ziren eta gero talde bezala eratu ziren. Bertan, ideia ezberdineko militanteak elkartu ziren, ezker-tiarrak eta katolikoak - HOAC eta JOC-etik irtendakoak... -.⁶⁰

LANGILE MUGIMENDUA TRANTSIZIOAN

‘Comisiones Obreras’ en talde ezberdinek hartu zuten parte, PCE eta honen ezkerretara zeuden beste batzuk (EMK, LKI, ETA, ORT...). Langile talde multzo honen barruan tirabirak segituan hasi ziren, zeinek zuzendaritza kontrolatuko; izan ere, PCEko kideek talde handiena osatzen zuten bertan eta CC.OO bere menpe izan nahi zuten. PCE baina ezkerre-ago zeuden alderdiek mugimendu iraultzaileago baten bila zebiltzan eta CC.OO-ri iraultzarako nortasuna eman nahi zioten. Joxe Elizondo, *Niko*, langile mugimenduan gaztetatik sartu zen, hasiera batean “Comites Obreros Anticapitalistas” asanblada mugimenduaren barnean eta gero EMK-an (Euskadiko Mugimendu Komunista), berak honako hau dio ‘Comisiones Obreras’eko barne gatazkei buruz:

⁵⁹ 2002-IZM-01 elkarrizketa, hasiera-erdialdean.

⁶⁰ RUIZ, David: *Historia de Comisiones Obreras (1958-1988)*, Siglo XXI, Madrid, 1993. Ikusi ere: JIMENEZ ABERASTURI, Juan Carlos; *Beltza: Organizaciones, sindicatos y partidos políticos ante la transición*, Euskadi 1976, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 1989.; GARDE ETAYO, María Luisa: “Un sindicato nacionalista vasco durante la transición, 1975-1981”, *Príncipe de Viana*, 203 zbk., 1994, 591-614 or. MAJUELO, Emilio: *Historia del sindicato LAB (1975-2000)*, Txalaparta, Tafalla, 2000.

...‘Comisiones’en barruan beti izan dituk ikuspegi oso kontra-jarriak, sortu zenetik. Horren arrazoia, azken finean, politikoa buan. Guretzat PCk ‘Comisiones’ kontrolatu nahi zuen; baina beraien ikuspuntua oso erreformista zan, eta guk urrutiago joan nahi genuen, iraultza egin eta kapitalismoa bankaz gora bota nahi genuen; eta zatiketa handiena hortik sortu zan. Ni gogoratzen naiz Hernanin 1978an Euskadiko Kongresua egin zala [CC.OO-rena] eta errepresentazio inportanteena guk eraman genuela [EMK]...⁶¹

Langileen barruan talde berriak sortzen ari ziren bitartean - horien artean, LAIA alderdiaren bidez eraturiko “Comisiones Obreras Abertzales”, gero LAB izango zena (1975) -, sindikatu tradizionaletako kideak, gauzak aldatzen ari zirela ikusirik, etorri zitekeenerako prestatzen hasi ziren. Sindikatu hauek gerra eta gerraostetik oso ahulduta atera ziren, kide gehienak hilda edo erbestean baitzeuzkaten, baina pixkanaka suspertzen hasi ziren.

Horien artean aurkitzen dugu ELA-STV sindikatua; 60. hamarkadan hizki hauek aldarrikatu zituen zenbait talde atera ziren, baina Hernanin, lehena-gotik ere hasiak ziren biltzen, Imanol Larretxeak kontatzen digunez, hemezortzi edo hogeitun urte zituztela ELAren bilerak egiten zituzten: *...ELA sortu zanian... ostera berriz martxan hasi zanian, bilerak Eulako basuan egiten genituen, Urnieta inguruan...*⁶² Dena den, sindikatu hauetako kide gehienak, gerra pasatakoak izaki, ez omen ziren asko mugitzen, errepre-sioaren beldur baitziren. Jesus Uzkudunen hitzetan, Burgoseko prozesua-ren kontrako ekintzak prestatzen ari zirela, Mandazubin bilerak egin zituzten, ETak bultzatuta greba komite bat sortu nahirik, baina ELAren barruan mesfidantza politiko handia zegoen, oraindik ere gerra garaiko mamuak ez baitziren pasa hauentzat eta horregatik ezin izan zuten ekimen hau antolatu. Baina sindikatu tradizionaletan bakarrik ez, berrogei urtetik gorako langile orok ikusten zituen gerrako mamuak: *...nik fabrikari bakarren batzuk ikusten nituen, lehenago ELAkuak izandakuak... jende zaharra. Zenbaitetan beraien babesa ematen zuten, propaganda*

⁶¹ 2002-JEA-01 elkarrizketa, hasiera-erdialdean.

⁶² 2002-ILG-01 elkarrizketa, erdialdean.

*banatzen nienian... baina beraiek ez zuten inungo lanik egiten, erabat lo zeuden...*⁶⁵ Langile mugimendu berri horren protagonista nagusi gazteak izan ziren, beraz.

Garai haietako langileriaren lan baldintzak ez ziren oso onak egia esateko, soldatak nahiko baxuak ziren, orduan gertatzen ari zen igoera ekonomikoarekin konparatuz gero behintzat bai. Gainera, ordu-estra ugari egin behar izaten zituzten eta segurtasun aldetik ere ez zen batere ardurarik jaritzen; Orbegozon esaterako, urtero hildako bat edo bi izaten ziren lan istri-puen ondorioz. Orbegozoko lanaren gogortasunak behartuta segurtasunaren aldeko komite bat antolatu zuten:

*...Zenbait jende bizkarrezurra hautsita atera zan, laminazio-ko sektorean ordu erdia lan egin eta beste ordu erdia deskantsua zuten, ezin zalako ez berua ta ezta hango lana agoantatu. Gainera, ordu erdiko deskantsu hartan jendiak kristoren haragi pila jaten zuen, fuelezko labe batian erretakua; haragia erabat kutsatzen zan eta lana doble egiteko enpresak ardua ta kafía ematen zuen... zurruta arazo bat zan. Orduan mediku batekin gu hasi giñan jendian ohitura aldatzen eta entsaladak baldeka jartzen genituen, zurruta ere gutxiago...*⁶⁴

Aldarrikapenak gehienez ekonomikoak ziren, soldata hobeagoen edo Lan-hitzarmen kolektiboen aldekoak, baina baziren, kutsu politikoa hartzen zutenak ere; izan zitezkeen gertakizun politiko batek eragindakoak - Burgoseko prozesuaren kontrako greba izan zen lehenengotakoa - edo izan zitezkeen jabeen autoritarismoaren kontra. Izan ere, nagusien inposaketa eta langileen askatasun falta oso handiak ziren: *...Prekarietate haundiena nagusien inposaketa zan, autoritarismo ikaragarria eta askatasun falta, eta tartean, enkargatuk jokatzen zuten papera, orokorrean behintzat oso errepresiboa zan; gehienez jendearen larritasunak ekonomikoak ziran, baino lan harremanak ere oso autoritarioak ziran...*⁶⁵ Autoritarismo horrek eta jabearen nagusitasunak, askotan paternalismorako joera hartzen zuen:

⁶⁵ 2002-JUI-01 elkarrizketa, erdialdean.

⁶⁴ Ibid., bukaeran.

⁶⁵ 2002-JEA-01 elkarrizketa, hasiera-erdialdean.

...Enpresariak “nagusiak” ziren, gerentea izan arren “nagusia” deitzen zioten, botere gehiegikeri eta paternalismo kutsuaz baliatuz, Zikuñagan bi pertsona behintzat baziren hamalau urte baina gutxiagorekin lanean zebiltzanak. Pentsa noraino iristen zen paternalismo hori, ezen eta urtean behin enpresariak langileei bazkari bat ordaintzen ziela...⁶⁶

Langileen aldarrikapenak eta protesta tresnak ezberdinak ziren, baina erabat erradikalak gaur egungoekin konparatuz gero. *Nikok* gogoan dauzka “Papelera del Norten” izan zituzten borrokak: *...Hernanin ni gogoratzen naiz nola gure papeleran denbora pila bat itxialdian egondu giñala, gerentea sekuestratu genuen Donostian eta enpresara ekarri genuen, guardia zibilak atia bota eta tiroka hasi ziran... Momentu puntual gogor horietan erantzuna nahiko zabala izan zan... Langileek beraien aldarrikapenak eskatzeko gehien erabiltzen zuten protesta modua greba izan ohi zen; Miren Clementek Hernanin izan zen aurrenetako greba baten antolatzaileria izan zen, Zikuñagan 1967an, emakumeen sekzio batean egin zutena, hain zuzen:*

...Zikuñagako greba 67an izan zen, beraien konbenioan jarritako arauak ez zituztela errespetatzen konturatu ginen; geroz eta gehiago esplotatzen gintuzten eta soldata dezente bat jasotzeko egunean hamabi orduko lana egin behar zenuen. Orduan, hasieran 48 orduko “minimotako greba” bat egin genuen, baina ez ziguten kasurik egin, gero egun oso batez “beso eroritako greba” bat egin genuen, lekutik mugitu gabe eta orduan bai, orduan Guardia Zibila sartu eta bertatik atera gintuzten. Hernanin jende askok lagundu gintuen, baina greba ez zen zabaldu. Greba mugagabea izan zen, ez baitzuten inor lanerako berriro onartu...⁶⁷

Orduz geroztik grebak bata bestearen atzetik izan ziren Hernaniko lantegietan, trantsizio garaiko giro gatazkatsuarekin bat eginik. Baina 1980 hamarkadatik aurrera, langile borroka baretu egin zen, batez ere, sindikatu

⁶⁶ 2002-MCL-01 elkarrizketa, erdialde-bukaeran.

⁶⁷ *Ibid.*, erdialdean.

garrantzitsuenak sistema “demokratiko” berrian burokratizatu egin zirelako eta langileen aldarrikapenen koltxoi modura jokatu omen zutelako hortik aurrera.⁶⁸ Hernanin ordea “baretasun” garai hori beranduago heldu zen, 1980. hasieran Orbegozoko langileen borroka eta protestek herria behin baino gehiagotan astindu baitzuten.

Franco hil eta gero

Franco hil baino lehenago jakina zen zein izango zen honen orde z jarriko zuten pertsona, Juan Carlos Borbonek harreman estuak mantentzen zituen diktadorearekin - frankismoaren barruan hezi baitzen - eta hau gaixo jarri zenean berak hartu zuen Espainiako agintea. Franco hil zenean, gobernuburu Juan Carlos printzea izendatu zuten, baita errege egin ere. Presidente karguan Arias Navarro zegoen, hilabete batzuen buruan, ordea, Adolfo Suarezren esku geratu zen kargu hau. Rodolfo Martin Villa, Manuel Fraga, Santiago Diaz y Mendivil... hauek guztiak Francoren erregimenarekin bat egiten zuten eta bazirudien, askatasunaren bidean aldaketak iragarritzen baziren ere, betikoek jarraituko zutela agintzen.⁶⁹

Bitartean, Euskal Herriko egoerak ez zuen hobera egin, errepresioak eta gatazkak bere horretan iraun zuen, horrela erakusten dute garai haietako zenbait gertakizunek: 1976ko martxoaren 3ko Gasteizko langileen kontra-ko sarraskia, Montejurrako gertakariak, atentatu parapolizialak mugaren bi aldeetan – *Pertur*-en desagertpena... - edo talde iraultzaileen ekintzak (ETAm, ETApm...). 1976ko irailaren 27an, *Txiki* eta Otaegiren fusilamenduak gogoratzeko, greba orokorrerako deialdia egin zen Euskal Herri osoan eta herri gehienetan manifestazioak egin ziren; sorturiko istiluen ondorioz hainbat pertsona balaz zauritu zituzten eta Laudion pertsona bat hil zuen poliziak. Hernanin gertatutakoari buruz zera esan zuen garai haietan Diario Vasco egunkariak:

⁶⁸ FUHRER, María: *Los sindicatos en España. De la lucha de clases a estrategias de cooperación*, CES, Madrid, 1996. Ikusi ere: REDERO, Manuel; PEREZ, Tomas: “Sindicalismo y transición política española”, *Ayer*, 15 zbk., 1994, 189-222 or. ZARAGOZA, Angel: *Pactos sociales, sindicatos y patronal en España*, Siglo XXI, Madrid, 1991. KAIERO, Andoni: “Sindikatuak Hego Euskal Herrian”, *Jakin*, 33 zbk., 1984, urria-abendua, 6-61 or.

⁶⁹ SOTO, Alvaro: *La transición a la democracia (1975-1982)*, Alianza Editorial, Madrid, 1998, 22-51 or. Ikusi ere: UGARTE, Javier (arg.): *La transición en el País Vasco y España*, EHU, 1998, Gasteiz.

“Goizeko hamar eta erdiak aldera, gazte talde bat “Nuestra Señora de Asunción” [sic.] parrokiaren barruan elkartu zen, baina bertatik modu baketsuan aterarazi zituzten. Eguerdi inguruan zenbait manifestazio egin ziren eta auto batzuk gurutzatu ziren, hauetako zenbaiti kristalak hautsi zizkieten gainera. Udal Epaitegian bonba meatxu faltsu bat egon zen. Gaueko zortzietan, fusilatuak izan ziren ETA eta FRAP-eko bost militanteen heriotzaren urteurrena zela eta, meza ospatu zen parrokian. Elizaren kanpoaldean, plazan, 150 bat pertsona zeuden. Guardia Zibila iritsi zenean korrikaldiak hasi ziren. Azken orduan, gazte bat zauritua izan ote zen zurrumurrua zabaldu zen” (Diario Vasco, 1976ko irailaren 28a)

Zaurituriko pertsona hori, bala baten ondorioz zauritu zuen Guardia Zibilak eta Dionisio Sarries Beristain izeneko errugbi jokalaria izan zen.⁷⁰

Franco hil ostean, ordu arte nahiko isilik mantendu ziren zenbait alderdi politiko eta sindikatu, egoera berri horretan kokatuz joan ziren eta horretarako sistema frankistaren barruan ireki berri zen prozesuan parte hartzea eskatu zuten. Hain zuzen, sisteman parte hartze honek, gizarteko zenbait sektorek bultza nahi zuten prozesu iraultzailearen kontra azaltzea eragin zuen. EAJk, PSOEk eta PCEk, 1976ko Aberri Eguna Iruñean egin zedin gestio ugari burutu arren, ez zieten baimenik eman, horren ondorioz deialdia bertan behera utzi zuten, beldur baitziren autoritate frankistek prozesu berri horretatik kanpo utziko ote zituzten. Baina isilik mantendu zirenak, suspertzen hasi ziren behinik behin:

...Hor etorri zian jarrera konkretuak ideologia eta politika ikuspegitik... Franco hiltzear zegoela mugimendu batzuk izan ziran, baina orain “demokratak” diran jende asko eta asko, orduan ez genituen mugimendu hauetan ikusten, ez mugimendu nazionalistetan eta ezta Francoren kontrako mugimendu zabalagoetan ere! Orain, demokrazia deitu den horretan oso ondo egokitu dira demokrata bezela, baina Francoren kontra gutxi egin zuten...⁷¹

⁷⁰ *Euskal Herria y la libertad*...IV liburukia. Kronologiatik ateratako datua. *Diario Vasco*-n (1976ko Irailaren 29) ere azaltzen da.

⁷¹ 2002-JUZ-01 elkarrizketa, erdialde-bukaeran.

Frankismoa desagertu orduko banaketak hasi ziren, ordu arte Francoren kontrako borrokak batzen zituen askok Franco desagertu eta gero, ez zituzten gauzak berdin ikusten. Izan ere, Imanol Larretxearentzat frankismoaren kontrako borroka oso erraza zen arrazoi batengatik: *...Orduan errexa zan lana egitea, zergatikan bi alde ziran: bata españolak eta bestia euskaldunak, eta euskaldunak danak alkartuta geuden, ez orain bezela, bata alde batera eta bestia bestera...*⁷² Izan zen Francoren heriotza gertu ikusi eta iraultza gertatuko zela pentsatu zuenik. Militante konprometituenek, ezkertiar erradikalenek, hori uste zuten, behin sistema bertan behera eroriz gero, iraultza sozial bat gertatuko zela, baina sekulako ezustea izan zuten orduan, hala dio Rafa Egigurenek:

*...Guk txasko haundiya hartu genuen Franco erori zanian, nik uste det oso utopikoak izan giñala, pentsatzen prozesu iraultzaille bat egongo zala eta prozesu horretan parte hartu nahi genuen, Euskal Herriko eskubideak defendituz eta abar, hori zan gure asmoa. Pasatu zan iraultzarik ez zala sortu inundik ere; pentsatzen genuen indar haundia zuen PC-k ez zuela frankismoaren arrastoekin paktatuko, eta hala egin zuen; PNVk ere paktatu zuen, ordun PNV ez zan ezer, gerra geroztik ez zan inundik ageri, baina azken finean negoziatu zuen berak egin ez zuen indar batekin - hori da nere iritzia -, gero, gainera hauteskundeak egin ziren eta emaitzak harrigarriak izan ziren, PSOE eta PNVk izan zituzten sekulako emaitzak! Guk pentsatzen genuen dena gure ingurukoa bezela zala eta hori ez zen horrela...*⁷³

IKURRIÑA, 1977

Aldarrikapenak gero eta bortitzagoak eta ugariagoak ziren Euskal Herrian, Franco hil eta lehenengo hauteskundeak egin arte, askatasuna aldarrikatu zen behin eta berriro. Amnistia eta ikurriñaren legalizazioa guztien ahotan zebilen eta, azken aldarrikapen hau defendatzegatik, poliziak Josu Zabala tiroz hil zuen Hondarribian “gazte batzuek ikurriña zeramatelako”.⁷⁴

⁷² 2002-ILG-01 elkarrizketa, bukaeran.

⁷³ 2002-RER-01 elkarrizketa, erdialde-bukaeran.

⁷⁴ *Euskadi eta Askatasuna*, IV liburukia, Txalaparta, Tafalla, 1993. 98-99 or.

Hernaniko udaletxean, Azpeitia, Bergara, Eibar eta Gabirian bezalaxe, Hondarribiako gertakariak gaitzesteko ezohiko bilkura bat egin zen; gainera honako eskakizun hauek egin ziren bertan : 1937an egin zen Kontzertu Ekonomikoa ezabatzen zuen legea betirako kentzea, preso guztientzako amnistia, ikurriñaren erabilpen askea, euskararen ofizialkidetza, ikastolentzako laguntza Hezkuntza eta Zientzia Ministerioaren aldetik, Gipuzkoako probintziaren tradizio, historia eta berezitasunen onarpena... Garai haietako alkate lanetan Ignacio Iruin ibili zen, Venancio Diez, Juan Crespo, Julio Gonzalez, Jesus Alzaga, Jose Legarreta... eta beste hainbat zinegotzirekin batera.⁷⁵

Hernanin ere izan zen gertakari larririk: 1976ko urte zahar gauean “Padres de Familia” taldeak antolaturiko *gau-pasa* bat ospatzen ari ziren *Transpacar* izenez ezagutzen diren lokaletan, helburua Txirrita ikastolarentzat dirua biltzea zen. Ordubiak aldera baina, Guardia Zibila *Transpacarren* sartu eta bertan zeudenak aterarazi zituen, barruan “gezurrezko” tiroak bota zituztenean jendea alde batera eta bestera hasi zen handik atera nahirik, azkenean hiru atxilotu egon ziren istilu horietan. Guardia Zibilak *Transpacarrera* sartzeko honako arrazoi hau eman zuen: Bertan ikurriña handi bat jarri zutela. Udaletxeak berriro ere bilkura egin eta gertakari hau gaitzetsi zuen, ekitaldiak udaletxearen baimena baitzuen.⁷⁶

Garai hartan, Ignacio Iruinek, Bergara, Arrasate, Oiartzun, Ormaiztegi eta beste zenbait udaletako alkateekin batera, joan-etorri asko egin zituen Madrilera “alkateen mugimendua” deitu zitzaion horretan, Rodolfo Martin Villa, Gobernazioko ministroarekin zenbait elkarrizketa izan zituzten. 1977ko urtarrilaren 16an, Etxarrin egindako ekitaldi batean zera esan zuten, ikurriña ez bazen “despenalizatzen”, beraiek ofizialki jarriko zutela udaletxe bakoitzeko balkoian. Ultimatum honen ondoren, berriro ere Martin Villarekin hitz egitera joan ziren Madrilera:

...Gauzak etortzen dira datozen bezela, Madrilera bidai asko egin genizkian, orduan nik esaten nuen: “Madrilera joan bihar gera!” eta “Bai baina ban ez degu ezer egingo!”, “Joño! Zerbait egingo degu!” eta orain ere nik hori esaten det, hara joan bihar dala, beraiek ez dira honera etorriko! Ikurriña jarri bihar zala eskatzen genien, makina bat bidai egin eta gero,

⁷⁵ Hernaniko Udal Agiritegiko hemeroteka, ikurriñaren legalizazioari buruzko dokumentuetan

⁷⁶ Ibid.

azkenian Martin Villak esan zigun: "Bueno, egin nabi dezue-na, baina nik ez zaituztet legalizatz-en, baimendu egiten zaituztet. Badakit nabi dezue-na egingo dezuela... Baina bakarrik gauza bat: Ikurriña alde batean eta beste-an española eb!" eta guk esan geniyon: "Ba a zer negozioa egin degun!"⁷⁷

Hala izan zen, Gobernazioko Ministerioak honako ohar hau pasa zien hegoaldeko herrialde guztietako Gobernadore Zibilei: "...ez dadila ordena publikorako indarren partetik bandera euskaldunaren erakusketa pertsegitu, beti ere bandera nazionalaren ondoan baldin badago, honen erabilera derrigorrezkoa baita Estatu, Probintzia eta Udallerrietako zentro guztietan, gainera, azken honek duen lehentasuna errespetatuko da".⁷⁸ Anbiguotasunak ez zion garrantzia kendu agindu horri eta sekulako pozez jaso zen berria Euskal Herrian, baita Hernanin ere.

Donostian, 1977ko urtarrilaren 19an jaso zen ikurriña Konstituzio Plazan, San Sebastian bezperan, alegia. Hernanin, alkatea etorri arte itxaron zen eta urtarrilaren 20ko arratsaldean ez ohiko bilkura baten bidez, ikurriña udaletxeko balkoian jartzeko erabakia hartu zuten zinegotzi guztiek. Kanean, festa giro nabarmena zegoen, ikurriñak edonondik irteten ziren, etxean gordeta zituztenak balkoietan jartzen



Goian, Ikurriña onartu zeneko plenoa Ignacio Iruin alkatea erdian dela, 1977an. Behean, Ikurriña Udaletxeko balkoian jarri zen unea. Berrogei urtez ez zen ikurriñik izan Hernaniko Udaletxean.

⁷⁷ 2002-III-01 elkarrizketa, erdialde-bukaeran.

⁷⁸ EGAÑA, Iñaki: *Ikurriña. Cien años*, Txalaparta, Tafalla, 1994, 170 or.



Felipe Sagarna "Zapa"ren hiletan plazan. Zaparen hiletaren ostean manifestazio, protesta eta istilu ugari izan ziren Hernanin eta herria erabat gelditu zen hainbat egunetan.

zituzten eta plazan sekulako jendetza bildu zen. Berrogei urteren buruan, ikurriña berriro ere ofizialki zebilen Hernaniko zeruan dantzan.⁷⁹

Handik urte gutxira, 1980an, Martin Zabaleta hernaniarrak, ikurriña lehen aldiz munduko gailur altuenean ipini zuen, Everestera Pasang Temba sherparekin igo zen Martin eta han, ikurriña, mundu guztiaren erakusgarri ipini zuen.

ZAPA, MIGEL MARI, PORTU...

Harrigarria dirudien arren, diktaduraren erorketak ez zuen errepresioaren gutxitzea ekarri, poliziaren errepresioari "inkontrolatuen" eta talde ultra eskuindarren erasoak gehitu zitzaizkien. Horretan, zoritxarrez, Hernaniko herriak eskarmentu handia hartu zuen.

1980ko apirilaren 20an, Felipe Sagarna Zapa ezizenez ezagutzen zen hernaniarra, etxera bueltan zihoan lagun batekin Urnietako jatetxe batean afaldu ondoren. Bere etxeko atarian zegoela ezezagun batzuek tiro egin eta bertan hil zuten Zapa. Gizon hau herrian oso ezaguna zen, parranda zalea eta denen laguna omen zen, ezker abertzalearekin bat egiten bazuen ere ez zen inoiz politikoki nabarmendu. Txaranga danborra jotzen zuen eta jaietan, Guardia Zibilaren koartelaren ondotik pasatzean, "Que trabaje la Guardia Civil!" egin ez agurtzen zituen bertako txapelokerrak. Benetan maitatua eta oraindik ere guztien gogoan dagoen pertsona zen Felipe Sagarna.

⁷⁹ Hernaniko Udal Agiritegiko hemerrotekan. Trantsizioari buruzko dokumentuak. Ikusi ere: GONZALEZ, Garoa: "Trantsizioa Hernanin", *Hernani 2001*, Hernaniko Udala, 71-75 or.

Zaparen hilketa gertatu eta berehala herrian protestak hasi ziren, hurrengo egunean manifestazio handi bat egin zen eta hil kapera herriko plazan jarri zen, Guardia Zibilarekin istiluak egon ziren, bideak eta trenbidea moztu egin ziren, greba hiru egunez luzatu zen Hernanin eta Gipuzkoan ere protesta handiak egon ziren; hernaniarraren lurperatze ekitaldian 10.000tik gora lagunek hartu omen zuten parte. Poliziak, kasu gehienetan herritik kanpo geratu ziren eta barrikadak kentzeari ekin zioten soilik; tentsio handikoak izan ziren egun haiek, tentsioa eta amorrua hernaniarrengan.⁸⁰

1980ko irailaren 7an, Migel Mari Arbelaitz eta Luis Mari Elizondo Hernaniko bizilagun gazteak, hil egin ziren Batallón Vasco Español talde paramilitarreko kideek tirokatu eta gero. Bi gazte hauek Zikuñagako jaietatik bueltan zetozela, *Balantxako* maldan hil zituzten, horrela gogoratzen du egun hura, orduan alkate zen Juanjo Uriak:

...Errepresio handiko lau urte izan ziren, batez ere ekintza paramilitarreatatik, Triple A, BVE eta... Gure mandatuaren barruan sei bat bildako egon ziren, Zapa, Luis Mari eta Portu... oso gertaera gogorak izan ziren, alkate zaudela telefonoak goizeko hiruretan jotzen duenean, normalean ez da gauza ona izaten. Luis Mari eta Porturen kasuan Balantxara azaldu nitzan. Orduan gainera Zikuñagako festak ziran, ni ban bizi nitzan eta ordu pare bat lehenago festetatik pasa nitzan, beraiek ez nituen ikusi baina handik zebiltzan [Zikuñagan] eta hortik bi ordutara udaltzaingoak deitu zidan pasatu zena kontatzeko, Zaparen kasuan berdin... oso gertaera gogorak eta bortitzak...⁸¹

Juanjo Uria bera ultraeskuindarren helburu izan zen, bere autoan, zorionez lehertu ez zen lehergailu bat jarri baitzioten. Udaletxean ere lehergailu bat jarri zuten, Udaltzaingoaren egoitza txiki-txiki eginda utzi zuena. Juanjok 1979an hartu zuen alkate kargua, hasiera batean ezezkoa esan bazuen ere, gero, oposizioan egongo zirelakoan, azkenean baietz esan eta zerrenda buru bezala aurkeztu zen. Emaitzak ezustean harrapatu zituen guztiak, Herri Batasunak botoen gehiengoa lortu baitzuen:

⁸⁰ Hernaniko Udal Agiritegian, trantsizioari buruzko dokumentuetan, "zapa"ren heriotza.

⁸¹ 2002-JUZ-01 elkarrizketa, bukaeran.

...Neretzako oso zerrenda ona izan zan, batez ere hurrengo lau urtetan egin zana ikusita, oso ondo aukeratutako jendea genuen, esaterako Felix Altuna, lebedik esperientzia zeukana eta gero bidea zein izan behar zen erakutsi ziguna, Agustin Apaolaza ere aukeratu genuen, esperientzia ez baina bere bizkortasuna eta buru azkartasunagatik, oso errez egokitu zana, [Jose] Casco, Joxe Mari Martinez... azkenian oso zerrenda interesgarria egin genuen eta topatu giñan sekulako boto pila atera genituela, bapatian topatu nitzan Hernaniko alkate nitzala...⁸²

1980an Hernanin
hil zituztenen
omenez ateratako
pegatina.

HERRIAK EZ DU AHAZTUKO



ECHEVARRIA Y D. LUIS M^a ELIZONDO ARRIETA, EL DIA 7 DE SEPTIEMBRE DE 1.980, EN LA VILLA DE HERNANI.

El Ayuntamiento de Hernani ante los últimos acontecimientos terroristas acaecidos en Euskal Herria, asesinatos de Angel Etzaniz en Ondárroa, Echeveste en Irún, Aurelia Jimenez en Cortes de Navarra, Luis Quintana en Bilbao y el repentino fallecimiento de José España en las dependencias de la Dirección General de Seguridad de Madrid y específicamente los asesinatos de los dos hijos de Hernani, Luis M^a Elizondo y Miguel M^a Arbelaiz; todos ellos por miembros de la Guardia Civil, Policía Nacional y grupos terroristas de extrema derecha, mani fiesta lo siguiente:

⁸² Ibid.

1º.- Condenar enérgicamente los asesinatos arriba citados, los cuáles demuestran el incremento del terrorismo institucional y el carácter complementario de la represión oficial y paraoficial que la oligarquía española desarrolla sin tregua en el Estado Español y es pecíficamente en Euskal Herria, exigiendo que se esclarezcan los hechos y castigue a los culpables.

2º.- Denunciar la sospechosa actuación de la Guardia Civil de Hernani a raíz del asesinato de Luis M^a Elizondo y Miguel M^a Arbelaiz. Los dos abertzales hernaniarras fueron asesinados a menos de 500 metro del Cuartel de la Guardia Civil, los cuales después de recibida la notificación por parte de la Policía Municipal, tardaron más de una hora en presentarse en el lugar de los hechos. Y lejos de llevar a cabo las diligencias y medidas que en otras ocasiones adoptan, los controles de carretera los pusieron a las 10 horas del atentado y exclusivamente con el fin de impedir la entrada a Hernani de las numerosas personas que deseaban manifestar su solidaridad.

3º.- Exigir la retirada de las fuerzas de ocupación del Estado Español en Euskal Herria.

4º.- Poner en conocimiento del pueblo de Hernani, que dada la falta de competencias de este Ayuntamiento en materia de Orden Público y la inhibición que por parte de otras instituciones y poderes se dá ante la actuación de bandas fascistas y parapoliciales, sólo una toma de postura frente a las mismas por parte del Pueblo podrá evitar futuras actuaciones de estas bandas.

5º.- Apoyar las movilizaciones que en solidaridad y protesta por los asesinatos de Luis Mari y Miguel Mari se desarrollen en nuestro pueblo.

6º.- Expresar nuestra condolencia a los familiares de los hernaniarras asesinados.

Hernani, 8 de Septiembre de 1980,



BOMBAS EN HERNANI, RENTERIA Y BILBAO

Tres artefactos explosivos estallaron en la madrugada de ayer en el País Vasco. El primero se produjo en las inmediaciones del Ayuntamiento de Rentería, causando numerosos desperfectos, tanto en el Ayuntamiento como en las viviendas próximas.

Hacia las cuatro de la madrugada se producía una segunda explosión de similares características en el Ayuntamiento de Hernani. El artefacto había sido colocado junto a una puerta que da acceso a unos servicios municipales. Ambos ayuntamientos tienen alcalde de Herri Batasuna.

En Bilbao, en el número 34 de la calle Ercilla, hizo explosión otro artefacto de dos kilos

Página 3.

1979an Hernaniko Udal zerbitzuei jarritako bonbaren notizia, Diario Vascon.

Udal gobernu honek egindako gauzen artean aurki ditzakegu: Zaharren Egoitza eta kiroldegia eraikitzea, anbulatorioa handitzea, uren ekarrera, auzoen urbanizazioak. Baina dena ez zen ona izan, eragozpen ugari jasan behar izan zituzten, diru aldetik edo administrazio aldetik baino gehiago, politika aldetik. Esaterako, 1982ko ekainean udaleko zenbait kide atxilotu zituen poliziak, gero aske geratu baziren ere. Carrero lantegi zaharrean zeuden ijitoen afera ere oso azpimarragarria da, polemika handia sortu baitzen hauen inguruan.

Lehenengo udal gobernu demokratikoa 1979an hasi eta 1983an bukatu zen. 80. hamarkadan aldaketa gehiago gertatu ziren, politika, gizarte edo ekonomia aldetik, baita kultur arloan ere, noski. 60. hamarkadan belaunaldi batek iraultza bati hasiera eman zion eta iraultza horren testigantza beste belaunaldi batek hartu zuen 80.ean; testuingurua jadanik ezberdina zen ordea eta belaunaldi berri honen jarduerak, pentsamoldeak eta bizipenak ezberdinak izan ziren.

Hernaniko alkateak (1930-1983)

<i>Alkatea</i>	<i>Epea</i>
Julio UBARRECHENA IRAOLA	1930/04/29 - 1933/01/26
Pedro LUJANBIO BELDARRAIN	1933/01/26 - 1933/05/10
Miguel TOLEDO ALBERDI	1933/05/10 - 1934/09/07
Jose M ^a PUIG VILLAR	1934/11/08 - 1936/11/15
Miguel TOLEDO ALBERDI	1936/02/22 - 1936/09/15
Bernabe ARMENDARIZ BATTU	1936/09/15 - 1936/09/30
Pablo MORENCOS*	1936/09/30 - 1937/01/31
Julian MADINA MUÑOAGA	1937/01/31 - 1937/03/16
Teodoro ZARAGUETA ABALABIDE	1937/03/16 - 1939/07/21
Ricardo REZOLA BERRONDO	1939/07/22 - 1940/08/09
Jose M ^a MENDIA RUIZ DE ARCAUTE	1940/08/09 - 1942/01/14
Ricardo REZOLA BERRONDO	1942/01/14 - 1943/05/26
Jose M ^a PUIG VILLAR	1943/06/09 - 1949/04/05
Luis AZCUE	1949/04/05 - 1954/08/09
Tiburcio AGUIRRE ZUMALAKARREGI	1954/08/09 - 1966/10/14
Fermin ALTUNA AGUIRRESAROBE	1966/10/14 - 1976/02/01
Ignacio IRUIN IZAGUIRRE	1976/01/31 - 1979/04/20
Juan Jose URIA ZUBIARRAIN	1979/04/20 - 1983/05/20

* Pablo Morencos ordezkaturaz Julian Madina egon zen tarte horretan, gero azken hau alkate ofizial izendatu zuten.

Iturria: Hernaniko Udal Artxiboa.

ERANSKINAK

Elkarrizketen fitxa teknikoak

ÁGIRRE ZUMALAKARREGI, Tiburtzio

ZBK.: 2002-TAZ-01(01), 2002-TAZ-01(02)

DATUAK: 1919ko abuztuaren 11ean jaioa. Udaletxeko idazkaria eta alkate-ohia.

ALDASORO ARTOLA, Felix

ZBK.: 2002-FAA-01

DATUAK: 1921eko martxoaren 7an jaioa. Dendaria.

CLEMENTE LOZARES, Miren

ZBK.: 2002-MCL-01

DATUAK: 1943ko azaroaren 16an jaioa Tolosan. Zikuñagako paper lantegiko eta Gomaitex-eko langilea, Langile ikastolako langilea.

EGAÑA ARANBURU, Anttoni

ZBK.: 2002-AEA-01

DATUAK: 1917ko abenduaren 26an jaioa. Ostalaria.

EGIGUREN REKALDE, Ixiar

ZBK.: 2002-IER-01

DATUAK: 1945eko abuztuaren 3an jaioa. Irakaslea.

EGIGUREN REKALDE, Rafa

ZBK.: 2002-RER-01

DATUAK: 1948ko urriaren 10ean jaioa. Irakaslea, idazlea eta euskara teknikaria.

ELIZONDO ARRUTI, Joxe

ZBK.: 2002-JEA-01

DATUAK: 1954ko uztailaren 22an jaioa Astigarragan. Elektrizista eta aholkulari sindikala.

GOIA ZUBIRI, Josebe

ZBK.: 2002-JGZ-01/02

DATUAK: 1920ko maiatzaren 20an jaioa. Carrero ehun lantegiko langilea.

GOIKOETXEA LARBURU, Juan

ZBK.: 1934ko maiatzaren 19an jaioa. Baserritarra eta sagardogilea.

GOIKOETXEA ORMAZABAL, Roxarito

ZBK.: 2002-RGO-01

DATUAK: 1929ko ekainaren 27an jaioa. Eziago paper lantegiko langilea.

GORROTXATEGI MIRANDA, Luis

ZBK.: 2002-LGM-01/02

DATUAK: 1914ko abuztuaren 25ean jaioa. Harakina eta sagardogilea.

IRUIN IZAGIRRE, Inazio

ZBK.: 2002-III-01

DATUAK: 1920ko azaroaren 26an jaioa. Kudeatzailea eta Hernaniko alkate-ohia.

LABURU, ILLARAMENDI, Joxe

ZBK.: 200-JLI-01

DATUAK: 1921eko maiatzaren 3an jaioa. Enpresaria.

LARRETXEA GOÑI, Imanol

ZBK.: 2002-ILG-01

DATUAK: 1932ko irailaren 21ean jaioa. Zikuñaga paper lantegiko langilea.

MARTIN SAN MIGUEL, Bernardo

ZBK.: 2002-BMS-01

DATUAK: 1917ko martxoaren 12an jaioa Medina del Campon (Valladolid).
Royalta, Baldosilla eta Remy lantegietan lan egindakoa.

NUÑEZ CENTENO, María

ZBK.: 2002-MNC-01

DATUAK: 1938ko otsailaren 2an jaioa Zalamea de la Serenan (Badajoz). Remy
lantegiko langilea

OGANDO OIARBIDE, Begoña

ZBK.: 2002-BOO-01

DATUAK: 1950eko otsailaren 6an jaioa. Irakaslea.

OLANO GARAIAR, Manoli

ZBK.: 2002-MOG-01

DATUAK: 1919ko apirilaren 21ean jaioa. Remy almidoi lantegiko langilea.

OTAMENDI ARRIETA, Gregori

ZBK.: 2002-GIOA-01

DATUAK: 1916ko abuztuaren 18an jaioa. Neskame.

OTAMENDI ARRIETA, Iñaxi

ZBK.: 2002-GIOA-01

DATUAK: 1918ko abuztuaren 16an jaioa. Zikuñagako lantegiko langilea.

URIA ZUBIARRAIN, Juan Jose

ZBK.: 2002-JUZ-01

DATUAK: 1952an jaioa. Enpresa kudeatzailea eta Hernaniko alkate-ohia.

UZKUDUN ILLARAMENDI, Jesus

ZBK.: 2002-JUI-01

DATUAK: 1949ko maiatzaren 26an jaioa. Zikuñaga eta Orbegozoko langilea. Sindikalista.

VILLAR ELIZALDE, Jorge

ZBK.: 2002-JVE-01

DATUAK: 1899ko azaroaren 2an jaioa. Fundizio lantegietako langilea eta Hernaniko aguazila.

ZABALETA ARANBURU, Bittor

ZBK.: 2002-BZA-01

DATUAK: 1923ko martxoaren 23an jaioa. Schroeder lantegiko langilea.

ZIGARAN ARRIETA, Manoli

ZBK.: 2002-MZA-01/02

DATUAK: 1916ko uztailaren 1ean jaioa. Ostalaria.

ZUBELDIA MUJIKA, Iñaxio Mari

ZBK.: 2002-IZM-01

DATUAK: 1937ko maiatzaren 22an jaioa. Lantegian eta arrantzan ibilia.

OHARRAK*

- * Orripeko ohar hauetan, elkarrizketen klabeak ipintzen dira (adib.: 2002-JGZ-01 elkarrizketa, erdialdean). Klabe hauek liburu honen bukareran eranstean diren fitxa teknikoetan aurki daitezke eta esanahi hau daukate: Elkarrizketa egindako urtea, berri emalearen izen-abizenen inisialak, elkarrizketa zenbakia eta informazioa elkarrizketa horretan non kokatzen den.

AURKIBIDEA

Atarikoa	5
Sarrera.....	7
I Gerra aurea (1931-1936)	
1.1.- II. Errepublika, giro politikoa eta gizarte gatazka	13
1.2.- Gerra aurreko hernaniar gizartea (1920-1936)	31
II Gerra eta Gerra ostea (1936-1945)	
2.1.- Gerra Zibilaren bilakaera Hernanin.....	81
2.2.- Gerra osteko urte ilunak	107
III Frankismoa bete-betean (1945-1964)	
3.1.- Euskara, eskolak eta dotrina frankista	133
3.2.- Sustrai nonbaitetik hartu beharra.....	143
3.3.- Industri hazkundera eta inmigrazioa	155
IV Euskal berpizkundera eta trantsizioa (1960-1981)	
4.1.- Euskal berpizkundera: Iraultzaren hastapenak (1960-1968)	163
4.2.- Trantsizio politikoa: diktaduraren ezabapena	178
Eranskinak	211

Hernaniko historia txiki honen oinarrian hogeita zazpi herritarren kontakizunak daude. Berriemaile hauen ahotik jaso ditu Urko gazteak herri honen gorabeherak, bizitzeko moduak, ohiturak, jolasak, une latzak eta pozgarriak.

Gure eskerrik beroena Hernani hobetoxeago ezagutzen lagundu diguten hauei guztiei:

AGIRRE ZUMALAKARREGI, Tiburtzio
ALDASORO ARTOLA, Felixa
CLEMENTE LOZARES, Miren
EGAÑA ARANBURU, Anttoni
EGIGUREN REKALDE, Ixiar
EGIGUREN REKALDE, Rafa
ELIZONDO ARRUTI, Joxe
GOIA ZUBIRI, Josebe
GOIKOETXEA LARBURU, Juan
GOIKOETXEA ORMAZABAL, Roxarito
GORROTXATEGI MIRANDA, Luis
IRUIN IZAGIRRE, Inazio
LABURU ILLARRAMENDI, Joxe
LARRETXEA GOÑI, Imanol
MARTIN SAN MIGUEL, Bernardo
NUÑEZ CENTENO, María
OGANDO OIARBIDE, Begoña
OLANO GARAIAR, Manoli
OTAMENDI ARRIETA, Gregori
OTAMENDI ARRIETA, Iñaxi
URIA ZUBIARRAIN, Juan Jose
UZKUDUN ILLARRAMENDI, Jesus
VILLAR ELIZALDE, Jorge
VILLAR ZABALA, Sabina
ZABALETA ARANBURU, Bittor
ZIGARAN ARRIETA, Manoli
ZUBELDIA MUJIKA, Iñaxio Mari

